

JIXENAGUSA

IUSKAL
DAZLEEN
FORATEGI



OLUZKERAZ



Euskal Biblioteka Labayru




1010889
LITERATURA / N. 240
v.2

D-20-3

LEN/69

Braintan ordi eder emon zem
dezan, "unne" an agitara starteh.
Milla ster, boko-bokos, ... eta
starti gune araba sarren istante
keti gaeteh!

KaruhBosaapn't



Karmelo Etxenagusia Uribe

Euskal Heraztegia

Lorelegia

[itzazu]



II
GIPUZKERAZ
Dariobilbo'ko Seminarioan 1967

— BERBATXU BI AURRETIK —

Abadegei euskera-ikasle ori:

Ba dira urte bi onak, neure lenengo LORATEGIA (Bizkai-erazko prosista euskaldunena) eskeiñi neutsuna... Barriro nayatortzu gaur bigarren onegaz: lengoa osotuteko, Gipuzkeraz itz lauz idatzi daben autoreak dakartsudaz oraingo onetan. Danetarikoak dozuz: lengoak eta oraingoak, ildakoak eta biziak, jokera batekoak eta bestekoak (edo-ta bien bitartekoak...). Ba dago, bai, nun aukeratu! Ta or gabiz gero gu zer ori zabaltzen: euskeraz ez daukagula liburu-modurik! Bear bada, ezin geinteket, ez, arrotu inguruko errien aurrean; baiña, gure betiko egoera negargarri ta larrria gogoan izanik, Estan lotsaturik ba ete daukagu?

Zelako asmoz nabillen? Ara: zu lango gazte burujantzi batek, erbesteko literatura ez eze, geure-geurea dogun euskerazko be sakon ezagutu bear leuke; ta ezagutu bere, ez gero edozelan, ur-urretik baiño: au da, idazlerik onenak irakurriaz eta euron idaztietan aztertuaz... Baiña, zer jazotén da geienetan, zoritzarreñ? Batetik, liburu egokirik ez (batzuk, agortuta dagoz, eta beste asko, gogor eta illun egiten jakuz, iñungo laguntasunik ez-eta); bestetik, ostera, salgai dagozan liburuak zeureganatzeko edo irakurtzeko, asti andirik ez, eta dirua bera be, aren baten, urriegi... Ori dala-ta, onetarakoxe egin dot bigarren bilduma au: zuri gauzak errezagorri jarri ta zure biotz gaztean euskal-elertiaren egarri biziagoa sortu gurean. Lengoan baiño batasun geiago aurkituko dozulakoan nago; gauza barriren bat be bai: sarrerak, euskera utsean; iztegitxua, era bitakoan batak, sarri be sarri erabilten diran itz batzuen esanaia dakar (gipuzkerazko liburuak irakurtzeko, bear-bearrezko dozu orko itzik geienak buruz jakitea); bestek, itzik zaillenen esangurea damotsu, berbok orrialde bakotxean agertu-ala...

Lorategi au - ez aztu! - idazleena da; "Lorategi" izena baiño obeto jatorko, aren baten, "bilduma" izena, baiña lengoari ezarritako izen berbera erabilli dot oraingoan be... Idazle asko sartu nai izan ditut, euskal-literaturaren kondaira obeto ezagutu dai-zun. Aukeratutako zatiok edo atalok ez jatzuz beti ain ederrak irudituko, edertasun u-tsaren billa bazabiltz; baiña onetarakoxe lagunduko deutsue, beiñipein: Gipuzkerazko maixurik garaienak zelan idatzi ta idazten daben ikusteko; orrezaz ganera, orrialdeok, arretaz irakurri ezkero, gai jakingarri asko erakutsiko deutsue, zeure burua aberastuteko. Gure Elertiaren zatirik bikaiñenak bakarrik aukeratzekotan, ez nituzan, ez, onen-bestea autore sartuko; ta asko sartu baditut be, auxe izan dot - garbi diñotsut - neure burukomíñik txarrena: zein baztertu? Neure gogoz, pozik be pozik sartuko nebazan (merediztu be ba dabe-ta) beste euskal prosista asko, bai zaarrak, bai gaur egunekoak; baiña liburu onek bere neurria bear, eta guztientzako lekurik ez! (1). Urrengu au be garbi itxi gura dot: emen agertzen dirala-ta, ez uste izan idazle guztiok neure gogo beteko direanik, ezta beti idazlerik onen-onenak be; baiña danetik emon gura izan deutsut, era guztietakoak, danon barri izan daizun, eta gero zeuretzat onenak zeuk aukeratu daizuzan; bere eretxia ikasleai ezartea, ez deritxot erakusle edo maixu baten eginbearra danik...

Onelango liburu bat egiteko - geroago ta argiago ikusi dot au - gizontxu

1) Bilduma onetan alde batera itxi ditut, sartu barik, olerki, bertso ta teatro-lanak..

baten indarrak eta alegiñik bizienak ez naiko: talde alkartu baten lana izan bear leuke onek (orregaitik, betor lenbaitlen Euskaltzaindiak agindutako "Euskal Idazle Zaharren Lorategia", Juan San Martin beargiñ sutsuaren ardurapean egitekoan dan ori); bien bitartean, zerbait egin bear, eta egin dot nik neurea: aal nebantxua, tarteka-marteka, eta pozik andienagaz... Izan dot onetarako laguntasun ederra, eta ezin emen ixildu lagunon izenik: A. Juxto Mari Mokoroa, A. Lino Akesolo, Anai B. Berriotxoa (gure "Bitáñ") eta Juan San Martin; lauroi neure "eskerrik askorik" biotze koena!

Lendik be ba doguz Antolojia eder batzuk: P. Lafitte'n "Eskualdunen Loretegia", Lehen Zathia (1645-1800); L. Villasante'n "Idazleen pusketa autatuak" eta "Euskeria" liburuari ezarri eutsana; S. Onaindia'ren "Milla Euskal Olerki Eder" (bere "Jolasketa" be antolojia-antzko da...), eta A. Irigarai jaunaren "Esbozo critico con textos de Literatura Euscara profana"; nire barri onek ez deutse ezer kentzen surreko orrei, ta eurokaz batera izango al da laguntasun barri bat gure euskal eskoletarako!

Amaituteko, auxe bakarrik opa deutsut: bide batetik edo bestetik - zeuk bidezkoena deritzazun orretatik -, baiña zeugan be izango al dabe, abadegei on ori, jarraitzaile zintzo ta jakintsu bat, Bizkaiaik emon deuskuzan abade jator ta euskaltzaleok: Mikoleta, Olaetxea, Kapahaga, Arzádun, Astarloa, Mogel osaba-lobak, Domingo Agirre, R.M. Azkue, Zamarripa, Eguzkitza, Z. Arzubiaga... ta oraindik bizi diran beste ez gitxik.

Parkatu! sermolari txarrarena jazo jat neuri be: berbatxu bi agindu... ta entzuleak lokartzeraíño luzetú.

Agur, ba, ... eta urrengorarte, Jangoikoak gura badau gura!

Karmelo Etxenagusia'k.

&&&&&

&&&&&

&&&&&&

&&&&&

&&&&

"BAÑA NIK, IZKUNTZA LARREKOAN,
nai aunat ere noranaikoa:
jakite-egoek igoa;
soña zár, beñi gogoa;
azal orizta, muin betirakoa..." (X. LIZARDI)

"Siñis-nazazu: ereille gaiztoetan dago azaro txarra, eta gero uztar soilla ta utsa. Alabañan gutzik daki bere jayeterriko euskeraren érdia, eta alperrak dira den bezala, ez dute ikasi nai geiago, ta eztie nai beren buruai atsekaberik eman. Baña onetatik zer gertatzen da? Dakiten piska arekin, itzmoltso eskumen baten diña eztan-arekin, nola eziñ adierazo dituzten beren esakariak, badarasate pulpituan itzera naasi bat, beiñ erdera, beiñ latiñera, guzia lerdatua, zikindua, barraustua, zéñean dirudien igo dirala gaiñ artara entzule guzien burla egitera: ta arritu oi naiz, nola asko ta asko, bultzaka, ordu gaistoan ayentzat, botatze eztituzten andikan bera..." (A. LARRAMENDI).

"... haur da nik nahi nukeien gauzeturik bat, ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia, bertze enseiu hobeago baten egitera eta ehe emer go falten ere erremediatzera. Zeren halatan, ez lizateke euskara hain labur, eskas etaz ez hertsia, nola munduñik usta baitu, eta baitaduka, dela." (A. X. U. LAR)

=.- MANUEL LARRAMENDI -.

(Andoain, 1690 - Loyola, 1766)

Jesús en Lagundikoa. Filosofia ta Teologia Irakasle Salamanca'ko Universidadean; Erregiñearen autor-entzule Madrill'en... Edomein alderditik begiratuta, bai gizon andi agertzen dala A. Larramendi! Ara alderdi batzuk:

a) Euskalzaletasunaren esnatzaille ta eragille: "Arengandik etorri da Gipuzkoa'ra literatura, ez urria ere. Larramendi k eman zion biotz eta kemen Oyartzuar Mendiburu ospetsuari, baita beste bere anai Kardaberaz'i ere. Lardizabal, Arrue, ta abar ta abar, zer edo zeren zordun zaizkio A. Manuel'i. ¿Ta nor ez Gipuzkoan naiz Bizkaia'n oraintsu arte?" (ORIXE). Zor ori ao batez autortuko dabe gero bere ikasle guztiak...

b) Euskalerria ta Euskeraren aldeko Apologista edo burrukalari sutsu ta umoretsua (zorrotza ta gordiña be bai!): ba egoen orren premiña, baiña berera urrutiegi joan zan: ortan erre eban boze bizitzarik geiena: "Bigarren idazle mordo onen izaera ta aiurria Larramendi'rena berarena da: euskeraren aldeka edo apologia. Euskera gora, euskera bera, euskera alako edo olaiko, gure iraintzaleen buruzki. Eliz-literatura lekutzen ba dugu, gainerako guzia ortan ari dela dirudi... Literatura-mordo onen ilunbea edo itzala-beintzat au da: alor edo landa medarregia artu du idazgaitako... Gaizki-esaleen burrukapean beti ari izan garala ematen du, ta beraz euskera an, Euskeria emen, Euskalerria andik, Euskalerria emendik. Erdaltasunetik eta erdal-keritik aldegitea du xede idazle mordo onek..." (ORIXE).

c) Euskal idazlea: lanik geienak erderaz egin zituan Larramendi k, eta erderaz ederranean egin be, gero! Baiña itxi deuskun euskerak apurrak garbi erakusten deusku gure izkuntzan be maixu zala. "Mingarria da Larramendi euskeraz geiago ez idatzi izaitea... Erderaz iarduki zuena euskeraz iardukitzen alegin balu J. Etxeberri bezala, euskerak indar aundiago artuko zuen bear ba da..." (ORIXE).

Liburuak: 1) "De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España.", 1728; 2) "El Imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada.", 1729: euskal gramatica, benetan ona. 3) "Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin", 2 v., 1745: Iztegi andi au, euskeraren edertasunak agertzearen egin eban, batez be, eta itsasko berberak asmaturikoak dira; orregatik, medede ta kalte biak batera egin ditu gerora badezpadako Iztegi onek... 4) "Corografía o descripción general de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa" (leñengoz, A. Fita k argitaratu eban 1882 gnean.; gero, 1950 gno., Buenos Aires'ko Edit. EKIN'ek): liburu atsegina zoragarria.

Euskerazko lanak: 1) Aita Mendiburu'ren "Jesusen Eihotzaren Devozioari" egindako Itzaurre luze daederra; 2) San Agustiñen Itzaldi bat.; 3) Iztegian eta Corografia'n sartzen dituan euskerazko zatitxo batzuk...

GIPUZKOAKO ANDIKI TA JAUNTXOEN AURKA : "Déjeme ahora zumbarme algo con otros" "andiquis" y "jauchchos" de Gipúzcoa, si no con todos; con algunos de ellos; pero no nos entenderán otros: "Emen ere Zuek Gaztelaen erara hitzegin bear. Egoki, alafede; noiz andikitu, noiz jauntxotu zeráte? Atzodanik noski, orañagotik, ez txit antxiñatik. Galde besteri, edo, nai badezue, niri. Kantatu dida onelako bat, Indietan det senarra, dirua franko duena. Kanta ezaue Zuek bestela. Indietan det osaba. Joan zitzatan antziña, ta andik ona egina nago Jauntxo guziak adiña.

On dekizuñela, estaro hor kalterik, ez juzku gaistorik. Ezkonduko dezue alaba

bakar hori tratari aberats batekin? - "Bai guk, eta pozik". - "Ondo da, ez nago-tzue Zuei." - "Ez, ordea, guk", diote beste andiki ergel txoraiska batzuek; "ez gure etxeen trattalaririk; ez, Indietako kutsurik."

Adiskideak! Gipuztarra dezute trattaria, ez erbestekoa. Bai nai badik. Zuek beain odola garbia duena, eta are, bear bada, garbiagoa? Bai nai badu. Bere agiria Zuek baño lenago egin zuena. Bai nai badu.

Zer ditzute, kropotzak, buru ariñak, zer darauskiozute? Artzen badet aitzurra, ta hori geiegi da; artzen badet jorratxiki bat, bigarren zotalean agertuko dezutet ez trattari ere, ez nekazari ere, baita argin, arotz, olagizon, dendari, okin, sango saltzalle, ikazkin, zuen etxeetan jaiosak, aziak, eta biziak.

Gipuzkoan hizkunde horiek? eta, alegia, Gaztelan aditzen zaiotela, e ta emen ez dakigula odol onaren berri. Ier eztagizutela, merezi badezute ere. Utzi, utzi, Gaztelako hitzera txoralda horri: Mairu kutsu, judu kirats, belts eta billau usai geiegi dabil erri horietan. Oar zaitezte, etxeen, Gipuzkoan dezutela, inora joan bage, erbestean arkituko ez dezuten garbitasuna. Eta hañ(?) onela dala obe dezute alaba txukun hori ezkondu emengo trattari aberats batekin ezen, ez Gaztelako eta erbesteko aise, zagi galbardun askorekin. Ez ni salatu, ta orain agur."

(COROGRAFIA..., Edit. Vasca "Ekin", B. Aires, 1950, 164-5)

EUSKALDUN ASKOK, EUSKALZALETAZUN GITXI: "Eztakit zer esain dizutedan. Aspaldi nabil nola Euskal Erriak edertu ta jasoko ditudan. Bost gau illun, eta bost egun argi igaroak ditut egiteko onetan; baita gure euskera, izkuntza guzien zarrena, aien garai nola ezarriko dedan.

Baña ez sinistekoa zer gertatzen zatan. Batzuek diote, bestelako lan txarretan nabillela. Ezta ezer, oiek jakiniezak dirade, zer darauskiont ere eztakitenak.

Besteak, obeto nukeala itxeki beargai goragoren ta ederragoren bati. Ezta auzi: oiek alperpotzak dira berok, ez gorago, ez berago dan lanik ukitu ere nai eztuteneak. El akio, itzontzia, beargai txar diokan orri, ta are ni itxatxiko natxeek prestua-guari. Ainbeste urtean nabill ezagutu naiez gure izkuntza miragarriaren txitezkoak, ta etzeatiek oraindikan osoro ezagutu; ain dek beargai au andi larria. Eta lótsatzen ez aiz eta i ta ire lagun oroitxaz oiek lan txarra deitzea lanik gaitzen ta latzen ari?

I ta ire ballerakoak besterik ezpaliz mendarte oietan, euskeraren saietsetik euskaldunak galduak, baita ondatuak ere, gindukek, erdaldunen bekaitzez, ezin eku-siaz ta juzku gaitzoz. Baldin elkar artzen bagendu guziok, nor bere sallari ditxekala, Frantzian ikaratuko gintuke frantziar guziak, eta Espanian españiar guziak. Non da, ordea, elkartea ori? Nagoan isilllik. Nere min garratzenamda, are, eztakuzkula onetatik darraizkun kalteak eta gaitzak, eta dirudienez, ezagutuko ere eztitugula, ditugun on piskak galdu ditzagun artean."

(COROGRAFIA..., 320-1)

(MAYANS en AURKA, EUSKERAREN ALDE): " Euskaldunai osasuna. Uste deu gure urlia (a-ditzen nazue, nori nagokan; begira, ez ni salatu) badakiela dana, ta datakean guzia, onako Latinezko zerrenda batzuek irabiatu dituelako. Aiñ arro dabill, aiñ da bere-buru, aiñ berez, ta bere buruz betea, ta uanditu-a(sic) dago, non dirudien, iñor ere eztaukala ezertan, naiz dala aundi, naiz txiki.

Euskara da, gaitzik egin balio bezala, aren erabea, eta sayetsetik Euskaldunak ere bai. Itsuen gisa jo ezak emen, jo ezak or, bere ustez zeatzen, zatitzen, banatzen deu gure Hizkuntza eder, guri, gozoa.

Iñarrusi bear genduke guziok hizjario erausle motel au, ta onen lagun irurazayak. Ondo balegokit, nik astinduko nuke, nik beeratuko nioke bere andiustea, ta bere gal-

dor kiskur luzea. Niri eztagokidanean, beste Euskaldunen batek itxeki bear lioke saill oni, iñon diraden etsai hitz-ontziak isiltzeko. Baña ez bide dau Euskera gaisoak, are bere etxapean, ez seme, ez adiskide, biotz onez nai dionik; ta argatikan daude guziak aiñ geldi; aiñ isill; eskuak tolesturik, naiz beztu ta itxuzkitu dezatela, naiz darabiltela oñen azpian.

Badarauskio, bada, gure sandiari, ezen eguzkiaren jayet-aldean diraden hizkerak dakitzan batek, erraz adituko duela Euskeraz; ta gezurtxo batekin hori sinistrazo nai izandu digu.

Uztak arren onela nagokiän. Len amakia egin diguk gure hizkuntza, ta órain alabakia; bein txuri, ta gero beltz: noiz utziko dek buru-koloka farragarri hori? Edo bata esan bear dek, edo bestea: eta esanari el akio, zabuan ibilli bage.

Ona non dituan Euskerazko hitzak naroro: nai badek, oa, ta eguzkia sortzen dan aldetik erakare nai deana. Esayok, begira ditzala hirekin batean, naiz aurkez, naiz atzez, goitik, betik, zearka,edo zuzenka: eztik berdin idoroko bere erriko hitzen antza deuanik, ta are gitxiago igerriko, itsuka bada ere, zer esan nai deuan.

Eztanda badagik ere, gure Euskera ederra lembiziko hizkuntzetatik dek, arako Jainkoak maneatu eta isuri zituen ayetatik, ez beste hizkundeen naspillatik sortua. Euskera dek Espanian lenengo sartu zana, eta aren bazter guzietan era batean, ta lizaro txit, hitzegin zana. Zartu dek, atsotu dek (eztek hitz au Erderaz esango); ainbeste urteren epean atsotu bear: baña itxok, oraindikan bizkorra zeagok, gaztetzera zeak, bazeakik bere burua txukunkiro edertzen, galantzen, apaintzen.

Eztezala beraz uste, hire esan mesanazkin, hire lotsageriakin ikaratuta txokoratuko deala Euskera.


Utzi diozagun Mayans'i, jakiundeko mayan janari onik ifinten eztigunari, ezpada lapiko ustel bat, arbiz, azaz, txongoz, birikakiz, hitz batean, zadura baduraz betea.

(DICCIONARIO TRILINGUE..., t. I, Prólogo, CCIV)

SAN AGUSTIÑ-en DOANDITZA 'tik zatitxu bat: "... Beraz egia ez da San Agustín dala geyentzat eta guzien argi. Bada, ordea. Nik azalduko det nola; eta korapilloz zeiñ-ere dirudien estu, nik epaki-gabe askatu det; eta erraz ala-ere. Beti iduritu zait gure Aita San Agustiñ dala, argi-itxaso zabal andi bat bezelakoa, eta izen onetxek emango digu bear deguna. Gauza jakiña da zer suertatzen zayoten itxaso zabalean dabiltzanai. Ontzi bat díjoa alde batetik, eta bestea bestetik; au dabill eguaren kontra, ori iparraren kontra dabill; orain igotzen dira eguzkiaren jayotzarontz, gero eguzkiaren illtzerontz; jaisten dira batean eskuin, bestean ezker. Bide oriek kontratzentz dirade; ez dira ausi; ongi dijoaz; zuzen dabill-tza; zergatik itxasoak bere barrutian, geyago badira ere, badu guziak artzeko bear-diña ur, bear-diña bide, bear dan, ta are bear dan baño geyago.

Auxé bera, bada, gertatzen zaye, San Agustiñ-en argiari darraizkan eskolai. San Agustiñ da argi-itxaso zabal, zeñean sartzen diran eskola guziak, ta aixa ta lassai kabitzen dira; kontratzentz dirala noizean beñ beren bideetan badirurite ere; baña argi-itxasotik kamporatu gabe! Tomistak eskui aldetik, ezkerretik Eskotistik, Jesuitak erditik bideratzen dira; guziok jakinduriaren billa; guziok egiazen eske. Bijoaz zuzen argi-itxaso onetan dabiltsan artean, lema zuzen badaramate, ez dira galduko, ezda ondatuko-ere..." (PANEGIRICO DEL GRAN DOCTOR DE LA IGLESIA SAN AGUSTIN..., 1885, p. 10).

"...su panegírico de San Agustín con su exuberancia, sus "calembours" y sus paradojas es un magnífico aparato de pirotecnia verbal quemado brillantemente desde el púlpito en un día de gran solemnidad..." : L. Mitxelena, HLV, p. 98)



A. Agustin C A R D A B E R A Z, S.I.

(Hernai, 1703 - Castelo de S.Juan, Italia, 1770)

A. Larramendi ri zor deutso Kardaberaz'ek bere euskalzaletasuna. Euskalerri guztian ibillia dogu, mixiolari: orrela beregandu aal izan eban euskalki geienen ezagura... Liburu ta idaztiño asko idatzi zituzan, erlejiño-gaiak erabiliaz (bat bizkaieraz be bai); ezagutzen ebenak santutzat euken gure A.Kardaberaz. Jaugoikoa ez ezen, Euskalerria ta Euskerea be maite-maite izan zituzan: irakurri, bestela, "Euskeraren Berri Onak" bere liburu ospetsua (Auspoa Liburutegia, n.37). Beste liburuetan arimen osasuna billatzen eban, ez izkuntzaren edertasuna: "Euskera ez du garbia, erderakeri asko, ta idatzankera ez euskalduna geienaz..." (Orixe); baiña amaikatxo esaera jator ta aberats be aurkitu zeinke A.Kardaberaz'en lanetan.

BESTE IZKUNDEEN ALDEAN EUSKARA

Noiz eta nondik edo nola gure euskera onontz etorri zan, nork daki? Zerutik, edo Jaungoikoagandik, gizonen asmazio gabe, orien gañeko gauza bezela etorri zala, Euskarak berak bere era eder ta armonia paregabean ondo seguru esaten edo adierazten du. Beste izkunde edo lengoajeak, nork daki nastu ta batera ta bestera nola ibili diran: Euskera, Jainkoak nai-ta, menditarte oietan beti nasgabe, beti garbi, beti seguru beregan gorde izandu da.

Txantxetan esan oi da, edo Euskaldunak esan oi dute, Jaungoikoak Paradisuan Adan gure Aitari euskeraz "Adan, non zera?" esan ziola. Euskera Jainkoaren gauza bezala, arako ta edozeiñ lekutarako diña bazah, Jainkoak ala nai izan balu. Baña gauza zier-toa da, Jaungoikoaren izketa; Paradisuan ta gero ere, hebreoz izandu zala. (...)

Gure euskerak bazter oietan orrelako gizaseme andien patu onik izan eztu. Baña latin ta griegoak asko-jakiñen ditxa ta gloria ori izan badute, bere modura marabilla txikiago ezta, baizik miragarritzko prodijio andiago, euskera, soll-soll, bakarrik edc nik eztakit nola, bizirik ainbeste sekuletan egon dan ta dagoen: añ berez ta beregan, añ argi ta garbi, bere erio ta arerio guzien damu gorri gaixtoan badere. Alere asko, egieki, euskera galdu da. Baña ori ezta euskeraren, ezpada euskaldunen desonra: bada oiek polikitu, apañdu ta edertu bearrean, lotsarik gabe berak beren nagitasunez itxustu, larrutu ta desegin izan dute.

Bañia gure pobretxo on askoren animak salbatzeko, EUSKERAK BURUA JASOTZEA JAINKOAK NAT DU; gure baserrieta jende prestuak dirauten artean, euskarak iraungo du. Esan oi da: cieiñ lepoa ebaki edo bizia kendu gabe, euskara ezin utzi edo kendu diteke. Jaungoikoaren borondate jakiña da, aren fede ta legeko misterio ezkutatu ta doctrina zabal-zeko bear dana, sazerdote jaunen ministerio sagraduetan, euskeraz baizik emen egin ta esan bear ez dala. Ta lengo aitzakiarik orañ edolarik ez dute askok: bada Aita Manuel Larramendik, neke gogor ta estudio esan al bañio andiagoarekin, ezin izango ta ezin egingo zana bere Artean egiñik, eziñak ta nekeak lazki garaitu zituen, ta ori ta bere iztegi edo dizionarioa, maisuak bezala, eman dizkigu. (pp. 60-1; 64-65).

II

EUSKERAREN IZKERAK EDO DIALEKTOAK

Itsuetan askok esan oi du, euskera asko dirala, edo erri bakoitzean bere euskara dala; baña zer dioten ez dakite. Ezta ori egia: euskera bat da. Euskera bat one-tan, egia da, dialekto edo izkera asko dirala. Autore grabeetan askotan irakurten det griegoan bost dialekto ziradela: Atikoa, Aelikoa, Dorikoa, Jonikoa ta Komuna edo guziena. Onela bada, Frantzian, Nafarroan, Bizkaian, Araban ta Gipuzkoan, beren izkerak, bakoitzza bere erara dira: ta ori gauza berria ezta.

Dialekto edo itzera oien gañean soseguz pentsatzen duenak gauza miragarri ta ezin ukatuko dan bat arkituko du, eta da, euskaldun bakoitzak izkera zeñ era ta armonia ederrean gordetzen duen, edo dezakean. NAFARROAN len ta oraiñ, bertako ta are geiago Frantziako libruen sokorruaz, nolerabait errazago beren izkera gorde izan da; baña, orrelako lagun gabe, alde oietan eta BIZKAIAN beren izkeran zeñ ederki iraun duten ikustea, txit arritzen nau, ta edozein admiria dezake: eta marabilla au ondo ikusi, entzun ta aditu gabe, ezin, ala fede, sinistu liteke.

Ainbeste milla anima edo gizon ta adrerekiko igaroko ogei ta ainbeste urteetan Probinzia oietan Mixioetan jardun bear izan det: eta egunero ta geiago admiratu izan nau guzietako ta, ez gutxiago, Bizkaiko itz-egiteko era ta armoniak. Besteak bezeñ ondo, ta gauzaren batzuetan bearbada obeto, izkeraren legeak an gordetzen dituzte. Guziok Señorioko, Nafarroako ta emengoa ondo bagenekei, añ ederki batean, nola bestean ta iruretan, boz, its edo berbaz usatu ta jokatuko genduke.

Gauza bi alere onen gañean zierroak dira. Bata, Bizkaitarrak berak, askok beñtzat, gure dialektoan berenean baño predikatza naiago dutela: eta Bizkaiko predikadore asko gurean predikatza oitu edo egin dirala. Besteak da, an ta emen ere, nik ez dakit nola, baña gizon geienak moldekaiz ta gogorkiago, eta andreak berenez poliki ta emekiago itzegiten dutela. Baña orregatik, ya dakus edozeñek, ala gizaseme nola emakumeetan, euskera beti bat eta berbera dala. Gisa onetan edo bestean itzegitea, ferian edo dandan erosten dan gauza ezta: bakoitzak bere dialekto edo izkerari jarraitu ondo: oitura, usu ta kostumbrea ala da, ta aurrera ere ala izango da. (Ibid., pp. 66-69)

ANDRE DONOSTIARRAREN ERRETORIKA

"(Arte gabeko edo berezko erretorika naturala nola dan, obeto erakutsiko dizute estudio ta eskola gabeko emakume bik bat Gipuzkoarra, bestea Bizkaitarra...):

Beste errekaridari asko oi dabiltsan bezala, au batetik bestera bere gauzak saltzen edo tratuan zebillen. Erri batean, ala bearrez, galai gazte batekin topatzan: eta ikusi ta ezagutu zuaneko, abegor txit gozo ta agasajo txit andiak egiten asi zitzaion: "Ai au enkontrua! Ziñia ta bedeika! Au galaia! Au joia preziatua! Auxe bai gure Donostia semea degula!" Onela beste milla edertasun gazte orri esan ziozkan.

Arako beren tratu-gauzetara eterri ziranean, orra non gure galaiak eskeñi txarreren bat egin, ta bear etzan moduren bat errekaridariari erakutsi, ta biak aserratu ziñan: ta tortilla goitik bera irauli, ta andrearen beletak jirabuelta ariñ eman, ta gaztearen kontra biurtu, besoak gerrian ifiñi ta desaire guziak esaten asi zitzaion:

"Nere jende onak, zer ikusi bear ote degu? Zer eskeñi degu au, edo nork egin di-
gu? Oni begira! au nongoa ote degu? Onen patxadari begira! Eas: ken orpoetatik, koar-
toan bosteko estanpa: ken gure begietatik: ez guri beñtzat aorrelakorik. Au nor degu?
Gu español puru-puruak. Au nongoa dan ez dakigu. Gure aita ta ama frantsezak ziran:
baña gu español garbiak, San Bizeneko Pontean bateatuak. Jende onak: au zer degu?
Ken ortik! Ai au kontua! Deabruak ikusi du golillarekin astoa."

Eta onela beste gauza asko, edo aora zetozkionak ausardia andiarekin esan, eta galai ori lotsaturik utzi zuen: eta estudiantea bazan ere, bere legeak eta erretorika andrearenak ondatu ziozkan, ta bereak eta geiago aditu, ta geiagoren bildurak ixillinkides egin-erazo zion. (Ibid., pp. 102-103)

AITA LARRAMENDI

Gaberdi illun batean ta arantzaz alde guztietatik beterikako bide batean bezala, euskara edo euskaldunak zebiltzan: ta A. Larramendi, berari bakarrik zegokion ausardi justuaz, beargai edo irteiziñ onetan sartu zan... (Ibid., pp.111)

-- Sebastián de M E N D I B U R U --

(Oyarzun, 1708 - Bolonia, 1782)

"Euskal-idazlerik oberena au uste dute zenbaitek, eta Cicero euskalduna izena ipini diote. Axular'en ondo-ondoan beintzat tokia merezzi du. Euskeria garbiagoa du Oyartzua fak Urdazubia-fak bainoñ ez orde ugariagoa... Euskeraren garbitzen orainotsu ez da Mendiburu'k adina alegin dueñik...". (ORIXE).- Euskeria sakon ikasi eban, eta sermolari ospetsua be izan zan, batez be Naparroako errietan: Mendiburu'n euskeria Naparroa-garaikoa da, batez be (semez, be, oyartzuarra zan-eta...).

Bere libururik nagusienak: 1) "Jesusen Bihotzaren Debozioa" (Donostian, 1747); 2) "Jesusen Amore-Nekeei dagozten zenbait Otoitz-gai", (Pamplona, 1759-1760). Jesuitea zan.

& I.- ADITZERA EMATEN DA ZER GAUZA DEN DEBOZIOA.

Jakin-gabez zer den debozioa asko arkitzen dira, birtutez beterik zeruan sartzeko daudela uste dutenean, bekatuaren loiean sartuak. Ezta debozioa, debozioa dela askok uste dutena. Zenbaitek uste dute, debozioa dela noizean beñ barutzea. Askoren ustea da, bere otorduetan ezpada ezer ez artza, ta ordetan ere jan-edanean labur gelditzea, debozio andia dela. Maiz konfesatzen diranak, egunean Meza bat entzuten dutenak, zenbait itzezko-otoitz edo orazio esan of dituztenak, edo egunoroko Errosarioa uzten ez dutenak, debozioz urtzen daudela uste dute. Orobak uste du, marabedizzenbait, bizi-deño, edo ill-ondoan, bearrean dagoenari ematen diozkanak.

2.- Onelako gauzak egiten dituztenak, arki ditezke debozioz beterik, eta bizi-tza-on baten sartuak; baita bizitza gaiztoan ere, ta deboziorik gabe: bada debozioaren estalki ta azalak dira askotan, onak diruditzen gauzak; eta azal ta estalki utsak badira, zerurako ez dira onak, edo ez dira zeruan sartuko diran gauzetatik.

3.- Barren beroa edo aserreá dadukanaren baruak, birtutearen estalki edo azalak dira; baña azal edo estalki utsak. Lagunaren bizitza ta lanak itzez ta murmurazioz zikintzen ari danaren jan-edan laburrak, iduri oneko gauzak dira, baña debozio garbiarekin ekustekorik ez duten gauzak... Nai adiña gauz-on zuk egiñagatik, oarturik bizi ezpazera, oroitzapen lizunen, begiratze arin, bear eztiran sartu-ateratze, danza, jostatze ta onelako gauzen artean; bekatuaren katez lotua dadukazu biotza, edo kate orien billa zabilta. Zer-nai emanagatik bearrean dagoanari, ematen ezpadiozu berea bakoitzari, ta Jainkoari zor diozun amoreoa, bizi bearko dézu beti, dezun debozioagatik, erre ta urturik enfernuaren erdian.

4.- Ezta bada ez, bear den debozioa, itsura edo arpegi oneko edozein gauza egitea. Arpegiko larri edo prinz ederra erakusten duten askok, barren ustel edo galdua iduki oi dute: ta debotoak diruditzen, edo iduri oneko gauzak egiten dituzten zenbait, deboziorik ez duen biotzarekin arkitzen dira; ta Ebanjekioko Fariseoa bezain utsak.

5.- Sartu zen beñ ausardi andiarekin Elizan Fariseoa; ta asi zen Jainkoari esaten: "Eskerrak zuri, nere Jaun ta Jabe andia; bada ez naiz ni beste asko ta baster artan dagoen gizon-ura bezelakoa: ez det nik seigarren mandamentua urratzen; ez diot niori berea kentzen; eta ez dut, zuzen ez dabilen gauzarik egiten: egiten ditut, bear bezala, nere amarrenak, eta bitan barutzen naiz asteoro?" Debrotzat zedukan bere burua, baña deboziorik gabeko gizatzar arrobat zen Fariseoa. Aski zela uste zuen, deboto ta Jainkoaren adiskide izateko, seigarren mandamentuaren kontrako loietik urrun ibiltzea, nori berea uztea, amarrenak egitea, ta barutzea; baña bere baruamarren, bere garbiro ta niori gaitzik egingabe bizitzeak, etzuten bere antuste ta

ta soberbiatik atera. Bere debozio guziarekin galdu zen azkenean; zeren aren debozio guzia debozio- azala zen...»

("Jesusen Biotz Maitearen Debozioa", Tolosan, 1882, pp. 1-4)

"Si praestes animae tuae concupiscentias ejus, faciet te in gaudium inimicis tuis". Eccli. 18.31.

Zere buruari egiten bədiozkatzu zuk, zure buruak edo aragi galgarriak naiko dituen atsegin loiak; baldin bazabiltza zu, datozen denboretan, zere nai makurren bidea zure pasione galgarriak eskatzen duten eran, egiñen dituzu zuk, zure etsaiak nai dituzten anitz gauza ta uts; atsegin andiak emain dieztezu zuk zere etsaiei; ta galduko zaituzte zu etsai gaistagin berak. Siñes dezakezu, bai, orain zuk aditzen didazun au; bada guzia da, Espiritu Santuak guri Eskrituraz aspaldi adirazia.

Aragiaren naikundez-naikunde bazabiltza zu, laburtuko dituzu zuk zerorrek zere bizitzako egunak, galduko dezu zuk zere osasuna, ustelduko zara zu, ta ortzituko zaituzte, zuk uste baño len, suzko ta sufrezko obi arrigarrian.

Gauza-guzien gañeraño igan-oi den olioak egosten da zartanean, edo era orretako ontzinen batean, erretzen ezpada kriselluan, elizako lanparan, edo argi-egiteko den beste gauzaren batean; ta emen garaitzen ezpadetzu zuk zere antustea ta arrotasun ariña, zere ondrak-naia, ta zere beti-ta-beti igan-nai galdu-galgarria, orrek berak on-datuko zaitu zu sulezeko putzu izugarrian; ta erretzen ta egosten idukiko zaitu an eternidade ta sekula guzian.

Diruzalea zara zu, ta ondasunen ondoren zabiltzan gizon estekatua; ta, orien ondoren zabiltzanean, nondik zabiltzan zu orrenbat begiratzen ez dezuna? Zere saldu-erosietan zeri begiratzen diozu zuk? Zere irabaziari, bai; baña ez, dakartzun tra-tuaren berdintasunari? Ala báda, zere ondasunak, zu ta zere irabaziak itsutua zaduzka, nora zoazen zu, edo zein toki izugarritz zoazen, ez ekusteko; gortua zaduzka (ta agitz alere) adi ez dezazun zuk zere Jaunak erraten dizun gauz onik batere; ta orregatik erio gaistoaren atzparretan zaduzka zu.

Sutu galduren bat ote zara zu? Naigabe bat zere Jaunagatik emeki artzen ez daki-zun gizona ote zara zu? Iraz ta bendekuz beterik ote zabiltza zu, sangaka dagoen txakur txar ero bat bezala? Illen zaituzte, bada, zu azkenean zere bekatuak; eta era-main zaituzte, kez ta garrez beterik dagoen obira; ta an egon bearko dezu zuk beti-ta-beti zere eskuz zuk zerorren zere mia ta zere errai guziak urratzen dituzula.

Orra nora zoazen zu, zere pasione gaistoen ta zere naikunde galduen soñean zabitzan anima! Bekatuz illa zaude zu zere Jaunaren begietan; ta, sulezeko obi galduan gelditu nai ezpadezu zuk, geldi zaitez emen bertan gaur, ta beti, zere Jesusen deiak aditzeko. Egizu zuk ziñez negar, oraindañoko zere erakeriez. Eskura izkitzu zere pasione asaldatu galgarriak. Jaiki zaitez lenbaitlen zere bekatuaren oatzetik; eta zoaz, zere Ama on Eliza billagarrira; an negar damuzko, ta Konfesione zuzeneko ur ederrez zere burua, bear den eran, garbitzera, gero zuzen agiteko, gure Jaungoiko maitagarriak manatzen dituen gauza guziak, gurutze-pean, ta nekez beterik ibilliko bazara ere, emen biziko zarain zere denboran. Jesús orretan zuri laguntzeko dago; ta lagunduko dizu, bai, zuk ala nai dezula, zere azken-orduraño. Ala gerta dedilla, bai; bai arren, bai!

(*"Jesusen Amore-Nekiei dagozten zenbait Otoitzgai", Tolosa, 1904, II, 271-273*)

- JUAN ANTONIO U B I L L O S -.

(Amasa, 1707 ~ Arantzazu, 1789)

Frantziskotarra. Teolojia ta Filosofia-Maixu-(ba ditu iru liburu andi, latinez egiñak, Scoto-ren Filosofiarri buruz...). Euskeraz liburutxu bat haiño ez eban egin: "KRISTAU DOKTRIÑ BERRI-EKARLEA...", Tolosa, 1785 (gerora, beste bi aldiz argitaldua izan da): Fleury frantsezaren liburu baten itzulpena da, -edo obeto esateko, euskerara aldatze bat..."Nolako euskera?... Ubilos ezta idazle garai oietakoaz. Ezta Axular baten edo Etcheberry baten diña. Baño alare idazle ona da... Ubilosen euskera orri-izkeran sendo tinkatua dago. Erri-izkera du zimendu ta oiñarri antzo. Baña badaki emendik eta andik bear dana edo bear duna artzen. Eta alaxe, nolá-alako "Gipuzkera osotuan" idatzi zula esan genezake. Bai bait-daki bizkaieratik, baita naparrena ta lapurdiera ta beste Bida- soaz arunzko euskalkietatik zerbait artzen ere... " (K. Iturria, "Aita Juan Antonio Ubillos, euskal-idazlea", EUZKO GOCOA, 1956, Ep.-Jor., 89-90). Esaera jatorretan eta aditz sintetikoan be aberastasun andia agertzen dau...).

AZKEN-JUIZIOA. - Jeskristo zeibuan atsedeten badago ere, ezta orratik bein ere guzaz aztutzen, beti gauzka bere gogoan, beti ari da gure aldeziak, faboreak, mesedeak ta ontarte guziak.

Bera da, bere Aita gugatik erregutzen duan Apaiz nausia, arekin gure bitartekoak, eta bein ere gelditu gabe, bein gurutzearen gaiñean egin zion Sakrifizio edo doai bere Eleiza, Arzai Erakusle eta beste Eleizgizonen bitartez, oei bere graziarekin laguntzen diela.

"Andik etorriko da biziak eta illak juzgatzen". Noizbait bukatu bearra da, ege illariak galduko due eren argia, izarrak erorriko dira zerutik, emengo gauz guziak irabiatuko dira ta ibiliko dira, batzuek gora, besteak bera, batek alde batera, bestue ilak, biztuko dira ock, ta irtengo dira obietatik.

Orduan jetsiko da zerutik Jesukristo odeien gaiñean, aal podore (sic) ta Soberranidz beterik. Onak ifiniraziko ditu bere eskuiko aldean, ta gaiztoak eskerrekoan. Nori berea emateko guzai artuko dizte eren bizitzako kontuak. Onak eramengo ditu zerura; ta gaiztoak ondatuko ditu infernuko su-leizean. Eztaki iñork, Juizio edo kontu artze au noiz izango dan; baiña gauza jakiña da, izaten danean, ikara-ikara utziko duala mundua guzia.

Galdeak eta eranzuak

G.- ¿Jesukristok zeruan dagoala, kontu egiten dio bere Eleizari?

E.- Bai, andik ere zaitzen ta gobernatzen du bere Arzai, mezemaille edo Sacerdote...

G.- ¿Ta Jeskristo bera Sacerdotea da?

/teen bitartez.

E.- Bai: da gugatik beti bere Aitari eske ta eske dagokan Apaiz edo Sacerdote, nau sia. G.- ¿Ta orretarako zer Sakrifizio eskeintzen dio bere Aitari, edo zer present egiten dio? E.- Gurutzearen gaiñean egin zion ura bera... .

("KRISTAU DOKTRIÑ BERRI-EKARLEA...", Bilbon, 1897, l20-121 orr.)

&&&&&&&&&&&&&

José Ignacio G E R R I K O.

(Segura, 1740 - Mutiloa, 1824)



Abadea. Gazterik, Madrilleñ egin zituzan Filosofia ta Teologiako ikasketak; gero, abade egin ondoren, Mutiloan egon zan beti: argia, jakintsua, izlari bikaiña, euskalzale sutsua. Astete'ren dotriñea erriari azalduteko, bere "Kristau Doktriña Guztaren Esplikazioaren Sayakera" liburua (4 tomatan) egin eban; baiña ezin argitaratu izan eban, bera bizi zala: ainbeste eragozpen jarri eutsoezan alde gustietatik. Izkuntzaren maixu bat dogu: bai aditza erabiltzen, bai itz jatorretan, bai esaera ederretan... Bear bada, "mordoilloegia" iruditzen jaku gaur... Bere liburuak "itaun-erantzun"-etan zatitzen ditu.

(JAUNGOIKOA ZER DAN)

G.- (Galdera): "Baña ori zeago eta klaruago aditzera ematen ezzpadigu, zer esan nai duen eziñ ezagutuko degu", diozuela derritzot."; Zer esan nai du berez dahak?", galdetuko didazue.

- Esan nai du, eztala beste gauzarik batere, eta eztala izan iñoi ere berez dani, Jaungoikoa bakarrik baizik. Eta ala Jaungoikoa bakarrik dala betikoa: berez benti bizi izan dana: iñori ezer ere iñoi ere zor izan eztiona: eta kontrara, kreatura guziak, ala andiak, nola txikiak, nola bizikorrak, nola bizirik eztuenak: Zerua bera, Aingeru guziak: Eguzkia, Illargia, Izarrak: eta Lurra, eta Itxasoa: gizonak, emakumeak, abere, eta egazti mota guziak: arbolak, eta landara mota guziak: hitz batean, mundu guzia, eta goyen eta bean ikusten diran guza guziak, eztirala berez, eztuela berezko izaterik: diran guzia, eta duen guzia, besteri (au da, rezerezetik sortu edo egin dituanari) zor diobelak: denbora batean ezertxo ere etzirala, eta sortu dituanak konservatuko, edo iraupena emango ezzpalie, ezer ezera biurtuko liratekeala: eta orrazien differenzia miragarria dagoan Jaungoikoaren eta kreaturen artean.

G.- "Eta Kreadorearen eta kreaturaen artean dagoen differenzia orretatik, ;zer ateratzen da?"

- 1º) Jaungoikoak duela berezko betiko izate bat neurririk, kaburik, mugarik, eta bazterrik eztuenak, eta kreatura guziak duela, orainago eman zayen izate guztiz berri eta labur bat, Jaungoikoaren betiko ega kabu bageko izatearen aldean.

2º) Ateratzen da, Jaungoikoa dala neurri bageko, perfekzio, goratasun, eta aunditasun guziak beregan dauzkana: eta orien aldean kreatura guziak dituen perfektioak, doayak, virtuteak, eta ventaja guziak utsa bezela dirala, eta orietan sartzen dirala: Jesu-Kristoren gizatasun edo Humanidade guztiz Santuarenak, Mari Virjiña Santimarenak, Aingeru ta Santu guzienak ere ezer ez bezela dirala: bada oriek badue bere muga: eta Jaungoikoarenak mugarik batere eztue.

3º) Ateratzen da, kreatura guziak duen izate guzia, eta dituen prenda guziak, ala naturalkak, nola naturalezaz gañekoak edo graziazkoak, Jaungoikoak emanak dituen ezker, orien perfekzio guziak (nola indarra, jakinduria, Santutasuna, edertasuna, gozotasuna), eta beste doai guziak, Jaungoikoagan arkitzen dirala, guzien iturburu eta jabeagan bezela: baña ez kreaturastan dauden neurriarekin eta faltarekin, baizik batere neurri bage eta kabu bage: eta ala Jaungoikoak du kaburik eztuen ontasuna, guzialtasuna, edertasuna, Santutasuna, Miserikordia, Justizia, betikotasuna, Zoriontasuna, eta ezin kontatu ditezken anditasun guziak, batere falta bage, eta neurri bage.

4º) Eta orregatik eziñ iñola ere Aingeru guzien eta gizonik jakintsuen guzien adimentuak iritsi ditezke Jaungoikoaren izate edo anditasun soberanoa osoro ezagutzea. Bada kreatura guzien adimentuak, izan al ditezkean argituenak ere, badue bere neurria, eta bere kabua: eta Jaungoikoaren izateak, eta aren perfekzioak eta anditasunak, eztue kaburik: eta ala Jaungoikoak berak bakarrik osoro, edo bera dan bezela, bere izatea ezagutzen du.

Ara nola itxaso zabala gizonak ikusi arren, aren ondarra eta aren baster guziak ezin ikusi eta ezagutu ditu: orobat, ez bakarrik Lurrean, baita Zeruan ere Jaungoikoak aurpegiz aurpegi ikusi arren, Zerutarrak erak ere, Jaungoikoaren ondo bageko eta baster bageko izate guzia, edo Jaungoikoaren esenzia edo naturaleza eziñ osoro, edo dan añeraño, ezagutu lezake.

Eta argatik dio Eskritura Santuak Jaungoikoa dagola Kerubiñen gañean, ara ze Zeruko Aingerurik jakintsuenak ere eziñ iritsi diralako Jaungoikoa osoro, berez dan bezela, ezagutzera.

Eta orobat dio, Moisesek berrogei egunean Jaungoikoarekin hitz egin, eta berragandik legea eskribiturik artu zuela, baña lañapean, odeipean zegoala, zerren ezin osoro eta argiro iritsi zitekean, Jaungoikoaren izatea berez dan bezela osoro ezagutzera: eta ori bera esan nai du San Pablo Apostoluak, dionean, Jaungoikoa dagoala ezin osoro ikusi diteken argitasun batean.

Eta orren antz gutxi bat Eguzkiagan daukagu: ¿Zer gauza argiagorik Eguzkia bañot? Eta ala ere gure begiak eziñ ondo begiratu diove, eta eziñ osorò ikusi due, argitasun andiegia daukalako.

Humillatu gaitezen bida, N.K., gure adimentuaren laburtasunaz, eta gure Jaungoikoaren izatearen kabugabetasunaz, adimentu guziak ezagutu al-baño kabu bagekoa dala kargu egifilik: eta orixe da, gure Jaungoikoa mundu onetan ondoéha ezagützeko modua.

Eta ala, ez bakarrik da Jaungoikoa esan eta pensatu alditekean gauzarik exzelenteana, edo gorena, eta miragarriena; baita ere, esan eta pensatu al-baño fin bage edo kabu bage exzelenteagoa, goragoa, eta miragarriagoa. Eta argatik du kabu bageko amrioa, errespetoa eta erreverenzia, bera danagatik merezi duena: eta gure arima, bera Zeruan ikustearekin, gaiñez egiteraño asetzeko edo osoro kontentatzeko bakarrik gai dana: bida gure biotzeko deseoa guziak eziñ ase eta kontentatu litezke, Jaungoikoagan bakarrik arkitzen dan betiko eta kabu bageko zoriona edo Gloria gozatuaz baizik: ala baña Jaungoikoaren Magestadeak, gure bearrik ezertako ezpazuen ere, beretako egin nai izan gaitu: au, da, bera emen ezagutzeko, biotz güztitik amatzeko, eta servitzeko; eta gero Zeruko Erreinuan beti beti bera argiro ikusteko, bera alabatzeko, bera amatzeko, eta kaburik izango eztuen zori onaz edo bere Gloriaz guk ere gozatzeko.

(Lenengo Liburua edo Tomoa, Tolosa 1858, pp. 47-49)

&&&&&&&&&

(AGIRRE ASTEASU koarena: 13 -garren orrialdetik dator)

Begira, nere Kristabak, zer ekuskaria gisa onetan, legorrean ta egunaz, gizonak ekustea igari! Farra egiten dezu, Kristaua, ipui au aditzean, baña atozea: etzatzu zuri onenbeste gertatu? Atozea: etzera iñoi bide orietan erauntzi, oira zuazelako ustean? Etzera aritz edo gaztañakin borroka asi, gizonen batzuk diralako ustean? Etzera deadarka ta ujuz ibilli, lorretan bazenbiltza bezala? Ay! nere Kristau onak! Oek, ta beste leku onetatik ezin adierazi nitzakean gauz asko ekusi dituzue zeroak, edo gutxienean aditu... .

(ERAKUSALDIAK, t. III, 376-377)

&&&&&&&&&

JUAN BAUTISTA AGIRRE

(Asteasu, 1742-1823)

"Asteasuko Erretore Juan B. Agirre k anima gauzatan ederki ari izan zuen euskeria. Moral-gaia oso osorik latiñetik euskerara zuen, ta Eliz-gauzatan beretan ere euskeraren landa zabaldu zigun. Idaztankera argia, izkera erraza, garbia, irakurriago ta maitagarriago dena. Euskeraz ere ikasia zen eta laphuraren jario apurra duela emaiten du: argitasunean beintzat bai." (ORIXE)

Liburuak: 1) "Konfesionario eta Komunioko Sakramentuen gañean ERAKUSALDIAK...", 1803 : kristiñau-dotriñaren azalpen luzea (400 orrialde);

2) "ERAKUSALDIAK", iru liburutan: a) Sakramentuena; b). Jaungoikoaren Legeko Amar Aginteara; c) "Jesukristo eta Birjiña txit Santaren Misterioen, eta beste zenbait gauzen gañeari...": bera il da gero argitaratu zan, Tolosan, 1850-gnean. Domeketan egiten zituan Sermoiak dira. Orregatik, ez joan orra eder billa, baina Gipuzkoako euskera ikastekotan, nun maixu oberik? "... sin duda, uno de los grandes maestros de la lengua. Bajo este aspecto sus obras son de un valor inapreciable... Es tal vez el mejor escritor guipuzcoano de la época antigua; o sea, anterior a 1880. Su lenguaje es castizo, natural, siempre es maestro en expresar toda clase de ideas y conceptos de una manera auténticamente vasca..." (L. Villasante, HLV, p. 220, n. 250).

Orduko oitura ta pentsakera ezagututeko be egoki-egokiak dira liburuok.

IRU PIZTUERA-MOTA: " Iru piztuera-motaren berriak ematen dizkigu Eskritura Santak.

Piztuera bata da Jesu-Kristorena, eta ekusi degunolakoa izan zan tau, eta onen antzekoa izan bear lukeala gure animen piztuerak ere: ¿Baña asko ote dira Pazkoazko dembora onetan Jesusen antzera piztutzen diranak? Askó ote dira bekaturako illak bezala goratu diranak? Askó ote dira batayoko egunean emandako itzak gorde nai dituenak? Askó ote dira bekatuaren obia betiko utzi nai duenak, eta bizitza onean irauteko neurri egokiak artu nai dituenak? Ez noaski.

Eskritura Santak dakarren beste piztuera-mota da Lazarorena. Illi zan Lazaro, eta obian usteldurik, edo usteltzen arkitzen zan. Piztu zuan Jesu-Kristok egiaz, baña ez betiko, baizik gero iltzeko. Era onetan piztutzen dira ez gutxi Pazkoako demboran. Aditzen ditue, fedeak erakusten dizkigun egia izugarriak: "ezagutzen due, beren bizitza gaiztoarekin galdu duela Jaunaren adiskidetasuna eta grazia, eta arkitzen dirala beti betiko su eta garren artera erortzeko zorian. Asitzen dira bekatuak irteteko neurriak artzen, eta damuz eta negarrez biurtzen dira beren Aita Zerukoagana. Orra esaten dio orduan onelako bekatariari:

"Piztu zera, sendatua zaude; ez geiago bekaturik egin: "Noli amplius peccare".

Baña zer gertatzen da? Garizuman lo bezala zeuden gura eta griñatxarrak asitzen dira. Pazkoak ondoan esnatzen: badabil bekataria beldur gutxirekin, eta arkitzen ditu milla perill leneko bekatueta biurtzeko: perillak etxeak, perillak auzoan, perillak bideetan, eta perillan lagun artean: iltzen, edo oztutzen zaizka bizitza onari jarraitzeko egin zituan asmo andiak, eta ez dauka sarritan Sakramentuak artzeko gogorik. Atzenean biurtzen da bekatura: eta bear beda len baño ere gaizkiago bizi da, eta amilka dijoa infernura: "Et fiunt novissima hominis illius pejora prioribus". Ala esaten digu Jesu-Kristok bekatuaren berritzaturaren gañean.

Eskritura Santak dakarren irugarren piztuera-mota da Samuelena. Saul Erregearen kontra altxa ziran Filisteak, eta prest arkitzen ziran gudan edo pelean asitzeko.

Ehusi zituan Saulek, eta izutu zan. Jakin nai zukean zer egin bear zuan estutasun apartan, eta galdeztuen Apaizai eta Profeta; baña ordurako aserretua zedukan Jauna, eta etzion erantzun nai izan, ez Apaizen, ez Profeten bidez. Bere adiskide andia izan zuan Samuel Profeta, baña ill zan au. Estu zan Saul, eta billatu zuan andre aza, edo sorgintzat zeukeena, eta erregutu zion piztu zegiola Samuel. Agertu zan Samuel, eta aditzera eman zion, zeñ gaizki irtengo zan gerra artan.

Etzan Samuel egiaz piztu, geyenak erakusten duenez, baizik aren animak artu zuan beraren gorputzaren antz eta iduria, Jaunak ala nai izanik, ez aztiaren alegiñaz. Itz batean, Samuelen piztuera etzan egiazkoa, baizik iduri utsa. Eta onelakoak izan oি dira Kristaurik geyenen piztuerak Pazkoa-demboran, iduri utsak. Sarritan negar egiten due askok garizuman: bear bada berritzen ditue konfesioak, eta dioe "ez geyago, ez pekaturik".

Edozeñek uste izan dezake, bekatari oek piztu dirala egiaz bekatuaren obitik; eta alaere gutxi dira onela piztutzen diranak. ¿Zergatik au? Zeren biotzik ez duen betiko uzteko bekatuaren bideak, etxeak, eta lagunak: zeren biotzik ez duen urratzeko beren oitura gaiztoak, lagun urkoari berea emateko, eta obra onai jarraitzea. Orre-gatik onelako bekatarien negarrak izan oি dira antzuak, eta obretan agertzen ez diranak. Ez ote gera noizbait bekatuaren obitik irtengo?

Nere Kristaua, ez gaitezen engañatu: piztu gaitezen Jesu-Kristorekin, ez nolanai, baizik egiaz piztu gaitezen, eta jarraitu degiogun bizitz eder bati. Piztu bazerate Jesu-Kristorekin, billa itzatzue Zeruko ondasun, eta atsegin-kontetuak, esaten digu S. Paulok: "Si consurrexistis cum Chto., quae sursum sunt querite" (Ad Colosens. c. 3). Onela iritsiko degu betiko bizitza doatsua. Amen.

(ERAKUSALDIAK, t.III, 12 -14)

ADARBAKOITZAREN IPUIA: "Gure Jaun Jaungoikoak egin zituan gauza guztiak, gizona ez bestea, beren sortzetik asi ta beñere nekatu gabe ari dira bakoitza bere fiñari dagokan egitekoan. Eguzkia, illargia, izarrak, lurra, sua, uura, aizea, ta beste gauza guziak gau ta egun egiten due, ta munduak dirauen artean egingo due beren Egille Andiak eman zien lana.

Ta gauz arritzeko! Zentzurik ez duen gauzak aïñ leyalki ta zuzen beren fiñari jarraitzen dioe: ta izanik gizona, bere Jaun Jaungoikoak adimentuaren argitasunuez edertu ta apindu zuan gauza: gizona alaere da bere Egille Andiaaz aztu, ta zertarako egiña dan ongi begiratu-gabe, egunak, asteak, urteak ezer-ezaren, edo munduko aukeria, ta atsegin zirtzilla ta lausoen ondoren igarotzen dituana: txit gutxi dira, alabaña, gizonen artean, beren fin goi ta andiari kontuz jarraitzen dioenak. Gizonaren eskergabekeria itsusi su aditzera ematen du gizon birtutetsu batek ipui onekin:

Usatu zion bein, gizon bidez zijoan bati, Unicornio edo Adarbakoitza deritzan animalia aserre batek. Ekin zion bidezkoak lasterrari, baña alaere Adarbakoitzak dembora gutxiren barrumbean atxitzeko zorian jarraituko zion. Estu ta larri zan bidezko gajoa, ta bere estutasunaregin salto egin zuan bide ondoan ekusi zuan leize izugarri batera, ta an beera zijoala eldu zion leizearen alde batetik zegoan ler-txun baten adarrari, ta geratu zan aidean itxikirik.

Begiratzen du goera, ta an zegoan Adarbakoitz aserrea, noiz igoko den zai. Begiratzen du beera, ta ekusten du dragoitzar izugarri bat aca zabaldurik, beera erortzen dan puntuaren irintsitzeko txintxillik dagoan gizon tristea. Begiratzen du ler-txunaren sustrayera, ta ekusten ditu bi sagu, txuria bata, beltra bestea, sustraya gutxika janaz ari dirala.

Zer pena, zer kezka naigabeak eti: un gizon au inguratuko, bere burua era ontan ekustean? Ala gerfatiko zala uste iban sitekean, baña engañatzen gera. Gure bi-

dezkoa perill ain andian zegoalarik, arkitzen zan, alaere, kezka ta ardurarrik batere-gabe, lertxunaren orrietatik erortzen ziran ezetasun goiso baten tantoai aoa zabaldurrik.

Ez da zentzungabekeria eskargea? Gizon bat, alde guzietatik perillen artean inguratu: goyen Adarbakoitza aren zai; bean dragoitzarra, eztarria zabaldurik, gizon o-nen begira; lertxun medar baten adar txarretik itxikirik leizean ondatzeko zori zorian; ta lertxunaren sústrayari gau ta egun janaz ari zaizkala bi saguak! Ta tran-tze onen estuan gure gizona arkitzen da lertxun-ostoetatik erortzen zaizkan tanto goisoai aoa zabaldurik, eta txoraturik! O itsumen izugarria!

Ongi, Kristaua: ¿ta ipui onek zer aditzera ematen digu, ezpada gurekin egun oro gertatzen dana? Bidez dijoan gizona da jayo dan gizon ta emakumea. Adarbakoitza edo unicornioa da, gure sortzetik asi ta beti orpoz orpo darraikigun eriotza. Leize da mundu galdu au, ta leize onetan sarturik gizona itxikirik arkitzen da, edo txintxilik lertxun batèn, edo bizitzaren adar mee batetik. Gure bizitzari beti ari zaizka puska kenduaz bi sagu, txuria bata, beltza bestea, au da, gaua ta eguna, ta beera begiratzen badegu ekusten degu dragoi bat, edo infermua, bere eztarritzar izugarria zabaldurik, gu irintsi nairik. Ta alaere gu bizi gera lertxunaren orrietatik, edo gure bizitzaren ostoetatik, erortzen diran zembañ tanto goisori aoa zabaldurik, txoraturik, ta arkitzen geran perill andiari begiratzen ez diogula, ta zertarako gure Egille on maitagarriak emen ipiñi gaituen aztuak. Ez ote gera, nere Kristauak, noiz-bait noizbait zentzatuko? ...

(ERAKUSALDIAK, III, 248-250)

EDANAREN ONDOREN GAISTO EDO KALTEAK :

"Edanerako makurtasunetik jayotzen dan 5-garren ondoren gaisto edo kaltea da, gu-zien farragarri, edo obeto esateko, guzien lotsagarri egitea; edanak eragiten ditu, alabaña, ta erasaten gauza lotsagarriak. Argatik Konzilio batean esaten da: orditzea Kristabarentzat gauz itsusi ta lotsagarria dala. "Ebrietas dedecus est cuique Chtiano" (Conc. Aquisq.).

Noe, Eskritura Santak esaten digunaz batean, zan Jaunaren adiskide andia, bere adiñagatik, bere bizitza ta oitura onagatik gizon guziz beneragarria: seieun urte urarekin igaro ondoan ipiñi zuan mastia, egin zuan ardoa, ta uura bezala zalako us-tean, edan zuan bear baño geyago, ta galdu zuan bere ezaguera. Edanaren kontua: sei-eun urtean ain beneragarria izan zan gizona jartzen da guzia erauntzik, agerturik, ta lotsatzeko eran, ta bere umeetatik batzuek iseka egiten dioela. Emendik etorri zan gero Noeren aserrean bere ume lotsagabe oen kontra; emendik ume oek, ta oen jatorria madarikatua izatea. Noe gizon ain beneragarriarekin au edanak egin zuanean, zer egingo ez du berenez ariñak, zentzu gutxikoak, edo Jaunaren beldur gutxikoak diranakin?

Agrigento deritzan leku batean jarri ziran egun batean edaten mariñel batzuek: edaten due galanki, ta edaten due arrapatzerano. Edanak eman oi dituan iduripenakin iduritzen zate itsasoan daudela, ta ontzia galtzeko perillean dabillela: etxea zebillen alabaña aen buruan azpikoz goora irauliaz: iduripen onekin asitzen dira ontzia-ri karga gutxitzen: artzen ditue oiak, botatzen ditue leyotik bera: artzen ditue koltxak, botatzen ditue: artzen ditue kutxak, an dijoaz oek-ere.

Etzan, alaere, ontzia geratzen bere inaultzeko mugimentuan, guzia zegoan, alabaña, mariñelen buruko zorabian. Zer egiten due? Etsirik ontziaren galtzeaz, erauntzitzen dira guziak, ta larrugorrian jarrik ateratzen dira egunaren erdian, edo beintzat argitan, igari itsasoan bazeuden bezala.

(10-garren orrialdean jarraitzen dau)

- JUAN ANTONIO MÓGEL URKIZA -.

(Eibar, 1745 - Markina Xemein, 1804)

Abadea, Markiña'ko Cura jauna. Mediku baten semea. Jakituna bera, ta orduko jakitun askorekin artu-emon estuak izan zituana (Humboldt, Añibarro, Vargas Ponce, Astarloa...). Abade lez, zintzoa ta jangoikotiarra. Euskaltzale sutsua. "PERU ABARKA"-ren egillea izateari zor deutso Mogel'ek bere osperik andiena, baiña ba ditu beste liburu batzuk be; bere loba bi be - Juan Jose ta Bizenta Mogel, beronek eskolatu zitzan eta euskal-arlora bultzatu...

"Mogel ezagutzeo, bere idaz-lanetan zear barruratu bear da, eta zenbat eta geiago sakondu, ainbat ete maiteago dugu... Mogel'en ezilkortasunezko lan, literaturan dago. Euskal idazle klasikoetariko bat dugu. Euskeraren bata-sunakin ta edertasunakin asko arduratu zan, eta euskalkirik geienak ezagutzen zituan, naiz eta ongien ezagutzen zuana eta geien landu zuana bizkaiera izan. Arritzen gaituana da bere gipuzkoerazko euskalki zoliak. Nunbait asko irakurri zuan kiputz...". (Juan San Martin, "MOGEL", Bere bizitza ta lanak, Zarautz, 1959). Idatzankera: euskera garbi, txairo ta joria bera; noizik beiñean egi-ten ditu uts batzuk be joskeran, baiña orduko gárairako ezin geiago eskatu... .

IDAZ-LANAK (gipuzkeraz): 1) "Konfesio ta Komunioko Sakramentuen gañean ERAKASTEAK", Pamplona, 1800, 255 pp.; 2) "Versiones Bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos...", Tolosa, 1802; 3) "Nomenclatura de las vices guipuzcoanas, sus correspondientes vizcainas y castellanas, para que se puedan entender ambos dialectos" (bizkaitarrak gipuzkerak erakusteko); idaztiño labur-laburra; 4) "Peru Abarka": 6'garren alkar-izketan, Gipuzkoa ta Laphurdi'ko euskera be sartzen dau... .

(EUSKERA, NORENTZAT?):- "Egia esan bear bada, Euskal errietako Apaiz, Fraile, ta Anima-zai guziek esan dezakegu bidaldu edo aituan generala berri on animaren gañekoak emateko, ez Erregei beren Jauregietan, ez Andiki goratu, edo Jaun urez-zillarra ugari darabiltenai, ez jakituria lurrekoz beren us-tez beterik dauden gizón arrotzaarrai, ta bai niekezale, beargin, atxurlari, olagizon, ikazkin, emakume gorula, eula, jostun, ta onelako jende mé ta bekokiko izerdi larriarekin ogia billatu bear duteenai. Ez degu Pablo Apostoluak bezela ágertu be-ar Athenasko Bilkui ta Erakastegian, eranzuteko jakitun gaizto-asmariai beren gal-detze guzietara. Agertu bear degu enzula biotz oneko ta samur errazen aurrera; zein-zuek enzungo gaituzten geienez ao ta biotz zabalekin, ta beti issillik. "Evangelizare pauperibus missit me Dominus".

Orain bada, nolako erakaste edo doktrina eman bear zaie onelako jende argi laburrekoai? "Aurtxoak ogi eske zeuden", dio Espíritu Santuak, "ta etzan nork puska goseak beste jan gabe. Ezingo dute gaissoak ebaki ez gañibetarekin, ez eskuarekin, ez ortzekin, ogia gogorra dalako, ta berak indarrik ez dutelako. Berriz, zeatzen, puskatzen ta apurtzen badiez, ekingo die, aseko dute gosea, ta biziko dira.

Ala bada, gure euskal-errietako gizon ta andra, neskatz ta mutillik geien gei-enak dira, jakituriaren aldetik, aurtxoak bezela, ta eman bear diegu animako ogia zeatu ta puskatuta...."

("Konfesioko... ERAKASTEAK" - ITZ-AURREKOAK, IV-V)

(EUSKERAZKO LIBRUAK, ZERTARAKO?):- "... baña idukirik Sazerdote edo Eliz gizon erakaslak libru asko ta ugari erdaraz, zertako dute euskerazko au? Berak biurtuko dituzte erderatik euskerara."

- Ala dirudi; ordea, ez da alperra nere nekea. Badira Eliz gizon asko, Apaiz egin berrian txit atzeraak daudenak euskaraz itzegiten, ta guziz Elizan. Apurtzen detuzte beren buruak Sermoi bat euskeratu ezinik. Nola erdalerrrietatik etortzen diran, urteren batzuek igarorik Eliz gauzak ikasten, ta aztu zaien asko len zekiten itzkera Ama-ren bularretik zekartena, ez da esatekoa zenbat gaiztasun ta atzerapen arkitzen duten euskera itz egiten Eliz gauzeta. Ez da berdin oen gañean bear bezela itzegitea agri-an, ta bestolako gauzeetan.

Gure gizon ta andra baserritalkoak txit eduki, ta bear bada iñork ez bezela, itzegiten dure berai dagozkien gauza askotan. Ordea, ez lukee jakingo nola zuzendu itzak, gauza goratu ta bere gañetikoetan.

Au onela izanik, libru euskarazkoak ez dira alperrak, ta bai mesede andikoak Eliz-gizon askorentzat ere. Erakurriaz ikasiko dute nola esaten dan euskaraz berak etzekitena. Oituko ere dira erraz erakurtera, zeren gauza lotsagarria da ekustea asko, arrazago erakurten Franzes ta Ingles libruak oen itzkerak aitu edo jakin gabe, jatorriz dakarten euskera ondo dakitena baño. Zerk egiten dau au? Ekandu edo oitu ez diralako euskarazko libruak erakurtera.

Badira, bai, animen kargua daukaten artean ere, ain ikarakor, edo beldurtiak, non da ezin azartu diran buruz sermoi bat egiten, ta zenbat kalte emendik? Baleuzke Libru egokiak erdaldunak bezela, erakurriko luke Elizaan, joango litzake beldurra gel-diro, ta egingo lirake gero buruz ta itzbizian erakastera.(...)

"Badira euskarazko libruak", esango didate. Aitor det, ta euskaldun guziak eman bear dizte esker andiak onetan jardun duten animazaleak izan diran gizonai. Gora-bera guzien artean ez dira aztu euskal errietan Cardaberaz ta Mendibururen izen onak. Au ezagutu zuten bai Napar ta Giputzak; ura, oek ta Bizkaitarrak, Arabar ta Namparrekin. Zabaldu zuten al izan zuten artean aoz misio santuetan Jangoikoaren itza-ren azia, artu ere bai frutu gozoak. Beren anima gosea etzan onenbestean gelditu; iraunkorrago izan zidin frutua, izkribitu zituzten deboziozko libruak..."

(IBID., VII-IX)

(EUSKERA MORDOILLOA):- " Beste batzuék dituzu, premia gabe ta animen kalte an-diarekin, euskara guzia galtzen duteenak, bein euskera, bein latiñera, guzia baraustu ta zikindua. Gutxik daki bere jaieterriko euskeraren erdia, ta alpertzen, nagitzen, ta lotsatzen ere dira ikasten ta galdetzen; ta gero gaitzki esaka dabiltza, garbiro euskera egiten duteenak gatik. Begitantzen zaie ne-kazari euskerà baño ezdakitenak, aditu bear dituzteela erdera euskeratuak. Euskerak dauzkanean itz ederrak, guzien aoetan dabiltzanak, zertako da erdera mordollo jardu-tea Erakastegi santuan? Euskaldun garbiak, zer aituko du, esaten bazaio Seme "Unige-nitura", "Aita Omnipotentea", Espiritu Santu "Vivificadorea", gauza "necesarioak", ta ezin esan beste itz onelako?

Ala bada, ebilli bear da bide erditik, geiegiaz edo gutxiegiaz utsik egin ez de-zagun..." (IBID. XII-XIII)

(CARDABERAZ ETA MENDIBURUREN IZKERAK):- "Uste det, berriz, libru onetako euskera izango dala aditua Giputz guzian, Bizkaiko erri askotan, ta Naparroa geienean. Cardaberazen libruak aditzen errazagoak dira (Jarraitzeko)

Euskal errieta Mendibururen baño. Onek itz asko artu ditu Napar euskeratik, ta nola urruti dauden bata besteagandik Naparroa ta Bizkaia, ez ala Giputzak (bada oek erdian daude), errazago egiten zaie Bizkaitarrai aditzea Cardaberaren itzkera giputz utsezko, Mendibururen giputz-naparra baño. Au ez da esatea, Mendibururen euskera ederra ez dala; da egiaz, ta itzak garbiago ta euskeratsuagoak Cardaberaren libruetakoak baño; ala ere, onenak leku zabalagoan aditzen dira, esan dedan arrazoia gatik. Nik ere oni jarraitu diot, alegiñez, arrazoi beragatik.

(ZEIN OBEA: BIZKAIKO EUSKERA ALA GIPUTZENA?):- "Bada atsekabe ematen didan bes-te gauza bat, au da enzutea Euskaldun gaitzki esaten, ta auzitan bezela batzuek besteakin.

Giputzak enzuten dutenean Bizkaitarren itzkera, bera la abiatzen dira esaten: "au dek euskera zatar, astun, ta gogaitkarria. Nork enzun, belarriak estaldu gabe?"

Bizkaitar askok (ez erri guzietakoak) esango dizute giputzak dirala "labañak beren itzkeran, emakumen mingain zorrotzentzat ona dala, Biskaikoa gizontsuagoa". Asi. tzen dira kiñu ta siñuka; oek arpegian ematen die aiei "nion, zion, diot", tamala beste epai moldeakin. Aiek, berriz, Bizkaitarrai, "deutsat, neutsan, zeuntsan, esan juan, ez dok, bai dok" ta onela beste itz askotan.

Euskaldun maiteak, zertako dira itz-audi oek? Zer esango digute erdaldunak, errietan ta siñuka bagabiltza alkarren artean?

Gure euskera gauza ez dala. Aita Larramendi ta Cardaverasek, giputzak izanik, aitorzén zuten, etzekitela zein zan obeagoa: bakoitzak jarrai beza bere jaieterriko euskera; ordea, ez gaizkirkik esan. Ez degu errikoia, edo errikoamorean itxutuak izan bear. Nik guziak dauzkat edertzat. Zati bat naiz giputza, ta beste zati bat bizkaitarra, ta bietara zerbait egin banaiz ere, geiago Bizkaiko euskerara, nere bizitzarik geiena emen igaro dedalako jendeai erakasten animako gauzaak. Libru berari pintzea uste det Bizkaiko euskeran ere. Ez dakitenak uste dute Bizkai guzian esaten dala: "Ené, ara toroa plazaan manzania jaaten". Bilbotarren erdi erdera erdi euskeria daukate Bizkai guzik euskeratzat. Ez da, ordea, ala.

Eztitsuagoak dira giputzen itzak, baña itzen euskeratasun, garbitasun, ta euskeria legeen aldetik, ez dio ezer zor Bizkaikoak; ta Cardaberaren iritzian, obeto gor-detzen dira euskeraren regla edo zuzen bideak Bizkaian, Giputzean baño.

Dan bezela dala, O Euskaldun onaki, arzazute nere borondatea libru onetan..."

(IBID., XIII-XV)



... JUAN IGNACIO DE IZTUETA ...
(Zaldibia, 1767 - 1845)



"El primer seglar guipuzcoano que escribe libros en vascuence sobre temas profanos" (L. Michelena). DANTZARI trebea zan bera, ta baita dantzari taldeen irakasle ta eratzaille be; ez ori bakarrik, liburu bi be idatzi zituan dantzaiburu: "Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia", 1824, eta "Euskal antziña-antziñako ta are lendabiziko etorkien dantza on iritzi pozkarri gaitzik gabeko soñu gogoangarriak, beren itz neurtu edo bertsoekin", 1826: "la más preciosa fuente para conocer las antiguas danzas, sones y otras divisiones del país" (L. Villasante).

Olerkari lez, "Kontxesiri" izeneko olerki sentikor ezaguna itxi deusku...

Itz lauz auxe idatzi eben: "Gipuzkoako Probintziaren Kondaira edo Historia", 1847: "... giputz-erriaren goraipamen cdo apoloji bat, aurreneko letraistik

asi ta azkeneraino. Egileak giputz-zaletasunari ezin neurririk artu dio..." (Yon Etxaide, "Amasei seme Euskalerriko", lll); es billatu liburu ontan historia zeatzik, baiña bai Iztueta'ren aldiko Gipuzkoa zer ta zelangoa zan...

Iztueta'ren euskera: Batzuétan, Aita Larramendi'ren Iztegiari jarraituz (hatez be, itzulpenetan), alako euskera illun, naastu, gatzbakoa darabil (Bizkai ta Lapurdi aldeko itzak be sartzen ba daki; baita leenagoko berba zarrakmbe...); baiña, iztegiak bazterturik, bere kontura idazten dauanean, orduan izkera jatorra, gozoa ta erri-usaiñezkoa da berak egiten dauana. "Idazle zahar geienak bezala, aditza ederki erabiltzen zun. Aditz bakuna edo sinteticoa, batez ere, oso aberats du... Tarteka-marteka, zan (etorri zan) erabilli bearrean, zatekean edo zakean erabilli oi du..." (Y. Etxaide).

Benetan txalogarria gure Iztueta, jatorri apaleko erri-gizon euskaltzale ta idazle sutsua...

ZEZEN-JOKO ARRIGARRI BAT AMEZKETAKO PLAZAN: "Baso abereakiko indarleietan ere,

gañ-gañekoak dira Gipuzkoatarrak.

Amezketako plazan S.Bartolome arratsalde batean Erri-zezena jokatzen zebillela, esan zukean Ataungo etxejaun Arzelus deitzen zitzaisonak, ezen, beraren Errian bazala emezortzi urte bete bageko mutila, plazan zebillen zezen ari adarretatik itsatsirik buruaz lurra jo-erazoko ziona.

Erronka andi au zezen-jabearen belarrietara iritsi zanean, eman omen zion arpegi Arzelus jaunari, ta biak gizon prestu gisa egin omen zuten apustua bostna onza ure bigaramon arratsaldean, plaza berean, zezen arekin Arzelus-ek ifinten zeban mutillak jokatzeko.

Ordurako bazukean Arzelus jaunak entzuera, bazala beraren Errian mutila, "Amilleta" deitzen zaion etxe batean, basa-beiak ankatik eldu ta ardia bezala gelditurik, eznea edan oi ziena, nai zeban guztian; baita ere, bestek ezin atzeman zituen sasi-bei ta idisko izuak, adarretatik cratu eta menderatu oi zituela.

Uste oso onetan apustua egin izan zeban bezala, bertatik joan zatekean gabaz Amilletara, mutilaren eske; eta beraren gurasoak esan omen zioten, ezik, etzala gabaz etxeratzen, neguko elurte andietan baizik; eta nola etzeban txabolarik eta etzan-leku jakiñik ere, alper-alperrik irtetea zala beraren billa, alik eta eguna argitu artean...

Atera omen ziran, bada, goiz-alderontz mutilaren eske, beraren aita, anaia bat, eta Arzelus jauna. Oen ojuestara agertu omen zan, noizbaiten ere, baso illur batetik;

bañan ikusi zebanean Arzelus gizon arrotza, onen ondora ez omen zeban alderatu nai iñolako moduz ere. Geroenean ere, aitak eta anaiak ondo esanaren bidez limurtu omen zuten ekartea berentarontz, zer esan nai zioten aditzera; eta entzun zebanean Errizzezen bat bear zebala menderatu Amezketako plazan, pozkidaturik, jarri zatekean gogoz joatera; zeñari, atsegintasun geiagorako, Arzelus'ek eskifíi omen zion, mendi artan zebillen beirik oberena erosirik emango ziola beretzako, baldin apustua irabazten bazebar.

Mutil gazte au guztiz omen zan ederra ta galanta, eta orduráño plaza inguruko lagun-artera beñere jatxi bagekoa. Beragatik jantzi modu onekorik ez omen zitzaison arkitzen, toki agiriko batera aurkeztuteko, eta dempararik nola etzegoen berriak egiteko, alabearrez Lazkaun omen zegoen egun aetan Vicario gizon lodi andiren bat; eta onen alkondara ta frakakin abarka mantarrak jantzi, eta beste soñekorik bage joan omen zan Amezketako plazara, apustua jokatzen.

Arzelus'ek eta zezen-jabeak jokurako bost onza ureak bertako Alkate jaunaren eskuetan ifinirik, izendatu ere omen zituzten itzal andiko gizon eldu biña, despitik izaten bazan erabakitzalle.

Oiturazko argibide oek guziak bear bezala zuzendutakoan, atera omen zituzten zezena ta mutila plazara; hura, okulluan akulluarekin ziritatuaz, arras aserra-erazorik; eta au, jaten ondo eta edaten bere moduan emanik, alaitu ta pizkorturik txit.

Mutil au jaiotzetik omen zan itzeginen tatalea, eta zezenari ots-elegiten omen zion plazaren goen-aldetxotik: "Atol, Atol."

Begira zeudenetako askok esaten omen zuten: "! Ai au mutilaren guri mardul eder galanta! ! Negargarria da txit, zezen likits orren adarretan beraren gorputz liraña ikusi bearra!"

Zezena omen zebillen plazan bazter batetik bestera jira ta bira, eta mutila beti ere beragana alderatuaz, deitzen ziolarik bere izkera tatalean guztiz gogoz eta txit sarriro: "Atol onala, Atol."

Noizbait bear ta alakorik batean, zezena aserraturik arrabia bizian omen zijoakien erasotzera, eta kolpea emateko burua makurtzearekin batean, oratu omen zion adar bietatik irmeki. Lenengo abantadan zezenak altxatu omen zeban gora mutila, bañan onek, beira jatxitzean oñak lurrean ifini bezin prest, lepoa biurriturik, joerazo omen zion buruaz lurra, bein alde batera, eta gero bestera; eta lurrera botarik azpiratua zeukala, galdetzen omen zeban bere tatalean: "¿Ein bealiot geio?" Esango bazukean bezala: "¿Egin bear diot geiago?".

Bereala lau Erabakitzalleak plaza guztiarekin batean eman omen zioten apustua irabazitzat legez ta bidez Ataungo Amilletako mutil emezortzi urte bete bagekoari.

Apustu gogoangarria au jokatzen Amezketako plazan ikusi zuten gizon zarretako askori, nere gazte demporan entzun izan nioten gertakari au, emen ezarri dedan modu berperean... Izendatu dedan mutil Ataungo au, gerotzik izan omen zan toreatzallerik Oberenetakoa; zeña laurogei ta geiago urterekin ill zatekean ni jaio ezkerotik." ("GIPUZCOACO PROVINCIAREN CONDAIRA EDO HISTORIA", Donostia, 1847, 247- 250)

EUSKALDUNAI, EUSKERAZ! : " Badakusku, bada, argiroki, Probinzia onetako jaiotar guztiak dirala Euskaldun garbiak, eta beretakorik txit gitxi erdaraz dakitenak. Beragatik gure Asaba ernaliak ifini izan zuten lege zuzen bidezkoa, ezen, Euskaraz ondo etzekien Apaizik ezin izan zitekeala Arima-zaintzalle Gipuzkoaren mugapeko Elizaetan. Arimen onerako jakintsuró eazarria dagoen lege bidezko au bera dago esanaz garbiró, Euskaraz bear zaiozkatela Gipuzkoatarrai adierazo, berai dagozkioten gauza guztiak... Isonik, bada, egia ziertoa au begin aurrean (34. -garren orr. jarraitzen dau)

•- AGUSTIN PASCUAL I T U R R I A G A
===== (Hernani, 1778 -1851)

Abadea. Bere sorterrian bizi izan zan, gazteriaren maixu: 1818^g. urte-inguruan ikastetxe bat jarria eban: "Azkarra zan; zintzoa ta jakin-naia ere bai. Atsegin aundia izaten zuan zer-edo-zer ikastean; aundiagoa berak zekiena erakustean. Ikasteko ta erakusteko jaioa zala zirudian, erakusteko batez ere... Erreztasun onek esan-erazi zion bere ikasle argitsuenetako bati: Iturriaga^k, dakian baño ere geiago erakusten du" (G. Muxika).

Euskal-lanak: 1) "Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano, con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos", edo IPIUIAK, 1842: bertsotan. Oneixek emon deutso famarik andiena. "Ez dirudite itzuliak, euskeran sortuak sortuak baino: euskerara ain egokiak daude gure baserritarrentzat... Bein eta berriz irakurri diteke Iturriaga aspertu gabe. Nere ustez, Adema-Zaldubi rekin ez da naski euskera bertsoetan ainbeste landu duenik" (ORIXE).

2) "Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa" edo "JOLASAK", 1842, 86 orr.: euskeraz eta gaztelera, itaun-erantzunetan egiña: lurak, abereak, landarak t.a. zelangoak direan azalduaz. Ba daki, bai, gauzak txukun, labur eta jator esaten.

ANTONIO: - Zein da abere-motik onena nekazariarentzat?

BASILIO: — Tokiaz erara: toki zelayetan abere aundia, eta desberdinietan txikia. Gañerakoan, idi onak bear du izan aundiya eta luzea. Izan bear ditu sayets-ezurrak zabalak, larrua Iodia eta aragiari itsatsi gabea.

Zezenak bear ditu izan bizkarra zabala, lepoa lodia, giltzak laburrak. Izterrak eta belaunak bear ditu biribillak, oñak alderegiñak, illea laburra eta lodia, baña malgua. Buztana jasoa, luzea eta illez ongi jantzia, adarrak lodiak eta zurivak.

Beyak bear du izan aundia, adar zabala, kopet zabala eta tripa aundia... Adarrak izan bear ditu luzeak eta argiak, errapea zuriya, aundiya eta mea... Gaiñerakoan, bei onak bear du izan zezenaren antzekoa. Ganadua erosteko denboran bear da ongi ikusi ortzik falta duen, argaldu ez dedin.


Bei beltzak txikiak izan oí dira, eta esne gutxiago ematen dute. Baña ematen dute beti, eta dira gogorrak lanerako... Bei zuriak aundiagoak dira, eta ematen dute esne geyago, baña denbora gutxiagoan.. . Gorriak aundiagoak dira oraindik, eta esne geyago ematen dute, baña denbora gutxiagoan. Argatik dira obeatik bei beltzak, esnea denbora geyagoan ematen dutelako. Gañera bei beltzak dira umegiñagoak beste kolorekoak baño.


Iru urterao etzayo umerik arrerazo bear beyari... Garagar illarekin Uzta-illaren artean da onetarako denborarik onena, bei bat besterik ez duenarentzat. (xix)

ANTONIO: - Ezin sinista zenezake, Basilio, zer atsegin aundia dedan zu editzten.

BASILIO: - Ez det gutxiago artzen, zu orren kontentu ikustea.

(JOLASAK, XIX-XX, Auspoa Liburutegia, n.25, 81-84 err.)





Mogeldarrak - jatorriz erbestekoak - iru idazle emon deutsoe Euskal Literaturari: entzutetsuena, Juan Antonio, "Peru Abarka" - ren egillea; gero, bero-nen loba bi: Juan José, Markiña'ko Cura jauna, eta onen arreba Bizenta A.; izan be, osaba orren ondoan ikasi eban gure Bizentak; berari zor deutsoz kultura eta euskalzaletasuna... Euskal-idazleen artean, Bizenta dogu lenengo emakumea; ta ez edozelangoa: jatorra, ulerterreza... Bere joskerak ba dabela erdal kutsu apur bat? Ezin uka-tu; baiña kontuan izan bere lana itzulpena dala ta, gaiñera, orduan ez egoala Gramatika lan aundirik. Bere liburuari "IPUI ONAK" deritxo.

" Ezta bada ezer galduko liburu onek ere erdaldunen biurrikeriak dauzkala esa-naz. Ala ere, Andre Bizentak idaztu zuan garaian, etzan iñor berak bezela idaztuko zuan emakumerik, bakarra zan edo bestien artean gallurren gallurrenenkoak; edozein gizonezkok beziñ mardul jatorrizko euskera ugari, naro ta aberatsean mintzatzén ze-kian andrea. Orregaitik izan da bere izena aiñ ospatsua ta maitagarria euskalzalien-tzat, orregatik dakargu praingo gaztien ikasbiderako. Andre ura bezelakoak nai gin-duzke gaurko euskaldun emakumeak... Ia obeak ertetzen duten nimbaitetik, ia Andre Bizenta garaitzen duten asaba zarren izkuntza apaintzen. Asi, Euskalerriko alabak; ekiñ lanean, saiatu euskeraren alde..." (Domingo Agirre, "Auspoa Liburutegia", n. 28, pp. 30-31).

Ipui XXVI: ZALDIA TA ASTOA:

Zaldi eder bat, guzia apaindua, katea zillarrezkoz, jarleku, ugal ta an-ka estalkiz urrez bitxitua, jabe aberatsa zedukana zijoala bidean arro arrorik, ido-ro zuen asto makal, argal, pisuaren pisuz makurtu ta obendua, ta atzetik makillada gogorrak ematen ziozkana astazai erruki gabeak.

Ekusirik zaldiak ez ziola beingoan alderik egin bidetik, ezin sezakeala-ko nekatuaren nakatuz, esan omen zion astoari:

" Arrituta naitziagok, asto zatarra, nola ostikadaz asetzén ez audan. Zergatik baztertu ez, ni ikusita? Zergatik egon ez aiz geldi bazter batean, ni igaro artean? Nor naizala uste dek? Nago ni ain apaindua, zillar ta urrez pitxitua. Nere korta edo egontokia garbiago ziagok askoren etxeetako gela ta lotegiak baño. Nere etxeko nagusiak egiten diezte agiraka gogorrak morroia, egunero garbitzen ez badute nere egonlekua; askaan autsik ez du arkitu bear, ez da garagarrian ere. Garbitzen dizki-de oñak; leundai bear dituzte nere bizkarra ta ankea; nere illeak argi egin bear du. Begira bada zein mardo, gizen ta mamitsua nagoan.

I berriz, zatar ori, burutik oñetara ago, edo sutsez josia edo basatua; agiri dituk bizkar-lezurrak; jostorratz edo eztena zirudiek ire berna zakko gabeak; burua jaso ezin dek, belarri makaldu ta zaurituak agiri dituk; bidean nekea ta etxean go-sea. Onelakoak izanik, ez didak lotsa geiago gordeko? Lenengoagatik barkatzen diat, baña begira beste bein onelakorik gerta ez dedin."

Ikaraturik astoa zitu zituenekin zaldi arroaren aotik, zijoan aurrrera er-neguz ta biraoka madarikatzen zuela sortu zan ordua:

Andikan urte batzuetara izan zuen astoak jabe obe bat, zeñek ematen zion ondotxo jaten ta ez bear gogorretik eragiten. Mardotu ta ille edertu zan gure astoa.

Baña bestera gertatu zittaion zaldi arroari. Urteak igarorik, saldu zion bere jabeak errotari txatar bati, zeñek eragiten zion bearra txit agitz, ta eman jateko gutxi ta makillada asko. Onela bere mardotasuna desegin zan, agertu zittaizkon bizkar-ezurrak, zorroztu anka len gizena, laztu illea, zauritu bizkarta, maldu burua ta ezin iñork esan zezakean lengoa zala.

Zegola lasto uraxe bera ibar batean belarra jaten pizkorturik, dakus ta ezagutzen du lengo zaldi bere agirakari arroa, trallatik zeramala errotari txarrak, guzia argaldua, aginte ta indar gabea, bizkarrean zituala zorro andi bi, buruz bera, basta zatar ta ugal erdi etenekin, gerrirano lokaitzatua, ta diotsa astoak burla egin bearrez:

"O zaldi jauna! Eta zein aberatsa zeran! Nora ditu berorren anziñako zillar ta urea zeriozkiengoa apainduriak? Nora da arako buru arro ta gallendua? Non da orduko mardotasuna? Nora iges egin dute berorren mami galantak? Etorkizunari begiratu gabe, zu izan ziñan, bai, ta ez besterik, eskatu zinidana baztertzea ta geldi egotea igaro bear zenduan bidea idukitzeko zeretzat bakarrik. Zu, nekepean ni ikusita, errukitzen ez ziñana. Goiak beratu dira. Orain nago ni jabe onarekin zaartzza on batean, belarra emen jaten, guzian pizkortuta, ondotxo jan ta, bear neurri onekoan biziota daramadala. Ez zaude zu orretara oiturik."

Ipui oek erakasten dioe aberatsa ta andikiai, ez abegor txarrik egitea, ez itz gogorrik esatea nekean bizi diranai, beragokoak; ta izan ditezela errukior ta biotz biguñen jabeak premian daudenentzat. Ez dala arrotu bear andilekuetan, goikoak iruli oi diralako bekoetara. Biotz bera ta arrotasun gabeak iraungo dute berengoratasunean, baña

"Zapaltzen duenak beekua,

Artuko du bere lekuak."

Ipui XIX.- EULIA TA MANDOA.-

Mando batek zeramala burdia, jarri zittaion burtolean euli gogaitgarria, ta diotsa: "Mando zatar ta astuna, abill ariñago, bestela nere eztenarekin odoldu ta pizkortuko aut."

Aserratu zittaion mandoari euli zital batek ain arro itzegin bearraz. Erranzun zion bada:

"O piztia zital, kiratsu ta gogaitgarria! Ezin gaitzik egingo diat: ala ere ez zidak ardura andirik ematen ire ezten txaarrak ateratzen bazidak odol apur bat. Nere gañean dijoan mandazai onen zigorrak beldurrago egiten naitziak. Onen zigorra da ta ugal orapillotuak ematen diztan zartadak atera oi dizkite zanbro aundiak. Au bai dala beldurgarria."


Ipuiak erakasten dioe andikiai, ba dutela zer bildur izan nondik edo andik.

"Txikiak dira noizbait arrotzen,

Ta andiak dute ernegatzen."

&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&

Bizenta Mogel-en "Ipui Onak" liburu onen 3^{garren} argitalpene Juan San Martin eibartar mogelzaleari zor deutsagu, batez be. Beronek autortzen deusku: "Bizenta A. Mogel-en euskerak, ala Txomin Agirrerenak, eta baita nereak, gipuzkoarren euskalkiz jardunarren, badu bere Bizkai-kutsua...".



-- Francisco Ignacio de LARDIZABAL --
===== (Zaldivia, 1806-1855) =====

Abadea; Zaldibian bertan egon zan Parroko; sasoerik onenean il zan, izurrite batean kutsutua Euskera sakon be sakon daki: iztun ederra da ta ugaria; bera lanak ondo landuak dira, argiak, txukunak (bear bada zer txobat otzak eta motelak).

Lan bi itxi euskuzan: 1) "TESTAMENTU ZARREKO ETA BERRIKO KONDAIRA": Biblia'ren laburpen polita, erriarentzako ("pocos libros han sido tan leidos como éste por el pueblo euskaldun" -Villasante); 2) "Gramática Vascongada".

JERUSALEN-GO GOSETEA

"Goseteak lenengo egunetik kalte andiak egiten zituen; baña atzeneko lanbide onekin lenagokoena azkarria sartu zan. Gari eta beste jan-gauzarik aspaldian etzan saltzen: zerbait zeukanak isillik gorde bearra zuen; bestela gogorrago bat etxearen sartutam kenduko zion. Bat bazeosten gizentxoa edo arpegi betekoa, edo kolore onekoa, bereala eraso, eta arrapatu guzia kentzen zioten, iltzen ezbazuten ere. Ate bat itxita ikustea asko zan, zerbait jateko bazegoala pensatzeko: puskatzen zuten, eta etxeoak beartzan zitzuten, dana agertzera.

Emakumeak illeetatik arrastaka, eta aurrik ostikopean zerabilzkiten, ogizerra bat ateragariteagatik. Uriko aberatsenak beren lurrik gari-bikor batzuekatiak saltzen zitzuten, gero etxeen ezkutuan ogia eginda, edo gal-ale gordiña jateko. Edozein apukogatik etxeetan sartu, personak il, eta zegoana berekin zeramatzen. Okellura joanda, zimaurrik likitsenak, ubal-puska zarrak, belar ustelduak jaten zitzuten.

Aide maiteenak, adiskide kutrnenak elkarri erasotzen zioten, zer-janen bat zuela igerri ezkero. Iñori ere barkatzen etzitzayon, amorratzen zerabilzkien gosea zerbait kentzearren.

Baña zenbaterañoko gosea sartu zan jakiteko, Maria zeritzan emakume batek egiña aditzea asko da:

Emakume au, etxe oneko alaba eta guriro azia zan. Bere zorigaitzoan, beste asko bezala, Pazkoa egitera, Jerusalen-en sartu zan, eta zeráman guzi-guzia bereala kendu zioten. Miñaren miñez askoak esan ziezten, aserrerezota, il zezaten: eta ikusirik, ala-era iltzen etzutela, bularreko bere surra eskuetan artuta, esan zion: "Zorigaitzoko aurra, ¿zertako zaitut? ¿ez izan izugarri oyeten izateko? ¿gosek iltzeko edo etsairik gogorrenen eskuetan jartzeko?...". Au esanda, lepoa ebaki zion, eta burrunzian erreeta, erdia jan zuen, eta gañerakoa berrizko gorde zuen.

Besteak aragi-errearen usaya artu zuten; etxearen sartu zitzayozkan, eta ezpata bularrean ipiño zioten, zeukana eman zizayen. "Nik zati bat gorde dizutet"- esan zien, eta auredi-jana aurrera ekarri zuen. Au ikusi zutenean, aldegin nai ziotelako, esan zien: "Jan dezakezute, bai; bada, ez emakume bat baño begiratuagòak, ez ama bat baño biguñagoak izango zerrate." Arri-egiñik iges egin zuten.

Gertaera izugarri ez-aditu au Úri guzian barreatu zan, eta barrungoak ez ezen, kanpokoak ere ikaratu ziran. Onela bete ziran, Jesus-ek esandako itz oyek: "Etorriko da eguna, zorionekotzat artuko dana aurrik izan ez duen emakumea, eta esnerik eman gabeko bularra." ("Testamentu berriko kondaira edo historia"-tik, pp. 236-238, Bilbao, 1957).

(JOSE BERE ANAIKIN): (...) Bereala zakuak lurrera jautsi, eta nork berea zabaldurik, mayordomoak aztertu eta ikusi zituen ~~zintas~~, zarrenarenetik asi, eta gazteenarenañoko guziak, eta Benjamin gazteenarenean edanontzia arkitu zuen.

Senide guziak lanbide hura ikusi zutenean soñekoak urratu, eta abereetan zakuak arturik, José-gana itzuli ziran, eta auzpez barkazio-eske jarri zitzayozkan. José-k bekoki illunarekin artu zituen, esanaz: "¿Zergatik ori egin dezute? ¿ez dakizute, gauza isillak asmatzen niri eramaten didanik iñor ez dala?"

José-ren surrean guziak auzpezturik, isillik zeuden; eta Judas-ek guzien izenean, eta besteen artean nabarmendurik, esan zuen:

- ¿Zer gure Jaunari erantzun dizayokegu? Guk oben-kulparik ez degu; baña gauza bat dago, alakotzat egiten gaituena. Len guk gaizki egin giñion Jainkoak gisa onetan kastigatzen gaitu. Ara zure mendean non gauzkazun, bai gu, eta bai edanontzia zeukana.

- Ez ori -, José-k erantzun zion; - Edanontzia zeramana emen gelditu bedi; besteok zeron aitari zoazkiote.

José-ren esanák Judas ezin geyagoraño estutu zuen, eta erantzun zion: "Jauna, itz bat esan nai dizut, eta ez aserretu. Lendabizian etorri giñanean, galdetu ziguzun: "¿Aitarik edo anayarik badezute?" Erantzun giñizun, aita zarra, eta anaya txiki zarzaroan jayo zitzayona eta txit maite zuena genduzkala; eta esan ziguzun: "Onera ekardazute; ikusi nai det." Erantzun giñizun, gure aita, semetxo hura bere ondotik kendu ezkeró, illa gelditzen zala. Zuk esan ziguzun: "Ezbadezute ekarten, ez nere surrean geyago jarri". Etxera joan giñan; zuk zer eskatzen zenduen, aitari esan giñion; eta berri onekin naigabeturik, luzaró etzigen eman nai izan. Atzenean zér jana aitu, eta goseak larritu ginduenean, aitak esan zigun: "Egipto-ra zoazte, eta gari piska bat erozi ezazute." Guk erantzun giñion, ezin onará anaya gazteena gabe etorri gaintezkeala. Aita txit ansiatuak erantzun zigun: "Zuek dakizute, nere Rakel maiteak etzirala seme bi baizik eman; bat nere ondotik joan zan, eta esan zenduten pisti batetik jan zuela, eta egundaño etzat agertu. Baldin orain su eramango bazendute, eta bidean ez-bearren bat izan, tristuran lurpetuko nazute." Orain, bada, Jauna, baldin gu aitagana joan, eta seme au gurekin ezbalihoa, miñaren miñez ilko litzake, eta gu zure serbitzariok arén ezurrik penaz lurpera eramango giñituke. Ni nerau onen ordez menpeko izango naiz, itza emanik nagoan bezala; ni nerau emen geldituko naiz, eta Benjamin bere anayakin dijoala. Ni bera gabe nere aita gizaxoagana ez noa, nere guraso ona iltzen ez ikusteagatik."

Ontaraño José-k, nekez bederik, bere Jauntasunari eta inguruau zeuzkanai begiratuta, negar gabe iraun zuen; baña ezin geyagora zanean, an zeuden guziak irtenerako zituen, eta gizon arrotz ziralako ayekin bera bakarrik gelditu zan. Orduan negar artean ots andi batekin itz labur oyek doi-doi esan zituen:

— "¡José ni naiz! ¡Nere aita oraindik bizi da!" Eta mututu zan. Anayak ere izuturik, etzuten ezer esateko kemenik izan. Igipotak José-ren lantu eta negar-otsa aditu zutenean bereala igerri zioten, zergatik izango zan; baita laster Faraon-i adierazo ere. José-k berera edo kontura zanean, esan zien: "Ni naiz zuen anayá, zuek saldu ninduzutena. Ez ikaratu; zuen ónerako zuen aurretik Jainkoak Egipto-ra bialdu ninduen, eta Faraon-en aita-ordeko eta Egipto guziko Nagusi egin nau. Zoazkiote, eta nere aitari esayozute: "Zure seme José bizi da; eta ara zer gaztigatzen dizun: Jainkoak Egipto guziko Nagusi egin nau. Bere-bereala onara atoz..."

(TESTAMENTU ZARRECO ETA BERRICO CONDAIRA..., Tolosa-n, 1855, 58-59 orr.)

— GREGORIO DE ARRUE.—

(Hernani, 1811 — Zarauz? 1890)

Eskola-maixua zan, eta Zarautzen bizi izan zan. Gure Gregorio ARRUE, Itzultzalea dogu, batez be (euskeratzaillea): "traductor profesional y experto" (Villasante)... Amaikatxu liburu euskatu ebazan! Euskeratik euskerara (gipuzkerara) be bai, azkenean! (A, Mendiburu'ren "Jesúsen Biotzaren Debodia" ta Mogeldarren "Peru Abarka" ta "Baserritar jakintsua-ren etxeko eskola"...). Jakiña: libururik geienok — ia danak-eleiz liburuak edo erlejiñozkoak dira; ori bai, asko erabilli ta irakurritakoak: Arrue'n izkera, izan be, ain da ugaria, berrezkoia ta errikoia... .

NORK BERE KONZIENZIA BEGIRATZEAZ...

2.- Negar egizu, ta sumiñ zaite, oraindik orren aragikoi eta mudutar izateaz: Zere griñetan añ gutxi illerazia, eta gutizi eragabeaz añ betea: Gorputzaren sentieretan begiramentu añ gutxikoa; aizezko burutazioz askotan añ nastua: Kanpoko gauzetara añ emana; barrungoetarako añ zabar nagia: Far egiteko ta jostatzeko añ arinä; negar egiteko eta damutzeko añ gogorra: Nasaitasun ta aragiaren atsegiiñ-kontentuetarako añ prestatua; penitanziarako ta debozio egiazkorako añ alperra: Elaberriak aditu eta gauz ikuskarriak ikusteko añ gogotsua; gauza umill ta txárrak artzeko añ uzkurra: Ondasúnak billtzeko añ gosea; emateko añ begiratua; oriek idukitzeko añ eutsia: Itzketan añ begiramentugabea; isill egoten añ gaitza: Oituretan añ neurri ta eragabea; gauzén egitean añ burugabea: Janean añ neurrigabea; Jainkoaren itzá entzuteko añ gorra: Alperkeriara añ emana; lanerako añ nagia: Kontuak aditzeko añ ernaya; gauean koruko errezoetarako añ lotia; oek buka-tzeko añ sosegugabea; arreta ipiñtzen añ zabarria: Errezoak egiten añ nagia; mez-ematen añ epela; komulgatzen añ agorra: Añ laster oartkabetua; añ bánaketan zeregan bildua: Aserrera mugitzen añ lasterra; bestea deskustatzeko añ erraza: Juzkatzeko añ presta; zorrozki ta miñ itzegiteko añ latza: Gaúzak nai erara datozenean añ alaya; ezegokietan añ ixuria: Asmo ónetan añ ugaritsua; lan edo obra ónetan añ urriya: (...)

(Aita T. Kempis: "Kristoren Imitazio eta Munduaren Desprezioa", Tolosa, 1887, 4-garren liburutik, VII Burua, pp. 463-465)

PRESONDEGIAN GENOVEVA AMA EGITEN DA

Genoveva presondegian illabete luzeetan egon zan; eta debora guzi orretan, Go-lo gorrotagarria ezpazan, beste iñor ikusi etzuen. Onek bere eskari lotsagarriak egitea uzten etzuen; berak nai zukeana egitearen aldera eta ez bestela, jendeareki-ko bere ondra eta izen ona Genoveva-ri biurtu eta presondegitik ateratzea agintzen. Baiña Genovevak garbitasunean sendo iraunaz, beti esaten zion:— "Nayago det gizonen begietan desondratutzat egon, egiaz ala izan baiño. Bai, nayago d.t ziega

illun onetan agoni luze batez ill, gaiztakeri baten bidez erregin izatera igo baiñó.

Bitartean, bere eramankizunak aurrera joan bear zuten.

Bere senarra joan zitzaionetik lastrar, ama zalaiko segurantza pozgarria artu zuen. Bera preso zegoen-dehbora gogorrean, au jayotzeko denbora eldu, eta presondegi triste artan seme bat argitara eman zuen.

"Ene seme laztana, - aur gaitz-gabea samurtasunik andienaz bere magalean artuaz ama errukarriak zion - ona non emen, ziega illun onetan, orma beltz-gogorre artean zauden, non mundura-bearra ziñan! A! atoz nere besoetara, atoz ona, nere biotzaren ondora, emen estali eta epel zaitzadan. Zure ama gajoak zu biltzeko pixoyal eta trosik ezteuka; kutxare bat-zopa-berro zuri ematera datorkean iñor eztago. Eritasun eta neke-penak erkitua eta aitua daukaten ama batek, nola mantendu alko zaitu, gaixo ori? Bizileku izugarria onetan zu eratztateko, lasto ustel-kirastua edo ta adri ilu otz-gogor au besterik eztago. Ura darion bobeda beltz onen azpian, betiko busti eta otzarekiñ ilko zera, gaixo ori. O arriak! zergatik bustitzen didazute onela nere errayetako semetxoa zeron ur-tantaz? Zuek-ere, gizonak bezela, errukigabeak zeratet?. Baiñá ez, barka zadazute; zuek, pareta mutuak, zuek gizonak baiñó urrikaltsuagoak zeratet; nerekin nere semetxoaren onbear, premi eta miseria, penaz eta naigabez ezpada ezin eraman dezute, eta nerekin batera goibeldu eta negarrez zaudete."

Onela esanaz, lurpeko zulo illun artatik ezin ikusi zuen-zerurontz begiak goratu, eta bere semetxoa bere beso aulduetan gora jasota negarrez esan zuen:

"Oene Jaungoikoa! nik semetxo au, zure eskutik datorkidan doai bat beze-la artzen det. Zure erregaloa dan bezela, zuri dagokizuna da; eta beragatik, oso eta bizi, Zuri eskeiñi bear zatzu. Bai, - jarraitu zuan surrera, geldika alaituaz - aurreneko nere eginkizuna, au Zuri ofrendatzea da. Nik au Zure eliza santura ezin bial negizuke; baiñá emen-ere, Zu gurekin zaude, an zauden bezela; eta non-ere Zu zauden, ene Jaungoikoa, an arkitzen da zure eliza. Gajo-au artu eta batayoko pontean-ren gaiñean idukiko duen esku ongille bat, emen eztago; aitari eta aita-pontekoari beren eginkizunak gogoraziko dizten apaiz bat ere, eztago. Niri, bada, iñoren lagun-tza-gabeko aur errukarri onen ama tristeari, niri dagokit, amari, aita eta apaizaren ordeak egitea. Egiten dizut, o nere Jaungoikoa, baldin nere semeari eta neri bizia gordetzen badigu, au fede egiazkoan azitzéko, Zuganako ete bere antzeko gizonek-ganako onginai eta amorioa erakusteko, eta nere kontura eman didazun joya preziaztu bat bezela, bere anima gaitzetik gordetzea, promes agirikoa; egunen batean, garbi eta bekatuaren eta oitura galduen mantxa gabe, zuri biurtu al dagizudan, eta ondasun sagradu onen kontu zuzena eman degizudan."

Ondoren, Genoveva-k bere isillean luzaro grazioa egin, eta urarekin zegoen-txarroa artu, eta aurttxoa batayatu zuen, "Ditxagabea"ren izena berari ipiñiaz.

"Ongien datorkizun izena au da, seme laztana, - ama gajoak zion - nai-gabe min ta negarren artean mundura zera-ta; "Ditxagabea" izango da ponteko zure ize-nai; eta zure amaren negarra, zure batayo-egunean egiten zatzun doai-eskeiñi tristea."

Batayatu-ondoan, bere-hura bere mantelean bildu, eta bere magalean artu zuen.

"Nere magala - esan zuen -, orra zer izango dan emen zure seaska."

Gero, aldean zeukan-ogizati beltz-gogorrari begiratu, eta: "Ona emen - jarraitu zuen esanaz - zer izango dan surrerontzean zure janaria. Txit gogor eta zatarra, eta neretzat ere urri-askoa da; baiñá poztu zaite: zure amaren negarrak bigundu eta Jaungoikoak bedeinkatuta, biontzat askoko da."

Orduan, apur batzuek aoan maskatu eta bigundu, eta aur gaixoari apurka eman, eta au amaren belaunetan loak artu zuen... ("Brabante'ko Genoveva", K. Schmid, Edit. Itxaropena, Kuliska Sorta, n.37-38, 1960, pp. 22-25).

Pedro Miguel URRUZUNO
(Elgoibar, 1844 - Mendaro, 1923)

Abadea; bere erriko parroko izana, ta, gero, zartzaroan Mendaroko Agustina-mojen kapellaua... Izlari ona ez baiña, sermoi-idazle bikaiña ei zan. Idezle lez, Ipuin-asmatzaile joria, ugaria: orduko euskal-aldiskaririk geienetan argitaratu zituzan ipuiñok, "AUSPOA Liburutegiak" batu ta eskeiñi deuskuz barriro (nn. 5, 28, 51)... Erriarentzat egten eban, eta orregaitik bere euskera ta joskera oso errikoi, bizi, argi ta aberatsak dira. Oso ospetsuak dira bere Ijito-ipuiak...

"Umorea" be ez dau edozelangoa: "Euskal-umoreari buruz, esan genezake oker aundi-rik gabe, Euskalerriak idazle gutxi izan dituala, oso gutxi ere, Unruzunok bezala "umore" berezi ñiri beren lan-egiñetan irauli dutenak..." (Antonio Arrue).

EUSKAL-ERRITIK ZERURA

Egun tristeak eldu zitzazkan Bentura gaixoari. Ainbeste maite zuan amona, berotzat amarik onena izandu zana, ainbeste lastan gozo eman zizkana, zerurako bidea ciñ ondo erakutsi ziona, ill zan larogei ta amaika urterekin, gelditzen zala bera ogei urtekoa lurrean, jabe gabe.

Atsekabe guzien artian ba zuan atsegiañ bat. Berak egiñ zion al guzia amona gaixouri, ta ala ill zan kristau on bat bezela, ta gañera aterako zizkan al zituan Mezak, lenbailen zerura zediñ, lenagotikan ezpazegoan ere, ta amona gaixoak zerubik lagunduko zion.

Andre Errosa étzan aztu Benturaz; bere jauregira ekarri ta alabatzat ar-tua zeukala zirudian. Esan bearrik eztago, zeiñ ondo erantzuten zion Benturak bere ongilleari... Neguko arrats batean, errosaio santua esan, eguneko santuaren bizitza izakurri, ta lotaratzeko artian goiztxo zan, ta esan zion Andre Errosak Benturari:

- ¿Bai al dákizu ipuiren bat?
- Ipuirik eztakit, baiñ bai ipuiaren antzeko beste gauza bat.
- ¿Zer ote da ba?
- Amets bat.
- ¿Zedorrek egiña?
- Bai, andria.
- ¿Polita al da?
- Nere iritzian oso polita.
- ¿Esango al didazu?
- Bai, andria, ta oso pozik bedorrek nai badu.
- Aditu dezagun ba... esan zuan Andre Errosak, ta Bentura ahi zan esaten onela;
- Gau baten ahi nintzan ametsetan, lo nengoala.
- Bai alegia, lo egongo ziñala - esan zion Andre Errosak -. Esna dagoala eztu inork ametsik egiten.
- Barka beza - erantzun zion Benturak -, esna nagoala're egiñ oi det nik amets.
- ¿Benetan?
- Bai, andria, bai, bene-benetan.
- Beraz bi amets, bat lotan ta bestea esna egiñ dituzu.
- Alaxe da, andria.
- Gaur esan zañguzu ba lenengoa, au da, lotan egiña, ta bigar esango dezu bestia.

(Aurrera jarraitzen /dau.

- Astera noa lenengoa esaten. Len asi naizen bezela, esaten diot berriz ere: lo nengoala agertu zitzaidan aingeru oso eder bat. Bi ego txikitxoak zekarzkian eskutan.

- Emakumea - esan zion Andre Errosak -, ¿eskuetan egoak?

- Bai, andria - erantzun zion Benturak -, baña oiek zekartzkian, bere ego andiaz gañera. Ezarri zitzan nere sorburuetan bi ego txikitxuok, eta esan zidan: "atoz nerrek"; asi giñan biok egaka, ta laster eldu giñan illargia, eguzkia ta izarrak baño're gorago.

- Eta begira - esan zion Andre Errosak -, ¿ez al zenduten arkitu bidean orain go "aeroplano" oietakorik?

- Batzuek bai, andria; an zebiltzan, sagu-zarrak ziruditela, beiñ ara, beiñ ona, mozkorturik ibilli oi diran gizonak bezela, baña ez giñen jaramon andirik egiñ.

- ¿Eta gero? - galdezu zion Andre Errosak.

- Gero - erantzun zion Benturak -, berala eldu giñan zerura. An zer ikusi, zer aditu ta zer sentitu nuan, nik eziñ esan nezake. Iruritzen zitzaidan, edertasun gozo ta atsegiñ guziaz egindako itxaso bat zala, ta itxaso onen erdian nengoala. Goien-goienian ageri zan jargoi, izan diteken ederren bat, emakume bat an jarria, aingeruak baño're askoz ederragoa, ta aingeruz inguratua. Nola enekiala, ega egiñ nuan bere oñetara, muñ egiñ naian, baña "ez" esan zidan. Artu ninduan bere besoetan, ta eman zidan laztan andi bat nere bekokiaren erdi-erdian. !Zer zan ura! Arren gozotasunak pozaren pozaz ler eragiñ bear zidan, ta esnatu nintzan; nekez konturatu nintzan, nun arkitzen nintzan.

- Pena izango zenduan ba gero - esan zion Andre Errosak.

- Ez ba alaña're - erantzun zion Benturak -, amets ori oraindik egi biurtuko dalako esperantzan gelditu nintzan, ta Jaungoikoak ala izan dezala.

I I

Bigaramon gabian ere, beti bezela, erosario santua esan, eguneko santuaren bizitza irakurri, ta esan zion Andre Errosak Benturari:

- Ia nola esaten diguzun orain bigarren ametsa.

- ¿Esna nengoala egiña,edo maiz egiten dedana?

- Bai.

- Berealaxe - erantzun zion Benturak -. Nere amona maiteak, ill bear zuan aurretxoan, eman zitzan esonde edo konsejuen artian, bat gelditu zitzaidan biotzian oso itsatsia: "Eztezazula beñere Euskal erritik irten; Euskal erritik zerura; Euskal erritik zerura; Euskal erritik zerura." Iru alditarao esan zidan, eta nik badarabilt búruan asmo bat, esonde edo konseju ori egiteko, baña amets bat bezela.

- Eta ¿jakin dezaket nik asmo edo burutazio ori zer dan? - galdezu zion Andre Errosak.

- Bai, andria, bai... Berealaxe esango diot: mojen Elizan sartzen naizen bakoitziain, esaten det nere artian: "ni or barruan biziko banintz, juango nintzake Euskal erritik zerura..."

- Eta ¿juango ziñake moja? (Andre Errosak).

- Bai, andria; baña...

- Eta berak, au da, mojak, etzinduzteke artuko?

- Bai, andria; baña...

- ¿Zer esan nai dute bi baña oiek?

- Lenengoak esan nai du, diru edo doterik eztedala.

- ¿Eta bigarrenak?

- Bedorren borondatea're bear dedala.
- ¿ Eta dirua izanta're, nere borondate gabe etziñake juango?
- Ez, andria.
- ¿Zergatik ez?
- Asko ta asko zor diodalako, ta gañera lotsaren bat ematen badit ere esateak, esango diot; asko ta geiago ta esan eziñ ainbat bedori maite dedalako.
- ¿ Eta nik nai izan ez arren, Jaungoikuak deitzen badizu?
- Jaungoikoak nai du, ongilleai esker onez erantzutea: ta nik erregutuko nioke, bedorri borondatea mudatzeko, neri baimena eman degidan, ta iritxiko nuke mesede au: ala uste det.
- Iritxia daukazu gaixo orrek - zion Andre Errosak bere biotzian; negar-malkoak asi ziran azaltzen bere begietan, ta Benturak igarri etzegion: "Bai, bai, bigar itz-egingo degu" - esan ta juan zan A. Errosa, "gabon" esanik, bere gelara; baita Bentura're berera.

Andre Errosa bere gelan sartu beziñ laster, negar ugari egiñ eta asi zan bakarrizketan onela:

- !Ai, Bentura, Bentura! Eztakizu oraindik zenbat nai dizudan; aingeru bat zera, zure amona zanak esan oi zuan bezela, ta aingeruentzako bizi-lekua lurrian, zuk begiz jo dezun etxe santu orixe da. Zartu naiz, eta laister ill bear det; zugandik al-dentzeak bizia laburtuko dit, baña ezagutzen det ondo, gaztearentzat gaur arrisku aundiak daudela, bakarrik gelditu ezkerro. Zure amonak deitzen dizu "Euskal erritik zerura", ta biderik zuzenena berak gogoan jarri dizu; ni berriz pozik ilko naiz; leku aiñ onian zu uzten zaitudalarik, nere animaz ere zu oroituko zerala gogoratzean.

III

Eztitut gogaitu nai nere irakurleak: alik laburren amaitzera nua. Ama Birjiñia Karmengoaren eguna izandu zan zorionekua ta gogoangarria Benturarentzat. Egun onetan egiñ zuan sarrera komentuan Andre Errosak lagundurik. Azkeneko laztana ematean Benturak bere ama-ordeko Andre Errosari, esan zion: "Laztan au da, laster zeruan betikotasun guzian emango diodan laztan gozo aren asiera...".

Denbora gutxiko sartu zan Bentura komentuan. Amasei illabete zeramazkian, ta gaixoturik, sendakiñak lenengo egunetik eman zion epai txarra. Bere gaitza biriteria zan, bere ama zanarena bezela.

Oso triste zeuden mojak, baña ezagutzen zuten Bentura aingeru bat zala, ta aingeruen lekua zerua zala. Gaixoa berriz gaitzaren indarraz eta zerura lenbai- len juateko egarriaz, ondo prestau ta eriotzara urreratuaz zijuán.

Ai! Arnasa estua dauka gaixoak, izardi larretan dago; itzik egiten eztu. An dagokio Prai Juan ondo illtzen laguntzen ... "Idiki bitez zeruak, ... betor Goi-aingeru Migel santua, ... betoz zure bidera Aingeru guziak, zerura eraman zaitzaten", - esaten zuan Prai Juánek; eta gaixoak, begiak zabal-zabal egiñik, irriparrezko arpegiarekiñ izketa asirik dio: "!Ai, au aingeru-talde ederra, ai, suek kantu alaiak! Veni sponsa Christi, atoz Kristoren esposa, kantatzen dutela dato, atoz Kristoren esposa".

- Banatorkizue bai - erantzuten du gaixoak.

Moja guziak negarrez zeuden bere inguruau, ta beren buru egiten zuanak galdetu zion: "¿Nora zuaz, gaixo ori?"

- ¿Nora? - erantzun zion Benturak -. Euskal erritik zerura... Auek izan ziran bere azkeneko itzak.

(Amaitzeko)

IV

Komentuko illerian ageri da oraindik zurezko gurutze zartxo bat, ondorengo idazki onekiñ:

"Ementxen dago obiraturik - aizpa txit maite Bentura,
aingeru baten antzera beti - bizi izandu zan ura;
baña aingeru bat bizitzeko - diña ez izanik lurra,
gorputza illik anima juan da - Euskal-erritik zerura."

(AUSPOA Liburutegia-tik, n.º 5, pp. 13-23).

— PRAILLEA TA DON BURNO (Ipuia). —

Don Burno, bere ustez, gizon arrazoizkoa zan, antiklerikaltxo bai, baña orreton ere bazituan bere arrazoia.

Praillreak noizean beiñ eskatu oi zion mandoa Don Burnori, eta, gogo onez ezpan ere, ematen zion ibillaldiren bat egiteko.

"Praillreak itz onak baña...", au zan Don Burnok beti bere aon zeukan esaera, eta erri guziak ikasi zion. Jaun onek agindu zion egun batean bere morroiari, praille-jantzita, eman zegiola manduari astiñaldi on bat makillaz, prailleaganako gorrotoa manduari sartzeko; ala egin zuan morroiak.

Egun batean, Prai Manuel, Ilego gizajoa, juan zan mandoaren eske, beti bezela, eta Don Burnok agindu zion, okullotik artu zezala. Bazijuan artzera, baña mandua, praille ikustearaz bat, asi zan ostikoka, urreratzen ere utzi gabe Prailleari, eta mando gabe biurtu zan etxera, esanaz, Don Burnok mandua antiklerikaldu zuala.

II

Don Burno bazijoan guziz apaiñ bere mandoaren gañean, eta praille-etxearen aurrean igarotzean, atera zan Praille bat komentutik, eta ura ikustean, mandua oso iztu, eta asi zan laisterka ta saltoka, jo bazter bat eta jo bestea, txapela kaleko parol baten katiatu zitzaion, estalkia edo kapotia urtara, pipa, betaurrekoak (anteojos euritakoa (paraguas) or emen banatu, ate-buru bat buruaz jo, eta azkenik lurrera eroirik, korde gabe gelditu zan.

III

Jaso zuten komentura eta Prai Manuel an ari zitzaion, Ebanjelioko Samaritarren antzera, ardo ta olioaz bere zauriak garbitu ta gozatzen; jendea're bildu zan, eta sumatu zuten; Prai Manuel ek zerbait ere mur... mur... mur... alopean esaten zuala. ¿Oleazio Santua ote zan? Baña ignola, Prai Manuel Legoa da-ta? Beste otoitzan bat izango da. Bai; ara zer esaten zuan: "Praillreak itz onak baña... Praillreak itz onak baña... Praillreak itz onak baña..."

— Obrak ere bai —, erantzin zion alako batian Don Burnok.

IV

Eraman zuten jaun au bere etxera, eta bigamonean nolabait ere esku bat jakaren sakelean sartzean, arkitu zuan papertxo bat; onia zer zion:

"Konsejuren bat eman - baño len iñori; Guzion begietan - oraiñ da nazaldu,
kontu nola gelditu - zindezken zedori; nola mandua dezun - antiklerikaldu;
etzaitezen kontuan - berandu erori, berriz bota etzaitzan - eta oso galdu,
gaitz egin diozula - zere buruari. obe dezu mandua - alik lenen saldu.

Don Burnok saldu zuan mandoa ta erosia zuan beste bat. Prai Manuelek bere esku zeukan mando au, eta biak oso adiskide dira. Ala izan ditezela urte on askoz.
(AUSPOA Liburutegi-tik, n.º 5, pp. 47-50)

••• FR. JOSE ANTONIO DE U R I A R T E •••

(Arrigorriaga, 1812 - Zarautz, 1869)

Frantziskotarra. Espanan fraileak komentuetatik bota zituezanean, Markiña^{ra} joan bizitzen, eta sermolaritzan ibillà zan erririk erri: bein baten, Bilbo^{ko} San Nikolas-eleizan orrelakoze sermoe bat egiten egoala, Luis Luziano Bonaparte^k entzun eutson, eta berealaxe eskatu eutsan laguntasuna euskal-dialektoen Mapa bat egiteko. Bai lagundu be Aita Uriarte^k? Lenengo, lan txikiak ziran; baiña gero Biblia osoa euskeratzeko eskatu eutsan gure Bonaparte^k. Lan ori aurrera eroateko, Duvoisin (lapurdieraz) eta A.Uriarte aukeratu eban (gipuzkeraz). Bera bzikaitarra izan arren, alegindu zan, bai, A.Uriarte gauzak ondo egiten... Auxe dogu gure aldean euskeraz egin izan dan Biblia osoaren itzulpenea; baiña, zoritzarrez, zatitzu bat baiño ez dago argitaratuta (lenengo 3 liburuak); enparaua, or ei dago Gipuzkoa^{ko} Diputaziñoaren Liburutegian, noiz argia ikusiko zain...

Beste liburu batzuk be egin ebazan euskeraz (bizkaieraz); eurotariko "Marijaren illa edo Maijatzeko illa" (1885), asko erabillia izan da Bizkaian.

Uriarte^k Bibliaren itzulpenean darabillan euskerari buruz, ara A.Villanante^{ren} eritxia: "... geienetan euskera jatorra darabil, argia, erreza. Berarbada, latinezko testuai lotuegia..." A. Uriarte berak be ba ekian ori: "Nuestras bases son: que la traducción sea literal, bíblica, ligada y exacta. La de Lardizábal no es traducción, sino un extracto libre, inexacto, y de estilo florido, elegante y bascongado. Por eso saca a luz las elegancias del bascuence, que no se pueden ni deben en una traducción como la nuestra... Su estilo florido, libre y elegante no se puede adoptar en una traducción literal, ligada, bíblica como la mía... A cada palabra latina doy el significado bascongado, y sigo el mismo régimen siempre que la locución del bascuence lo admita dejando a menudo el bascuence dominado por el latín..."

GENESIS, cap. III: "Baña sugea zan Jaun Jaungoikoak egin zituen lurreko abere guztiek baño marrajoagoa. Onek esan zion emakumeari: "¡ Zergatik agindu dizute Jaungoikoak ez dezazutela jan paradisuko zuaitz guzietatik?"

(2) Zeñi erantzun zion emakumeak: "Paradisuan dauden zuaitzetako frututik, jaten degu; (3) Baña paradisuaren erdian dagoen zuaitzeko frututik, agindu zigun Jaungoikoak ez jateko, eta ukiturik ere berari ez egiteko, ill ez gaitezzen."

(4) Esan zion orduan sugeak emakumeari: "Eñolaere etzerate illko. (5) Badaki ezen Jaungoikoak artatik jaten dezuten edozeñ egunean, idikiko diradela zuen begiak: eta izango zerate jaungoikoak bezelakoak, dakizutela ona eta gaitza."

(6) Ikusi zuen bada emakumeak zuaitza ona zala jateko, eta begientzat ederra, eta irudiz gozagarria: eta artu zuen bere frututik, eta jan zuen: eta eman zion bere senarrari, zeñak ere jan zuen. (7) Eta zabaldu ziran bien begiak: eta ezagutu zutenean larrugorrian zeudela, josi zituzten piku osto batzuek, eta egin zituzten berentzai mantalak.

(8) Eta aditu zutenean Jaun Jaungoikoaren paradisuan zebillenaren boza airean eguerdi ostean, ezkutatu ziran Adan eta bere emaztea Jaun Jaungoikoaren begietetik paradisuko zuaitzen erdian. (Amaitzeko).

(9) Eta deitu zion Jaun Jaungoikoak Adani, eta esan zion: "¿Non zera?" (10) Berak erantzun zuen: "Aditu det zure boza paradisuán: eta beldur izan naiz, larrugorrian nengoalako, eta ezkutatu naiz."

(11) Zeñari esan zion: "¿Nork bada erakutsi dizu larrugorrian zeundela, baizikan jan dezulako ez jateko agindu nizun zuaitzetik?" (12) Erantzun zion Adanek: "Laguntzat eman didazun andreak, eman dit zuaitzetik, eta jan det." (13) Eta esan zion Jaun Jaungoikoak emakumeari: "¿Zergatik eu egin dezu?" Bérak erantzun zion: "Sugeak engañatu nau, eta jan det."

(14) Eta esan zion Jaun Jaungoikoak sugeari: "Au egin dekalako, madarikatua izango aiz abere, eta lurreko pisti guztien artean: ire sabelaren gañean ibilliko aiz, eta lurra jaingo dek ire biziko egun guzietan. (15) Neronek ipifíko zetikat etsaitasunak ire ta emakumearen artean, eta ire arrazaren eta aren jatorriaren artean: berak lertuko dik ire burua, eta i ibilliko aiz aren orpoaren zelaten."

(16) Emakumeari ere esan zion: "Ugarituko ditut zure nekeak, era aurgiteko zauden demborako zure oñazeak: miñez aurruk egingo dituzu, eta egongo zera gizonaren mendean, eta onek aginduko dizu."

(17) Adani berriz esan zion: "Aditu dezulako zure emaztearen boza, eta jan dezulako ez jateko agindu nizun zuaitzetik, madarikatua izan bedi lurra zu gatik: neke anaiakin aterako dezu bera gandik janaria zure bizitzako egun guzietan. (18) Arantzak eta sasilarak emango dizkitzu, eta jango dezu lurreko belarra. (19) Zure arpegiko izerdiarekin jango dezu ogia, itzuli zaitezen bitartean lurrera, nondik izan ziñan artua: zeren autsa zera, eta auts biurtuko zera."

("BIBLIA edo TESTAMENTU ZAR ETA BERRIA" - Aita Fray José Antonio de Uriarte latinezco Vulgatatic lembizico aldiz Guipuzcoaco Euscarara itzulia - Luis Luziano Bonaparte Principeak eta Don José Antonio de Aspiazu Guipuzcoatarra lagunduric - Londresen, 1859) - Lan oni buruz, ikusi A. Luis Villasante ren artikulu au: "Aita Uriarte eta euskerazko bere Biblia" ("Cantabria Franciscana", 19, 1961, 229 -234)

.- &&&&&&&&&&&&&& -.

(129- garren orrialdetik dator): A.M. Zavala: "EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK":

kario zanak, debekatu egin zion Alzo-ko Imaz bertsolariari olako bertsorik jartzea. Ez da arritzekoa. Zenbait tratabide nolabaiteko xamarra izaten baitziran.

Ondo gogoan artu bear genduke bertsò auek ez dirala txantxetakoak izan. Naigabe garratz asko sortu izan dituzte, ta negar ugariak ixuri-arazi ere bai... Beraz, ez dezayola iñork liburu oni kopeta illunik jarri, neska mutillen izena eta jayotako edo bizitako etxe ta errien izenak kenduak daudeka ikustean. Ez goaz gu iñoren lotak berritzen.

Konforme ez dagoanak pentsa dezala bere ama edo amonaren izen ta guzi emen a-gertzea atsegin izango ote zitzayon... Orregatik ere bertsorik zarrenak aukeratu ditugu liburu au prestatzeko, berri xamarra diranak gerorako utziaz. Bat edo bi ez beste, bertsos guziak irurogei urte baño geyago dituzte, ta ez da aitatutako iñor ere bizi izango.

(Bertsolariak - EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK - I - Auspoa Liburutegia, 15 - Itzaurrea, 9 - 14)

.- &&&&&&&&&&&&&& -.

•= Antero A P A O L A Z A=.

(Urretxua, 1845 - Antzuola, 1908)

Botikario liberal au Bergara'n eta Antzuola'n bizi izan zan. Bere bakardadea zelanbait gozatzeko, euskal-literaturari ekin eutson; bere lanetatik gaur "Patxiko Txerren" baiño ez dogu ezagutzen (en parauak, antza, bere senideak erre egin ebezan...). Antonio Trueba'ren "El Judas de la casa"-ren euskeralpen bat dogu "Patxiko Txerren": ez itzulpen soil bat; Apaolaza'k euskeratu egin eban Trueba'ren lan ori: tokiak aldatu, gertaerak laburtu, izkera arindu... "Apaolaza, aurreratutako Barojatarra genduan. Eta Barojak bezela, ukatu ezindako euskotar gogoaz zeraman bere barrenean txerturik. Trueban prosa, beretzat, astunegia izaki. Ta landertu zuan ainbat ondoen..." "El Judas de la Casa"-k, Apaolaza-gandik atera zanean asko irabazi zualakotzat gaude. Jatorrizkoa bera baño otea da irakurtzeko..." (Juan San Martin) Erri-izkuntzaren maixu jatorra dogu Apaolaza: ba daki gauzak bizkor, samur eta oso errikoi esaten...

VIII-garren ataleetik

Illun arrats batean sartu zan Patxin dendan, arpegia eta eskuak bektzak zituan gizon bat, eta, ez gabon eta ez berri on, eseri zan zokoan zegoan aulkia batean. Ura ikustean, jaiki zan Patxi salto batean eta itxi zuan giltzaz dendako atea; urrena sartu zan barrenean, eta, ikusirik arreba bere lanean zebillela, itxi zuan osteko ate txikia ere, eta, eseri zanean bere lekuau, esan zuan...:

- ¿Zerk ekarri au onera, Mitxel?

- Deabruak eraman nazala, ez i. ikusteko gogoak, Patxi, baizikan etorri nauki iri esatera, txoriya aspertu dala kaiolan egotez, eta esan zidak, ze, egiten ez baditugu bideak ura andikan laister ateratzeko, denbora pasa kantuan asiko dala, eta aren kantuan otsera bat edo bat joango zaiola lagun egitera. Ni an egon naizen artean, ainbestean ere egin duk, baña ni andik atera nintzan ezkerro, eskerrak kapaiñak egin zuten deklarazioari, esanaz ni San Migel arratsean Istantegorriko pagariyan egon nintzala kapañari burlaka kantuan, gizajo ura geroago eta asarreago ziok, eta esaten dik, agindu ziotzuten bezela andikan ateratzen ez badezute, dana zan bezela garbi esango duala.

Patxik, ukabillarekin maya joaz eta birau bat botaz, esan zuan:

- Eta, ¿zergatikan bota bear zaizkit neri txalma guztiak, izanik danak oke-rra egin genduanak?

- Poliki itz egizu, konpañero, poliki. Nik egin diat nere eskota. Zuek eman zizkidazuten ogei ontzako zikiñagatikan, an egon nauk ogei astean itzalean, eta zuek, ureta zidarrezko gauzan gañera, berregun bana ontzako gorde zenduztenok, ez dezute oraindikan ankarik sartu iguzki gutxiko aposentuan. Besteak ezkutatu ituan deabruak zekik nora, eta orain i. bakarrik aiz beldur izan bear duna... badakik, untura oriekin kaiolako atea irikitzén ez badiok txoriyari iges egin dezan.

- Sinistu nazak, Mitxel! Txanponikan ez zidukat...

- Beste zakur bati ezur ori, Patxi! Patxi! Kontuz ibilli ari! zergatik An-zuelan asi duk zurru murra bat on aundirikan egingo ez dirana.

- Eta ¿zer ajoba zaidak neri Anzuelarran berraketangatika?

- Ez dakik, Patxi, Pepeten ipuia?

- Ez diat nai ere jakiterik.

- Baña... ¿nola izan lezakek ik ez jakitea, bularreko aurak dakitenean zer igaro zitzaion Pepete dontsuari?

- Mitxel, utzi zaiet kopla oieri, ez zeukatek zer ikusirikan nerekin eta...

- ¿ Ez dutela zer ikusirikan irekin? Aitu zak! aitu zak! eta aurki esango dirak daukaten edo ez. (...: Pepete'n gertaera)... Ala ba, Patxi, begira zak ondo Pepeten ipuiak daukan edo ez zer ikusirikan; begira zak ongi, Anzuelan dabillen zurru-murrua eldu litekean edo ez juezaren belarrietara.

"Ik esan duk ire artean: Anzuelan ezin nezake kanpiatu diru onekin... zergatik bat edo batek galdetuko luke: ¿Nondik ateratzen dirade meza oiek? Eta besten batek erantzungo luke: Apaizan etxetikan. Orregatik esan duk ik: Saldu zadan etxea eta jarri zadan denda, eta jarri zadan ez ezagun artean, iñork nere eltzean sartu ez dezan sudurrik, eta sinistu dezaten nere ondasunak salbentaren irabaziak ekarri dituala. ¿Ez duk ori ala?"

- ¿Baña zer esan nai duk ainbeste itz alferrekin, Mitxel?

- Esan nai dirat, mutill abilla izan aizela eta aurrera ala izan nai baduk, eman bear dirakela dozenatxo bat ontzako; aiekin igortziaz eskuak txori zaitzalleari, ateratzen ote degun eguzkitara an kalabozoan usteltzen dagoana.

- Lenago ere esan dirat, Mitxel, ez dedala nik dirurikan. Eta... iduki eta ere, juste duk orain arte eman ditudanak ez diradela naikoa?

- Begira, Patxi, egin zak nai dekana. Ni banijoak, ik zer esan dekan ari esatera... Ikusiko duk nola kantatzen duan. Patxi! Ere larrua maitatzen baduk, atera itzak amabi ontzako esandakoak.

& Patxik, agiñak estutuaz ezpañetikan odola ateratzerano, esan zuan birau izugarri bat, eta maiko kutxatillatikan atera zituan sei ontzako egiñak, eta bota zituan maian gaiñean...

- Adiskire - esan zion Mitxelek -, sei falta dituk emen.

- Ez zidukat geyago.

- Amabi bear dituk.

& Patxik bota zuan beste ontzako bat eta beste birau bat.

- Patxi! Ez ari denbora pasa ibilli... Betoz beste bostak...

Patxik bota zuan beste ontzako bat.

- Animatu ari, gutxi falta dituk.

- Ez detala gēiago.

- Txoria kantuan asiko dala.

Patxik bota zuan beste bat.

- Onera beste irurak...

- Iru oñaztu eroriko al dituk, i ta ni biok kiskaldu gaitezen.

- Patxi..., Txoria amorratzen dagoala kantuan asitzeko.

Patxik bota zuan amargarren ontzakoa eta beste juramentu bat.

- Aspertu nauk ia, Patxi, e atera itzak falta diran biak.

- Ez diat geyago emango, bizirik nagoala larrua kentzen badirade ere!...

- Patxi..., txoriak kantatzen badu, lepo ori estutuko ditek...

Patxik bota zuan beste bat.

- Ia ba azkena...

- Ez da txiki txiki egiten banaute ere, ez diat besterik emango.

- Ay kerten aundia! Ontzako baten gora-beragatikan, nai duk zintzilika dantzan ibiltzea! Zer ikusgarri polita egongo aizen, mingaÑa kana-laurden bat kanpora deala!

Au aditu zuanean, Patxik bota zuan azkeneko ontzakoa, esanaz:

- To, eta erosi zak berakin ni urkatzeko soka.
- Zeregin oiek borruuanak dituk - esan zuan Mitxelek, ontzakoak gerrikoan sartuaz †. Orain eregi zak atea noan Bergarara, artale auek sartzen ote diozkaten ari kaiola-ertzen batetikan, eta bigar egun-sentirako Lakiola basoan daukaten txendorrean egon nai nikel, zergatikan onezkerro eske egongo duk ura. Ain zeken ibilli ziñaten nerekin ontzako partitzean, eze berriro ere aizkorari eldu bear izan zioat, biziko banaitz.

Patxik, giltza artutzen bazuen bezela, artu zuan mai gañean erdi ezkutatua zegoan arakin kutxillo bat, eta eman zuan pauso bat Mitxelengana.

- Patxi! - esan zion onek, pistola bat ateriaz gerrikotikan -. Patxi! Baldin giltza ez baduk billatzen atea irikitzeko, onek irikiko dik ire buruan atea edo leioa, kutxillo orrek baño obeto.

Patxik, lotsaturik, esan zuan zerbait aopean, eta utzirik kutxilloa, eregi zuan atea, nundik esmendatu zan Mitxel.

Bakarrik gelditu zanean, Patxi joan zan kutxatillara, eta, ikusi zuanian Mitxelek eramandako ontzakoak utzi zuten utsuna, asi zan birauka, buruko illeak ateriaz eta negarrez, eskola ume bat bezela.

("PATXIKO TXERREN", Auspoa Liburutegia, 8, 95-102)

&&&&&&&&&&&&&


Iztueta: EUSKALDUNAI EUSKERAZ (18 -garren orrialdetik dator)

... argiro dakuskuna, jiez da lotsagarri ez ezik, mingarri ere, Gipuzkoako Erri leialtan gazteria eskolatzeko, itztxo bat bakarra ere Euskaraz ez dakiten Maisu erdaldunak ifintea? Eta oraindik are illgarriagoa baizik ez da, eskolako aur gaixoai itz bat Euskaraz erorten zaiotelako, beraren etsai ezagutuak dauden gizon erbesteko oek ematen diezaten azote gogorrak ontzat eramatea.

!Zer bada! jaiñ bekatu andia da Euskaldunai Euskerazko itza jalkitzea? !Ha Euskarra maitagarri bizikor gixaixoa! Ez dira, ez, kampotarrak bakarrik zu ikusi nai etzaituztenak; baditzuurrean ere, beren izate guzia zuri zer dizutenak, zu irozo-tzeko buru ausitze andirik egingo ez luketekenak. Eta jzergaitik ori? Ez bestegaitik, ezpada, beren ona nondik datorkioten ezagutzen ez dutelako..."

(GIPUZKOAKO PROBINTZIAREN KONDAIRA EDO HISTORIA, Itzaurrea, V-VI)

-&&&&&&&&&&&&-



ALFONSO MARIA ZABALA
(Ezkioga, 1847 - Hernani, 1919)



Ezkioga'n jai o zan, baña gero Zegama'n bizi. Abade egin da gero, Ondarrabi'n, Zegama'n, Donostia'n eta Hernani'n egon zan: erriok ba dauke zer-ikusirik Zabala'ren idaz-lanetan; erriotako izkerak erabilli zitualako bere ipuin ta komerietan... "Lagun-arteko gizona... Oso iztun atsegina... Sermoitarako ere grazia aparta omen zuen... Benetako euskaltzalea..." (Auspoa Lib., n.16, 9-22)

Liburuak: 1) "Gabon gau bat eta beste ipui asko" (Auspoa Liburutegia'k argitaratu ditu, ipui guztiok batean, bere 16. g. numeroan).

2) "Periyaren Zalapartak" eta "Melitona'ren bi senarrak", komerik (Auspoa, n. 26).

ORI EZ DEK IRRINTZIA; ORI DEK ARRANTZA: "Legazpiarrak, azkarra eta erneak dira lako sona dute, bañan azkarren artean ere, kerten antzeko batzuk sortzen dira, pasadizo onek aditzera emango duan bezela."

Aiztorrondoan jayo, azi ta bizi izan zan artzai gazte bat joan zan bein batean konpesatzen Legazpiko abade batengana, asi zuten konpesioa, eta ez dakit orain zeren gañean, esan omen zion abadeak jia zerbait zeukan?

- Bai, jauna, badaukat - esan zuan artzayak.
- ¿Zer daukazu ba?

Baña artzaya omen zegon ixilik, eta noizik bein burua jiratuta, kanpora begiratzzen zuala.

- Esazu, esazu bildurrik bage dezuna - esaten zion konpesoreak -; pekatu egiteko lotsatu bear da eta ez konpesatzeko.

- Nik ezin esan dezaket ba egin dedan pekatua - erantzun zion azkenean ere artzayak.

- ¿Zergatik ez, ordea?
- Zergatik emen dauden auek adituko duten.
- Esazu ixiltxorik.
- Ezin liteke, ordea.
- ¿Beraz, beste lekuren batean esan bearko didazu?
- Bai, nai badu.
- Goazen ba korura eta an esango dezu.
- Goazen ba.

Igo ziran bada korura, eta ara emen artzayak egin zuan konpesioa: - ¿Ez dakit beorrrek jakingo duan, nola ezkontzen naizen Kortako alaba gaztenarekin? Bada, lengo Ostegunean Arri-Urdingo zelayan nere ardiekin nebillela, ikusi nituan zijoatzela Angon aditzera emateagatik olaxe irrintzi egin nien: Ji...ji...ji...jiii...

Eta egin zuan irrintzi bat, eliza guztia aidean ipiñi zuana, esanaz konpesoreari: - "Ara emen nere pekatua." - "Ago ixillik, !kirtena!" - esan zion abadeak soa eskukin estaliz -; "ori ez dek irrintzia, ori dek arrantza, eta i bezelako astoak errotan obeto zeudek elizan baño." Eta utzirik koruan artzai iñozoa joan zan bere konpesonariora, itxogiten zeudenak konpesatzera. (AUSPOA LIBURUTEGIA, n.16, 72-74 or.)

— B E O B I D E 'ko AITA Fr. KRISPIN —

(Azpeitia, 1848 - Tolosa, 1885)

"Gaztetxo zala, Frantzia aldera jo zuen, mugaz beste aldeko Euskalerrira, Donapaleuna (Saint-Palais). An frantseza ikasi eta apaiz karrerako beste estudiok egin zituen, eta baita frantziskotar habitua artu eta profesa egin ere... Oso ondo predikatzen zuen A. Krispiñek, bai frantsesez eta bai euskeraz. Mixioak ere ematen zituen euskal errieta..." 1875'g. urtea ezkero Tolosan bizi izan zan.

Liburua: "Asis'ko Loria", 1885, Tolosan. Aita San Frantziskoren Bizitza bat da, erderazko liburu batetik euskeratua (ez itzulpen soil bat). "Beronen izkeraz auxe bakarrik esango dizut. Liburau eskuetan artu dedan bakoitzean, eta edozein zati edo orri, irten aia, irakurri ondoreñ, beti burutzio auxe etortzen zitzaidan gogora. Itxasotik irtetzen dana, burutik oiñetaraiño bustia irtetzen da. Aita Krispiñen garaian Gipuzkoa osoa zegoen euskaltasunaren itxasoak estalita. Esan nai det: zearo ta arras euskalduna zala gure erria. Eta itxaso orren erdiān murgildurik bizi danari, jakiña, euskaltasun mardul gozoa dario alde orotatik, nai ta ez. Eta auxe da gure A. Krispiñi gertatzzen zaiona... Orduko erri euskeraren ispilla jatorra ... Liburu au aztertzean konturatzen gera noraiño urritu ta bakandu zaigun euskaltasuna: itzetan, esa-ereta, ta abar..." (L. Villasante, Itsurrea, 7-10: AUSPOA LIBURUTEGIA, 57-8)

PREDIKATZEN DIE TXORIEI: "Adani pekatu egin baño len kriatura guziyak obeditzen zioten; guztien errege baizen.

Moduren batian gure Santuarekin au berau igaro oi zan, gertaldi onetan bezela. Beavaña bidian erkitu zituan txori asko mueta guzietakuak bide inguruan. Poztu zan txit Santuaren biotza Jaunaren kriatura garbi aiek ikustiaz. Badijuakie. Txoriak geldi.

Agur gozo bat egiten die Santuak txoriai. Alderatu zitzaizkan txori taldiak, jantzen zitzaizkala arpegiz-arpegi. Orduan esan zien Franziskok:

"Aditu, aditu, nere arreba txoriak! Asko biar dezute alabatu zuen Egilia, bada lumaz jantzi zaituzte, airia ematen dizute, bai ta era jaten."

Au esaten zien denboran, txori batzuek mokotxuak idikirik, bestiak egotxuak zabaldu, askok lepua luzatu, eta denak Santuari begira aditzen bazuten bezela esaten ziena, batak baino bestiak poz aundiagua agertu nairik egondu ziran, txorien predikatzalle Franziskok azken bendiziua eman zien arteraño. Orduan denak egatu ziran era bat kantuz Jaungoikua al zuten moduan alabatzen. Franzisko itzuli zan bere lagun arrituetara esanaz: "Damu det txori polit garbiai egundaño ez predikatua." Ze biotz aingeruzkua zuan gure Santuak! (p. 100)

LAZTANDUTZEN DU LEGEN-ARTSU BAT: "Egun batian, Asis inguruko zelai batian zaltziz zijoala, ikusi zuan gizon lepradun, legendaritsu bat, berari zetorkiola. Lendabiziko begiratuan barruna jiratu zitzaion. Baña goraturik beriala, birtuteko bidian beti aurreratzeko asmua artu zuala, eta Jesukristori jarraitzeko, aurrena nork bere burua biar duela garaitu, saltatu zuan zaldi gañetik eta len ainbeste larritzen zuan gizon lepradunari eman zion laztan gozo bat eta gañera eskupeko sendo bat. Igo zan berriro zaldi gañera eta artu zuan zeraman bidia. Len ezin ikusi zuan gizon legen-arrak kutsatua, ta orañ ezin egon da berriz ikusi bage. Begiratu zuan utzi zuan lekura, ta iñor etzan ageri zelai zabal artan.

(38-garren orr. jarraitzen dau)

BITORIANO I R A O L A

(Pasai, 1841 - Donostia, 1919)

Donostia'n bizi izan zan. "Oso donostiarra zan Iraola. Donostiko euskera zan berea; Donostia zarreko ipuita gertaerak ederki zekizkian; arrantzale, txar-din-saltzalle, zeladore ta orrelakoak ondo ezagutzen zituan..." (AUSPOA, n. 9, 11).

Euskal-lanak: 1) Bertsoak: ugari, orduko aldizkarietan.

2) IPUIAK: geienak, barre eragitekoak; "Baserritarra" eri-txon aldizkariaian agertzen ziran geienak. (Batzuk "AUSPOA Liburutegia"n argitaratu ditu A. Zavala'k, 9'garren numeroan).

3) Antzerki edo treatro-lanak (komeri, zarzuela, bakar-izketa: 15'eraiño ei dira, guztiz...)

GAU ERDIYAN...: - Nausi... nausi... !Ori zurrunga! badirudi tronkuak serratzen ari dala... !Nausi!

- ¿Zer demoñiño dezute?

- !Etxian sua degula, sua!

- !Jesukristo! Seguru nago etxe jabiak eman diyola.

- ¿Zergatik?

- Zergatik, nola goiko errentik kobrazu ez duen, sua dariola atera dalako.

- ¿Zer egiten du jantzi gabe?

- ¿Baña galtzerdiyak non laja ditut nik?

- Bat jantziya dauka, eta bestia orra eskuan. Ibilli bedi azkar, bestela kiskalduko gera sopako ogiya bezela. Badaki ni ez nagola aseguratura "contra incendios".

- Ez ni ere. Ua nere anayagana eta esan akiyok datorrela beriala.

- ¿Zer da, arkitetua?

- Ez; kofregillia.

- ¿Zer da or bullaka datorren ori, artilleriya? !a! ez, ¡bonberuak! Ixilla-go ez badabiltza, sarri esnatuko dituzte lo gozuan dauden sereno guziyak.

- !Gizona, iya sartu zenidan eskallera abotiki!

- !Bide! ¿Jostorratzakin zatoz onera sua itzaltzera? Kanpora emendik diyo bonberuak kaskua "a lo tuno" jarriyaz.

- Ni etxeko nausiya naiz.

- Baita ni berriz gobernadoria... eta eltzen badizut galtzen ipurditik, sartuko zaitut emen (karrua erakutsiyaz), !Merke Trefe!

- !Zer, Merke Trefe neri? Gu ez bagiñake, ez litzake izango kaballero bat, eta burla? Aurki jakingo dek sastriak zer geran. (Bigarren bizitzan ate joka).

- Dan, dan, dan.

- ¿Zein da ordu ontan?

- !Sua!

- ¿Zein?

- Ni; bekua! Tira, mugi!

- ¿Zer da?

- !Aguro, baña aguro, kalera: zergatik kiskaltzia, ordu obeten eztu batere grazirik.

- !Jesus milla bider! ¿Bertan al da?

(Amaitze)

- Bai; pasteleriyan orain sartu da.
- !Maria Santisima! Zu, Julita, Julita.
- Andria:
- !Geran aguro, geran! Artu itzazu kutxa, kutxi^{ll}uak, kutxariak, Kutxaroya, eta korrika kalera.
- ¿Baña orraztu gabe, ama?
- !E! Kalera mundu guziya - diyo sastriak, txalekuen botoya lotuaz.
- ¿Eta piamua, ama?
- Esan diyot neskatzari eraman dezala Peparen etxera.
- !Ain nago nastua, eztakit zer egiten detan; tori, eraman nazazu au - diyo sastriari.
- ¿Arratera?
- !Jesus au burua! Loruen kayola zala uste nuen. ¿Zu, bai al dakizu suaren santu debotua zein dan?
- Santa Barbara - diyo sastriak.
- Bada ni, gutxi gora bera, San Andresi errezatzen ari naiz.
- !Guazen, guazen! !A! kofri au balkoitik tiratzerä nua - diyo sastriak berriz.
- ¿Zertako?
- Ia Merke Trefe deitu ditan bonberuari sartzen diyotan burutik.
- !E socorro!
- !Ura, ura, onera, onera!
- !Ura, ura!
- ¿Baña nora?
- !ara! ura !ara!
- !Ate ori jo ta ausi!
- Pun, pun, tris, tras, kataplun.
- Guazen, guazen, !Jesus, au kia!

Ateratzen da surreko leyora Pañiku arrantzalia eta ala diyo:

- ¿Itzali al da sua?
- Sua ez, baño bi sereno bai.
- Bueno; orduan esan akiyote or dabiltzan su guziyari, egiteko mesere one-raño etortzial!

- ¿Zertara?
- Ia tximitx abek akabatzen diran beiñ edo beiñ.
- Bonberuak baziaztik sua itzalita.
- Ago; ni ere baniak.
- ¿I? ¿Nora?
- Lotara.

(AUSPOA LIBURUTEGIA, n. 9, 86 - 89 orr.)

&&&&&&&&&&&&&&&&

K. Beobide: LAZTANDUTZEN DU... (36 - garren orrialdetik dator)... Abiatu zan bila, baña etzuan arkitu. Laster jautsi zan kontuan, edo aingerun bat edo, gizon eriaren antz artan, Jesus izango zala. Pozez beterik ta zoraturik, zaldi gañian abiatu zan kantari Jauna alabatzen, berritzen zuala asmua are gogotiago birtuteko bidiari jarraitzeko. Jesusen amorioz egin oi diran ill-araziak, mortifikasiuak, grazia audiaguak erakarten diozkate animari. Au ikusten da garbiro gure Santuaren bizitzan; zenbat eta geiago egiten dion kontra bere goguari, ainbat animosuago ikusten da beste garaimen bat irabazteko. Au da Jaungoikuaren graziak ematen duan indarra ta beraren ekarraia." ("ASISKO LORIA, "Auspoa, p. 36)

6666&&&&&&&&&&&& 6666



— Marzelino S O R O A L A S A.—
(Donostia, 1848 - 1902)

Donostiarra izan zan, jator-jatorra. Artikulu asko idatzi zituan, bai erderaz, bai euskeraz ("Azak eta Naste"); poesi-arloan be bein baiño sarriago sartu zan. Baiña euskal-teatroaren kreatzalle izateari zor deutso bere osperik andiena: antzerki errez atsegin eta arīñak, barre-eragitekoak, euskera errikoi batean (Ikusi "AUSPOA Liburutegia", n.2).— Itz-lauz "BARATZAN" liburutxu jakingarria itxi euskun: baserritar baten eta kaleko jaun baten arteko jarduna edo alkarr-izeketa; emen be Donostiako kalean egiten zan euskera darabil; alkarr-izketa jator eta bizi-bizi baten bitartez, gure mendi-baratzan goraberren barri emoten deusku, umorerik onenagaz.

BIGARREN JOLASA

- ¿Iñor etorri da, Iñazi?
- Emen etorri da kaballero euskeraz dakiyen ura.
- Euskeraz dakiyena! Euskeraz dakiyena!
- Bai baa.
- ¿Ta zer uste dezu zuk, ez dala kaballerorik euskeraz dakiyenik?
- Bai, bañan ez diruri. Aiñ gutxi azaltzen dira emen... Ta neri gustatzen zait.
- ¿Kaballerua?
- Euskeraz jakitja.
- ¿Ta nun gelditu da?
- Etxekoandriak atera diyo erreberua ta artzen dago atariyan.
- Ondo egin du. Etxekua da ori, bañan nola denbora luzian ez dan etorri, ez dezu /ezagutzen
- Ez bada.
- Tira, bitartian marrubi batzubek bildu zayozkitzu.
- Banua; pozik euskeraz dakiyenian, bestela erdaldunekin nastutzen da bat, ezin itzik aiazirik. A Emen da bera.
- Bildu bada, bildu, ta pentxamentu ta beste lore batzubek ere bai.
- Egun on, Joxe Batista.
- Jaungoikoak egun on digula. Goiz dabil, goiz.
- Ez naiz bada ni txit goiztarra.
- ¿Zer garaitan jeikitzen da bestietan?
- Amarrik aldian.
- Mariya Santisima! Ori bizi moduba! Gizenduko da berriz'e orrela.
- Goiz jeikita're, ¿zer egingo du batek? Denbora ezin botarik ibilli.
- ¿Denbora ezin botarik? Iru t'erditako egun-sentiya da ta oyak ustutzen ditugu, bañan etzaigu guri orlakorik gertatzen.
- Sasoi ontan zerbait goizago jeiki liteke bai.
- ¿Etxilan izandu da?
- Bai baa, ta Ana Marik eman dit errebero ederra.
- Protzu on diyola.
- Eskerrikasko.
- Badakit guk eziñ eman gendezakela gauza aundirik.
- Ez. Zernai badezute ta beti aitzaki azpiyan bizi zerate.
- A jaunai! Guk urteko pitarra izan ezkero, eta esne ta tratu pixka bat plazarako, ez gera aserre.
- Ez, ez; ala diruri gauzak. Gogotik ari zera beñepiñ goizetikan.
- Ari beariko. Gure lana, jakiña da, goizeko intzekin egin biar da; bestela eguzkiyak indarra artu ezkero, ez dago konturik nekazariyentzat.
- ¿San Isidro're nekazariya omen zan?
- Bai, jaunai; bañan arrek egiten omen zuben txoriyentzat ere, eta guk geonentzat diña eziñ bildu.

- Beñere asetzen etzerate-ta. Tira, jdenbora ederra ez dago?
- !Denbora... denbora!... Txarraguak izaten dira bai, bañan turmoi makurra dago, jauna.
- Jaungoikoari kontu aundiak eman biar dizkatzute zubek.
- ¿Bai?
- Bai; zergaitik zubentzat ez da gauza zuzenik izaten. Eudiya bada; legortia biar dala; eguzkiya ateratzen bada, bazter guziyak erre biar ditubela; berriz eudiya asten bada, eragin guziyak usteltzen dirala, eta orrela matrakez betiak zaudezte beti.
- !Ja, ja, ja! Ez dago gaizki somatuba. Guk egiñ bañan erraxago esaten dituzte gauz oyek, bai. Beok oitubak daude guztiya egiña ikusten ta... Asiko balirake emen, eta gaur jarriyak bigar desegiñak ikusi, esango luteke orduban beste zerbait. (...)

LAUGARREN JOLASA

- (...) - !Gizona! !Ori da apaintzia! !Ze majo!
- !Majo! majo... !Noizik beiñ jantzi biar guk ere ditugun galak!
- Txaketa berriya ta...
- Txaketa... ez da orren berriya, bañan ez da zarra're. Geyenaz ere... ;zenbat urte izango ote ditu bada? Sei... zazpi... bederatzi... amaika... ori geyenaz.
- Ez da asko. Geiago lirake amabi.
- Galtzakt zerbaite geixiago dituzte bai, zergatik gu ezkondu giñala bada... ogeien bat urte, eta Ana Mari lenbizi ezagutu nuben urtian egiñak ziran, ta ori zan sei urteen batzubek lentxiago...
- Ez da asko. Ogei ta sei urte. Ez dira zartu zu aña. Itxura ona dakate.
- ¿Guk noizik beiñ besterik ibiltzen al ditugu bada?
- ¿Bañan sisak jaten ez dizkizute?
- Sisak aberatsen erropak jaten dituzte, guriak txartzuak dira ayentzat ere.
- ¿Ta kapa?
- Kapak... badu bere denboratzua, jauna. Aitona zanena zan... ta arrek aitarena omen zuben ta...
- Bai. Moisenen denborakua, tira. (...) ¿Entierrotik zatoz beaz?
- Bai, jauna. Luze baño seguru auzoko gizone jun da. !Ondo falta aundiya egiten zuben bada! Aza-osto oyek ere ez lirake orla egongo, bera begira balego. Bañan Jaungoikuak daki zer egiten duben ta...
- Egiya.
- Etxia ta obia munduban guztia.
- Ana Marien koñataren erriko gizonak bezela eskatu biar ziyon Jaungoikoari.
- Nola eskatu ziyon bada?
- Miñez azkenekuetan zeguala, agindu zizkaten Elizakuak. Artu zituben, eta abadeak jarri ziyon eskutan Gurutze Santuba, esanik iltzen zegoanari, eskatzeko Jaungoikoari biotz-biotzetik geyena komeni zitzayona, emango ziyola, eta baita ere sendatu, ala komeni bazan. Abadea atera zan beziñ aguro, asi zan antsika ta gogotik izketan. Abadea orduban gelditu zan ate-atzean, ta giltzaren txulotik aitu zuben esaten zubela:

" !Nere Jesukristo Jauna! Zere eskuetan daukazuna guztia. ¿Ni ill bear nazu? ¿Zer aurreratzen dezu ni ill-ta? ¿Nola azaldu bear det nik zure surrean, baldin oraindaño oroitu ezpanaiz Zutzaz? Emaztea gelditzen da iru umerekin. ¿Nola bizi bear du? Orain neguen ni Zutzaz oroitzeko ustean!... Ni ill ta ¿zer aurreratzen dezu? Ezer ere ez. Ni errukigarri bat naiz. ¿Nai dezu ill gizon on bat? ¿Bere denbora guztia Zu serbitzen psa duana? ¿meritu aundiak agertuko dizkizuna? Orra On Miguel abadea. Ill ezazu ori. (Ta abadea aitzen zegoan). ¿Naizu ill gizon gaitz bat, erri guztiya nastu ta ixfamillan ipintzen duana? ¿Gizon ori kendu, ta pakea errian egongo dan bat? Ill ezazu Matxin eskribaua, eta arren izan zazu nitzaz miserikordia beste bateraño; nik itza craten di-zut, aurrera oroituko naizela Zutzaz obeto oraindaño baño." (...)

SEIGARRENE JOLASA

- Batista, ¿zér du beyak orrela marruaz?
- Adarre dago, jauna. Atzo umia saldu geniyon ta ...
- ¿Diru ederrik artuko zenduten beaz?
- Poliki xamar artu degu bai...
- Poliki xamar! Poliki xamar! ¿Noiz aoa betian esan bear dezute gauza bat?
- Aoa batian, jauna..., jerraz al da ezer esaten?
- Zubentzaiz ez beñepiñ. Ta jzeñi saldu diozute?
- ¿Zeñi saldu? Oker esanda zuzenena aitzera emango diot. ¿Badaki Loyolako Anton, "Balia" deitzen dioténa?
- Bai, bai.
- Arren semeari, jauna.
- ¿Ta jakin leike zenbat diru artu dezuten?
- Aguro esango diogu, jauna.
- Ori gaidetzen dizut, zergatik beiñ, Erreenteriko feriyan, arkitu nintzan idi paria saldu zuben batekiñ, ta galdetu niyon...
- "¿Idiyak saldu omen dituzu?". "Bai, jauna, bai", erantzun ziran.
"¿Ta nola eman dituzu?". "Merke, jauna, merke." Ta etziran geiago esan. Gero bidian ikusi nuben eroslea idíak, ta galdetu niyon ere: "¿Gaur egin da tratu ona, e?" "Bai, jauna, bai." "Pare edep rra daramazu." "Ala, bada, ala." "¿Ta nola artu dituzu". "Dirubarekin. Garixti, jauna, garixti," erantzun ziran ojuka, ta ez batak eta ez bestek etziraten esan zenbatian sal-erosi zituzten.
- Jolaserako gogua zuekala usteko zuben ta...»

(pp. 51-52)

ZAZPIGARREN JOLASA

- (...) - ¿Nun dabill Batista?
 - Aldamenian da, Mikolazen etxiān. Jakingo du nola ezkondu dan...
 - ¿Nola? Bestiak bezela ezkonduko zan.
 - "Bai, jauna, bañan...".
 - Gure Mikolax ¿ezkondu da beaz? ¿Eta zeñekiñ, eta norekiñ...?
 - Ezkondu da, jauna, zeraren... zerarekiñ...
 - Beste Zeamako andre ura senarrarekiñ bezela asten al zera?
 - ¿Nola, bada?
 - Onela:
 - "Prantxiku, ¿ez dakizu zer pasatzen dan?" "¿zer, bada?".
 "Zeraingo zera zertzen omen da zereko zerarekiñ, eta ayek zertzen badire, iñolaz ere zereko zerera zertuko dire." "Emakumea, zer esan nai dezun zer orrekiñ ez badezu obeto zertzen, gnik nola zertzia naizu? Nik zertzekotan zer ori, obeto zertu zazu." "Bai... zu beti nere uts-egiteak arrapatzen zabiltz eta far egiten." "Tira, tira..." "Ara bada, lenago buruba beste lekuan nekarren ta...". "¿Nun? ¿Lepo gañean ez?" "Nere lanean, eta esango dizut: Zeraingo Ixabelen alaba ezkontzen omen dala Segurako indiano batekiñ, eta ayek ezkontzera ezkerro, ortikan Zeraiña jungs diralá." "Bañan, jnola arrano nik bururatu bear nuen orrenbeste zeren zera zertuekiñ?" (...) (PP. 64-65)

Beste onelango asko be ba ditu gure Soroak, "Baratzan" liburuan (Ikusi, e.b., mozkortiarena -pp.53-57 → Tolosako zezenak, pp. 72-74; lenengo kafia, pp. 90-91; feri-yetako tratuak, pp. 103-106...). Or dozu, bizi-bizirik, baserritarren iżkera jatorra.

--- EUSKALERRIKO IPUINAK ---

"Erri-ipuñak dira literaturaren aurrenengo kimuak, noski. Erri-ipuñak izan dinalako kulturadun izkuntzen literatura oinarriz. Sarri ipuñak aski dira erri baten sikolojiaren bereizkuntza egiteko. Beren aberastasunetik neurtu ditzake erri-gogoa. Arrigarria da, benetan, gure erria agozko literatura orrén aberatsa izanik, idazkiz txiroa izan bearra. Era guztietako ipuñen jabe gera, ta bertan ditugu lenagoko sinismen, kondaira ta oituren etorkizunak... " (Juan San Martin, "Amádriaren altzoan", Itzaurrea, Kulixka Sorta, nn.45-46, 8).

Bardin-antzera uste dabe Azkue'k eta L. Mitxelena'k beso: "Badira, geiegi ezañen, edozein eñiren ipuin ta irakurgaien ondoan, aintzat artuak izateko eran, agertzeakoak ere..." (Azkue, "Euskalerríaren Yakinza", t.II, 8); "A diferencia de la literatura escrita, la oral es abundante y variada..." (L. Mitxelena, HLV, 11).

Amaika ipuin eder entzunikoak dira, bai, gure baserrietakorretako sutondo beroak, neguko arratsalde luzeetan, batez bestetik. Eta idazle asko saiatu dira ipuñok idazten; batzuk baiño ez ditut aitatuko: JOSE MIGEL BARANDIARAN, R.M. AZKUE, Bustintzatarrak ("Kirikiño" ta "Mañariko"), Barbier, Mayi Ariztia, Jautarkol, A. Irigarai, N. Alzola, Julene Azpeitia, N. Etxaniz... (itzultzaillek alde batera itxirik).

AMEN.- Iluntzea zala, aker bat elizan sartu zan. Sakristau mutilak, ateak itxi-orduko, beti bezela, batean euskeraz bestean erderaz ots egin zuen:

- ¿Iñor badago? ¿Ya hay alguno?

Akerrak etzion ezer erantzun eta grisk-grask ateak itxita etxera yoan zan multori. Gaututa gero, bigiraren batetik zetozen-emakume batzuk ots andiak, elizatik zetozen-otsak, entzun zituen ta atera urbilduz, adi adi zeuden barnekoa nor otezen yakin nairik: ala lapurén bat, ala Purgatorioko norbait... ala zena zelakoa.

Barneko akefak ateak adarka zabaltzeko! bazerabilen dranbaladarik! Bigirazaleak izu goritan lasterka ta asnaska apaiztegira yoan ziran! Eta apaizari

- Don José Migel, don José Migel: esan zioten. Inpernuko etsaia dabil elizan. Betor konjuruak egitera, betor len bai len.

Apaizak, bi emakumeak lagun zituela, sakristauarenenean ots egin zuen eta betik gora ta goitik bera, ataritik apaizak eta leiotik sakristauak, izka-mizka luzea izan zuten. Sakristauak bein ta bi ta iru aldiz esan zion, berak etzuela bein ere konjuratzeko ikasi eta berak egiteko bi emakume aiek ere egin zezaketela.

- Bainan adi zak, mutil. Ik eztek beste egin beafik iñango, uñutitxo agoela, nik esango dedanari "AMEN" erantzun: besterik ez. Ator, Luziano.

- Jauna: neri etsaiak eztit ezertariko bildufík. Bi emakume oiek beñiz, beti otoitzean ari dira-ta, !jesus ta bat ala ere!

- !Afen, atoz!, - esan zion emakume bat ofek.

- Tori, Joxepa, giltzea ta or konpon.

Apaizak, zemairen bat eginez edo eztakiñu nola, zuritu zuen beintzat sakristaua

ta an zijoan beste irurem atzettrotik... Bitartean akerak ate-ondoan isil isilik ze-goen, andik irten nai zuela. Iaurak elizarira elduta, bi emakumeak otoitzean eta sakristaua atze-atzeka ari zirala, apaizak, "Aitaren, Semearen..." eginda, nekez bazan ere, safaila-uloan giltzea sartuta, grisk-grask egin zueneko, akerak bere adafetan artuz, aidean zeraman pañoku gairoa.

Sakristaua antxintxika, emakumeak gafasiz zijoazten, apaizak itz auek entzuñara zi zituenartean:

- Luziano, el akit: inperniko etsaiak nazeramak.
- Amen - erantzunez, bere etxera igesi yoan zan Sakristaua.

(Maria Marca, de Ernami - R.M. DE AZKUE, "EUSKALERRIAREN YAKINTZA", II, 43-44)

MUSKIA-ko JENTILLA: Musquia-ko koban bizi zan jentil batek, kristau bat arrapatu omen zuan bein... Eta kobatik alde-egin etzezan, arrigarritzko eratzun bat sartu omen zion eskuko beatz batean "emen nago, emen nago" deadarka beti egoten zana.

Beingo batean kristau ori izkutau omén zan, jentillak pillatuta zeuzkan ardi-narru-artearen... Eraztunaren otsa ürruti-xamar iruditzen nimbait jentillari, eta kanpotik ote zan berean jarri omen zan, Zabaldu atea ta irten dä kobatik.

Baita kristauak orduan, astindu gaiñeko narru pilla, ta sekulako lasterrari eman-ta, jesus batean alde-egin omen zuan andik.

Aditzen du jentillak eraztunaren otsa, eta badijoa lasterka gaindik beera, bere atzetik. Kristauak berala bere buruari etsi omen zion orduan. Baiño alako batean bururatzen zaio arri batekin moztu beatza, eta bere eraztunakin Mikolaldeko ibaira bota bear duala. Ta baita egin ere gizonak.

Gero jentilla atzetik Mikolalde-iritzi zanean, osiñeko eraztun-otsa aditu ta batera, kristaua "an zegolakoan", jauzi ta an itotá geratu omen zan.

("EUSKALERRIKO IPUINAK", Kulixka Sorta, nn. 17-18, 17-18: liburu eder ontako ipuinok - itzulpen; iztegi ta guzti - A. Irigarai mediku ta euskaltzain jaunak batu ta atondu ditu; Barandiaran'en Eusko-folklore liburuxketatik eta Azkue'renetik artutakoak dira geienak...)

AZKENeko MAIRUK: Mairuk zolütan bizitzen emen-tzin. Ordün lañoiak etzen ikusko noski, ta bein batin lañoi poli-pat agertu men-tzen zerün ta denak arrittuta geldittu men-tzin... Attona zar-tzar bat bai-men-tzuten, aspalditan itsu zōna, ta lañuk zer esan nai zun artzek jakingo zula-ta, zoloko txoko batin zōn tokitik artu ta atarira argitā atea men-tzuten. Itsua nola baitzen, basora jon ta pago-urkullukiñ beiyak ereki men-tzizkaten.

Attona xarrak lañua kusi-ta, "gastiak" - esan emen-tzun - gaztiak, gure denbora jon duk: Jesus mundura jayo duk eta "gu galduk gattuk"... Ori san-ta denak kuzkur-kuzkur zolün sartu ta, akabo, ez men-tzin geyo sekulan atea. Orretik esaten ziun askotan attonak zerbaiten trabatu-ta eroitzan giñanin: "Mairuai bezela pago-urkylluakin bei-yak zälđu berko te-izkitezteu?"

(Contado en 1920 al Sr. Lekuona por Juan M^a Portu, de Oyartzun: J.M. de Barandiaran y Colaboradores: "EL MUNDO EN LA MENTE POPULAR VASCA", Colección Auñamendi, n.12, Zarauz, 1950, pp. 46-47).

••• RESURRECCION MARIA DE AZKUE •••

(Lekeitio, 1864 - Bilbao, 1951)

Azkue jaunaren bizitza luze ta aberatsa ezin sartu iru-lau lerrotan. Ara emen zertxobait: Euskaltzaindiaren Lendakari (Buru) izan zan bere bizi guztian. Gorputsez andi, biotz zabaleko, abade zintzo beti...

A) Azkue, euskal jakintsua: lan ederrok itxi deuskuz: 1) "Gramática Euskara" (Euskal Izkindea), 1891, euskeraz eta erderaz: "gaztaro roko pekatua" ei da, bere ustez, baiña ba ditu gauza onak be; 2) "IZTEGIA" ("Diccionario Vasco-Español-Francés"), 1905-6, t. 2: 15 urteko lan arrigarria, "euskeraren iturria" (Orixe); euskal-iztegirik onena (L. Mitxelena ren esku onetan dago gaur, Euskaltzaindiaren aginduz, Iztegi orren utsak zuzendu, garbitu ta osotutea); 3) "Morfología Vasca", 1923; 4) "Euskalerriaren Yakintza" (Literatura Popular del País Vasco), 4 t. (1935, 1942, 1945, 1947); 5) "Cancionero Popular Vasco", 1922, 9 t.

B) Azkue, euskal idazlea: ainbeste aldizkarietan sakabanaturiko artikuluak ez ditugu aitatu. Liburuok argitaratu zituzan: "Txirris-tadak", "Jesusen Biotzaren Illa"; "Vizcaytik Bizkaira" ta "Eguzkia nora" (zartzuelak, musika ta guzti); "Ortzuri" ta "Urlo" (operak); jakingarria da, batez be, "ARDI GALDUA" eleberri edo novela laburra; euskal literaturaren batasuna lortu gurarik, "gipuzkera osotuan" idatzi eban: au da, gipuzkera oñiarri lez artu, ta beste euskal dialektuen pitxiekin aberastu...

C) Azkue, argitaratzalle: ainbat liburu zaar barriro argitaratu ez eze, aldizkarit barri batzuk be sortu ta zuzendu zituzan: "Euskal-zale", "Ibaizabal", "Euskera"...

Ba dituz, gañera, teatro-lan eta olerkiak be... "Euskeraz ari geranok Azkue izunari zor diogu geienik, eta Euskerak ere bai... Arkatera du gaixoa bere zarpilletatik eta soiñeko apaiñez iantzirik utzi". (Orixe): Gizon umoretsua zan; idazle gartsua be bai, baiña batzuetan, ekian guztia erakutsi bearren erakutsi bearrez, bere lanak naturaltasun apur bat galdu egiten dabe...

"... Okendo izkudaburu (almirante) aren bi arreba, lekaime izan ziran Lasarteko komentu onetantxe. Arrebak erraz berendu zuten beren neba ospetsuak maiteen zuen ondasun bat: ontziko harian (salan) iduki zeukan irudi, "Pozgarrizko Andre Maria" (Oarra: Bein ere eztet entzun beronen izena, erderaz izan ezik: "Nuestra Señora del Consuelo". Onelakoxea da gure euskalduntasuna). Arra ta erdikotxoa da, arrizkoa. Okendok beretu baino lenago ere iruditxo onek mirari bat egin zuen. Mirari onen orokarritzat Eliza onetantxe degu artailu (kuadru) bat, diotenez, ederki egina. Baditu beste artailu batzuk ere: Elizgelan Okendorenaren beraren emazte Andre Teresa San Millan-ena. Beriz ere dioketsut: onontzaldi bat egin ezazu bein edo bein.

Zu bezelako gizon jakimunentzat erakusgarritzat daukat emengo artitz (inscripción) polit, len elizpe zarraren ateburuan, orain auspez lurrean ezarria deguna:

"Inveni portum. Spes, fortuna: valete!"

Apaiz gazte ayetarik batek (burujabea da ta miinduna apaiz hura) esan zigunez "exámetro" osoa izateko iztxo bat bear omendu artitz onek:

"Inveni portum. Nunc spes, fortuna: valete."

Amaikari erakutsi diet irakurgaitxo au! Batek ere eztio utsunerik ediro. Fraile zar Sunbilako seme batek, neronen otoiz, onelaxe euskerazkotu zizkidan itzoriek:

"Kaya ementxe det, gazte.

Itxaropen, zori: zoazte".

Mayean ginala berealaxe ots egin zuen zure izenak. Gu mauka-mauka ari ginan artean, barruko aldean komentuko nagusi berastegiarra ta bestetxo bi baziak zirau.

- Iztun arrigarria omenda -, esan zuen zuzaz nagusiak.

- Bai orixe! -, erantzun zion Adrianek. Datorrela lurpetik Fray Luis de Granada, zekien erdera legunez izketara; nik azpeitikoari bere euskera garbi, erraz, mendi-usainekoaz nayago diot entzun.

- Nik, - gaineratu zuen arako apaiz burujabeak, - Euskalerrian bada, Fray Luis de Granadari baino nere erriko erretoreari ere gogozago; ta Matxinbentako erretorearen izena ezta gero Ciceron. Euskaldunai euskeraz.

- Igandero euskeraz ari izaten zaigu Don Andres, gure kapellau jauna.

- Goizean ere euskeraz ekin balio, etzan ezer galduko.

- Apaiz jauna, erdaldunentzat erderaz egin bear da. Badira gure artean euskerazik eztakiten lekaimeak.

- "Madre"(1), esan zion orduan Matxinbentarrak: erdalerrian erderaz, euskalerriar euskeraz. Berrogei lekaime euskaldun dauden komentu batean, Burgosko erdaldun naiz Bilbo-aldeko euskaldun motzen bat datorrelako, ¿beste guztiak euskera ezpailekiten bizi bear? ¿Bidezkoa deritzayo oni?... Euskalduna eztanik gure artera baldin badator, ikasi dezala gure mintzoa, gure izkera. Guk ere ori egin bear izan genuen erdalerrian: erderaz ikasi. ¿Erdaldunik battxo etorri oteda egungo jarduna entzutera? Eztet bat ikusi; lo bai, baserritar-mordo ederra. Aurrean dedan amezketar onek ere, ayek zurrungak! ¿Ezalda egia, Simon?

-- Tolosan len ere entzun izan ditugu erderazko "kalamatrika" oriek eta, egi-egia! ni bezelakoentzat aur-kantatxoak bezela dira erderazko jardunak: logarriak...

(1: Autu au ta beste geyen geyenak erderazkoak izan ziran. Amezketa rai zerbaite esatorduan eta alkarren arteko autu laburtxo batzuetan baizik etzuen gure izkerak ots egin. Komentuak agitz euskeraren obiak (sepulcros) dira, esatea lotsagarria bada ere.)

(ARDI GALDUA, 78-82 orr.)

&&&&&&&&&&&&

Agustín Anabitarte : (65-garren orrialdetik dator):

ko, ostera nere atzetik. Joateko andik, geiago asarretuazi gabe. !Ura legamia! Ala ere segi. Jotzeko gogoa ematen zuan. Ostikoz jotzeko itxura egin nion. Alperrik, mutilla bere artan, segi nere arrañoari. Ta asarrea geiena igo zitzaidanean, bizi-modua batzueri zein txarki etortzen zaien asi zitzaidan burua lanean...

Mutil artaz kupitu nintzan. Mutil ura, noski, diru pixka bat irabazteagatik zetorren nere atzetik. Diru ura, bai ba', zertaz jan izateagatik naiko zuan. Tema geiago, zer esanik ez, bear audiago. Jatea, ¿gauza txarra al da? Mutil gizajoak ¿ez al zuan ba'guk bezela jan bear? Egiazki, nere barria zearo aldatu zan. "Denak Yinkoak inak gire" (Danak Jainkoak egiñak gera)....

("APRIKA-ko BASAMORTUAN", Zarautz, Kulixka Sorta, n. 49, 88 - 92).

-- &&&&&&&&&&& --.

-- Domingo A G U I R R E --

(Ondárroa, 1864 - Zumaya, 1920)



Gure idazleen artean ezagunenatarikoa. Abade on, ixil eta zintzoa: bere bizitzarik geiena Zumaia'n emon eban, mojen kapellau. Euskaltzaindikoa. Idazle txukuna, garbia. Izlaria be ez ei zan edozelangoa; olerkari lez be ezta bazterrean itxeko... Beste lantxu askoren artean, iru obra andi itxi deuskuz: 1) "AUÑEMENDIKO LOREA" (1898), bizkaieraz. Gaia: andikaldeko Euskalerrria, VII-garren mendean... Oraintsu arri gitaratu dau, barriro, "Anamendi" Liburutegiak. 2) "KRESALA" (1906): bere Ondarrua'ko gatza ta bizi-tza itxi deuskuz, bizkaieraz, nobela eder onetan. 3) "GAROA" (1912): gure baserritar-artzaiñen bizimodua, gipuzkeraz, euskera ugari, gozo, atseginean... Txomin Agirre'n gaiak eta idaztánkera beste aldi batekoak dituzu, bear bada; baiña bere euskerea beti-betikoa. Maixurik onena!

Zerbait aukeratu bear, eta nik "ANA JOSEPA"-ri dagokiozan orrialde batzuk aukeratu ditut. Izan be, bizi-bizirik agertzen jaku gure "etxeoandrea":

"Ta gua-zen orain Ana Josepagana. Bere-bizikoa, nion, ibiltzen zala lan andi egunetan. Goizeko irurak baño len asten zan deadarka, ctoizka ta aginduka, gauza bat bestearren gñean esaten ta egiten zuala, aora edo burura zetorkion bezela. Jakiña zan asierea:

- "Gurutze santuaren señaleagatik, gure etsaietatik..." - Inxio, Jaikiari, eguna dek eta - "libra gaitzatzu gure Jauna ta Jaungoikoa." - Katalin, piztu zan sua, txerrientzat zerbait gerta dezagun. Ta ez aztu ukulluko txarkarta ekartzea. - "Aita gurea, zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena..." - Jose Ramon, abereai botaietk zerbait, gero eztek astirik izango ta... "betor gugana zure erreinoa..." Auspoan billa alabill! Aran non daukan, emakumea..."

Ta orrela beti, itz, arren ta zeregiñetan beñere aspertu gabe. Irurogetasei urte bazeuzkan ta etzuten soroetara eramaten, baña bazuan zeri ekin etxe barruan. Berak egiten zituan oiak, berak txukundu etxea, berak beiak jetxi, berak gosaria gertatu. Ana Joseparen ustez, arrek bezelako baratzuri-zuku gozorik egiteko emakumerik etzan oraindik sortu. Ezta sortuko ere. Ta orea berak bezela nork egin? Taloak zeñek erre? Esnetarako artoa, me me, zeñek ebaki? Ezin zuan arrek, zion, onelako edo alakoren etxeen ezertxore jan: "estopaua" tipulaz betea, urdai azpikoa erreigia, arrautzopilla koipe geiegirekin, naskatzeko bezela, billatu oi zuan. Etzekiten da. Jaio egin bear orretarako ere:

Bañ biotz ederraren jabea zan gure etxeoandre zarra, garbia, beartsuentzat oso emankorra, etxekoentzat(oso) eutsia, batzueta eutsiegia. Ala zioten beintzat Zabaletako aita semeak, eta aiek bazekiten.

- Jolas andiak izaten dira gurean (esan oi zuan Jose Ramonek) zerbait erosio bear degunean. Amak gordetzen du katu-larraua, ta ezin izaten zaio askatu erazi. Beti aigera:

- Ama, dirua bear degu ba orain ere.

- Dirua? Beti dirua? Zertako?

- Manueltxori praka batzuk eta abarketak erosteko.

- Ama Kataliniek egingo dizka prakak eure batzuekin.

- Jai egunetarako ere bai?

- Baita. Ondo ederrak dauzkak jantzi naiezta ganbarako aga zarrean.

- Ederrak, ama, atze ta aurre arabakiz beteak daudeta?

- Ta aburketak?

- Eztauka oraindik ain zarrak.

- Zarrak eztauzkala? Ator Manuel, begiratu beio, ama, nola biatzak agiri ditu?

- Josiko dizkat biarko.

- Biatzak?

- Ara beste ... argi-iturri.

- Txapelare bear du.

- Zer? Txapela? Aita ta semea...! Noiz erosi nion nik azkenengoa?

- Orain bi urte.

- Orain bi urte ta ostera txapel berria? Ondatuko zenduteke zuek "Drotxillen" aberastasunare.

- Ez berorren eskuetan balego.

Azkenerako, Manueltroxok beraiz esaten zion, negar muxinga:

- Ercsibeit, amona. Zazpikiñeko mutillak berri berria dauka, ta nik zar zarra. Erosiko aldit?

- Ez, ez, estiat erosiko: alperrik abil.

Baña erosten zion bai. Ez erosi bear, alajeña, bere illoba bakarrari!

Ta nork esango zukean, etxe koentzat onelakoa izanda, agertzen ziran beartsu guztiei enaten zienna baño eman naian zebillela beti? Bazekiten ondo inguruetako eskaleak. Amaika eskaleri, eskripekoa emanda gaiñera, bete zien urdalla Ana Josepak Zabaletako sukaldetan, ta baita lo ederra eragin ere, aldemeneko guk ezagutzen degun sapai artan! (4^{garren} Argitaldiatik, Arantzazu 1966, pp. 38-41)

IÑAKIO MARIrentzat ANDREGAIA AUKERATZEA:

"... Amaika neska gaztek begiratu zion (Iñazio Mari'ri) samurkiro, iñoi zko aizkora jokoan, enparantza buru ta agintari txeratua bezela ikusi zutenean! Baño etzean mutill orrekin besteren artean beretzat nor aukeratu. Zalla da aukera dagoanean aukeratzea. Zein izango zan neskatzarik onena? Onena, onena... Ezta erraz jakiten. Ezkon gei daudenean, omakume guztiak chak; ezkon duta gero, erdiak balira! Ezkondu artean, neskatzan danak gordeta idukitzen omen dituzte bere gogo, grifia, utsune ta orañak, bear eztan ordutan agertzeko. Ta orduan ordukoak. Baña estali/gabe idukita ere, giza-seme, gazteak eztakite neska ezkon geiaren txaldekeri, seta gaizto ta alderdi txarrik ezagutzen ta, begiak zabalik erabilliarren, itxu itxuan ezkontzen dira geientsuak. Nola ez? Batzuk emakumien edertasunari begira itsützen dira; beste batzuk, esan dezagun obeto, beste askok, neskatzan diru-zorroari begiratzen diote; gutxik buru ta biotzari. Ta ille arroen azpian zentzun gabeko txepetxburu asko izan oida, ta jantzi apañaren barruan bada espadako biotz aldakor txakillak ugari.

"Ba, ba! - esan zuan Iñazio Marik orrelako gauzak gogoratzean -. Neuk iñorekin adiskidetasun berorik eztaukatan ezkerro, amak neur tuko ditu neskatzera ezagunen nenduak, amaren begi biziak ikusiko dute garbiro zein dan beressmaarentzat emaztegairik egokiena".

Orretan zebillen Ana Josepa, semeak uste zuan baño lenagotik, eta berak aukeratu zuan azkenean ere onek bear zuan emakumea.

Jai egun baten Zabaletako etxe koandrea ta Azkarragako Mari Batista jazztetxean bat eginda, onela izketatu ziran andre biak:

- Zure alabarekin etorri naiz bidean... Ondo neskatederra dago bera.
- Gure Mikalla? Bai orixe. Aren garaian gu ere bagiñan zerbait baña... .
- Zenbat urte dauzka?
- Datorren ilbeltzean ogeta iru.
- Ona dirudi.

- Oso da ona, etxekoia ta maratza. Ez neurea dalako, baña eztago bera bezelako beste bat Uribarrin.
- Zer eskontsari emango ziñoke?
- Ja jai! Orixe da galdera polita, Ana Josepa.
- Ia ba, nik ere ezkongaiak dauzkat eta ...
- Bai, bai, guraso geran aldetik gure umien onari begiratu bear diogu, ta... Baña gurean eztago zuenean beste diru. Mutil on baten bearra bai: aurten ere ler egin degu garia jotzen ta iñaurkiñak ekartzen. Bai ba, zartu egin gera ta. Gure Antonek ere, onezkerro, irurogeta bostenbat urte izango ditu, senar emazteak eta alabatxo bi bakarrik gaude, ta lanak dira emen.
- Orduan elitzake gaizki etorriko zuentzat gure Iñazio Mari.
- Ez orixe, Ez Ana Josepa; ta biok ulertuko bagiña...
- Uler gaitezen. Tira, zenbat emango diozute zuen alabari?
- Baña gure etxerako.
- Bai ba, zuenerako. Zenbat?
- Eztakit ba nik ba. Bosteun dukat edo.
- Zer diozu, emakumea? Bosteun dukat? Azkarragako alaba zarrenari? Ikatzagakoak ere badu orrenbeste, maizterrak dirala gero.
- Ia ba, bestea ere, ezkontzen danean, zerbait izan bearko du ta. Zeuek zenbat emango diozute mutillari?
- Guk zortzireun dukat eta bi etxe-bizitza.(bi arrio)
- Ezkabiltz ondo; Ana Josepa. Zabaletako mutillak nai lituke, gutxienaz, milla dukat eta berak ikazkintzan irabazitakoak, bi etxe-bizitza, bi bei, ogei bat ardi, gurdi bat...
- Ezin ulertu geinkez, Mari Batista.
- Ezaldezu nai?
- Nai izatearekin zer daukagu? Milla dukat eta eztakit zenbat ondasun gañera eman bear guk, eta zuek bozteuntxo? Izango du Iñazio Marik milla dukatekoa, berak zortzireun eramanda ere.
- Ezta ba zuentzat gauza aundia milla dukat... Ara, zuek milla ta guk zazpireun. Gero ere, zuen mutil ori Azkarragara badator, etxearen gelditukoa dira gure puskak. Eztago geiago zer esanik.
- Zer esanik ez, ostera? Bai, Mari Batista, bai. Au ezta asiera baño besterik. Eskribauak gure paperak egin orduko zer esan andiak emango dizkigu gaur asi degun autuak. Gañera gure Joanesek ondo jakin, ondo ikusi ta ondo neurtu nai izaten ditu seme-alaben goraberako gauzak. Ni naiz Zabaletako etxekoandre, baña nere senarra beti etxe-ko jaun, ta berari dagokio Zabaletako gauza guztiak erabakitzea.
- Ba, Joanesek, zenzuneko gizona da ta milla dukat emango dizka semeari.
- Berri z ere? Gogoan artu dezu zeure eskabidea; baña alperrik zabiltz nerea aztuzten bazaitzu.
- Gul aldegun aña, aldegun guzia emango diogu, orra.
- Eztago gaizki esana. Zer Meza entzungo dezu datorren igandean?
- Zortziretakoa nik.
- Emen izango naiz ba, ni ere, Jaungoikoak nai badu, ta agur iganderarte.
- Agur.

Andretxo biak gogamen batekin aldendu ziran: egun artan asi zuten leloari nola bukaera on bat emango zioten.

"Ezta gaitz izango - esaten zuan beretzat Mari Batistak -. Ana Josepak nai du, igarri diot, eta orrek nai duana egingo da Zabaletan. Baño askatu bearko du zizku, bai, Jaungoikoak laguntzen badit. Urre gorritan ekarri bearko ditu mutiklak ezkontza-diruak, oiek urre borobil asko omen dauzketa. Noizko dituzte ontzako zarrak? Esandako gauzen gañera, nai litzake beste zertxobait... Atxur batzuen bearrean gaude, ondo eto-

(ondo) etorriko litzaizkigu lai barriak... Ikusiko det etxe an zeren premia daukagun... Urbiako zelai zatitxo bat emango baliguteke... Eskatu beintzat lenbizi, ta gero, ezin bida, gogoprean badaude, utziko zaio. Jaungoikoaz maitear! Sitsak jandako abe ustelak, geunden Azkarraga jaso eziñik, baña abe zindo berria datorkigu etxea erori eztedin.

Iñazio Mari, zeroak zakarz, gurea zera, eztirazu igesik egingo."

"Urteak ere aurrera dijoazkic ta zion bere artean Ana Josepak, Zabaletarontz zijoala nonbaiten sartu bear nuan nere semea. Etxe ona ta andre obea izango dituala deritzot. Aspaldietan neukan nik begiz jota Azkarragako neskatra zarrena; eztet bera-ganakoa gaur goizeko amesa. Ta nola erantzun dit Mari Batistak! Bigunago zegoan sasi-ko masustarik elduena baño. Bai! Iñazio Mari bezelako mutillik ezta soro bazterrean billatzen. Joko zalea ezpalitz... Arantzazuko Amari Salbe bat, jokorako griñakendu daion: "Jaungoikoak salba zaitzala Erregiña, erruki biziaren Ama, gure biziiza, gozo-tasun ta itxaropena..." Damu det zerbaite geiago eskatu eza, baño ezta oraindik berandu... "Zuri deiez gaude Ebaren ume erbestetuok..." Eta ondo garbi ipiñi bearko da paperean beste alabari zer agintzen dion, biar edo etzi nasterik izan eztaigun... "Zuganako zuzpirioz ta negarrez gaude..."

Bi ama oiek buruauste gogorrean gardun zuten egun aietan. Bataket eta bestek, alderdi guztietatko aztarnak ondo artuta; jakin zuten norañokoak zan auzokoene ondasuna, ta estaldu zuten norberea oso amarruki; biak, gonadun Meternik batzuek bezela, egin zituzten egiñalak gaitasunik andienarekin, alkar zuritzen ta zilibokatzen; biak galanki eskatu ta labur eskeñi zuten, bakoitzak bereari gogor eutsiaz; biak e ibilli ziran jatorduan ta lotorduan, egunez ta gabaz, esna ta amesetan, ixiltzake, beti gauza bati eragiñaz: onenbeste "koltsoi", orrenbeste maindira, orko beia, ango moxala, goiko zelaia, beko iñaurkina; Ezineike, badezakezu, eztauakagula, badezutela, eztanean ezta, nai danean alda; nondik baña, zenbat bida, geuk zer jango, nola bizi-ko, besteai zer emango; aserre ta adiskide, azkor ta makal, ezetz ta baietz, atzera ta aurrera, gora ta bera; baño, azkenean ere, bein edo bein, Joanes ta Antonek alkar arturik erabaki ta korapillatu zan Mikalla ta Iñazio Mariren ezkontza.

&&&&&&&&&&&

(ANA JOSEPAREN DIRU-ZALETASUNA)

... Jose Domingo azpiratzeko gixonik etzan jaio. Orrela esan zioten beintzat Ana Josepari Berriko sagar-saltzalle batzuek, eta orregatik billatu degu ain muker ta añutsu. Albiste oiek entzun baño lenagotik ere naikoa kezka bazeuzkan Ana Josepak. Bein baño geiagotan aditzen eman zion bere semeari, kendu zezala jokorako seta gaiztoa, etzedilla geiago apostuetan sartu, lan egin zezala, etxeari begiratu zaiola; baña ezkonduta gero ere, lengo lepotik zeukan arrek burua. Ai, nora joango ote sitzaizkon ezkontsaritzat emandako urre gorriak! Arantzazuko Amari "Abe Maria" bat mutik ura zuzendu zedin... apostua irabazi ta gero. "Abe Maria, graziaz betea, Jauna da Zurekin..." Aitak ere ondo erakutsi zion bere aserrea, ta garbiro esan zizkon esateko guztiak. Ez biguntzea mutilla!... "Bedeinkatua zera Zu andre guztien artean ta bedeinkatua da Zure sableko frutua Jesus..." Bai, gurasoak alegiñak egin zituzten Iñazio Mari bide onean ipintzeko, baño alperrik. Nola beregain bizi zan... "Santa Maria, Jaungoikoaren Ama..."

Zabaletako etxe koandreak etzuan bere burua ondo ulertzén ta etzuan, gai onetan, egia osoa esaten, bere anima barruan zer gertatzen zitzaion etzekialako. Zalla da norbere berri jakitea. Semeari etzedilla apostuetan sartu esaten zionean, naieza baño bere mutilla parregarri geldituko otezan bildurra ta berak surreratutako diru ederren arriskua erakusten zuan geiago Ana Josepaki! Aurretiaz izaten ziran beti onen errietak, bida jokoa irabazi ondorean etzeñoan Iñazio Mari bezelako mutillik, batez ere

txanponen batzuk etxera eramatzen bazituan. Iñoz bain Joanes argiak adierazi oi zion lausotasun su, baño errez aztutzen zitzamón emazteari apuko berria zetorrenean! (...)

Irekurlea: nik eztitut gauzatxo auek Ana Josepa makurtzeagatik ipintzen. Eztira orrenbesteko akatsak: etxeoandrea zan, ta etxeoandrea danak egiten diote diruari ongi torri andia; ama zan, ta ama guztiak nai dute beren semeak gallurrik gallurrenean ikustea.

Ama zalako zegoen, esaten ari nintzan leku ta garaien, jokoas asi baño lentxoago, armalla batera igota, beste batzuekin txondortuta, gizadiaren erdira begira, seme mai-teari begiak boteaz, ausarta eman naiaz, susmo txarrean, aiene mintsuan, zitala, erre-a, pipertua, Bizkaiko emakumeak ziotena ezin eramanik, bere txiteari lagundu nai dion olloa bezela, erraietako umearen guda ikusten duan leoi-eme baten irudira, ta buruko illetatik edozeñi laster eltxeko gogo beroz. Zarra izanarren, lanak emango zituan orratik bizkaitarren bati eltzen bazion. (...)

(Iñazio Marik aizkora-jokua irabazi ondoren) : Nik ez nuan ikusi, baño ba dakit arratsalde artan bi jostallu ero si zituala Ana Josepak: aurtxoak miazkatzeko izaten duten uztaitxoa ta burni me argizko ume-txintxarria, biak erreal batean, oso garesti. Ia ba, egun guztiak etziran berdiñak eta. Manueltxori ta Joxeri zerbait erosteko ere egon zan, baño zertako? Azukre koxkor bana eman ta kito. Mondragoiko azukre, "konpita karamelo" guztiak baño gozoa-goa zan emango zien albistea. Jas! Zein ederki jokatu zuan Iñazio Marik! Joanesek esanak esango zituan, baña diruak irabazten zekian mutillak.

&&&&&&&&&&&

MALENTXOREN AZKEN-ACURRA BERE BASERIARI: "Ta nork esan Malentxoren poza?..."

Egun andia ura gure gaztearentzat, egun estua bere gufrasentzat, itxaropen gabeko ta inkurriozko egun beltza neskatzaren eskuá jaditxi etzuten gizonentzat.

Goiz jaiki zan Malentxo. Jaiki ta soro-mendi-zugaztiai begira leioan egon, beren itxura irudimenean gorde nairik bezela luzaro egon, ta bat-batean gero, ganbaratik ukullura, bazterrak eta tresna guztiak ikusten abitu, ikusten, aratzen, garbitzen, tajutzen. Bere oia, bere seaska, umetako txintxarri ta jazkera, aitonaren makilla ta zizallua, amonaren liñari ta gorutxapela, aitaren edo amaren atxurra edo aulkitxoa... bei zarra, biai gaztea, ollo nabarra, ollanda zuria... Ura gauza! Danakin izketarako gogoa etzetorkion ba? Danak zerbait mintzatzen ziotela etzuan ba uste? Eztitziaion ba iruditzen etzituala egundaño ondoñik usi, etziela beñere bear aña jaramon egin?... "Purra, purra! Tira, gaixoak, tira, ale batzuk nere eskutik, azkenengo aldiz."

Onelako arazoetan arkitzen du Paula lengusoak:

- Au poza nerea, Paula, ta orobat au bildurra, au argaltasuna edo etzekiñat nik!

- Baoalako? - Bai. → Gelditu..

- Ori esatea! Nere bildurra etxeoakgatik den, Paula, ez nigatik. Nere maiteak oñazez daudelako, nere biotza oñazean zeukanat, eta ala ere pozarren natxion. Nork siñistu?

- Neuk. Maitasunaren indar ta zauriak bazekizkiñat. Zauri gozoak ditun ciek.

- Zabaletako baseria beste iñorgatik ez niñan utzik, baña Jesusegatik... .

- Geiago maitatzen denalako.

- Nola ez? Maitetasunik andiena Berari zor zaion, Beretzat o, nere Jesusentzat! dana den utsa... Baño utsa ere argalarentzat astun... Gaurko eguna igarota balitxen... Orratzu bear naun.

- Bai, azkenengo aldiz... Illearen ugaria!

- Ta laster baterez. Aurki naiz kaskamots, Paula. Ja jai!... Ene! Amak ez alzidan algarea entzungo... Auxen da Loria ta izua, dana batera!

&&&&&&&&&&



— KARMELO ETXEGERAI. —
(Azpeitia, 1865 - Gernika, 1925)

Euskalzale aundi au "edesti(historia) maitearen jauregi ederrean bizi izan zan beti; etzan beñere etxe ortatik inorontz aldendu; bertako seme nagusi egin zuen Euskalerri Amak, ta onen gogo ta izate iraunkofaren gutunak, ufe a sakeltxo apain batean bezela, zaitu ta gorde zituen..." (Intzagari).

Histori sailletik kanpora, olerkaritzan nabarmendu zan, batez be: "Gaiekoa zen poesirako, bere gainerako idaztietan noizpenka nabari denaz. Gaia egokitzen ba zekien, izkuntza berez etoritsua zizun, esaera txukuna, neuritzza efeza ta ongi ebakia. Zergatik utzin zion poesi-egiteari? Eztaiki-gu. Mingari da bere bizieran geiago ez ari izaitea" (ORIXE, ELA, 17). Arlo ortan sari batzuk be irabazi zituzan.

Itz lauz be artikulu (edo itzaldi) batzuk argitaratu ditu, batez be "Euskal Esnalea"-n. Beti be "...euskeragarbi, jator, apaiña erabiltzen zun... ! Ama zañaren apaingaririk onena altzun txukunena ta maitekor agertu biari!" (P. Ormaetxea).

(BERTSOLARIAK FUSKALERRIAN): (...) Bertsolariak beti izan dira gure artean, go-

goz entzunak. Baserritarrentzat ez da jai pozgarririk bertsolaririk ez bada. Etxe báhetik edo bestetik bertsolari bi ateratzen diranean, eta aurrez-aurre jarririk, batak ziri bat besteari sartu, eta besteak lengoari ziri zorratzagoakin erantzun asten diranean, lura poza, lura atsegina baserritarren artean! Arpegian, begietan, esku ta besoetan, beren ibilleran ongi erakusten digute, bertsolarien ateraldi ederrakin atsegina aundia aterzen duela. Eta orrela, iñoren kalte gabe, poz ematen duten gizonak, txalo ugariz artu bear ditugu.

Len esan dedana berriz esatera nos, nere itzaldia bukatu baño len: gure txaloak, gure omenak, ez dute gudariantzat eta agintariantzat eta jakintsuentzat eta aberatsentzat bakarrik izan bear. Artzaia dalata, mendian bizi dalata, dirurik ez duelata, idaztietan bere izena ikusten ez degulata, gezereztzat iduki bear aldegu gure erritar askorentzat gogoangarria izan dan bertsolari buru-azkarra?

"Ez noski! Batzuek idazti edo liburueta ikasten deguna, beste batzuek Jaungoikoak gure begien aurrean ipini ditzigun zelai, baso ta txara, ibai eta erreka txistor, arkaitz eta leizezulo, itsaso zabala, ots-garbi eta lañuetan ikasten dute. Gure jakiteaz ez degu geiegi arrotu bear. Guk, liburuen aurrean urte asko igaro ta gero ere ez dakizkigun gauza asko dakizki goizetik arratsera lurraldi aberastasuna atera naian dabillen baserritarra, bere artaldeen ondoren dabillen artzaia. Eta baserritar au, artzai au berez buru-azkarra danean, orduan maiz arrituko gera bere ateraldi zorrotzakin. Pernando Amezketa oetako bat zan. Eta oetako bat zalako, bere oroitzak gure artean, gizaldiak joan eta gizaldiak eterri, asko iraungo du. Askotan dezan, egin degu gaurko jai eder au." (Amezketa'n eta Donostia'n Pernando'ren omenez egindako jaietan irakurritako itzaldia da au: G. MUXIKA, "PERNANDO AMEZKETARRA", 4-gn. argitaldia, Zarautz, 25-26).

"... Berdiñikan ez dezun Euskaldun Eria, Zuretzat det biotza, zuretzat gogoa, Zuretzako da nere izate guztia. Zugatik sentitzen det otsare suzkoa. (K. Etxegarai: "Euskal-Eriari") Nola maiteko ez zaitut, Efi txit gozoa, Izanik zure mendi tartean jaioa?"

- OLABIDE tar ERRATMUN, S.I. -

(Vitoria, 1869 - Toulouse, 1942)

Umetan ez ekian euskerarik. Nun eta Salamanca'n euskalzaletu jakun Aita Olabide, 27 urtekoa zala: Arturo Campión en berbok biztu eutsoen euskal-sua: "Entonces me avergocé de llevar sangre euskara en las venas y de ignorar la lengua nativa de los euskaros"; aurrerantzean, ekin eta ekin besti, ikasi eban bai euskerea, ta sakon be sakon ikasi, gero!: Azkue'ren Iztegi andia, Azkue berak baino obeto ta zeatzago ei ekian... Euskeraz itz egiteko, ostera, ez eban izan sekula alako erreztasunik.

1) "Loyola-tar Emeko Deunaren Gogo-Iñarkunak"(1914); 2) "Giza-Soña", 1917, (gizonaren gorputzari jagokozan 6500 itz); 3) "Josu-Kistoren Antzbidea"(1920); 4) "Itun Befia"(1931); 5) "ITUN ZAR ETA BERRIA"(1958), A. F.Etxeberria, S.J.'k eratutako argitalpena.

Garbizaleentzat, A.Olabide "gure Irakasle aundia" da, "gure Maixua", "Euskal-literaturari mail berri bat emango diona".... Beste askoren us-tez, ostera, lan txalogarri orrek asko be ba ditu: euskera otza, ortik-emendik batua, garbizalekeri itsu batek urritua, euskal-literatura ta erri biziagandik urrutiegi dabillana... Ara, azkenez, "Orixen" n eretxia: "Gogo-iñarkun" etan laxko, "Kistoren Antzokia" n samurago, geiago ta ixurberago. Efiarentzat ez baino erdiko jakintsuentzat ari da, ta barkakizun ez ezen goresgafi ere ba da..." (E.L.A.)

"Josu-Kisto"ren ANTZBIDE-tik: "Baitaren azterpena ta obetzeako esmoak

2.- Negar ta samin zaite, oñen aragikoi ta gizakerizale oraindik zeralako; giriñetan ain goðin, ifitsez ain okitu;

menak zaitzen ain zabar; irudikeriz ainbestetan nasi; etikoetara ofen atzafi, ta bañkeetara p̄en sorayoe;

ain bafeti ta nabarkoi; ain negaí-gogor ta gaírbai-gaitz; nasaikerietara ta aragikerietara ain zoli; ta ofén nagi-neketara ta nezkizketa

ebefiak entzuteko ta ederak ikusteko ain mukuin; apal ta zatafekiko ain uzkur; ratzazala biltzeko, ain perkatzeko emateko, ain zekenei eustekoan sinitzilean;

erausketan ořen ostoil, ta ixilbeafean ořen ezin ixilli; ekanuetan ain eragabe, ta egitekotan ain mutiri.

tean ain saro; ta Yainkoaren itzekiko ain gorri, sedenerako ofen zallu, ta lanerako ofen zañile.

ipuyetara ofen ernai, ta ařen-gautan ain logale;
bukatzeko ofen erpai, ta adi egoteko ofen twolini.

bikalditan ain baldan, meza ematen ain epel, yaunaŕtzean ain legofí, beréalaxe gogo-barévaturik, ta ain gitxiten suna heitara suna dildi.

ain bapetan asereak aíturik, ta lagunekiko ain mukebera;
ofen ebazpera, ta akañetan ofen zoñotza;

pozik egoalean; ain gelbera atsekabe-aldian; n maize onik asko asmatzori, ta oñean zutxikia.

n maiz onik asko asmatzen; ta oren gutxi burutzen." (Laugaren Idaztia, VII Ata-
Ikusi atal berau, G. Arrue k euskeratuta, "Lorategi" onen 24-garren orrial-

Yob'en azterpen areagoa: (2^{garren} atala)

1.- Beste egun batean, Yainkoaren semeak, Yaube'ri aufkeztekotori ziran; eta, ayen artean, Yaube'ri aufkeztekotora, Satan ere etofi zan.

2.- Ta Yaube'k, Satan'i esan zion: "Nondik ator?". Satan'ek, Yaube'ri erantzun ta esan zion: "Iur-inguruak arakatzen ibilita nator."

3.- Yaube'k Satan'i, befiro: "Nere mofoi Yob ez al-duk auteman? Iurbiran ez bait-zegok ua bezain yator, zuzen, yainkozale eta txafkeritik aldendutako gizonik, bere artan zintzo irauten dularik, bidegabek, ua iresteko axatu naukan ahen."

4.- Satan'ek, Yaube'ri yardetsi eta esan zion: "Iarlu orde larlu, bai! Daukan guzia ere biziaren orde ematen edonork ba-daki." 5.- Bañan, eskua edatu eta giafen iku-tuzazu... eta, ezetz onetsi?"

6.- Yaube'k Satan'i esan zion: "Or dikat aukeran; bizia utziok, ordea."

7.- Ordun, Satan'ek, Yaube'rengandik aldenduta, Yob legen zitalez oñazpitik burugañeraño yo zun.

8.- Yob, bere soin-mafuzketarako eltzeki bat artuta, auts-gañean eseri zan;

9.- ta emazteak esan zion: "Oraindik isituta al-zaude zure zintzokerian? Yainkoa utzazu, eta il zaitez!"

10.- Yob'ek yardetsi zion: "Emakume ergel bezela mintzo zera. Yainkoagandik, ona eta gaitza orobat aitza beari dira". Guzi otan, Yob'en ezpañek ez zuten ogenik egin.

Adiskideak datozkio:

11.- Yob'en iru adiskide, Elipaz Teman'daŕa, Baldad Sue'taŕa ta Sopar Naama'ŕa, Yob'en gañera eroritako gaitz guzick aditzean, arengana agertzeko elkaftuta etofiziran, beren laguntzaz aren samiña arintzeko.

12.- Ufundik, arengana begiak yaso eta ari ezin antzemanik, negafez oyuka asi ziran; nork bere soñekoa uŕatuz eta buru-gañean autsa baŕeyatuz.

13.- Ta, arekin egon ziran, zazpi egunez eta zazpi gauez luŕean eserita, itzik ere ari egiteke, aren atsekabea laŕegia zala bait-zekusten.

Yob'en aňenak: (3^{garren} Atala)

1.- Ordun Yob, aoa zabalduta, bere soŕtzegunaz aňenka asi zan. 2.- Ta mintzo egiňaz esan zun:

3.- "Utikan, nere soŕtzeguna!! ta "sein af erne da" zioten gaua.

4.- Egun ua, itzali bedi; goitik, Yainkoak ez beza nabaitu! ezta argiak ere, izpirik aren gañera eman.

5.- Erio-itzal illunak berama; aren gañean, odoi bat betza; egun-illuntzeak izua bekafkio.

6.- Gau artzaz illunbea yabetu bedi; ez bedi urteko egunetan lefotu, ezta illatartean zenbatu ere!

7.- Lekayorik gabe, soil bego arako gau ua.

8.- Biraokatu bezate, egunak biraokatzen ta Lebiatan deitzen dutenek.

9.- Goiz-izafrik ez bekio agiri; egun-zai eta egunik-ez bego, goiz-argi-uŕatzearen betazalak ikusi gabe..."

"Eta Iob'en liburua? Arrigarri dai! Ba'diteske, eskierki, bein, bietan eta geiagotan irakurriko dutenak. Zein euskera bizia, adierazmen aundikoa, zehe-meherik txikiiena ere galtzen ez duna". (ORIXE, "Euzko-Gogoa", 1958, n.5-6, p. 520)

GREGORIO MUXIKA
(Ormaiztegi, 1882 - Donostia, 1931)

Gazterik il jakun au be; baiña ez lan gitxi eginda: izlari bikain, idazle jator, langille aspertu-eziña... "Euskalerraren Alde" aldizkaria sortu ta zuzendu eban ainbeste urtetan. Bai euskeraz, bai erderaz, lan asko egindet ban, periodista lez. Euskaltzaindikoa.

Liburuak: 1) "Eibarko seme ospatsuen berri batzuek" (Donostia, 1908); 2) "Pernando Amezketara" (lau argitaldi izan ditu liburu txiki errikoi onek; ortik atera ze gogotsu irakurri daben gure erriak!); 3) "Los titanes de la Cultura Vasca" (Donostia, 1962: Editorial Auñamendi k argitaratu dau, G. Muñika ren erderazko artikulu batzuk baututa: T. Aranzadi, J. Urkixo, D. Agirre, Pierre Lhander, A. Donosti. ta A. Campión i egindako itaun-erantzunak dakaz).

"Beti mintzatu ta idatzi eban sakon ta gafantzidun, gozo ta efez. Epel asko be berak eban su-galdatan ixio ta berotu ebazan" (A. Onaindia).

"!ORTZAK ERAKUTSI!..." : Pernando k ixkribauarekin itzegin nai zuen. Bere etxera joan zan eta !dan! !dan! atea jo zuen. Bereala neskamea azaldu zitzaion... Neskameak, nolako itxura atera deitzen dutenak, alako arpegia izan oi dute. Aberats antzekoa bada, arpegi guzia irri-parrez josirik, eta tibiribiri, tibiribiro, sortu diran inbusteri guziak esanaz... Erdi puerdikoa bada, arpegi otza, ta itzak otzagoak oraindik. Eta zarpazar antzekoa danean berriz, tximinia baño illunagoko kopetarekin eta erratza-baño latzagoko itzakin.

Ori, neskame guztiak jakiten dute. Aralar go muturretik errira datorren neskak, bigarren asterako ihork erakutsi gabe ikasten du.

Ez dago esan bearrik zer itxura eramango zuen Pernando k, eta zer arpegi jarriko zion neskameak... Pernando k apal, apal, galdu zion: "¿Nagusia etxian al dago?"

Eta neskameak, itz bakoitzean bi purrustada egiñaz: "Ez dakit. Jakingo det." Orrenbesterékin ezkutatu zan.

Pernando k igarri zuan zer arrera egiten zioten etxe artan, eta ona zer bururatu zitzaion... Berrogei erraldeko beia erosteko aña diru ez zuen noski berekin izango, bañan txanpon bakar batzuek musuzapian korapillo batekin bilduak bazeuzkan. Bere aiek askatu ta zalaparta ikaragarria ateriaz, lurrean bota zituen.

Asarre bizian, neskamea biurtu zan, eta esan zion:

- Gizona, ¿zer darabilzu zarata burrunbatsu oiekin?

- Bédakizu - erantzun zion Pernando k - diru mordoxka bat dakart nagusiarentzat eta banaken batzuek erori zaizkit.

Ori entzun zuenian, neskamea, diruk beretzako izan balira bezela, oso poztu zan, aberatsentzako bezelako arpegi goxo irritsua jarri zuen, txanponak biltzen lagundu zion, eta "gizontxua, nagusia etxeán dago" esanaz, ixkribauaren aurrera eraman zuen.

Izkribauak esan zion: "- Zer degu?". Eta Pernando k: "-Jaio giñan-ta, iltzea zor degu.". Gero jarraitu zuen Pernando k esanaz: "Jauna, zorrak badeatzak, artzeakoak ere bai; artzeko dauzkatenai ez diet estutasunik eman nai, eta nik zor dietenak beziz estu narabilte. Larritasun onetan, zer egin ote nezaken jakitera etorri naiz,"

(954 garren orrialdean jarraitzen dau)

I R A Z U S T A (tar JON ANDONI -)

(Tolosa, 1884 -Lima, Perú, 1952)

Lege-gizona. Gerra aurretik politikan sartuta ibilli zan, eta Madrillgo "Cortes"-etan abertzaleen aldeko Diputadu izan zan. Gero, Ameriketara joan zan, eta abde egin: Meza emon eta 6 illabetera il egin zan. "El Dia", Donostiako egunkarian, ainbat idatzi eban... "Lösintxa", Mz. Sierra-ren Madrigalaren itzulpena, ta beste nobela bi itxi deuskuz: 1) "Joañixio" (Buenos Aires, 1946): "uno de los libros más amenos, naturales y auténticos que se han escrito en vascuence..."; 2) "Bizia garatza da..." (B. Aires, 1950). "Su vascuence tiene el defecto... de estar plagado de contracciones de uso local reducido y sin tradición literaria" (L. Villasante, HLV, n.450, p. 398)

(EUSKERA ZABALTEKO, LENENGO ERREZTU!) : "Neronek dakit ongiena idazle kaxkarra naizela. "Joañixio" idatzi nunean, nere us-tez naiko egin nun: lezatekenai, ni baño askoz obeak diranai, jarraitze bidea iriki..."

Denok dakigu euskerak bizi bear ba du, orain dagon eratikan euskerak jakintsura biurtu bear dala. Gañera, euskeraren eriotza aberriaren elizkizunen bezpera litzakela. Garbi dago jakintsu egiteko gizaldi bat eta bi naikoak ez dirala. Ikaskintza guztik euskeraz, eta ortarako akademia jator bat egiterako urteak joango dirala. Bitartean eginkizun bat bakarrik dago: ZABALDU, garai ura irixterako al egiña euzkotarrak euskeldun izan ditezen. Eta zabaltzeko, ERREZTU. Ori da une ontako lana. Euskeraz idazten duanak, gogoan gauza bat euki bear du: zenbat irakurle bilduko ditun. Igarri bear dio, gramatika esku/n duala idazten ba du, konparazio batera, amar i-zan lezazkikela, eta lasai, mordollo, idazten ba du, eun izango dituala.

Lenengo, beia bear da, euskerak zabaltzea, eta orduan izango da apaintzeko garaia, ordun zintzarria ipintzekoa..." (BIZIA GARRATZA DA..., 7-9)

(BIXENTA AMERIKETATIK ETXERA BIURTZEN DA): "Apika Bixentak esango lukian gauzan bat ixilltzen zuan, baita anaiak ere, bañan berriketarako amaika gai ba zitzuten eta gogoz egin ere bai.

Ama, ama betikoa:... Alaba ikusi zuanean geiago ateratzen ez ustea lenengo burutik pasa zitzaion. Alaba beti bere onduan bear zuala. Lenengo egunean guztikin itz egin bear eta tarte egoki bat ez zuten izan biek bakarrik itz egiteko. Bigarrenean etorri zitzaien biotzak zabaltzeko garaia.

- Ume, sartu ziñanerako antz eman nizun biotza bi puska eginda zátozela; zer dezu?

Bixenta gaixoa lurrera belauniko erori, bere amaren belaunak besarkatu, kokotza gañean jarri ta negarra gogoñ egin zuan. Alaba ala ikusirik ame ere negar bizin asi zan. Aldi batean mitzik gabē egon ziran; esan leike bien malkoak aitu arte egon zira-la. Azkenean amak autsi zuan:

- Umea, dala esan zazu. Edozein gauza izanda ere ni beñepein zure aldera nago, ta okerronean ere aita jarriko det, baita anaiarrebak ere. Zer da?...

(Amaitzeko)

- Andoni k ez nau maite! Oso ondo artu giñuan; nerekin zoratu bearrean eta alaba berea zuala esanez; bañan laixeritxura eman nion damutua zegola. Zergatik? Neonek ez dakit. Egia lan asko daukala bere ola berri orrekin. Egia ez jokalari, ez moskor eta ez gonazale dala. Zintzoa. Bañan nere ondoan beti itun eta itzik gabe. Kapitana buruan ote daukan «do... Ura ez zan biziitza». Aldegiña loxintxak egiten nizkan, eta arantzaz betea egon banitz bezela bultzatzen zidan. Zure illoba gaixo o erreki bein asmatu zuan "aita" esaten, eta zakarripurdi bat egiñik iges egin zion. Ura ez zan biziitza. Asieran arratsalde bat edo beste eraman niñuan sendi lagunetara; geroxeago ori ere ez; kalera ateratzeko lotsaz negon, ezagun aiek zer esan bear zuten peutsatuta. Oso bakarrik bizi nitzan. Bakarregi. Galtzazalea nitzala xinxteko bidea emana negon, bañan Bogotá'n ondo erakutsi det nere izen garbiaren jabe naizela; eta Andoni k asko jakin gabe. Nork buritu ezer esan ba nion! Ainbeste illabete itunen ondorean gertatu zan berak United States'era joan bear zuala illabeterako makina sortu berri bat eroastera, eta orduantxe ausardia izan nuan bitartean ni etxera etorriko ote nitzan galdetzeko; illabete birako esan nion; eta bai al dakizu zer e-rantzun zidan?: "Zoazte nai aña denborarako".

- Neska, ori al dezua dena? Au zure etxea da; etxeak ez zera kaltegarri; emen, lasai, nai dezuan denbora guztin egongo zera; naigo nuke ni bizi naizen artean era-mango ez ba ziñuzke.

Bixenta'k berriro negarrari eman zion. Eta gero;

- Maite det ordea... Ori da ba gauza... Bera gabe eziñ biziko naizela... Gañera éruñ-berrik aurrera xamartuk dauzkadala iruditzen zait... .

- Obe, zu ta zure alaba, ta datorrena, denak nereak.

Gezurra dirurin gauza, andik aurrera ama osasunaz irabazten asi zor


(“BIZIA GARRATZA DA...”, 110-112)

— & & & & & & & & & & & & —

(AMEZKETAKO KOTXE EDO ZALGURDIA): "Illiunabar batean aitak esan zion: "— Joañixio; Biar-goizean beiek jetzi ondorean, belar lepaka bat ekarri zak, eta gero apain jantzi adi, nagusiangana ta perira joan bear diaguz. Kax-koia moxtu bearra ba daukak, bizartegi batera sartuko gaituk." — "Bai, jauna.".


Ta ala, urrengo goizean, aita semeak Amezketara jetxi ziran. An zegon bere etxe-ko atarin Domingo, kotxero edo zalgurdizalea, bere zalgurdi ta abereak zaintzen. Baño, bi zaldi aul ziek abereak ote ziran gero? Bata zurizka; bestea garo ondua bezelakoa. Beñere estropozorik ez; ori bai. Aien eran ibilita, nola estropozo egin?; edozein mutil gazte iritxiko zan aiek baño lenago Tolosara, izardi aundirik gabe. Aurreko ankak, eskumuturretatik bakarrik tolestatzen zituen, belaunik ez ba lue bezela. Amezketa elbi izeneko erria da. Ba, Amezketako elbi guzik Domingon zaldi oien gañean billerak egin oi zituen. Zalgurdia, berriz, ura alakoa! Lau kurpilla, aurre-runtz bezela aldamenetara etzatzen ziranak: aik alderoak! Gañean sextoa esaten zio-tena, lau ertzetan lau burni goruntz zijoazela. Goian beste lau burni, lenengo lauk lotzeko, eta an oial beltz bat, estalpe ordeko bezela. Ura ez zan zalgurdia; ura ge-zur bat besterik ez zan. Ba, gezur artan, bein baño geiagotan amar lagun ikusi zitu-en. Iñork ez zekin ez zalgurdiak nolatan irauten zun, ez nola abere argal aiek era-maten zuen. Eta ez zan Domingon makillak eta ubelak indarra zuelako. Iñoz, zaldiri esaten zioten aserre antzean: "Karanba geo!", baño geiago ez. Iñork ez zun ikusi beñere zaldik jotzen. Bai zera!

(JOANIXIO, Buenos Aires, 1946, 36-38)



• NIKOLAS ORMAETXEA: "O R I X E" •

(Oreja, 1888 - Añorga, 1959)



"Orixetan zanaren bizitza ta lanaren barri liburu onetan aurkitu zeinke, batez be: "ORIXE. Omenaldi" - Donostia, 1965.- Itzaurre onetan L.Mitxe-lanaren eretxia emongo deutsut:

"Orixetarako zorra...: euskaldun guztiek duguna" da. "Goresmenik bear balu, aski litzake esatea, eta ez genduke egia soilla baizik esango, Euskal-erriari eta euskerari eskeiñi dizkiola bere bizitza luze eta lanpetuaren fruiturik geienak eta onenak, etengabeko ahalegiñen gaiña eta bikaiña. Ori naikoa ez balitz, gaiñera, esan diteke bere obra dugula bear bada asmoz eta neurri, erabat arturik eta iñorena gutxietsi gabe, euskal-idazle batek, noiznaikoa den, sortu duen larriena... Izkuntzari dagokion aldetik, berriz, ez zen berrizale - orduko zenbaitek nai zute-kean adiña ez, beiñipein -, zaharzale baizik: aoz eta izkribuz jaso zuen ondarearen zaintzaille leial, zaintzaille leial izate orrek garai ar-tako errepidetik baztertuko bazuen ere..."

"Gure ondorengoeik, orain pixkaren bat ahazturik badesukate ere, aurkituko dute berriz egunen batean "Orixetan", arrimenez eta espantuz. Guraso-rik gabe mirariz jaioa balitz bezala, or baitago gure surrean ez oraingo, ez egungo eguneko, iñoioko aldi urrun bateko seme dirudiela... Berak landu eta eraberritu dizkigu euskal-prosa eta neuritzak, izkuntza ere zahar-berrituaz... Berak erakutsi digu - egitez, itzez baiño geiago - gai dela gure izkuntza edonongo edozer itzultzeko eta bereganatzeko. Berak, gauza dela euskera biotzaren sentierarik izkutuenak adierazteko. Axalez bakarrik baitzen leorra, otza ta xekena, ez barrenez..." (ORIXE, Omenaldi, Atarikoa, pp. 5-9).

Izanik bikaiñenak: 1) "Jesusen Biotzaren Deya" - aldizkarian idatzi zituan artikuluak; 2) "Santa Cruz apaiza" (1929); 3) "Mireio" (1930); 4) "Tormesko Itsu-mutilla" (1929); 5) "Barne-muineta"; 6) "Euskaldunak"; 7) "Urte guziko Meza-Bezperak"; 8) "Quito'n arrebarekin"; 9) "Aitorki-zunak"... eta amaika olerki sakon-eder!

MAITE MINTZOA:

"Ereka-ertzean aize garbia, zotala ta sarats zaafak, atseginez aritu ziren. "Ai, efe gintxoa! ain edeña izanik olako mintzo gaiztoa dun?", esan zuen saskigilleak. "Afi ta belafrí regiñik negon! Nola? I niregatik maitemindurik? Jaungoikoaren, Mirei, ez niri bizia kendu, orain arteo zori on izan diñat eta; ez niri siñestarazi eriotza lekarkidaken gauzik; ez, afen, niri istarik egin, Mirei!"

- "EZ dezadala zerurik gezura ba diot, - esan zuen neskak : siñista ezak. Mai-te aut, eta ofek biziko au, Bikendi. Andregaitako nai ez ba nauk, ordea, anker orék, naigabez gaizkituko nauk eta ire oñetan akituko, biotzillunik."

- "EZ olakorik esan, - erantzun zuen totelik yaun Anbrusi-ren semeak : gu bion artean lezea zegon. I, basaka-bordako efe giriñak aiz, ta guziak mendean daduzkan; ni, Valabrega-ko saskigille ezereza, Mirei; nekazari gizagaxo bat."

- "Eta, zer ziok, ene maite, yaun naiz saskigille izateak, atsegina bai akit?", erantzun zuen arin, bala-lotzaillea bezain gorri. "Naigabeak niri odolak urtzea hai ez ba duk, Bikendi, zergatik dirudidak ain eder ire zarpillekin?"

Nexka zoragarriaren aurrean Bikendi naasirik zegoan, sugeak odeietatik geldi-

geldi yetxiarazten duen txori zoratua bezala.

— "Sorgiña aiz-i, esan zion zartez, ire begiratuak ofela zoratzen nauen ezkerro; ire mintzoak burura eman zidan eta nire baitatik atera neun moskoña bezala. Ire besarkak ene pentsamendua sutan yafi duela ez dakin? Ara bada, saskigillekume oni iseka egiñen baldion ere, no, nik ere maite aunat, Mirei; maitearen maitez iretsiko induket. Ik esanen ba idanan "uñezko auntza nai diat; iñork lafatzen eta yeizten ez duen auntza; arkaizpeetan Baus'ko oroldioa milikatzen duen auntza bear diat", edo afobietan galduko nindunaken, edo emen ekañiko niken uñezko auntz ori: ortaraño maite aunat.

"Izar bat nai diat nik"; esanen bai u, ez itsasok, ez basok, ez ugoldek, ez urkatztailek, ez suk, ez burnik, ez lidaken galarazikoz zerua ukitzen duen mendi-tontoperata yoánen ninduken aren billa, ta igandeán ire lepotik dilindan eramanen uke. Ikustenago ta zoratzenago naun... Adi zan, Mirei: bein batez ikusi ninan bide-ondoañ arkaitz soillean érotutako pikóndo bat, Valleclusa'ko aitzuloan. Muskeñari yazmin, txapañak ere baño itzal gutxiago egiten zionan. Badakin nola bizi den pikondo ua?

Urtean bein, uin batek ureztatzen zition efoak, eta bear duen ur guzia ordun e edaten din, urte guziko egarria iltzen duclarik. Beatzari eraztuna bezala zegokinat au niri. Ni naun bada, Mirei, zugazño gaixoa, ta i aiz ituria ta ezoa. Yainkoari lio tsan, gizagaxo onek urtean bein bederen, orain bezala, belauniko, ire surpegi-eñaiñu ortan atsegitea, ta batez ere, ire beatzak ikaraz biguinkiro musukatzea."

Mirei k maite-pilpiraz entzuten zion. Ark beñiz, zorabildurik, gefitik eltzen dio nexka zorabilduari, ta besarkatzerakoakio.

"Mirei!", otsegin zuen artan mintzo zaar batek zugaztian. "Mirei! seda-aíak ez diñate yanik gaur eguerdian..."

Ikusi al duzute ler-adaburuau etxetxori taldea kokatzen afastirian, eta bat betean, buruxka-biltzaileen baten afi-ukaldiz izutzen eta basora iges egiten? Olaxe ikaraturik doazi, zabaldian barna, neska-mutil maiteminduak. Nexka, borda aldera, itzik atera gabe, bildutako ostoa buruan; mutila, beñiz, geldi, tutulurik, otalufean barna laisterka doaien nexkari begira.

("Mistral en MIREIO euskeraz", Bilbao'n, 1930, 25 -27 orr.)

— &&&&&&&&&&&&&&&&.

TXORI GALDUA:

Lagunei.

Ez dakit nondik, ez dakit nora, ez nola otsegin, ezta nere txiorik entzungo ote dezuen ere, neretxo oyek! Bi senide itxasoz arontza, anai bat an, arreba emen, gurasoak gazterik il. Au nekea! Txori galduak ezin bildu alkarrengana.

Alare nik alegingo det bada, nere negarrik entzuten ote dezuen. Bear bada, zuek ere negarrez erantzungsdezute, bañon elkarren berri jakitea obe da beintzat, il ala bizi geran ez jakitea baño. Ba dakit bizi zeratela, ta neregana etzatozketela. Ni ere ez noake zuengana. Ni enago sasitartean; esitartean bai baño, toki atseginean nago. Zuek ostea, gizagaxo oyek, or zabiltzate nekerik aski dezutela, bata bestengandik aldegiñik. Nonbait ez al gera bilduko?

Bai bada, betiko zoriona laister ikusiko degu, Jainkoa lagun: an daude aite ta ama gure zai. Bai emen ere, negarrezko ibar onetan, ba degu bildutoki bat, ederra ala re: kristau guzien Ama da ori, ta batez ere gure etxeeko Ama.

Ni zuek baño lenagokoa naizelako, obeki dakit Atsekabezko Amari Errosarioa esan-dakoan egiten genion eskari: Ama mártir aren zazpi atsekabeak gogoan artzen genituen

aldioro, onean da gaitzean.

Aren bictzean sartu zaitezte bada, ta alkar ikusiko degu.

I

Aiton-amonak bizi ziran oraindio. Egun batean zan: negu gogorrean belar igar gutxi, beyek erdi gosean; otzarekin esne gutxi, ta sukaldea bete lagun.

Aiton-illabak üntzetara joan giñen mendira, lastoarekin nastuta txikituta beyei emateko. Aitona gizagajoa 70 bat urtekoa: alare ariñ igotzen zan zugaz gañera. Untzerrak eta gorostirik mardulena non zegoan, ederki zekin mendizulo gizagajo arrek. Baño neretzat nai baño urrutiago, gaztetxoa bainintzan. Beyen zai egon bear, ark untza egin bitartean. Otzak egiñik, eskuak non beroturik ez, ta beyen surrean egon bear, akulloa artuta. Aurrenean egongo ziran geldi, baño aspertuta etxera nayean asiko, ayengandik ezertxo ere aldegiten banu.

Gurdiaren karraxi-otsa entzunean, aitonak laister esaten zidan: "Mutil, zintzo egon aurrean!" Ni beyen ankartzean bederik eskuak sartuko nitukenean nengoan, baño ayek egonarririk ez. Adar-kondotik eldutzen nien gero; ta bero gutxi ematen baziaten erè, auznarrean ari ziraneko ortz-ikarak atsegin ematen zidan, muñetan barrena zijoala.

Aitona ari zan, ari zan gizagajo ua, üntze-mordoa zarrataka. Zugaz batetik jetxi zanean, naikoa izango zula-ta, pozutzen nintzan; baño gurdia betetzeko etzula aski: bestera ta bestera igo bear. Bitartean beyek egonarririk ez, nik ere ez; neguko egun motza luze zan. Noizbait etxera egin gendun da, an su ondoran ederki jarrikò ni, amonaren esanak eta ipuyak entzuten.

Zer gertatu zan, ordea? - Beste errape baten zai geundela esnerik aski emateko, ta zernari zegoanak umea bota zula zazpigarren illabetean. Olako naigaberentzat izan bear gendun noizean bein. Bost ikusirik nago! Ez dakit nolako gaitzarekin beste bei bat il zala. An errian oitura su zan: beyen bat aizetutako edo, amilduta edo, beste gaitze gaizto ta kutsudunik entzunean, larrua kendu, ta erriko guziak etortzen ziran bakoitzek aragi-okel bat erostra, jabearen ainbeste kalte ez izateko. Ori oitura ederra zan, baño beste bei batendiñeko nola ornitu? Ta beye non zan? Jaungoikoa! Non da gure sukaldeko poza? Non dira eguneroako ipuyak? Non dira gure kantuak? Amona bakarrik ari da zokondoan seaskari eragiñean, amar aginduak edo Jesusen nekebidea kantari?

"Kristau zintzoa, gogoan artu

Jesuseñ nekebidea..."

Bestetan ez-bezela erdi ixillean ari zan: gaixoa min zan, izanez eres bai etxe-ko guziak ere. Alare zuzen biotza Jainkoarengana. Apal-ondoan, Errosarioa esan on-doren, ez gendun utziko kantatu gaberik, Ama maite orren zazpi atsekabeena, Bein baño geiagotan gogora zait, Ama atsekabetuaren oneraspena gendulako, guri ere ezpata bat bederik eman nai zigula. Etzendun gure etxeán besterik entzungo, Jainkoaren ala-bearra zala besterik? Alako naigabez baño obeki agertu al leikioko egiazko maitetasuna? Ori da, noski, egiaz Jainko maite izatea. Negarrezko bizitze ontan, Zure Amaren lagun izan nai degu, Jaungoiko aundial!

II

Uda zan: belarra itzultzen ari giñan igartzeko. Zortzi egun ba ziran Iruñera aita eraman zutela, sabeltxumea kentzera. Sendagitekoan ondo aterako ote zan ez cte zan geunden, asko illik gelditzen baitziran, bæda. - "Ondo atera omen da!" -, esan zuten; "oraintxe etorri da berrilaria, ta ark esan omen du". Pozik jarri giñen etxe-ko guziok egun artan, laister etxeán ikusiko gendula-ta.

Beste egun batean ardietan nebillela, ango mendiko labakian belarrean ari ziranak galde egin zidaten:

- Aitaren berria bai al dezue?
- Bai, ondo dagola uste degu.
- Gaur ere berrilaria etorri omen dek, zer ekarri ote du?

Langille ayek zerbait ba zekiten, baño ezer etzidaten esan. Ni ba nijoan basoan barrena, nere barranean idurika ta idurika. Atzetik, alako batean, beste artzalagunak arrapatu nindun: -"Aizak, motell; zuen aita il dalazkoa aditu diat".-

Au lana, au lana! Negarrez etxeratu nintzan; etxeko gaxoak ere ni bezela... Ama, ama! Aiton-amonak zarturik, umeak ezertako ez, zer alderdi on gendun?..

Apal-ondoan, beste askotan bezela, asi giñen Errosarioa esaten; oraindi bi urterik etzun txikiena, amaren aurrean jarri zan: erne zegoan gaxoa gure ixtiluekin. Ama negarrez, umea begiak zabal zabal, arriturik bezela ari begira. Izketan ba zekin, da aita non zan geldetzen zun egun ayetan, etxean etzala ageri ta. Arreba aziagoak esan zion egunez: "zerura joan da aita".- Errosariokoan, bada, besterik ez ta au esan zion amari: "aita zeruan da". Ordun guzick negarrari eman, da eziñ aurrera egin. Amak magalean artuta, bayetz esango balio bezela, musu eman zion. Beste azkenengoa sablean zeukan. Bost ikusi gendun bai, ta ikusi bearko ere!

III

Beste egun batean zan: zarrenak esan zion amari: "Ama, nik praille joan nai det." - "Bai, gizagaxo ori, nik ez diat erautziko. Mutikoa azixe dek etxeko lanetarako, ta arekin al degun bezela igaro bearko diagu."

Zarren ori etzan semea, bai seme-ordeko edo azitakoa: au esan bearra naiz, egia esateko. Baño berak beti "seme"-esaten s zion, da arek "ama". Beste izenik ez diot emango nik ere, ta eziñ eman ere, asarretuko litzakit bada ta, ama ere bizi balitz ez lioke atsegingo gaxoari, ainbeste maitetako mutikoari "seme" ez esateak.

Aitona eztarako etzegoan zarturik; amona gutxigorako berriz, umeak ez geyorako, gaxo ayek; amak irabazpide gutxi. Gero il zitzayen aitona, andik laister amona ere bai ta, etxeko zorrondca ustutzen asi zan. Amaren begira zeuden umeak, eta gaxoak al zun bezela azitzen zitun Jainkoaren bildurrarekin. Bigarren mutikoa ba zan etxeko bearretarako; neskato zarrena neskametako adiñean zegoan, da atera zan izobaren ondoan, amaren aldeko izobaren ondoan, bizitzen ikastera. Olaxe bada, aurrera ateratzeko ustean ziran bada ta, Jainkoaren nayarekin pozik zeuden.

Uurrengoa egun batean zan: alaba zarrenak gaztiratu zion praille zegoanari, "ama larri zegoala, gaitz artatik aterako ote zan bildur zirala".- Andik zortzialdian berriz, "ama il zala". Amarengatik, etxeko ume errukarri ayengatik, negar egin zun; al zun bezalako pake-litzakin poztutzen alegin zun. Senide gaxoak, barratzen asi ziranen, batak eta besteak esaten zioten, kartak egiñez: "emen bakarrik gaude, mundu galizto ontan".

Oraindik ere ori esaten diote, ta anayordekoaz ez da aztuko beñere ayem ama ononak semerik maiteena bezala azi zulako.

Andik urrena, bi mutiko azienak Ameriketara joan nai zutela, etxean bizibiderik ez ta, beste senideen bearra nolabait arinduko ote zuen... Gizagajoak! An ere gerria makurtu ta eskua luzatu besterik ez balego!

Alaxen aldegin dute senide guziak elkarren gandik, eta or dabilta, txori galdua arantz artean bezala!

IV

Besterik ari nintzelakoa egin det, baño zuek entzun dezute nere negarra, nere txio miña. Zuek gogora-aldioro, negar egiten besterik ez det asmatzen. Nik eziñ eman urrerik, eziñ zillarrik, baño bai erakutsi, oyek baño bearrago dana: zoazte zazpi ezpataz biotza josirik daukan Amarengana; an billa nazazue ta arkituko nazue bai, etxeko zorrondoan baño obeki.

Zuetan batek edo bestek aurki negar egingo du au irakurtzean, baño gogoan iduki negarrezko ibarrean gaudela, ta Jainkoaren Amak atsekáberik aski izan zula. Esayozu te nerekin batean:

"Ia, Ama, maite -iturria,
Zurekin samin bizia
artu zadan egizu.
Zurekin Gurutz-oñean,
Zure lagun negarrean
bear det urtadera."

(GIBELALDE)

ZRAMAYOTIK ERE IGESI.-- Aramayon efiko etxe an itxi zuten. Santa Cruz an zegoalakoa bañatu zan Belaxe, ta an bildu ziran zeuden etsai guziak, mordoskakan ibiltzeko. Ain zuzen ere, noren mendean egon Santa Cruz, eta Ernialden musu-uts utzi zun batalloiaaren beraren mendean. Oraingoan obeto kontu artuko zioten, eta igesegin bear ba zun, len baño ernego ibili bearko zun.

Bi egunez egon zan Aramayon aien mendean, Agotzuaren amargañenétik amabigañera, gabetik illunabañera. Bitarte ontan etzioten pakean uzten alditxo bat ere, etxetik plazaren erdira eramanez. Tiratzalleak jo-mugatzat artu zuten, eta esan da esan ari ziran, bere mutil mordoxka non zan aitortzen ezpazun, bost, lau, iru minutoko bizia zedukala. Atxitu zutenetik Santa Cruzek artu zun seta, ixilik eta ixilik eta ixilik egotea. Ainbeste joan etofiren ondoren, esan zien garbi, egundanõ etzula aitortuko: nai zutena egin zezatela.

Joan-etorri aietan begiak irauliko zitun noski, bidé-baztañen bat arkitzen ote zun, igesegiteko. Gibelá bear du! Baño etzegoan igesegiterik. Ala ere etzun etsitzen eta igesegin ote zezaken, eta nola, ari zan bere buruarekin. Zer erbia! Goiko bizi-tza batean zedukaten itxita; begiratzaillea an zedukan gau ta egun, iñorekin ezin itzegin zezaken; ala ere adiskide batzuk keñuka ari zitzazkion nola igesegin. Zer egingo ta, gaixo zegoalakoa egin zun bigañen gabea. Ozpiñetan bustitako zatar batzukin lotu zioten bekokia, ta ; nork esan, aien bitartez igesegingo zula? Baño sa-paillora edo balkoera joan ere egin bear zun, eta andik, lokafí aiek eta txamaña lo-tu, zintzilika igesegiteko.

Soldadu begiratzaillea an zegoan gelaren erdi erdian, eta etzédukan iñora mugitzerik. Alako batean, ittokafean zegoala, ta aize preskoa artu bear zula esan zion, ia balkoe ondoan etziten utziko zion, eta baietz. Urbildu zan sapailloa edo balkoera, ta an ezañi zan. Antxe, itzalka, itzalka, begirataillea oartzen etzan moduan, mugimenturik atera gabe bezela, lotu zion txamaña burniari zatar-lokafi aien bidez, eta gero oera, len zegoan tokira itzuli zan.

Gaberdiñ edo esan zion bere buruari: "iñoiñ ba da, oraintxe", ta beafa egite-ra zijoalakoan, oñetakoak jantzi zitun, eta bere artan goraka-antzean asi zan, abokofoka zeriola. Goragalea kentzeko bezela, zabaldu zun sapailloa, ta oraindik ere goraka ari zan, eskuak sablean zitula. Begiratzailleari eskatu zion baimena, andik bera txixa egiteko. Etzion eman nai, bildur baitzan, noizean bein ikustera zetoren ordun bere begiratzailleari esan zion: "Kapitana etortzen ba da, eskupetaren ipur-diz jo nazazu; bitartean begira zazu ate-aldera". Ala egin ere zun, kapitana albo-

gelañ lagunekin dantzan zebillen bitartean. Baño, gnora aldegin? Ezpaitzékin Aramayo-ko berri. Araba-aldetik len ibillia zan bide-erakustun batekin, baño au gaitzak artu izan zion da, bakañik ibilli-beña. Bein sartu zan efi artara, ta zegoan etxe artara. Andik lenengoz aldegin zunean, kale luze batean bañena joana gogoan zedukan. ¿Balia-tuko ote zion?

Alako batean, rau! sapailloan bera. Begiratzaillea oartzan eta burua atera zun, apaiza oraindio zintzilika zegoala. Baño, berandu! apaiza atarian zegoan eta zutik gelditu, lokañiai ta txamafari esker. Asten da laisterka, ez adiskideai ez etsaiei kasorik egin gabe, ta eritik atera arte e-tzan gelditu. Atzetik zetozkiola sumatu zuanean, ango ibaierra sartu zan, eta an luze luze etzin eta añañasta juan zan, zumie batzuk zeuden tokira. Baño, au lana!, urak etzun estaltzen geríraño baizik, eta bildur zan, alkondara zuria ikusiko ote zuten. Erantzi egin zun bada, ta sasitartean sartu. Billa zebiltzenak ara urbiltzen ziranean, leporaño uretan sartzen zan, eta aurpegiz sasira begira jartzen. Gau artan guzian eta uñengo eguerdira arte an ibilli ziran inguru aietan, eta etzuten añañatu... (SANTA CRUZ APAIZA, 45-48 orr.)

JOB'en liburutik: "Barka idazu, Jauna; nere egunak utsa baitira. Zer da gizona, Zuk orrela aundi esteko? edo Zu artaz orrela kezkatzeko? Argitzean agertzen zakio, ta betbetan aztertzen duzu. Noiz arte ez didazu barkatzen, eta listua iresten ere ez didazu uzten? Oben egiñik ere, zer gaitz egin dizut gizonzai Orri? Zergatik ja-rri nauzu begiz-begi, ta nere buruarentzat nekagarri? Zergatik ez didazu utsegina barkatzen, okerra aztutzen? Laister autsetan lo nagoke, ta biar zuk ni billatzean, izana izango naiz. (7, 16-21)

Biziaz asperturik nago; zabal mintzatuko naiz nerekiko; biotzeko samiñez egin-go dut itz. Au esango diot Jainkoari: "ez nazazula galdu; esaidazu zergatik artzen nauzun gogor. On al deritzazu ni itsustea ta zapaltzea, Zure esku-lan nauzun au, ta gaiztoen asmoak ondo ateraraztea? Aragizko begiak ote dituzu? edo giza-begiz ikusten ote duzu? Zure egunak giza-egun ote dira, ta Zure urteak giza-urte, Zu nere gaizateri billa ibiltzeko, ta Zuk nere obena aztertzeko? Badakizu gaizkirik egin ez duta-la, ta Zure eskutik iñork ere aldendu ez nazakela" (10, 1-8)

(URTE GUZIKO MEZA-BEZPERAK, 1234-5 orr.)

(J.M. MOKOROA : 84 -garren orrialdetik dator)

duz onako koplatzar au botatzen du marruka, eztarria urratzeko zorian, neska-mutillak dantzan jar-araziz arin ta bizkor:

"Ay, qué burro soy, qué burro soy,... / Se me frie el almaa!
" " " " " " " " " " " " / Abridme la cuadraa!
" " " " " " " " " " " " / Del suelo la pajaaa...
" " " " " " " " " " " " / Será nuestra camaaa!"

Ankaen gaiñean zutik egoteko kemenik gabe bizkarra paretari etziñik egon da Peru-Fermin gizagajoa, dantzariak arrotzen zuten auts zuriaren artetik ikusten festa zaratatsu hura, besoak zintzilik, begiak laiño, barrua laiñoago... "Ai nere gaztetango jai-arratsalde gogoangarriak!..."

("ERRAONDO-ko AZKEN DANBOLINTEROA", Bilbao, 1958, 11-13; 16-19): (Naparroari euskena galtzeak ekarritako kalteak aitzen emon gura deuskuz Campión'ek ipuin garratz onegaz...)

-- JULENE A Z P E I T I A --
(Zumaia, 1888 -)

1918 ganean. asi zan euskeraz idazten, Mexiko'n egoalarik. Maistra da, ta Euskaltzaindiaren Laguntzaillea. "Arritokietu" izenordea be erabili dau. Bere bizi guztian umetxuen maixtra izanik, ondo ezagutzen dau txikien buru-biotzen neurria, eta eurontzako egin ditu ainbeste ipuin eder, euskera errez ta garbi batean. Ipuin-sariketetan lenengoetariko sariak jaso oi ditu. Aldizkari askotan idatzi dau... .

Liburuak: "Osasuna, merketza tal yana ritz", Bilbao, 1920; "Irakurri maitte" (Eskola liburutxua), Bilbao, 1932; "Azerijauna" (ipuina), Bilbao, 1960 (egillearen izenik barik argitaratu ziran); "Amandriaren altzoan", Zarautz, 1961; "Umien adizkidia", Bilbao, 1962... .

"Julene'n gatza umeak zaletzekoa da... Urri dira euskeraz "Amandriaren altzoan" bezin liburu onak aurrentzat... Ipuin kontuan beintzat, Julene'k bete digu utsune aundi bat, orain, Gipuzkoako umeak badute nun ase..." (Juan San Martin: "Amandriaren altzoan", Itzaurrea, 11-12)

ANBOTO'ko MARI: Antxiñako denboretan, Abadiño deritzan Bizkaiko erri baten senaregazte aberats batzuek bizi ziran jauregi edo torre aundi baten. Gaur ere zutik dago jauregi ori Muntxaraz deritzaion auzoan, eta abadiñotarrak "Muntxaraz'ko palazijuak" deitzen diote. Ez da besteak bezelakoa, lau kuadroko zimenduak eta oso garai edo altua. Ormak metro t'erdi inguroko lodiera dute.

Sehar-emazte abek ez zuten aurrik eta jauregia ta beste ondasunak uzteko, aurrik nai zitzuten, emazteak batez ere.

Egun baten emazteak birao aundi bat esan zuan, au da: "Nik alaba bat izan nai det, ogeitabat urte dituanean inpernuko etsayak eramango ba'du ere".

Eta alaba izan zuan, oso ume ederra ta zoragarria. Mari jarri zioten izenez. Alaba jayo ta laister il zan aita... Emezortzi urte zituanean ez zan, ez Bizkaian ez Euskalerri guztian, Mari bezelako neskatzik. Liraña, egokia, ta edertasun arrigarri-duna: begi berdiak, illia urre kolorekoa... Aberastasunak ere bai zituauugari, baña iñork ez zuen nai berakiñ ezkondu. Bere edertasun eta izaterguziak maitetásunen oridez bildurra sortzen zuan.

Ogei urte bete zituanean, ama estutzen asi zan. Beteko ote zan berak esan zuan maldizioa? !Ai! Zer emango leuken alaba ezkontzearen! Baña senargairik iñundik ez. Ogeitabat urte urreratzen asi ziranean, amak bildurrez beterik kristalezko gela bat egin zion, eta etxeari burnizko atea (gaur ere "Muntxaraz'ko palazijuak" burnizko ate a dauka) eta kristalezko gelatik erteten ez zion utziten alabari. !Baña guziá alperrik!... Mari k ogeitabat urte bete zituan egunean eta une berean, inpernuko etsaiak artu eta aidian Anboto'ko leiza zulora eraman zuan. (Anboto, Abadiño'n dagoan aitz aundi bat da). Eta arrezkero an bizi da, eta augaitik esaten diote "Anboto'ko andrea" edo "Anboto'ko Mari".

Abadiño'ko artzai zar batek esan zidan, ostiral arratsalde danetan ertetzen zala iru-iruretan leiza zulotik kanpora, eta urrezko orraziakin illea orrazten duala. Berak ez duala iñoi ikusi, baña bere aitonak ala esaten zuala, eta beste artzai batzuek ere bai. Eta beiñ baño sarriagotan, udabarriko illuntzietan, sua ta argia dariola ikusi zutela Anboto'tik Udalaitz gallurrera joan da etorri egiten. (AMANDRIAREN ALTZOAN, Kulixka Sorta, nn. 45-46)

— R. MUJICA EGANA — "TENE" —
(Deba, 1888)

Gure emakume batzuek be agertu dabe euren burua euskal idaz-lenen arloan: euron artean, "Tene" aurrenetariko bat dogu, ezpairik barik. Bai itz neur-tuz, bai itz lauz, ez dau lan gitxi egin euskal-literaturari aurrera era-gin gurarik...»

Liburuak eta lanak: 1) "Miren Itziar'i idazkiak (itz lauz) eta Olerki-ak" (Zornotza, 1923); 2) "Gogo-oñazeak" (antzerkia); 3) "Gabon" (antzerkia: 1935); "Joan Joxe" (bakar-izketa)... Watson Kirkconnell'ek gertaturiko "European Elegies" (Ottawa, 1928) — antolojia — "Tene" ren "Udazken-Ala" olerkia sartu eban... 1964 ganean. Ondarroan Txomin Agirre'n omenez egin zan sariketan, nekazari gaian lénengo saria jaso eban. Goian aitaturiko lanik geiene-nak be sarituak izanikoak dira... Betoz ugari, gure literaturara, "Tene" lango emakumeak, euren biotzondo gozoa eskeintzera...!

GURE ABERATSAK: "Euskotar aundikiyen jauregietan egun beltz baten jeiki zan afotzaletasun-aizeak eusko-uriyetako txaidietatik aufian artuta, beseñi txiro ta basetxebakafetara bastertu zuan gure euskera mañagafia, badirudi euskeltzaletasun-eguzki beñiyak mendi artetik jeikita, malkaràk artuaz, basetxe-ak berotuaz, baseriak alaituaz, urrian bete-betian sartu hairik, euskotar biotz oso-en jabe egin nai duala.

Bañan gutxika..., neke aundiz sartzen ari da urrian eguzki osasungarri au. Lenago afotzale-aizea jeiki zan jauregiyetatik, orain andikeri-lañua jeiki eta uriya estaldu du. Alaz guziyaz, Jaungoikua gan itxaron degu, eguzki beñi oni emango diyola bear duan indarlaño kaltegarri au ayenatzeko.

Ba, jzer da andikeri-laño bat besterik, euskotar aberatsen jauregiyetatik jeiki-tzen daina?

Gure aundikiyak, gure aberatsak, ez dute aintzat artu nai beren abizenak egin ditun izkuntza. Txiroa derizkiote, guztiz txiroa, iya lotsagafia; basefitafena; afan-tzalienda; ayen sukaldiak bezin illuna, abenak bezin txiroa arkitzen dute. Ez dute nai berentzat; geyago: ez dute berentzat ezagutzen! Eroaki!

Onelakoak aberatsak izango dira, bai; bañan zakela bakarik aberats, ez burua. Adimen txiroa da, euskera auskotar oroena dala aitu ezin duana."

("EUSKAL-ESNALEA", 1920, 21)

(EMAKUMEAK, EUSKERAREN ALDE): "Asko dezakegu, asko; ain asko eze, gu gabe, emakume euzkeltzale gabe, ezin liteke euzkerak bizirik iraun, beste eleena bezela, beronen bizia ere, erabillia, aoz erabillia izatean dago-lako; eta gizadiaren zati bat égiten degunez (ontan ere esaten dutenez gizasemeak baño zati aundiagoa), gizadiaren erdi bat egiten degunez, beñere ez da gauzen aldez edo kaltez gure eragiña aintzat ez artzekoa; len ere au bein baño geyagotan esan det-eta; eta bai zenbait gauzetalako gizasemeena baño almen geyagoduna: sustrayagotik ukitzen diegulako, edo ta beren oñafia dagigulako; ofengatik gera gu gauz oyen zoria era-baki dezakegunak. Abetako batzuk dira eleak, edo izkuntzak gizartean: eta gure abefien elea euzkerea. Biziko ba'da, ele illa izango ezpa'da, beste guzien gain emakumien egi-pena da lenen lenen bear duana..." ("MIREN ITZIAR'i IDAZKIAK", p. 52)

- AGUSTIN A N A B I T A R T E I R A Z U -

(Donostia, 1891.)

Ikas/taro Merkantillak egiñak ditu. Euskaltzaindiaren Laguntzaillea. "Argia"-ren sortzailleetariko bat. "Nik lurralde guztietarako gogoa izan det beti, gauza berri asko ikusteko egarria. Itsatarrenganako naia ere bai. Izan ere, briekei ikusten dituzten erri ta bazterrak! Orrengatik, ... aal izan detane ah, bai ikusi ikusgarriak..." Bainha ikusi bakarrik ez: ikusitakoaren barri be emon deusku, euskeraz, bere "Aprika-ko Basamortuan" liburu atsegiztenean. Amaika euskaldun ibilli arren, munduan zean, batera ta bestera, zoritzarrez banaka batek baiño ez deuskuz azaldu euskeraz lur orreitako goraberak: euren artean, A. Anabitarte, euskal idazle errikoi ta zorrotza.

Liburuak: 1) "Neska-mutilleri dirua aurreratzen erakusteko" (Donostia, 1923); 2) "Aintzirako Olimpiar Jolasak" (Donostia, 1925); 3) "Usuari" (Bilbao, 1931: Euskaltzaindiak saritutako nobela); 4) "Donostia" (Bilbao, 1933: Euskaltzaindiak saritua); 5) "Poli" (Zarautz, 1958); 6) "Aprika-ko Basamortuan" (Zarautz, 1961: bidari liburua)... Erderazi, ostera, "Patrones y Capitanes de yate".

XII.- TIMIMUN: "Errian sartu orduko arritu nintzan ango etxe ta lur gorriekin. (...) Erriko sarrera sekulako ederra, oso zabal eta oso luze. Bi aldeetara, moallen antzokoak; sarrera-sarreran, bi tontor biribillak, urrena ni nengoañeko plaza, "marabu" ta guzti, ta urrenaren urrena soldaruen moallak, gaztelua danaren gañean ikusten zala. Aren atzean, ildegia. Esandako etxe, tontor, moalla ta gaztelua, danak görri, "tin" lurrarekin egiñak. Ez du bustia pasatzen uzten lur orrek. Plaza-erdiko "marabu"-a bakarrik zuria."

"Marabu" ura lau albokoa zan, baño lau alde aiek gora bezela estutzen ziran, lauak puntan alkarturik. Sartzeko ateak ba zetukan, baño itxia. "Marabu"-a zut-arriz inguratua zan bi sarrerakin. Barrengo inguruau egiten zituzten beren otoitzak mahomatarrek agirian. Otoitz-egin bitartean besoak altxa ta lurrari mun ematen zioten. Nere hoteletik ederki ikusi nitzaken otoitz-zaleak.

Ni iritxitako arratsaldean, illuntzean, ango aldean ibilli nenbillela, gauza bat oargarri gertatu zan. Neska koxkor bat, beltza, lurrera erori zan, belaunean min arrik. Gixaxoa, malko aundiak ixuri, "Amaaa...!", "Amaaa...!" karrazika ezin ibillirik asi zan. Arritu nintzaion "ama" entzutean. Euskeraz bezelako itza ote dute ama deitzeko? Uste osoa neukan, baño seguru egoteagatik, aur beltz aiek guk ain urrutiko euskaldunak bezela ama berdin deitzen ote duten al-oterik gabe jakiteagatik, nere ondoko mutil bateri galdetu nion: "Zer esaten du orrek "ama" deika?" Ta mutillak: "Orien izkeran "ama" da "mère" (ama) eta "aba", "père" (aita)", erantzun zidan.

Jostagarria iruditu zitzaidan mutillaren erantzuna, euskerazko "asabak" itzan, tartean dagoan "aba" itz orrek "aita" esan nai du ere, noski. Egia esan, ango lurraldean aur beltz bateri "ama" entzuteak bictza ikutu zidan. (...)

Ba nekian nik erritik ez urrutti ba zala "chott" edo gatz-putzua, ta ber-bertatik ikustea otu zitzaidan. Asi nintzan oñez urengongoizean, bakar-bakarrik. Erritik ateera-mugan mutil kozkor bat jarri zitzaidan segika. Ba ninjoan ni aurrrera, mutilla ere nere bidetik joaki. Ango mutillak eskale amorratuak dira. Lagunik bear ez bai-nuan, esan nion alde egiteko nere ondotik. Pixka bat gelditzen zan, eta nik burua bira or- (45-garren orrialdean amaitzeko)

-- MANUEL LEKUONA ETXABEGUREN--

(Oyartzun, 1894 -)

Abade au, Gazteizko Seminarioan egon zan maixu, gerra-aurretiko urteetan; gero, or ibili da, batetik bestera, baiña ez dau sekula baztertu bere euskal zaletasuna: euskeraz, idatzi; Euskalerriaren historia aztertu, gure errri xume guztietako arte-lan eta balioak agertu ta ezagutu-azo... Gaur egunean Euskaltzaindiaren Lendakari edo Buru dogu berau, eta lan ederra daramil esku artean: liturji-textoen euskeratzea.

Euskerazko lan batzuek: 1) "Iesu Aurraren bizitza", eresidun aur poema-txoa, bost kantetan (Donostia, 1948); 2) "Bi antzerki ta itzaldi bat" (Zarautz, 1965); 3) "Eun dukat" (teatro-lana, bere anaiarekin batean); 4) "Zigor", euskal operaren bertsoen egillea (Zarautz, 1964); 5) Gero-ren 4'gn. argitalpena, bere itzaurrez... Gaiñera, P. Larzabal en antzerki batzuek begipuzkeratu ditu: "Iru ziren", "Herriko bozak" eta "Hilla esposatu" (irurak, "Auspoa Liburutegia"-n).

Erderaz be asko idatzi dau, Euskalerriari buruz: aitatu daigun emen bere lanik ederrenetariko bat, "Literatura oral euskérica" (Donostia, 1935); liburu au berau, zerbait geitu ta obetuta, barriro argitaratu dau "Literatura oral vasca" izenarekin (Donostia, 1964)... Ba ditu beste estudio, artikulu eta itzaldi asko be.

Lekuona jaunak, gitxik lez, ezagutzen ditu gure Errria ta Euskera; orre-zaz gaiñera, ba ditu biotza ta zorroztasuna, gauzak erriko euskera txukun, argi ta garbi baten azaltzeko. Clerkari lez, gorengo maillan dago.

AITZIN-SOLAS:- Irakurtzaille: Esku-artearen dezun Liburua irakurtzen asteko irri-kitzen egongo zera, noski. Ez da arritzeko. Ez bait-da nolanaiko liburu bat. GERO! "Euskal-liburueta aipatuena.

Laugarren aldia gaur, argitaratzen dala. Irureun urtean, lau aldiz. Ez bait-da asko-asko ere. Bañan, nimbait, Liburuaren beraren "ala bearra" edo izan da. "Argitara bear zala, eta argitara bear zala"; bañan beti ere geroko utzi izan degu. GERO izan nimbait bera ere... Ondo alaere! GERO eta GEROKO GERO!... Bañan, dana dala, gaur argitara da berriz ere beintzat eta. Zorionean. Eta urte egokian. Egillea jaio zanetik lareungarren urte inguruan. (...)

Kritika- Apur:- Liburua: Diogun orain Liburuari berari buruz zer-edo-zer. Onezkerro irrikiturik egongo zera ta, Irakurtzaille.

GERO, gure libururik aipatuena dala esan dizut lentxuago. Eta benetan alaxe da, izan ere. Bañan, aipatuen eta guzti ere, ez bear aña, ez merezi-ainbat.

Itz bat da gure Iztegietan, Liburu onentzat egokia, egokirik bada. "Oparoa!" Liburu oparoa. Luze eta zabal. Oparoa gaiaz, oparoa eraz. Oparoa mamiz, oparoa azalez. Ixuri ugariduna, benetan. Ixuri errezekoa. Euskal-Liburuetaen "facile princeps". On-gitxoz guztien gañetikoa, gorena, ederrena, jantzieta, jakintsuena, jatorrena, erreza, txairua, apaña... "facile princeps".

Oparoa esan det. Eta benetan. Eta edozeñen eskutarakoa gañera. Guztiontzat "duana". Ez euskal-zaleentzat bakarrik - Euskera jatorraren ur bizia iturburuan bertan xurgatu hai duanarentzat bakarrik -; baita zuretzat ere, Apez Jaun, zuretzat, midi-

ku Jaun, zuretzat, Jaun Abokat... Zerana zerala: guztiontzat. Guztioak arkituko dègu Liburu onetan nun edan, nun goza, nun ase. Olakozea da.

&&&&&&

Oarra. "Guztioak" esanda, ordea, beste esan-bear bat etortzen zait burura. Esan-bear praktiku bat... Erderaz erakurtzen oitua -oso oitua - bazera, nabarituko dezu zenbait oiu ezkutu, zenbait resonatzi, zure barrunbean, GERO irakurtzen diardu-zunean. Aldiz, oarturik; aldiz, oartzeke.

Ezta orregatik eder Axular. Ez orregatik; ori arren, baizik. (...) Ori gora-bera, ba'du Axular'ek beste zerarik, beste jatortasunik, beste gatzik, beste grazirik.

Zertan dagon jatortasun ori? Ez bait-da errez esaten... Oparotasuna esan degu lenthxuago. Bañan itz-jario oparoaz eta jakinduri oparoaz gañera, bai bait-du beste zerbait ere. Argitasuna? bereitztasuna? Bai, ta izan ere, leztago Axular'engan bat ere kalpar kardatxik. Ille leun da, dan guztia. Ille leun, ondo orraztutako ille leun. Argi. Dana argi. Bereiz, nahasirik gabe, kardatxik gabe. Lerroa beti garbi...

Argi oni, leuntasun oni, berdintasun oni - ori bai - asko laguntzen dio laburta-sunak. Esakun laburra. Estilo laburra. Eta, izan ere, Axular eztegu bat-ere parrafo-zale. Luze itz egingo dizu aldiz aldiz; bañan iñoz ere ez parrafo bakar luzean. Sorta txiki asko dun itzaldia degu beti aren itzaldia. Eskutada txiki asko batuko dizki-gu arek zama aundian; bañan beti ere olaxe, sortaka; ez bein ere, mahats-aiena iduri, parrafo nahasi, klausula luze, arnas-etengabeko periodo bakar batean. Aditza, berboa, maiz indicativoan. Gerundioz eta participioz eta subjuntivoz eta relativoz asko luza-tu gabea beti ere paragrafoa... luzabidez eta luzagarriz aizatu gabea, "anpatu gabe-a", berak liokean bezela.

Ots, orratik! Ez uste izan orrenbestez, Axular'en estiloa, arnas-estuko estiko lakonikoa danik. Estiloak lakonikoa, ebakia, itz-neurtua, Kempis'en "De imitatione" rena bezela, edo Salomon'en "Proverbia"-rena bezela, azal eta mami, dana labur. Ez. Axular askotan gai luzeari ditxeko. Eta eraz, berriz, zati labur bakoitzaleunkiro alkartzen du zati urkoakin. Ortarako du ark, daukan bezelako arte, daukan bezelako Retorika. Retoriko bortitza baita, izan ere, gure Sarako Erretor zar, antziñako Tolosa'ko edo Salamanka'ko ikasle gotorra...

Olaxe da, dan bezain aditzen-errez eta irakurtzen-atsegina gure Axular aundia. Eta orixen du bere jatortasunetan bat aren GERO'k.

&&&&&&&

Akats.-(Batzuek aitatzen ditu: "zeren", "ezen", "zein", "hain... non", "hain... ezen"...): "Euskaldun arruntak - artzaiaak, baserritarra, euskaldun jatorrak - eztizu erabiltzen bere bizitza arruntean olako "zeren"ik eta "ezen"ik. Eliz-gizonak dira ola idazten eta peredikatzen dutenak; eta aiek ere ez idaztietatik eta kulpitoetatik kanpora; aiek ere ez beren bizitza arruntean. Guzti au "Kulteranis-moren" bat ote-dan señale bait-da: latinetik eta erderatik artuaren señale... (...)

&&&&&&&

Joskeria.- Latinismo oietaz gañera, ba'du gure Axular'ek beste latinismorik ere. Itzen joskeran -itzen egokieran - batez ere. Ezta arritzekoata, Axular'en pentsaera, latin-antzeko ibilli oi da askotan. Aren mendeko eskribitzaille-rik geienak bezela. (...)

&&&&&&&

(Amaitzeko)

Eder.— Bañan akats oiek eztira ezer, GERO'ren ederraren aldean. Eta akats diranak guk emen aipatzea — len ere esan det eta — ezta beste ezergatik, irakurleari erorbide eta eskandaloo izan eztakiskion gatik baizik... Ezpaita errezz, izan ere, guzti-guztia lore izatea, baratzarik ondoen landuan ere; egia izango baita beti ere, arako esakun zahar ark diona: "Quandoque bonus dormitat Homerus": azkarrena ere... Axular bera ere — aldiz aldiz loak- artzen duala.

Dana-dala, uki dezagun orain - azken-aldiz - GERO-ren benetako ederra. Eder, eta urre, eta ezti, eta lora... Eta aren edertasunik aundienetan bat, auxe, zalantzarik gabe: Euskerak Axular-en eskuetan artzen duan bizia; GERO-ren egilleak itzen zai-netan sartzen duan odol-errioa. odol-txorrotea.

Ba'dirudi Axular'en eskuetan Euskera gaztetu egiten dana; nunaitik bizia darion gazte; gazte bigun. Zenbaitzuri izkera eskuartean zahartu eta gogortu egiten zaigu (sagar zaharraren adar antzo). Axular'i, ez; Axular'i, gaztetu; gazte bigun, zume iduri. (...)

Batasun-billa.- Beste zertxo bat ere ba'degu, GERO'ren euskerari buruz esan bearrrik. Zein Euskalgitakoa da GERO'ren euskera? Laburditarra? napa-rra?

Ez omen da errez esaten. Bera naparra zan arren, aren euskera lapurditarrago ote-dan-edo, napar baño... Uztagun ezta-baida zu alde batera. Guk emen esan dezakeguna, auxe da: GERO-ren euskera eztala izkelgi bakar batekoa; gure Axular-ek bi edo iru izkelgi nahasian erabiltzen dituala. Gutxi edo geiago.

Berak jakin gabe? jakin-da? Jakin-da, nik uste. GERO'ren egilleak iñork baño le-nago ezagutu zuan Euskeraren batasunari dagokion problema edo egiteko. Eta ola, ja-kin-da eta naita idatzi zuan bere GERO, andik eta emendik itzak artuaz. Eta ez itzak bakarrik -lexikoa bakarrik --; baita gramatika-formak ere. Bi aldetakoak. Bai baiti-rudi ortarakoxe jaio-erazi zuala Jaungoikoak Urdazubi'n: Pirine-mendi-gain-gañean (ots, zaldi-gañean zankoloka bezala), bi aldetara begira (Laburdi, Zubero ta Napar Behere'ra alde batetik, eta Naparroa Garai'ra ta Gipuzkoa'ra bestetik) "guztientza-ko" euskera jatorrean bere Berri Ona Euskalerri guztiairi zabal zezaion. (...)

(Axular, GERO, Zarautz 1954, AITZIN-SOLAS, IX-XXX)

A. Arrue: EUSKERAREN BATASUNA (87.-garren orrialdetik dator) :

Dana dala ta esanak esan, eta batasunarekin edo batasun gabe, gure gaurko egin-bide larri ta buruena euskeraz itzegitea da, noski: Euskalki batean edo bestean, ongi edo... txarto, baña euskeraz. Egungo egunean euskaldun izeneko asko dira, beti euskeria gora eta euskera beera, begiak zerurontz zuzendurik, beren itzaldi eta idazkietan ari diranak. Baña erderaz, su da, gazteleraez edo prantzieraz.

Guziek ongi dakizutenez, euskaldun itzak, euskera duana, euskera dakiana, euskeraz egiten duana, esan nai du. Beraz, euskeraz itzegiten ez dakian euskalduna, ez da euskaldun egiazkoa. Orrelako euskalduna ez da euskaldun osca, erdi-euskalduna baizik. Edo-eta obeto ta zeatzago esateko, orrelako euskalduna da... "sasi euskalduna" (...)

(Antonio Arrue, EUSKERAREN BATASUNA, "Euzko-Gogoa", 1956 gko. Ep.-Ior., 62-76)

••••• JOSE MARIA AGIRRE : "L I Z A R D I" •••••

(Zarautz, 1896 ~ Tolosa, 1933)

Lege-ikasketak egiña zan. Tolosan bizi izan zan, ezkondu eskero, lantegi bateko arduradun... Euskaltzale sutsua: euskera sakon i-kasten, erabilten, zabaltzen, ainbeste lan egiñiko gizona!

OLERKARI dogu, batez be: "...ezpairik barik, euskal-olerkian bikain eta go-rengoen, liriku saillean beintzat" (A. Onaindia, M.E.O., p.883): "Izadiaren kanta/tzallea" izan genduan. "Euskera zar ezagungabeak dun muña atereaz, lirikarako aukerakoena dala garbi adierazi digu...; euskera erpiñeraíño landu digu. Gurean orainarte ez du kiderik, nekez duke garaitzailerik", autortzen dau "Orize" k, Lizardi'ren adiskide kuttun biotzeakoak...

Ez olerkari bakarrik: teatroari be eskeiñi eutson obra bat: "Ezkondu ezin ziteken mutilla"...; eta itz-lauz be agertu eban bere bikaintasuna: begira zer autortzen daben gure kritikurik onenak:

"Su prosa es también original, casi tan original como sus versos. Agil, descriptor tan certero como rápido del mundo exterior y del mundo interior, de humor intencionado y amable, está siempre lleno de sorpresas, tanto de fondo como de forma. Sólo la brevedad de su obra... le impide alcanzar el puesto eminente que consiguió en la poesía". (L. Michelana, HLV, p. 147).

"Si Lizardi ha alcanzado merecida fama de poeta, como prosista no está a menor altura. En ambos géneros aparece como verdadero artista de la palabra, que domina la lengua y sabe crear expresiones felices, densas de contenido, airoosas y originales" (L. Villasante, HLV, n.381, p.338).

Lizardi'ren lanak: 1) "BIOTZ-BEGIETAN", 1932 : olerkiak; 2) "Ezkondu ezin ziteken mutilla" (EGAN, VI, 1953, 29-55); 3) "ITZ-LAUZ", 1934: prosa-lanen bilduma txiki, baiña aberatsa; 4) "Umezurtz - Olerkiak", 1934.

DONAPALEU'ra YOAN-ETORRIA: "Goizeko nagi goxoak ogean nindukala - yeikiko al, ez al?... - telefono-otsa.

Zuti, belarriok... Neskameak: "¿Quiéeeeen?..." Neskamerik ezta Euskalerrian, telefnoz euskeraz dakinik. !Arian barrena ibiltzeko ere, lakatza ta baldarra degu, noski, mintzoa!... Baña OrraatiK, euskerari eldu bear izan dio, "quién" aren urrengo. Agi danez, deitzallea ezta nornai... .

"Aizak!" - nere artean -, Mendiola ote?... Egin ote-dit beribillean tokirik?... Bart, etzula baitzion... Ta nik iru eguneko bizarrea; sasiak yana arpegia. !Zortzieta abitzekoak zirala, ta zortziak oraintxe... Auxe dek lana!

Mendiola da, bai. Yoateko ta yoateko, itxongo didatela; bizarrek zer-ikusirik eztula gure eginbearraz... Ez bizarrea moztu, ez gosaldu - yantzi ere ozta-ozta banoa. ¿Zer egin bear zenduan?... Egun eder bat nola-nai galtzekoa ezta.

Beribil bi daudé gerturik. Mendiola'renean, yabeaz gain, Etxeguren deritzan zaldun bat, Yausoro olerkaria ta neretzako utsunea. Arregi guriarenean, "Uitzi", Larraín - Ibarluze'ko Udal-otseña - ta gizaseme audi sendo igarizar-beltz bat (Rekalde, izenez), aitarengandik Karlos'en gudateko oroitzez, ta are suz ere, betea.

Eguna urdin garbia. Berotu bear du poliki eguerdirako, Agorra illurren izanagatik... Noizbait ere, Arregiaren "gurdia" asi da oska, ta badiyoaz. "Uitzi" muskurioka ibillia dute, ain bide luzea egiteko berandu omen-dalata-ta. Goiztarra izan gizagaxoa, ta besteak oge-zulo uts...

Gu ere abia gera noizpait, Donosti runtz. Etxeguren dalakoa ta Yausoro ditut atzean. Etxeguren, gizon egiña da, ta, diotenez, lege-gizon azkarra: Euskal-erria'tik ate bizi-izaten omen, geienean. Arpegiz, sudurkako, begi-bizi, okotz-zorrotza; oldez, urduria ta alaia.

Olerkaria du aldamenean: aingeru azpildu-gabea. Arpegi górrizta ta apaiz-yazki beltza, alkarrekin egon-bearraren bear gorriaz ditu lagun; baña lagunarte gordintxa dagie. Luzexka sudurra, goi-beez beintzat - musuaren arabera - ta pitin bat zearka azia. Begi otxan parre-beraak ala diotzute, begiratzen zaitutenean: "Olerkari biozti nazu: orrenbestez esana dago eztedala "malizi" aundirik". Larre-larrean bizi dezu erretore, ta aren ginballak (kapelak) ere badio alako basaka-uxai ta igazkotuktu bat; gañera, gutxienik uste dezula, ez bat eta ez bi, lepazamarreruntz diyoakio.

Ateratzen baitu Mendiola'k urtero euskel-egutegi bat, arakoxe apaiz begi-urdinak egin izaten dizka zenbait zizka-mizka ta izkirimiri. Ordañez, Mendiola'k eman izan dio - gaur bezela - basotik ateko ega-alditxo baten abagunea.

Ibil-eguntxo auek arroagotzen dute txantxangorria eguraldi epelak baño. !Badu ark etorria, alazainkoa, neurtitzez ainbatsu itz askatuz ere!... Or det atzean, itzari laga eziñik... Etxeguren enetxoa: !entzun bear dituzu zereak eta bi!...

¿Zer zatozkit, "Uitzi". adiskide miña; zer, Homero, Anakreonte, Virgilio ta Ciceron buruan edukiagatik, bete-beteko euskaldun zaitugun ori?... ¿Zer zatozkit, bai, oñak narras, izkutu-mizkutuka, bekokian beera ginbail-egala eratxirik, betaurreko-erantzak begiak lausotu ta izu-antz?...

- ¿Zer irizten nazu? - galdegin dit -. ¡Zure anaiaren antzik badet?... ;Aterako otedegu gauz onik?

Nik, baietz; egóteko lasa... Beobia'n ditugu alkari-izketok. Mugan gaude ez-arian ez-arian, bidetxoa egin baitegu... Orain, beribilleen ta gu geronen nora-agiriak erakutsi-bearra. "Uitzi" badiyoakit, Yainkoarren "iñori ez esateko" aginduz...

Nik eztizuet oraindáño esan, baña "Uitzi" zintzo orrek nere anaiaren nora-agiria darama, alkárren antzik bai-baitute, ur-tantoak ardoarenaren ainbat... Ikusi degu, ordea, zenbait bidexka arturik dala arranoa, mugazaiak gezurpean atzeman eztezaten.

!Erne!... "Uitzi" ta lagunak sartu dira berriro beribillean. Mugazaia bédatorkie. Ni begi-uts... !Orraatik ere!... !Yare dituk! Baziztek...

Orain, gurekikoa... !Auxe dek ederra!... ;Nork esan bear zigun?... Olerkari xoko-kumeok... Egutegi-zortzi-illabeteen saria;!agur!

Esku ikaraz luzatu dek agiria... Ta mugazaiak -begirakun bakar bat aski - ezetz, eztekela aurrera egiterik: igazkoa dala... Egin dek arrituarena, baña ez taiuz: ge-zurra oi-eztekena ezagun... Bekañeい eragin, bekokia zimurtu... Alperrik; beribilletik yexteko... !Zorigabea!... Uzteko, beingoa gora-bera; Prantzi'a bear gorrian aizela... Aita ditzak apaiz-yazkiak, ginbail yatorra beatzaz erakutsi... Bost axola; !etze-gok errukirik!... Atera zak anka bat, eta... !arren!; atera bestea, ta...!otoi!... !Begi gaixoak! Ezer eztet ikusi unkigarriagorik... Bustigabekorik ere ez, ain dir-ditsu...

Guk, etsitzéko; ikusi baitegi otsa eztala esanetik gibelatuko... Berak, ordea,

Donibane Loiztun egondu...

ezin etsi... Beribil berriak datozi. Mugazaia albora begira dan batean, apaizak esku dardartia atexkari egotzi: gin bail bulardetsuak, erabaki gorrien garaia eldu dala-koan, zutitu aurrea lerdenki bekoki-gañean, ta egal-atzea lepazamarreruntz etzin... Euskal-Erria'tik Eskual-Herrria'rako Zubian gera, onuzko burutik... Ta Yausoro etsi-tuak, oña berriro beribilean sartu-eske: "Lagunak! - otsegin digu - !ekingo ba-ge-nio laisterka!..."

!Gizagaxoa!... Geronek bai, ekin bear izan genion ibillari, ura gabe, iñola etsi-ko ba-zun... Larrain gaziak gero, arratsean, zionez, !arena oman-zan abagunea, Es-pronceda'ren "Etsigaizto" e itzala euskel-neurtitz bikañetan iraultzeko!

Apaitaz arinduta, bagoaz Prantzia dalakoan barrena. Bagoaz, baña ez luzaroan... Etxeguren'ek eginkai txiki bat egiteko bai omen bide-ertzari begira... Ta entzun izan baitiogu maiz Arregi mardulari: "Laguna egin-bear gorrian danean, lagun akiok; naiz erorrek bearrik ez, yarri adi beintzat sasira begira"; yetxi gera guziok, ta ustua-antxean egonak gaituzu bide-ondoko ormaxkari begira...

Lanok amaitu ondoren, Yausoro'renaz geniarduala, Etxeguren'ek beratere gezurrezko agiriz datorrela aitortu digu... !Gizon politak gatxeudek, alajaiña!... Ta ez no-lanaiko gezurra, ibarluzearra bailizko nor-agiria (zedula) atera bai... Larrain-en laguntzaz...

Beraz, iru-kristautxo ziran gure artean rokerreko agiriez orniituak; eta oietarik, munduan oi-bezela, errurik txikieneko eror! Amaika lan emandakoak, erriak erdibitzeko arrasto oiek!...

Dönibane-Loitzun'dik aurrera, erregebide aundia albora utzi ta beste mearrago bat lotu gatzaio: kaskar-samarra bera... !Lurralde emea!... Mendixka bigun utsek bulartua... Guzia agiri da legun, lirain, guzia garbi, guzia... "tipi"... Errixkak, etxetxo apal polit banatzekoak... Bizitzea, emen, zorion-uts bear dala uste; aizea berriz, beti epel, beti dirditsu...

Bitartean, Etxeguren'ek "pillarmonika" txiki bat atera dizu, ta, arike ezpañak egotziz, asi da oska, biribilketa bizienak yoaz. Tarteka, ordea, geldi ta beera, sasiari ipuiak esatera... !Maskuri txikiagorik egundaño!... Gu aspertu gatzaio laguntzez, ta Arregi'ren arako aolkuaz gibelatu...

Lurralde atsegina ondoren, onaa, iuzaro-samarrean, beste bat, itun, bakarti, idorra... Orren arabera, bidea ere latzagotu, koskortsuagotu egin da, ta aren kantakoz Etxeguren'en larria ez batere obekitu... Gere ibilliaren azkenaldian, berriro leengo musker (berde) ezeak irten digu bidera, ikus-mugarañokoak pozgarriki yan-tzia...

Orduak yoanik dira poliki. Amabi-t'erdiak arte ez gera sartu Donapaleu'n. Kaleak utsik, otordua baita... Erri-zelaian orraatik arki ditugu morrosko eder batzuk. Euskeraz galdegin ta euskeraz erantzun, eman dizkigute bear-berrieik. Biltzarra'koen bažkaria "Trinquet" aho yatetxean dala, ta bagoaz ara... Onaa berrenn-bat baziadar bi mai luzeen alboetan yarrita, pelota-toki estalia zearo beterik. Badago an berri-ketaots ederra, erlauntz yoria iduri...

Arregi ta lagunak an dira, gu baño leentxeago sartuak, artean Yausoro'ren ezbearra eztakitarik. Etxeguren ta biok alkarrerin gera. Aurrean, Urruña'ko mutil ta agure batzuk, aruntzaxeago ziberotarrei ezka ta baika, ea nortzuk ote euskaldun yatorrenak...

Goizean egiñak dituzte gogozko yaiak. Gu ordea beti, iñora garaiz iritxienean, soñezkora, sabel-yaiera; ta aze ozta-ozta. Yan-ezkero, gañerakoak gutxi axola... Meza, mintzoaldi xamurrez; batzarreraz, aurten goza-beerez ta etorkizunerako asmoez

apainduak; euskaltzale izandu baten gorazarrez oroitz-arria agertzea..., oiek guziak ¿zer?, urdalla zerk berotua ba-degu?... Argatik zan, ba, goizean asarre "Uitzi": oiek ez genituala-ta atzemango... Orrek, ala ere, eztu esan nai "Uitzi" yale bizko-rra eztanik... Dana dala, gaurkoak eztu onezker zuzentzerik ¿bai? ta yan dezagun.

Yan-agiria euskeraz poliki egiña dago. Orren arabera, leengo eltzekari saldatsu bat dakargute, barazki-puxka gozoez egiña; gero izokia arrautzalioki edo "maionesaz"; urrena idiki ona, ta, azkenik, indiollo bikaña erreta. Guzia alderdi artako ardoxka garratz batek bustia... !Nik, gure Getari ta Zarautz'eko txakolin orixka min!

Baña, ardoa bizienetakoia ezan ez arren, labeak asi dira goritzen... Bai-baita lasabide bat (gure lotsagarritzat norbaitzuk etsia), euskaldunen otoruntzez-gero ezinutsezkoia; eztarri ausartaenak ekin diote abesari, kantatzeari... Artea, ordea, etzan orren garaia... Biltzar-buru-yaunak, guziek nekez ixillarazi-ta, mintzaldi labur bat egin digu... Anai auek esaera ere eztia dute ta egoki lotua... Agur gozoak guretzat, mugaz zear etorrientzat; gu, giputzok, ezezik, bazan an ale bat edo beste Bizkaia ta Naparroa'tik.

Orain bertsolariak. Bat aundi-musugorria, besta txikia ta aurpegi-zimela... Yaten ari-tokietan zutitu, ta ekin diote. Aundiak berebiziko neurkin edo metro biguna darabil: noiz-nai luzatzen zaio bost zentimetroz, noiz-nai beste ainbestez moztu. Orretan zeatzagoa da bestea; baña Zibero-eraz ari, ta gure belarriak, espaita oitua, gutxi yasotzen du... Urrena, abesak du berriro aldi... Bakarkako batzuk ere badira: oietarik bat, yakiña, gure Arregi egokia, abotsa pitxatzen asia ba-du ere... !Urteak, enetxoal!...!"Andrea, maite zaitut!...", abesten digu. Mutilzaar tinko batek ¿zer ego-kiagorik?

Gure lanai auen artean, mugaz onuzko alderdiko euskaldunen eri berberari oar nataio. Bur-yantzienak, yakitez erteneneak, euskeraz aal-duten gutxien ari-izaten dira, naiz yardun-gaia erreza-izan... Gure etsaiak - clagintza industri larria, batez ere - ba'litztze, ¿yarkiko al litzaiete gu baño biziagoki?

Bazkalondoan pillota-yokaldi bikain bat dago, alderdi ontan oi-diranetako pillo-toki albo-zabalean. Hiritar gañekoenak - neskatz apañak barne - dira ikusle sutsu. Baña berandutxo degu guk, eta bide luzeak egin-bearra. Onuntzakoan baño areago, Naparroa'n barrena - Baigorri'tik - itzultzea ere erabaki baitegu, gerekin, Yausoro zorigabearen tokian, beste apaiz yaun xalo agurgarri bat artuaz. !Ez al da au ere olerkaria izango!...

Donibane-Garazi zeartu-berriak geralarik ikuskizunaren txoragarriak geldiarazi egin gaitu. Esan-bearrik eztago Etxeguren'en maskuri urduriak, abagune oni eskar, artu bide-duan lasa-aldia.

Ibar ametsezkoia, zenbait mendixkek biribilki esia... Iru margoz, poliki naasiak alegia, irudia osatzen da. Zelaien ta basaxkaen muskerra, emen argi, an-urdintxa, or arre-antz; tellatuengorri miña; etxeen zuri txuria. Alkarren auzo dira, atsegin-zulo artan, iru-lau bat urixka maitagarri. Ola-kebide bakar bat ez, ortziaren aratza, izerdizko, nekezko, oñazezko lurrun-gandor zikiñaz lardazten...

Iñartzi (inbiri)..., ta abia.

Baigorri'n mugazai euskaldun otxanak. Seirak (muga-ate ura itxi-garaia) yoak izam-arren, Biltzarra'koen artetik gatozela esanda aurrera utzi digute, !Alakoxe batzuk izan ba'zenitu aruntzean, Yausoro adiskidea!...

Iñularreko oxkiroa lagun atsegin degula, Izpegi-mendartea bitarteko aldapa igo degu, astiro-astiro. Lukaika polita, zazpireun neurkin gora egin bear baitira...!

Orain Naparroa'n gera. Obeto esan, aspaldi genbiltzan Naparroa'n barrena, mugaz beste alderditik ere Naparroa baita. Ikus, bestela, etxe-aitziñetan naiz pilota-

tokietan; ikus Naparroa'ko kateak, arroki erakutsiak...

Illun-aski dala sartu gera Elizondo'n: artean etxetik urrutti... Leen ere adiera-zirik nagonez ezpai-gaituzu gogo-utsezko, aparia degu amets, eta, so bates, bertan artzea erabaki degu. Ibarluze'ra urrutizkiñez (telefonoz) ots egin-bearra, gaberdirarte ez gure usterik izateko; emaztearen - dutenak - ziri gordintxo batzuk ere entzun apalki, ta !orra arloa antola!...

!Otordu atsegina egin gendun orraatik ura!... Biña aparia, polita ardoa... !Bazan an esan ta yolas-bearrai... Ordun azaldu ziran gure arteko zaarpil guziak. "Uitzi"-k artu, leenbizikoz, astindu eder-samarra. Nik, aren berri nekian onek, galdegin nion, biurriki: "- Ta?... "Uitzi"... ;goizekoa esango al-degu, ba?..."

!Larri zan gizagaxoa! Ukabilla estu-estu egiñaz!-!Yainkoak barka!...!Ez/gero!...

Gure mai-muturreko lagunak - Larrain eta Rekalde'k -:"- ;Zer, zer?... Yakin biar diagu ori..." Ta zirika nik, berriro: ta berriro - yateari zearo uzteka, noski - "Uitzik": "-!Yainkoak barka!! !!Ez dezazula esan!!!..."

Gezurra dirudi, latiñez ta griegoz yakin gizonak eta "trampa" txiki bat aitortze-ko ainbestetaraño lotsa. Baña alperrrik ibilli zan. Bein artara-ezkero ni ere enengo-an ixiltzeko, ta aren urduriak gero ta axkureagotzen ginduzen guziok. Ta, astiro - astiro, itzez-itza... orra yalki guzia... !Ura yolasa atera zuten artatik beste biak! !Polita zala yokoa, alegia!... ;Ea ura al-zan bere burua agiriz, idaz-bidez, zintzo ta zuzentzat erakuska diarduan kristauaren egiteko?... !Bazetorkela urrena ere zu-urtasuna, gizabidea ta olakoak aipatu ta goresten: esango zutela berok, normaik ikas-teko eraz ta tokian, gizaseme makur ura ntlakoa zan larfugorrian ikusi-ezkero!...

Entzuteko zan, ta parrez lerregin-bearrekoak, ango aria. Larrain sudurruts betau-reko-aundi burusoilla ta Rekalde betozko-illun bizar-beltza, patata errea baño le-gorrago biak, "Uitzi"-ri berebizikoak botatzen... Ta "Uitzi" gizagaxoa, berrogei ur-tetik gorako gisaseme tinkoa, Homero ta Virgilio kolkoan sartuta darabiltzian gizona, estu ta larri, esku batean ogi-puska ta bestean ollasko-izterra (ta agoan bietarik aski), bere burua gerizatu-eziñik, neri erru guziak egotzi-naiean, neronek alako egin bideetan sartu bai-omen-nun (egia zanez...).

Eskarrak gerekin genduan apaizari. Oben artarik, eta aren antzeko guzietarik, bertan yaretzen ginduala esan baitzun; orduntxe "Uitzi"-ren gogape bildurbera asi zan baretzen, ta ekin zion yateari biziagoki, leen galdu-astiaren ordañak nondik ya-soko... Beste gairik asko maxiatur zan. Aitatu zun norbaitek erderaz ta euskaldunen itsusiz ta kaltez idazten duan eusko gazte bat... Baita ere orretzaz "Uitzi"-k iñoi-argitaratu-iritzia. Izan ere, badirudi gure errian arrogarritzat artzekoa ote-dan beste iñon lotsagarri litzakena... Berotu zan "Uitzi" bere aburu-alde, ta igerri zi-on alegia pattarraren ontzixkak: ipurditik autsi baitzun mai-gañean ukaldika...

Berdinduxe giñalarik, eta naikoa yárdunik, etxerako asmoa, damuz bederik, artu genizun ta antxe azkendu zan gure eguna.

Gañerakoa, ezer gutxi. Ibilli, ibilli, ibilli; yoan, yoan, yoan... Utzi degu nun-bait apaiza; beste nimbait utzi gaitu "Uitzi"-k eta illunak irentsi du... Ozkiro ga-zia, gau beltza, izar-mordo aundia... Nekea..., asperra, ogemiña... .

Egun bat geiago... ;Egin al-degu zerbait Euskalerria'ren ederragatik?... Ez asko, benetan. Baña, bada zerbait anai erdi-ezagunenganako elkarbidea, urrats bakar batez bederik, laburtua... 1929 gko. XII -22 g.

("ITZ-LAUZ", Donostia, 1934, 39-50) (Oarra: "Uitzi" ori, ORIXE dozu...)

11111&&&&&&

- LUIS JAUREGI, "J A U T A R K O L " .
===== (Errenderia, 1896 ..)

Abade au erri askotan egon da, arima zain: Salinillas de Buradón, Altzo, Anoeta, Matxinbenta, Urrestilla, Zarautz... Olerkari lez nabarmendu da, batez be; baiña prosaz egin dituan lanetan ez dau gitxiago erakusten, norraño sakondu daben euskera: "euskeria garbia, baño erraza. Euskal-esanera berarizkoa ta erritarra; baño irudimen bizi ta sutsuak biziaz betea..." (A. Damaso Intza).

Euskal-liburu batzuk: 1) "Biozkadak" (Iruñe, 1929); olerkiak; 2) "Ipuiak" (Zarautz, 1953); 3) "Paskual Duarte" (Zarautz, 1967); Camilo J. Cela'ren eleberri ospetsua euskeratuta.; 4) "Xenpelar Bertsolaria" (Zarautz, 1958)...

(GURE BERTSOLARIAK): " Egizko bertsolariak gorapen eta txaloak merezi dituzte, nun nai ta beti, Euskal- Errian ez ezik, baita beste errietañ ere. Aozko literaturaren ozagungunarririk nabarmenenak, oiezek baiditugu. Erri ikasi gabearen, edo obeto, eskola gabeko erriaren poesi-kutsua dariotelako ez ezik, baita erri-biotzaren taupadak beren bertsoetan iraulitzen trebe diralako ere, aintzakotzat artzeakoak ditugu bertsolariak. Erri-errraietan sortu, erri-magalean azi, eta bizi, erritarrez inguraturik bertsoak asmatu ta bota kantari, nolaz, ba, erri-kutsurik aien bertsoak ez dute izango?

Ez dezute iñoz, bertsolaria dan bertsolaria, bakarrik kantari topatuko; nai ta naiezkoa du bere inguruan erria. Eta erria ere, bertsolaria balitz bezelaxe, adiadi egongo zaio, azken bertsoa igartzen eta askotan berekin batean esaten edo kantatzen duela. Ba-daki ederki gure erriak, zeintzuk diran bertso egokiak, eta zeintzuk aldreibezak, zeintzuk baliotsuak eta zeintzuk meritu gabekoak, alajaña. Eta gero gure nekazariak eta erri xeak kulturarik ez dutela esango digute. Ba-zeudek mundu zabalean amaikatxo erri, orrenbesterako gauza ez diranak, bai orratik.

Bertsolaria, erritar uts-utsa degulako, ta erriarekin bat egiñik bizi zaigu-lako, gure erriaren nai, asmo, buru-auste, amets eta bizieraren adierazlerik jatorrena degu. Euskal-Errria'ren gogo-azalpena eta biotz-kondaira, aritik mataza bezelaxe, bertsolarietatik atera genezazke.

Garai batean etzan orain bezelako egokitasunik, asmo ta gogaiak paper ta liburuetan idatzita ipintzeko. Batzar ta billerak ziran, erabaki ta ideak eta naiak zabaltzeko biderik egokienak. Azokak eta peria etziran ikulluetako azienda eta sorro ta baratzetako igali ta frantuak saltzeko bakarrik; munduko ta errietako goraberak, gertaerak, esamesak, berriak, iritziak eta asmaketak zabaltzeko ta jakiteko ere bide oi ziran. Gaurko egunean ere, zenbat tokietan, alaxe dira ta garai aietan areago.

Erri-olerkari ta bertsolariak, batzar ta billera oietan, eginkizun nagusia izan oi zuten. Argatik ziran ain ospetsu, ta beren izenak ain aipatuak. Guzick ze-kiten, aiek, bertsotan iñoren egintzak goratzeko bezela, lotsagarri uzteko trebeta-suna ere ba-zutela, ta ez da arritzeko zeinbaiten biotzetan bildur pixkaen bat sortzea. Amaika aldiz bertsoen ega ariñetan, mendiko baserri urrutietaraiño zabaldu oi ziran, izkutuan zenbaitek euki naiko zituzten egite maltzurrak. (...) Bertsolaririk gabe, Euskal-Errria, ez litzake Euskalerri. Aiñ gureak ditugu bertsolariak..."

("XENPELAR BERTSOLARIA", "Kulixka Sorta", Zarautz, n. 25-26, 13 -15 orrial.)

*** &&&&&&&&&&&& ***

- ANTONIO MARIA LABAYEN -

(Tolosa, 1898 -)

Euskaltzaindikoa. Industriala. Nork esan zenbat egin daben euskal-literaturaren alde? Izen diran eta gaur diran aldizkari geienetan argitaratu ditu bere lanak (batzueta, izen ordeaz: "Ibalan", "Aspaldiko", "Matxingo-rrri", "Etxekorena", t.a.)...

Liburuak eta idazlanak: A) Erderaz: 1) "Compendio de EUSKALDUNAK", 1950; 2) "Teatro eúskaro", 2 t., San Sebastián, 1965: gure teatroa ezagutzeko libururik onena (gerra aurretik, 1932-1936; teatro-aldizkari bat bē zuendu ta argitaratu eban: "Antzerti")...

B) Euskeraz: a) antzerkiak: ogei bat ba ditu; ezagunenak oneizek, bear bada: "Petrikillo", "Jokua ez da errenta", "Malentxo alargun", "Domenjon de Andia", "Jostuna", "Iparragirre", "Ostegun gizena", "Goltzaundi"... Oraintsu oreindik bere antzerki barri batek - "California... Kuku!" - "Gipuzkoa teatro saria jaso dau...
b) biografiak: "Elizanburu", "Joanes de Etxeberri" - (Fréderatik be euskeratu ditu gaurko teatrogille ospetsu batzuen lanak: Duerrenmatt en "Gizona ta Kidea", B.Brecht en "Bai esalea - Ez esalea", Ionesko ren "Neskatala ezkongai", Max Frisch en "Su-emailleak"...) .

"A la simple enumeración de tan extensa cuanto cuidadosa producción, a nadie escapa que Antonio M^a Labayen es un auténtico catedrático de Oxford, con su exclusiva dedicación al estudio del teatro vasco, ignorando el mundo en que vive, inmerso tan solo - y felizmente - en su mundo de amor a los valores vascos." (ARANZAZU, 1967, 232)

ASPALDIKO TEATRO-ZALE BAT ORAINGO TEATROAREN AURREAN: "... Aspaldiko teatro-zale nauzute, bai, eta nahi ta nahiezko zait arpegi ematea. Gaztedandik, opor orduetan, teatro-baratza lantzen asi nintzaitzuten; eta geroztik, asko edo gutxi, atxurrean jarrai izan dut.

Nere nekazaritzaren balioa geroak esan beza. Nik ezin dezaket besterik esan zahartuxea arkitzen naizela baizik. Azalez, gazte-itxura gordeagatik, gerria gogortzen asia daukat; biotza epeltzen, eta okerrago dana, buruko barne-muiñak igartzen. Eta buru-anténak ernai eta eze eukitzea, oraingo aldko eguratsa sumatzeko da gauzarik beharrezkoena. Itsu ez ba gaude, berehala azaltzen zaigu zaharren eta gazteen arteko auzia. Zaharrok ez ditugu gazteak begi onez ikusten; eta aitzitik "gazteek" zaharra aitatzean. "txarra" itzetik ez dute asko bereizten. Gauza antzekotzat eraobil oi dute sarritan. Onek ez nau arritzen; eta are gutxiago asarretzen, gazte ta zahar, antziñazale ta oraingozale arteko eztabaidea aspaldiko bait da. Beti alatsu izan oi da. Batik bat, Literaturam, eta teatroan, geiago, noski, oraingo gizaldikoen surrekoen lanen iritzia ematen dutenean. Esaera zaharrak dio, ordea, "gaztea ere bere bideak arrapatuko duala". Gai au astirotxo gogartzea guztioi izango zaigu onuragarri. Gogoetan assi gaitezen bada.

Euskaldunok oso gaituzu minbera-errez, muzin, sentikor eta zapuzkor. Kritika ta maxiaketarik trikieta nekez eraman nahi izaten dugu. Eta maiz, gizalegerik gorde gabe ta jendetasuna eskatzen duana azturik, elkarri zakarki erasotzen diogu. Egia da, ta esan dezadan lehenbaitlehen, beste toki ta errialdeetan berdin gerta oi dala. Gi-zonezkoen griñak nun nahi antzekoak bait dira, bai antziñan eta bai gaur egunean.

(Amaitzeko)

Ezin ba ditugu guziak kendu, leia gaitezen bainik bein, eztitze arren.

Beaumarc'hais prantsesak aspaldi esan zuen: "La république des lettres est celle des loups". Beti oska elkarri otsoen arabera. Letradun eta idazle jendea maizenik lagun-urkoarengatik gaizki esaka ari izaten da. Bainan goresmen geiegi ta lósintxak askotan intenzio txarra du. Orregatik gure kaiskallu aundi Unamunok zorrotz galdegiten zuan: "¿Contra quién va ese elogio...?". Beste batzuek, berriz, ez dute bihotz-aundi-tasunik iñor goratzeko. Pirandello'ren ustez, aú kritiko askoren pekatu larria da...

Eritisun au sendatzeko doai-birtute bat ba omen da: "ataraxia" deritzana. Euskeraz: lasaitasuna, gibel-aundi, bizkar zabal izatea, entzungor egitea. Kristau itzez: umiltasuna. Gure lanak txartzat jotzen ba dituzte, isildu, ez aditua egin. Onak baldin ba dira, bere bidea egingo bait dute. Ez da iñor utsik gabea...

Beraz,.. Teatro-barrutian, beste arte-lanetan bezela, zer dan benetan goitar, on, ta gallen ezagutzea ez dala gauza erreza ikusten duzute. Ez lehengo egilleetan eta are gutxiago oraingoetan. Batzuek goratzen dutena, besteok lurrera botatzen dizute...

TEATROGINTZA: Komeria bat sortzeak, dramakizun bat bururatzeak ba ditu bere lan eta nekeak. Gaia ondo ikusi, aztertu ta aukeratzea lenda-bizi, joku-lagunen karakterrak berezi ta borobildu. Gero, jokuaren abiadura, jarduna, ekintza, mogimendua, bizkor eraman; mintzaira, pentsaera, elkar-izketak sakon, zorrotz, bizi ta berezkoak sartuaz; ta guzia maite-miñez, grazia oretua. Ta azkenik, korapillo ta lokarriak itxuraz lotu ta askaturik; maratil eta krisketak behar diran lekuan ipiñiaz. Teatrogintza iantegi bat duzute esku ona, ofizioa eskatzen duana. Etxegintzak plano ta proyektoa, ots, asmo bat behar dituan bezela, dramagintzak gogai bat, kezka bat du sortzaille. Ispiritu ta asmamenaren goi arnasa nahi ta nahiezkoak zaizkio (...).

Ez da aski gaia sakon, berri, zirarragarria izatea; zabar, motel eta bal-dar erabiltzen bada.

Teatrogintzak gaiaren indarra eta teknika berriaren lillura ez ezik, grazia behar du beti. Au ez da ikasten. Norberak du bera. Alare, liburu asko dira erakusgarri ta nik batik bat, nere aolkuak zerbait balio ba'du, Gouhier Sorbona'ko filosofo ta irakasle jakintsuerenak arduraz irakurtzea esango nuke, beste toki batean aitatu dedanez. (...)

TEATROERRIKO, GIZARTEKO eta EUSKALDUN: Beraz, teatroa beti da gizartekoa, publiko jendearentzat egiña. Batik bat erriko jende aundienetarik izaki. Auek, esate baterako, A.Gide, Montherland eta antzeko ao-txuri-ek antuste ta arrokeriz ez dute jende xeharen artean sartu nahi izaten.

Ez dugu beñere ahantzi behar Teatroira doanak bere nortasunetik zerbait galtzen duala; eta beste publiko jendeaz bat egiñik, mailla berdiñean jartzten dala. Teatrora joan nahi izatea norberak bakarrik par egin, malkoak isuri ala txalo jotzea bidegabekeria da.

Teatro baltsakor, komunitario. Eta auzo-lana bezela guziekikoa. Teatro universal orokorrak hori eskatzen baldin badu, gure euskal teatroak areago. Euskera dagon kenka larriarenagatik politikerietatik kampora gorde behar dugula esaten ari zaizkigute. Eta arrazoi dute. Euskera alik eta jenderik geienena izan dedin, eta ez alderdi batean bakarrik. Alare bizi izaten aski lan izango du. Bada, nere irudiko euskal-teatroak ere bide ortatik jo behar du, geiegi nabarmendu gabe, publiko jendea uxa ez dezagun. Orrek ez du esan nahi gure Teatro giarrik gabekoa, kezka ta problematik gabea, mezu-

rik ez dakarkin teatro belaxka. Hori ez iñundik ere! Gure bizitzaren agiri ta ispilla baizik. Egia ta errealdadez gañezka. Ez edertua, baiñan ez zatartua ere. Beti gure erritasunaren alde jokatuko duana.

TEATRO BERRIZTEA: Teatroa Akademi arautik ateraztea, berritzen alegintza, ta aldaketa bidetik bultza egitea ondo dago, ingurumaiko egiatasun eta errealdadea ager ditjan. Onela gizarteko problema, kultura ta diru arazoak dramakizunetan leku izan dezaten. Egipen au, berrizte au, astiro doa, uste baño nekeza go bait da.

Bitartean berrizale amorratu ta "vanguardistek" leiatu arren, antziñako teatro lege ta arauak dira nagusi, Shakespeare buru dutela. Aristoteles zaharra dramagintzan beti dabil gidari; eta Grezia'ko Trajeri maisuen oiartzuna ez da oraindik itzali. (...)

BIDE BERRIAK BAI, BAIÑAN EZ OKERRAK: Eta okerrak dira, nere irudiko, oraingo dramagille batzuek aukeraturiko bideak. Naiz "surrealismo, existencialismo, absurdokeria"... eta beste edozein ezizenez deituagatik. Ataka txarrera daramaten bide makurrak. (...)

Teatro-lanek lenengo zentzua behar dute, gizonek eta munduak behar dituen antzera. Arte-legeak, antze-lana eta argitasuna bitez aintzindari; politika, soziologia ta gañeratiko ideiolojiak beren lekuak utzirik. Zeren teatroari larregi eskatzen baldin ba diozute, alperrik galdu eta fin gaitzo eginen du.

Gizonezkoen problema ta korapilloak antzezkizun eta errepresentazioaren bidez askatzen laguntzea ez da gutxi. Onela teatroa erriaren serbitzari billakatzen da, eta Antzokia, benetan atsegin eta pozkari toki ta lekua izan diteke, gizonek elkarrekin bilduta, itxaropen eta irudimenez beterik daudeken tokia. Gizonen elkartasuna sendotuko duan toki dohatsua. Zenbat eta jendetza geigo bildu, ordun eta indar aundiago izango du. Teatroaren urrezko aldia, antziñan, Grezia'ko urietan jendea erruz, auskaki biltzen zaneko uaxe izan zan; ta gero kristau-aroan, Katedralen ataritan, fededunok, goiko ta behoko, pillan biltzen ziran denboran. Iritzi auek, asko beintzat, "Esprit" aldizkari aurrerazalea irakurriaz atera ditut, gesurra dirudin arren. (...)

AZKEN ITZAK: Barruan nituan geienak esan dizkitzuedala uste dut, baiñan sermolarrioi zaiena, ezin bukatu azken aolku zenbait eman gabe. Zuek, gazteek, ontzat artuko dituzute edo ez. Gogoko zaizuten bidetik jotzeko eskubide osoa dezute noski. Ez dizuet ukatuko, zeon buruaren jabe bait zerate. Zoazte, beraz, aurreruntz, bete betean bide berriak asmatzea opa dizuet.

Barkatuko al didazute, ordea, zuen surrean nekez ikusiko nauzutela, berriz, izlari-gisa-ta, nere biotzaren azken lasaitze au. Ez natzaizute nere buruz mintzatzuko, baizik André Maurois idazle aundiaren itzak arturik: "La maladie du siècle" bere idaz-lanetik. Gizaldi onen gaitza, euskeraz itzulia, munduaren irudi beltz, illun eta goibela azaltzen leiatzea omen. Beti gizon-emakumezkoai biotza gal arazi ta lur jo nahiez dabilzala dirudi. Bidegabekeria ta oljerrak besterik ez dizkitzute agertuko. Munduan beste gauzarik ez balego bezela.

Sendimendu on, zuzen eta jatorrak batere interesgabek dira aientzako. Leialtasun, garbijokatze, prestu izatea, parregarritzat, ridikulotzat artzen dituzte: eredu tzat, aldi, jende doakabe, deitoragarri ta mixerablea. Gizarajo oriek likiskeria griñez eta mozkorkerian murgildurik, beren zoritzar eta ondarena ahaztutzeko egiten dutena bakarrik artzen dute aintzakotzat. Bestelako gizonezko ondrau, zindoen bertute arrunt eta eginalak ez dira deus. Guziak azpikoz gora jarri beintzat, eta zoazte gero gizonari jator eta egoki, zuzen jarduteko esatera. Balorea behar da. Eta André Mau-

-- TOMAS A G I R R E "BARRENSORO" --

(Errezil, 1899 -)

Apaizgai izan da Comillasen; gaur egunean saleroslea da, ta Sevilla'n bi-zi ei da... Gerra-aurretik asko idazten eban, "Euzkadi" egunerokoan, eta liburu bi be argitaratu zituzan: "Gazigozoak" (Bilbao, 1933) eta "Uztaro" (eleberria), Bilbao, 1937. 1950; aspaldi ontan, guk dakigula beintzat, ez dau ezer idatzia. "Barrensono" ren arreba bat be - Maria Dolores Agirre - euskeraren alde lan eder asko egindakoa da: Donostia'ko "Academia de Declamación Vasca" ren zuzendaria dozu emakume txalogarri au...

"Barrensono" k sakon be sakon daki euskerea; bear bada, bere aldiko semea izanik, garbizalekeri estuegi batek alako gogortasun bat emoten deutse bere lanai... Ez dot uste beab dan beste ezagutzen dogunik idazle au.

LANA?...! ZOAZTE BASERRIRA! - ARTOARENA: - "Arropuztu ta kaskailu ba-aiz, agian, gizadi! Braust batean jo dik luña ik ain-bestetako jardunaz eta buruaustez ereikitako dofe dirdaitsuak. Babalgo doñaren garaian bezelaxe, naspilbide biur zaizkik ire jakintza ta aundiustea. !Olloaren bezango istilluz kakazazu izan dekan jakintza! Pofot egin dik Jaungoikoaren pare epaitutako adimen-argiak, eta oña of nun abillen illunbean, argizpiaren susmorik sendu eziñik. Lafi dabilkik biozparena-ta, etzeriok ire biotzari legezko neñian odol-taupada. !Gizadiaren eskasa!

Itundasuna sortzeko laingoa ba-dek, izan ere, gaurko egunean urietan oartzen deguna. Itzali zaiek labeondoak, oraintsu arte ke-adats ugaria zeritela ari ziran burdiñolai; baita sabelik zijoakien galda goria oztu ere. Abere zaurituen iduria zetzae itxasbaztafean, atzo atsanka bizian eta uxtuka zebiltzan ontziak. Ori-dana baño ere mingariago zaiguna dek, ordea, lanik gabeko langille eñukañiak gosearen zulatu efea matailletan daramatela kale-zearka ikustek. Dostoiewsky k paregábe margoztatutako giza-irudiak zirudie.

Lanik eztala-ta, uritarak oiuka ta kafasika dabiltsan bitartean, ez dik baseñitañak iñork lanik eman bearf aundirik. Etzeok, ez, egonak erdoituko goldea. Zintzo ta leiatu erantzongo zeak, beti bezela, aren deiari bei-bikoteak, uztañipetik, il-doa ufatuz. Luñak ere ernari ta emakor aurkeztuko zeok bere garaian emai aberatsa: garia, babafuna, arbia, belaña...

Artoarena dek bereziki oraingo garaia. Sagasti loratzen dan aroan ba-dik nekazariak zer egiñik aski artoa ereiten. Arbi-ondoak utzi duten lañainean bertan egingo zeor ogea. Eskuartea naikoxe lasaitzen dun uztaroa dek artoarena-ta, gogoz buruzka-tuko dizkik ari dagozkion lanak. Oña of baseñitañra bostortzekoaz arduratsu luña xee-tzen; ajolati gozatuko dik ere aurki luñ landua, oinkada neuraltetan, azia erein baño len.

Gariaren ondorean soroa lantzean, luñak ezeñ emango ba-du, sakonetik eragin bearf izaten zaiok azpikoaz gain. Ainbesteran txukatzen eta agortzen zizkioak gal-zuztañak azkeneko kondarretarañ azaletiko umo-tanto guziak. Arbiondoak, ordea, ez dizkite ain sakonki lurperatzen eñoa eta, artoaziarentzat luña bear bezela ñaneatzeko, aski dek bostortzak ufatzen dun ildo ariña.

? Bai al-dek, afano pola, urte-giroetan, artoarena bezain atseginiñik lanean jar-duteko? Asiak ditut txoriak maite-kantuan txoragarri; egotxoai eragiñaz kirkirak ere

agurtu dite Udabeñi; suspertzen zijoak izadi osoa, eguzkiaren mosu epelera arnasa beñituz... Bitarte onetan, bostortzeoaren orpoari ona ezañ-ala, odol befiaren iraduz, atsegina ta zoriona zebilkioek nekazariari biozpean ziztaka. Oinkada biz atzeragotik zijoakiok aita zaña, bizkar-ezuña kako, arek zabaldu dun ildoaren sabelean ba-ba-azia ta artoa neurika ixuriz, Bei uztartuen aufetik zebillek, beñiz, semetxoa itu lan. Ona emen alkañen ondoan iru gizaldi. Beronelaxen ibilliak ditut gure aufekoak ere. Anbat uke gaurko urirabear zoroak biotzean egundo ikutu ezpe-gindu! Aizea bezain burujabe mendietan ibiltzeko jaioa dala zeritzaidak euzkotaña. ¿Ez al-zebillék, bestela, beti orpo-zulotik erten dan ardazburua bezela, kuñinka latza dariola?

!Artalora! Olerkariak egundo aitatu ez duten lorea dek auxe. Sagastiarena, bai; otearena ere, bai; zaztatu izan dik ere iñoz olerkarien begininia txillar apalarenak. Ez dek, ordea, azaldu oraindio arto-landara zutiarena aipatu dunik. ¿Ez ete-du gero, artasoroak, loretan denean, edertasunik? ¿Zer lemaiokek, gañera, gure basoaldeari, artoaren jantziak egozten dion jatortasunik?

!Ara! Baba-aiena dek, nimbait, artoaretzaz maitemindu dan bakára-ta, maite-aldi beroz gefiondoan bigurikatuz zijoakiok, luzaka, buruan eskeintzen dun lorea musukatzen. Ez dek, ofatio, zekena baba-landarea bera ere. Loretan zagertzkiguk xangoetako kimondoak eta olladaren gandor jaiobefiak zirudie lore-kuskotxoak, lufera burua makur. Esku-erakutsi aberatsa eskeiniko zeok bere garayan udazkenari leka-kutxetan. Etxekoandre ernaiak lapikondoan astiro barbarkatuz egositakoan, ez dek janari makala gofia. Ba-dek ere utsa adiñekoa, azokan salduz gero, aren truke sakeleratu ditun txanponen tintiñak baseñitafai damaien poza.

Bañ... gozaik auferago; beseritafak soroari arto-jantzian eranzten dion garaira, alegia. Udzkena dek. Egoaizeak isasten zeók artasoroari motots txigortua eta, alkar-igortzian, ofi igarafak ateratzen duten otsak, gaberdian sorgiñak izukariz egiten dituenetakoén antza dik. Pierre Lotti idazleak aipatu izan dik egoki gure mendietako egoaizearen arnas biguña.

Emen zetorek sorora nekazari biozgabéa. Laster atertuko zaio artaburuari zoñigartuen artetik darioñ ifipañea. Ez dik izango baseñitafak aren afuki aundirik. El-du eskuaz eta ukaldi indartsuz bigurtuko zeok lepoa; eta ezpainondotik zintzilikatzer zitzionizar gofia ere baldarki muskilduz, saskira jaurtiko dik, afi-konkofa baliitz.

Marandioko abeetatik esegita erakutsiko dite aurki artaburu oek, sorta kurutzatuetan, aurpegi dirdaitsua. Ezluste, ofatio, ofetarako aufetik nekazariak nekerik jasan bear ez dunik. Bakoizka zuritu bear izaten zaiek kaskara. Uzta ugaria danetan, ez dek izaten egun bateko lana artaburuak zuritzea. Are geiagokoa dek; beñiz, ale-tzea. Lai-ortzetan igortziz jaulkitzen zaiek eñezzen alea. Arduraz gordeko dik baseñitafak artalea, gero eñotan iriñaz trukatzeko. Lokatxak sutara joango ditut.

Ba-dite lan oek beren nekeas; baña, alkañen gerizpean eta aitonak jaulkitzen ditun ipuñai erne jarduki, atsegineko eginbeña dek. Artaburuak zuritu ta aletu bear diran garaian, negualdeko lanbroak jeisten asi diranean, sutondoan biltzen dituk etxeoak eta auzo-lagunak; eta danboliñean gaztain eñreak txiplitxapa lertzen diran bitartean, gogoz ekiten ziote lanari. Noiz-beinkako zuñutaldiz ezkotu bear dik, ofatio, etxeoandreak jarduleen aobizára. Ots, orde, irakurle; ez aizatu ařen, iñori orain zekarkidan ezkutua. Ba-dituk batzar oetan maite-uzta aberatsa egin izan duten gazteak. Artoaren lanari baño lilluratzalleen begiai erneago ibilli diranak. ¿Egin al-gentzakiokek ezer ofi? ¿Ez al-dek, ba, izan ari bereko, orainarte, gizadia, eta izango ere, auñerakoan?

Bitarte ontan, gudari garaituen gisara, lañugorí ta burumotz zeudek soroan arto-ker-tenak. ¿Noraño eraman bear ote-dik nekazariak biozgabekeri lafia? An zijoakiek orain ere; atxur-ukaldiz joko dizkik zuztafondoan eta lurpetik aterako. Bijoaz alde batera masalastoak eta bestera orí-txortak. Zuztar-ipurdik pililotuta, inguruetaan bildu ditun zaborakaz, a ze nolako sutaldia egin bear dun, lañain-bazterean, negua sartu baño len. Gozagari bikaña dek luñarentzat su-autsa. Negualdean, garoa eskas dabilleenean, berebizikoak ditut masalastoak beiai azpia egiteko; orí-txortak, beriz, abereak jateko.

Gaurtik aski luzatu gabe, oraintsu arto-landareak txairo jeikitzen ziran tokian bertan ereingo dik nekazariak garia. Orain befogei urte bezela; orain befeun urte bezelaxe... ¡Nok lekikek noiz asi ziran gure gurasoak lan oetan? Ofa or, beintzat, gizalditik gizaldira gure baseñitafak aintziñatik beñiztatzen dituen oiturak.

Ez omen dite lanik urietan-eta, negarā daritela zebiltzak uritafak. „Eginbeara nai al-zendukee? Zoazte, afen, beseñi-aldera; alperkeria astintzeko lain lan izango dezute, noski, an. Erantsi eskua goldeari; irauli lufa; jo atxuñez sastrakak; landu alorña... Urteoro emango dizute lufak eskuzabal eta oparo emai aberatsa. Etzegok, ez, an lanaren eskasagatik zotinka negaréz ibilli bearik.“

(“Euzkadi” egunerokoan argitaratu zan lan au).

"BARRENSORO" k bere lenengo liburutxua - "Gazigozoak" - argitaratu ebanean, one-lakoxe kritika egin eutsan E.Urkiaga "LAUAXETA" k: "... La prosa del Sr. Agirre ha merecido siempre elogios por su soltura y elegancia... En "Barrensooro" se hermanan raras cualidades de escritor. En poesía ha dado muestras de inspiración, con bellos poemitas y estrofas líricas. Pero su fuerte es la prosa. Una prosa netamente vasca, con altos giros que únicamente pueden usar los que conocen el idioma con la perfección de este escritor. Alguno ha indicado su amor hacia la mezcla de dialectos, pero creemos sinceramente que ésto no es ni un defecto cuando se sabe entremezclar con mesura... Estilo suelto y elegante... (Pero) Nuestro deseo sería que diera más vigor y fuerza al estilo, lo comprimiera más. La abundancia de adjetivos y verbos quita rapidez a la descripción y hace del estilo algo cerebral y amannerado..."

(119- garren orrialdetik dator) (...Gernika-ko kanposantuan).

Baiña egiazko esplikazioa urtetan ta zorakerian asko aizi gabe asmatu ezindakoa zen. Gizonok, ezpairik gabe, har zoroak janda daukagu bürua, gorputza baiño lehenagotik.

Gure tontakeria azkengabea Goikoaren erruki azkengabeak zuzenduko al digu. Zuk, Jon Arrospide, aukeratu duzu ikur-hitza: "Ni sinistuaz bizi dana, ez da betirako ilgo". Gure hazkar-tontoari ez baiño, sinismenari begitatuagoaz salba gaitzala Jaunak, sinisteko nekea daramagin egkero.

(“JAKIN”, n. 23, 1966. 49-51)

A decorative horizontal border element located at the bottom of the page. It consists of a repeating pattern of stylized, symmetrical motifs that look like stylized figures or floral elements, arranged in a continuous line.

--- NEMESIO ETXANIZ ---

(Azkoitia, 1899 -)

Abadea. Euskaltzaindiaren Urgazlea. "Gure bizitza osoan, euskal-miñez jota ibilli gera lanean. Gure ametsak beti alde batera jotzen zuten: euskerari LUR BERRIAK eskeiñi nai genizkion; gure izkuntzari bide befiak urratu nai izan dizkiogu. Eta ortan joan zaizkigu egunik onenak..." Urteak aurrera, baina biotza beti gazte, N. Etxaniz'ek ez dau atsedenik izan euskal-arloan: olerkaritza, ipuiñak, nobela, antzerki-jokoak, irratsaio-txangoak, kanta barriak gaurko musika ta ritmos... Zer ez? Zein aldizkaritan ez dau berak idatzi? Urteotan, "Zeruko Argia"-n agertzen ditu (geienetan bere izen barik) astero-astro bere artikuluak... Olerkirik onenak, "EGAN"-en(1953)

Liburu batzuen izenak: 1) "Arraldea", 1923 (kontu zarra); 2) "Nola idatzi euskeraz?", Zarautz, 1950; 3) "Kristau Ikasbidea bertsotan", Bilbao 1950; 4) "Kanta-kantari", Bilbao 1951; 5) "Izeko aberatsa ta Irulearen negarra" Gazteiz 1952; 6) "Antzerkiak - Kontu kontari", Zarautz, 1958; 7) "Curso de vascuence", erderaz, diskoetan; 8) "LUR BERRI BILLA", Donostia, 1967: emen batu ditu era guztietako lan batzuk... Sari asko irabazitakoa dogu.

Izenorde asko erabilli ditu: "AMILLAITZ", "Erratzu", "Artiztar Xabier"...

"Gure AMILLAITZ dena bihotz da, bainan ez da keldarzalea eta aise baztertzen ditu kireskeriak. Bizia maite du eta haren idaz-lanak dena olde dira" (P. Lafitte, HERRIA, 1967 -martiak 16) - "De la pluma de N. de Echanoz han salido ensayos muy audaces por la forma y por el fondo, y probablemente una cierta falta de ambición artística ha sido la única causa de que no ocupe en la lírica vasca el puesto que por inspiración y recursos le correspondía." (L. Michelena, HLV, p. 160)

TXANTXANGORRIA (Irrati-aria):

(Musika-laguntzarako, jo bezate "San Juan Anteportaletaña")

Iztuna.- (Emakumea): "Ipuietara jo nai degu gaurko onetan".

Iztuna.- (Gizakumea): Eta asteko, entzun ezazue...

Iztuna.- (Emak.): TXANTXANGORRIA!

Izt. (Giz.): Ipui unkigafia! (Bitarte ontan musika ixilpean ariko da...)

Itz. (Emak.): Selma Lagerlof el moldatutako ipuia.

Izt. (Giz.): Ta gaur guk ifatirako antolatua. (Indartu bedi doiñua, esaleak arnasa ar dezan).

Izt. (Emak.): Bijoa gure aide-ofatzetan...

Izt. (Giz.): TXANTXANGORRIA!

Izt. (Emak.): TXANTXANGORRIA!

Gizak. -: Jainkoak gure lur ontako abereak egin zituanean, bakoitzari bere koloreak, bere margoak eman omen zizkion;

Jainkoak.-: Atoz, afosa eder ori... Gofi-goria izango zera... Atoz, lili... Txuri-txuri izan zaitez...

Emak.-: Eta ofelaxe gauza guziak... Ontan ari zala!

Jaink.-: Ene! koloreak aitu zaizkit. Eta oraintxe nengoentzat, txoritxo beritxu bat nola sortu. (Jarraitze)

Giz. -: Eta txoritxoa Jainkoaren eskuetatik bereala atera zan:

Jainkoak... Txoritxo maiteori! Zuk "Txantxagofia" izango dezu izena. (Soñua bi-zi-bizi... Gero txori-txioak...)

Emak... : Txantxagofia txofo-txioka joan zan aidea egoez ufratzen; eta itufi ta efe-katan begiratzekoan, bere burua batere kolorerik gabea, zearo nabafa, grisa, zala konturatu zan. Biurtzen da, ba, triste Jaunagana: (Txofo txio batzuek entzun bitez...)

Txantrixagorriak...: Jauna, nola egin nazu kolorerik gabea? Nere lepapean lumatxo go-
ri batzuek nai nituzke.

Jainkoak...: Txoritxo maite oxi! Lumatrio gofi oiek, zerozek irabazi bear dituzu.
(Soiñua oso minbera bedi...)

Gizak... Joan zan txoria Jaunaren albotik, itun eta goibel:

Txantx.-: Nola irabaz ote nezake nere lunatxoek gorrixkatzea? Emendik aufera eztet pakerik izango, nere amesa bete arte.

Emak.: Eta ala... urteak eta gizaldiak joan zitzaizkion txori gaixoari, lumatxo aien egafiz beti goibel eta kezkaz. (Txoro txio itunak... Soñua ere goibel) ... Urte askoren buruan, Jerusalen'a iritxi zan Txantxangofia, ta berre kabitxoa egiñaz, an zegoan umeak azten. Txorikumeak amari galde egiten zioten:

Txorik...: Amatxo, zergatik egin gaitu Jainkoak onen nabar eta kolore gabeak?
Txantxu...: Ai, nere umetxuok. Neronek ere, orixe det nere kezka ta naigaberik a

diena. Jainkoak esan zidan, neronek irabazi bear nuela nere lepapeko lumak gofixkatzea.

Txorik.--: Ta nola irabaziko dezu, ama?

Txantx...: Orixek eztakit, umeek. (Txoro txio ta soinu zifarakoá...)

Gizak...: Baiñā... ze jendetza dator aldapan gora, istillu ta ardailla? Ene!... soldadu gogor batzuek, iru gizakume dakarzkite gurutzetan josterā. Ta or lator Jesus, lapuñen erdian, lapuñik aundiña bezela... Txoritxoa efukiz betea dago Jesus'i begira. Gerotxoago iltze zoñotzez esku-oiñak josita jaso dute Gurutzean Jau na. (Soiñu zaratatsua ta nastua...) Ai! ta esku-oiñak zulatzea naikoa eztutela, Jesus'i burua arantzez koroatu diote... Txantxangoñiaren zotiñak! Zer egingo ote du?

Emak...: An dabil Jaunaren inguruan, urbiltzeko bildurez... Alako batean Jesus'i alboratu zaio, ta bere buruko koroi minga fi artatik, arantza bat mokoaz ateratzen dio. Arantza txulotik; odol jarria sortu zan, eta txantxangofiarri paparazpiko lumak goritu zitzaiatzion odolez. (Soiñu pozkarria...)

Jesus'ek Gurutzetik itzegin zion txoriari: "Txoritxo maite, gaurtik aufera zure lepapeko lumatxoak gofi-gofiaiak izango dira. (Soiñua biziagotzen...)

Gizak.-=: Kabira itzuli zanean, tumeak poz-txioka artu zuten:

Txorik... Ama, amai Bai gofi politak dituzula zure lepa-azpiko lumak!

Txantx.-: Ai, umetxoak! Nere gofitasun au bereala galduko da, ituri ta eñekatako uretan bustitzen naizenean. (Soñua zalantzakoa...)

Gizak.-: Baiña txantxangofia ituñi ta ereketañi busti ařen, bere luma aiek goñi bi-
zi iraun zioten. Eta arazkero, txantxangofiaren umeak azten diranean, de-
nak an dituzte lumatxo goñi politak.

Emak.-: Oña nola goñitu zitzaizkion txantxangorriari bere lepapeko lumatxo txikiak.
(Befijo "San Juan Anteportaletaña" entzun bedi...) Bukatu da ipuia... (....)
("IIIR BERPETI PILLA" Donostia, 1967, 129 - 131)

JUSTO MARIA MOKORROA MUJICA

(Tolosa, 1901 -)

Mokoroatarrai ez deutse gitxi zor euskal-musika ta literaturak! Eskola-picotako abade onek be bere etxeen izan zituan euskal-maixurik onenak: beronen aita, Baleriano, euskal idazle ta izlaria zan... 1923ean asi zan euskeraz aldizkarietan idazten. Euskaltzaindiaren Laguntzaillea da. Euskal gogoaren alde liburu sakon eder bat argitaratu eban, 1936ean: "GENIO Y LENGUA" (erderaz); baña urte txarrak ziran arek, eta liburu jakingarri ori ez da bear dan beste zabaldu gure artean... 1958ean Arturo Campión'en ipuin eder bat eskeiñi euskun, liburutxo txukun batetan; "ERRAONDOKO AZKEN DANBOLINTEROA"... Gañera, tarteka-marteka, loari ta atsedenari ordu ederrak ostuta, beste lan aundi bat darabil esku artean: euskal esakera jatorren bilduma (bat ditu 70.000 bat orrelako batuta; noz argitaratzeko?). Izenordeak: IBAR, Iparralde, Argizale...

Campiónen ipuin orren itzulpenari buruz, ara zer diñoan L. Mitxelena'k: "... aindako euskalduna, erraza, garbikeririk gabe garbia, ugaria. Erderazkoa baiño luzeagoa dala, eta zer? Izkuntz-eredu bikaiña da itzulpen au, itzulpena izan arren. Orgabiltza beti gipuzkera delako euskalki ori osatzen, berritzen eta egokitzen. Ba ote dakigu orratik, zer-nolakoa den obetu-bearrean ari geran izkera? Neri beintzat - ikasiagoengatik enaiz ari - deus ere eztakidala iruditzen zait "Ibar"-en itzulpen au irakurri ondoren. Emen dagoan euskal-usaia eta lotsa gaiztorik gabeko etorria bestetan ere sumatu dut: gipuzkoar autore zaurretan eta erri-izkera lasaiean... Gipuzkera zer den jakin nai duenak, beraz, ba du nora jo, geiegi nekatu gabe..." (EGAN, 1958, 1-2, 106).

(PEDRO FERMIN ERRAONDON BARRIRO): (Ba dator Pedro Fermin bere Erraondora, ames gozoz beterik. Baña zer aurkituko dau?...)

(...) Esturasun gabe, arnas onean dijoa, orduz-lén iritxi nai ezik. Bezperak ondoan, dantzako garaian nai luke egin Erraondo-ko plazan sarrera, bere danbolin-soinurik aukerakoenak joaz zarrakin berriak nástea: ala dauka asmo arturik alde surrez.

Gogoratze utsaz lertzeko zorian dabilkio biotza bere erriko seme-alabentzat prestatu duan erregalo goxoarekin ametsetan. Gaur arratsaldean Erraondok ikusi bear duan jaia!... Eguzki-galdatan bar-bar plaza: bertako iru intxaurrendo gerri-zabalen itzalpean jarrita erriko aitona Xarrak, alkatea erdian dutela, Eta, alor gorrien gaiñetik larratxori jolastiak altxatzen diran gisa, ttuntun-soinuaren artetik txistueots berritzuak noiz jaikiko diran zai neska-mutil gazteak, sail banatan, dantzan asteko pozez.

Orduantxe azalduko du bere burua plazaren erdian jendearen begi-beatzak bereganontz luza-arazirik, nor ote dan... "Jaunak!" -deadar egingo die - "Peru-Fermin nazue ni, Mandazaiñ-eneko Peru-Fermin!..." Eta orrenbestez "Ingurutxo" jotzen asiko zaie bertatik, berak dakian bezela... Hura izango da ikustekoa, urtean beingo soinu ospatsuak dardaraz jar-arazirik, pozaren pozez jauzika alderatuko zaionean gazteria guzien artean "karrika-dantza" atera bear dutela, antziñako legera... (...)

&&&&&&&

Eldu da plazara. Iñoren zantzurik ez. Zakurrak, auts artean jostari. Garai bateko intxaurrearbola lodien tokian iru epaitondo motz: orra guzia. Ala bearrez emakumezko

bat kale-ixkiña batetik bestera: gaztea, iñolaz ere, ibillerak ezagun duanez, ez jazkerak beintzat: beltza sciñekoa, beltza buruko zapi, okozpean lotua, luze-estuak go-nak. Bestelako apaiñak, aren aldean, bere gazte-denborako neskamotzak, beren buru-zapi nabar, txirikorda luze, etxeko eun zuri-garbizko mauka zabal, gorontz urdiñ-arre, bular-mokanes koloresko, ta zanko-erditaraiñoko gona gorriakin!...

Kanpan-torreko erlojuari begiratu bat ontan eta... bezperetako ordua jo-zarra. Onezkero eliza ustua beraz, eta ala ere plazan iñor agiri ez!... Naigabez estutzen asia zeukan biotza, gizagajoak; baiña eziñ etsi, aspaldi luze ontako eresi gozoari asea eman gabe: jasotzen du ezpailnetara txistua, eta danborrarekin puntuak zeatz-neurtuz ekiten dio "Ingurutxoari" al bezin gogotik, erriko-etxe ondoko espaloitik aurrera abiatzen dala bakar-bakarrik eliz-jiretako pauso geldian.

Lentxeago lo betean zetzana bat-batez ernaitu dala esan liteke, Erraondo-ko plaza. Arpegi begi-luzez betetzen dira ate-leioak egundoko ariñen. Auzoko atsoak soiñu aren berri galdez elkarri, arri ta zur: batak sorbalda eragin, bestea algara aundi, andik iseka ta emendik txistu... Etxe-atari ta karrika-buru bakoitzetik zalapartan etorr Rita erriko umekondo guziak aurki inguratzen dute beren "chunchuneroa"; eta an dagozkio multxoan, begiak baiño aoa zabalago beste munduko iratxoa balute bezela.

Umeen atzetik neska-mutik aziagoak ere deitu ditu danbolin-otsak; eta denen artean esiturik daukate jotzaillea, atzera-aurrera zirkiñik egin ez dezakeala. Asko uste etzun zerbaitez jabetu da bitartean Peru-Fermin: erderaz ari ditu inguruko guziak!... Eta nolako erderaz ere! Berak Ameriketan entzun izandako gaztelani eme, leun eta gozatsu aren aldean, zer da beste izkera zakar, trakets, latz, eta motz au?... Naigabeak gaiñez eragin bear oraingoan danbolintero zarraren biotz beteari:

- "Au dek beraz nere erria?" -

Malkoa datorkio begira, ta txilibituari berari negar-soiñua dario. Azkenerako bere alaitasun guzia illundu du Peru-Fermiñen "Ingurutxoak", irudipenik argienak goibeldu ci diran gisa... egi beltzaren aurrean. Geiago ezinda, iru edo lau txilio miñ aterazi bere txistuari eta beingoan mututu da danbolintero tristea. Ango ojuarrantzak eta iskanbilla, danboliña isiltzearekin batean!... Eta non erasotzen dion morrosko beltzakote batek sudurrera maixeoz aitonan miñerituaren begiramen apurrik gabe!

- "La borrachera o qué t'ha dau por chiflar, agüelo?"

Barrua askatzeko bederen zerbait esan bear, eta bere garbitasunak ematen asten zaio Peru-Fermin, euskeraz noski. Bai azkar ere mutillak aoko itza eten, iparraldeko mendietara beatz-muturra luzatuz:

- "Nosotros no somos montañeses, rejones!... Guárdate tu vascuenz pa los d'arriba!

- "Pues qué sois, pues, - berak orduan, suak eta garrak artuta - gauchos, negros, o?... Yo aquí nasiro; aquí, montañés de baskuenze, montañés de montaña... Me vengo d'América; mi primer pensamiento, vosotros por hacer bailar, tamboril ha tocado.

- De veras, agüello, -bestea -eres de Rahondo? A mí naide me mete la patata!... De Rahondo, y bailar de esa traza? Con el "chulubit" de los capadores?... Cenón, traíndaqi la vigüela! Aura verá el agüelico nuestro baile. Si de veras es del pueblo, y endemás americano, hay que obsequiale. Hala, hala! Venidsus adaqi, saladas; tú, Lorenzo, Leocadia, Rosa... toas! Leña! güena jota, arre!...

Cenon dalako orren eskutik kitarra artu, eta bere atzapar aundiakin jo ta astin-

(62 -garren orrialderan amaitzen da)

---ANTONIO A R R U E ZARAUZ---

(Asteasu, 1903 -)

Gaur Donostia'n bizi da. Lege-gizona. Euskaltzaindikoa ta Urkixo-Mintegikoa. "Urrea" izenordea erabilten dau batzuetan... "La Constancia", "El Fuerista", "Euzko-Gogoa", "Euskera" ta "Herria" aldizkarietan idatzi ditu bere artikuloak; baña, batez be, "EGAN"-en: izan be, Mitxelena ta Irigarai'rekin batera, beronen Zuzendaria da, ta "Jan-Edanak" sailla dau bere gain. Aldizkari eder onetantxe agertu ziran bere itzaldi bi: Agirre Asteasu'koari ta Gerriko'ri buruz egindako itzaldiak... "Peru Abarka"ren 4^{gn.} ediziñoko Itzaurrea be Arrue'na dozu... Diputadu aukeratu-barria dogu, Gipuzkoaren aldetik.

EUSKERAREN BATASUNA:

(...) Euskalkien batasun arloa, aspaldikoa dogu... Arlo au ikutu duten euskalzale guziak, danak ao batez diote, batasun ori bearrezkoa dala, euskeraren beste izkuntzen mallara jaso nai badeugu. Baña iritzi berezi asko egotzi dira, batasun nola lortu genezaken gaiaz ez-ezik, baita alegia gaur dan egunean, batasunaren billa lanean asteko sasoi ta egokieran arkitzen geran edo ez, gaiari buruz.

Ona emen batzuek:

R.M. Azkuek, orain ia berrogei urte zion: "Gure euskera zar oni, aintzinako izkera guztiai bezela, umetsua izateak beronen bizitzea erruz erkintzen dio. Bakarra izan balitz, Araba ta Bizkai ta Nafarroako urtakurisko askotan etzan ilko. Bakarra balitz, euskaldun geienok ezkenduke adiskide-artean erderara jo bear izango. Ezin bat kartu dezakegu, batu bai." (...)

Luis Elizalde berriz, garai artan onela mintzatzen zan: "La unificación dialectal como la unificación fonética, no se pretende para el uso vulgar, sino tan solo para el uso literario, y principalmente para el escrito. Tenemos hoy, para una población de medio millón de euskaldunes, tres principales dialectos literarios. Es evidente que esto no puede subsistir; es evidente que llegará un momento, y deseo que sea muy pronto, en que la fuerza de las cosas nos obligue a elegir un solo dialecto como literario (...).

Severo Altube k, aldi artan bertan, onela itzegiten zuan: (...) "Idatz-izkeriak errikoi izanez gaiñera, batetariko izan bear dau. Beti bardin ez, baiña aldi baten, oroentzat bardin bai. Aintzina izkera asko agertzen ziran, orain gure au bezela, ezerik batasun barik. Alemanitarren izkeria bera era olantxe aurkitzen ei-zan orain sei-zazpi eun-urtekorarte; baiña utsune ori gora-bera, orduko munduaren bizi-moduak ez eutseen orduko izkerai, oraingoak oraingooi besteko kalterik erakarten; gaurko munduko ikastetako artu-emonak, iil edo biziñko indarrez eskatzen deutse izkerai euron idazkuntza batasuna; ta geu euskaldunok, diñogu barriro ere, aurkitzen gara il edo biziñko dei orri jaramonik egin nai ezik, beste izkera oroen azpixan ...

Orretariko idatz-euskeria lortzko, ezta bear mitekeririk, ezta bear biotzkeririk, ez buru austerek, ez eztabaidarik, ez jakituri andirik. Entzun, begiratu, ikusi ta gaurko euskeriaren benetako bizitzia zein dan azaldu; beronen gramatika-erabaki benetan sustraituak zeintzuk diran, beronen iztegi zabal ta sakon bizi dana zein dan, beronen izkira, izki ta itzotsak eta ots-joskera jokerarik geixenez agertzen dituanak zeintzuk diran; itz batez, tokirik geixenetako euskaldun jator geixenen artean zabalen, sakonen eta sendoen sustraituta bizi diran izkerakizak zeintzuk diran azaldu, ikusi ta argitu eta eurok izan daitezela, idatz-izkeriaren gorputza osotu dagixe-

nak." (...)

Campiñeta Brousin'ek onela zioten sasoi artan: "O la lengua vasca se unifica, haciéndose capaz de expresar inteligeriblemente por todos los naturales de Euskal-Eri, des de Zuberoa a Bizkaya, las ideas y los sentimientos de la cultura vasca, actual y venidera, mediante la fusión de todos los elementos gramaticales ad hoc diseminados por todos los dialectos literarios y vulgares, y mediante el trasiego léxico-dialectal y los inventos del neologismo, o degenerando irremediablemente en "patué", el euskera perece. Esta es la disyuntiva."

ORIXEk orain 35-bat urte idatziak dira irakurtzera goazen itz auek: "Lamentarse del exceso de dialectos y quererlos reducir a uno inflexible, formado sí, en cuanto al léxico, del caudal de todos, pero adoptando una morfología estrecha y matemática, es procedimiento antinatural, antiartístico y absurdo, incapaz de retener la ruina del idioma y muy capaz de apresurarla."

Ta J. Urquijo'k (...): "Unificación rápida y violenta me parece una utopía".

Azkenik, ez dira oraindik ogei egun, Pierre Lafitte, Baionako "Herria" aldizkariaren zuzendari ezagunak, emeki-meki jokatu bear degula euskalkien batasun arazo ontan, esaten zigu a; bestela - zion berak - euskera, ez jaso, baizik ondartzeko arriskuan ipiñiko genduala. (...)

Jakiña, batutako euskera, literaturan bakarrik erabilli bearko litzake, ta ez edo zein literaturan gañera, goiko maillako literaturan baizik. Bestela berpiztu bearrean, euskerak ziurki illobirako bidea artuko luke-ta.

Gañera, lur bakoitzeko berezitasunak asko gera txit atsegir eta gogoko zaizkigunak. Guk, beintzat, esate baterako (ta barkatu antz-ordea), Riojara, Cataluñara edo Burdeos-aldera joaten geranean, jan-edan-tokietan bertako ardo ta gazta bereziak geinetan eskatzen ditugu, ta ez "markakoak".

Ez oraingo idazleen lanegiñetan bakarrik, baita ántzifia-kotan ere, sarritan cartzen dira, era batera edo bestera, euskeraren batasun-ezik dakarzkien kalte ta nasaketak. (Ta Axular, Mendiburu ta Cardaveraz'en itzak aitatzen ditu).

Gauza ezaguna da, beste aldez, euskalki bateko liburuak beste euskalkietara bein baño geiagotan biurtu dirala... Onela Aita Añibarro'k, Axular'en "Gero" lapurdieraz idatzia, Bizkaiko euskerara aldatu zuan. Baño badira gai ontan au baño adibide arrigidoak. Oriental bat da, Gregorio Arrue'k 1883'gn. urtean egin zuan A. Mendiburu-ren "Jesusen Biotzaren Debocioa" deritzan liburuaren itzulpena... Guziok dakizutenez, biak, Mendiburu ta G. Arrue, gipuzkoarrak ziran; Mendiburu, Oyarzuarra, ta G. Arrue berriz, Ernaniarra. Ta alaere onek, bere erritarrak adizzezaten, aren lana itzuli egin bear... .

Beraz euskeraren batasuna bearrezkoa edo beiñepein erakoa dala, iñork ezin uka lezake. Baña, nola ordea batasun ori iritxi? Or dago..., kakoa.

Ia orain urte batzuek arte, euskalzale guziak, edo geienak beintzat, GIPUZKERA jotzen zuten euskalki egokiena, bere gain euskeraren batasuna egiteko. Gipuzkera, euskalki guzien artean errazena, arruntena, geiena itzegiten dana, beste guzien erdi-aldekoa, ta abar dala uste zutelako-edo, noski. (...)

Larramendi'k zion: "...Se puede decir que este dialecto, el guipuzcoano, es el dialecto de más gusto, el que se entiende con más facilidad por cualquier vascongado, el que ha conservado mejor copia de vocablos y muy expresivos, gran multitud de frases y refranes..." (...).

Iñolaz ere, AZKUE degu, bera bizkaitarra izan arren, euskeraren batasunari begira, Gipuzkoako izkelkiaren alde geiena ta sutsuena idatzi ta lan egin zuena. Txit ezaguna da bere "Gipuzkera osotua": "... Parece llegado el momento de concertar los esfuerzos de los lingüistas vascos en dar vida al dialecto geográfica y lingüisticamente central: el guipuzcoano... No es ciertamente este dialecto ni más rico ni más filosófico que los demás; pero en él nos entendemos los vascos más fácilmente que en ningún otro. Valgámonos de él en nuestros escritos y en las escuelas que hubiéremos de fundar, y la lengua vivirá." (...)

Eztago esan bearrik Azkue'k jarraitzalle asko izan zituala bide ontan, Gipuzkoatik kanpora ere bat baño geiago noski. (...)

Ez degu aztu bear ere Domingo Agirre'k, bera ere gipuzkoarra ez izan arren, "Garoa", beiñere euskeraz idatzi dan irakurgai ikusgarriena, Pierre Ihande'k dionez, gipuzkeraz eratu zuala.

Baña, negia esan, len, dà batez ere egungo egunean, euskalzale batek baño geiagok jotzen dute lapurtarren izkelkia, euskeraren batasunerako egokiena. Aita Villasante-Cortabitarte, gaur euskeraren landan ari diran langille trebe ta saiatuenetako bat, eta Krutowig, adibidez. Aita Villasante'k, idazle lapurtar klasikoen izkera dala ego-kiena gure izkuntzaren batasunerako, derizkio. Ta esan ta egin. Bai Euskaltzaindiko Sarrerako itzaldian eta bai beste lan batzuetañ ere, izkera ori jator eta dotore era-biltzen digu. Onela dio Euskaltzaindiko Sarrerako itzaldian:

"Lau euskera-mueta edo literatur-euskalki landu izan dira gutienez, eta bat bedera bere idazte-molde berezi edo literatur-tradizino berarizkoari lotua bizi izan da. Beraz, orai amets dugun euskara soil ori sorrarazteko, literatur-tradizino oietatik bat autatu bear da, literatur-euskara bakar orren erro ta ondope bezala izan dadin.

Zein autatu, ordea? Gainerakoentzako artean buruen, nabarmenek eta gailen agertzen den literatur-tradizinoa. Au begiz jo ta artu bear lizatekela nabari da. Bai antxina-aldetik eta bai idazleen kopuru, bikaintasun eta deneñ artean osatzeko dímen batasun ederragatik ere, lapurtar klasikoak irudi du egikizun oinetarako egokienik. Lapurtar klasikoa autatzearen gain, ordea, idazle batzuk eredu edo kanon bezala izentatu berrean ere aurkitzen da literatur euskara, eken izkera molde jakina euskara zuzen ja-so eta erabilli bear denaren ispelli bezala ar dadin eta gramatikak eredu oietatik idatz-euskeraren arau eta erregelek ditzen amoreagatik. Egikizun unen betetzeko Axular eta Etxeberri lapurtar klasikoaren idazle garaienak iduri dute aukerakoenak."

ORIXE'k, berriz, gaur Nafarroako euskalkiaren aldera jotzen duala dirudi. (...)

Ta goazen orain euskeraren batasun-arlo oni buruz, guk degun iritzi apala laburki azaltzera:

Batasun ortarako, zabu egin gabe, euskalki bi artu bear giñuzkela oñarritzat, derizkiogu: Gipuzkoakoa ta Lapurdikoa. (...) Baña gure ustez, xede ontaroko, Lapurdiko izkeraren gañetik Gipuzkoakoari eman bear zaio aurreratasun gutxi bat bederik. Zetzago ta dotorexeago esango degu. Gure aburuz, oñarritzat gipuzkera artu bear da, ta giltzarritzat berriaz lapurdiera. Ta gero osatu gure itz-etxea beste euskalkiez, batez ere Bizkai-aldekoen giartasunaz. Gañerakoz, batasun-lan guziak Euskaltzaindiaak zuzendu bear lituzkela derizkiogu, ta "Euskera", "Herria", "Gure Herria", "Euzko Gogoa", "Zeruko Argia", "Egan" eta beste euskal-aldizkarien bidez batez ere, saiatu lan orietan... Baña, P. Lafitte'k ederki dionez, arazo ontan emeki-emeki jokatú bear degu, ta ez eiaka ta lasterka. Ta iñor minberatu ta ilduratu gabe, gañera. (...)

-- Z A I T E G I 'tar I O K I N --

(Arrasate-Mondragón, 1966 -)

Abadea. Poliglota ta jakintsua; olerkari, itzultzaille. ta saiolaria. Euskaltzaindiaren Laguntzaillea. Euskerak kultura-bideetan aurrera sartu gurarik, ainbeste lan egindako gizon txalogarria: asmo orregaz, batez be, sortu ta zuzendu eban "Euzko Gogoa" aldizkari ederra.

Liburuak: A) Olerki-saillean: 1) "Goldaketen", 1946; 2) "Berriz ere Goldaketen", 1962 (1934'an "Tori nere edontzia" poemarekin irabazi eban "Euskaltzaleak" eraturako sáriketa...)

B) Itzulpenak: 1) "Ebangeline" (Longfellow'ena); 2) "Sopokel'en Antzerkiak", I eta II, 1946, 1958; 3) "Medeie" (Eurípides'ena), 1963 ("Egan" aldizkarian).

C) Saioak: 1) "Bidalien Egiñak", 1955; 2) "Platoneneko Atarian", 1962 ... Gerkera-irakasle izanik, izkuntza ortatik zuzen-zuzenean euskeratzen ditu bere lanak.

Aspaldi ontan Euskalerritik urruti dabil bera, baiña ez jako, ez, Euskalerria ta Euskeraganako maitasun goria epeldu!

"Idazle landua, ikasia..., antziñakoengangik datorkigun jakinduri aberatsaren ondorengoa, aspaldiko jakinzale eta jakintsuen ondarea euskeraz azaldu eta zabaldu nai duen buru-langille bizkorra... Zaitegi'ren mintzaerak badu beti alako gogor-antxa, trinkotasun sendoaren ume dan zaitasuna" (L. Mitxelena). Aita Olabide'ren bideari jarraitzen deutso.

NERE ASMOA:

Bururik ez ta txapela nai ari omen naiz urliaren iritzian, eta bururik eztuenak txapel bearrik ez omen. Euskeraren etorkizuna dala-ta burua galdu dizut, nonbait. Arrezkero, buru-gabea beti lehen lerroan, eta buruduna beti azkenean, gure erritarrek diotena nolabait aldatuta.

Egungo idazleok euskeraz zernaitarako égokierazi nai izango genuke. Naiz ta gairik sakonenak izan, euskeraz garbiz irauli nai izango genituzke. Eztugu ortzak izerdi ta esteak igeri egon nai. Gainera, erreza eman nai izango genituzke: "tour de force" au ezta erreza, noski. Ea nai nukezko asmo utsa danentz irakurleak erabakiko du. Alabaina, urkiak auxe ziraustan: gai zailak euskeraz irauli nai izateari bertan bera utz ezaiozu, neurdin gauza garbirik eztuzu egingo-ta.

Euskeraz-mordoi-lo-zaleen ioerak ikusita ere, damutu egin zitzaidan neri idaztino au egin izateaz ta errukitu nintzan nere lanon nekeaz. Ezta kit, orratino, zer erabaki, nere lana argitara eman ezkero, onurakorra baliteke-ta. Orrela, Platon'en iakite zabal, luze ta sakona ezagutzeko lain zintezkete nere irakurleok, beste oherik ager daiteino. Orren usterik izan ezpanu, enukean idaztino au zure eskuetan iarriko.

Iakin-galea sortarazi nai izango nuke gure artean, euskeraz ikas-naia, alegia. Badakigu gure dina, diozu. Au Sokrate edo Platon batek esango ba'luz, sinets liteke. Baina eztio te iakintzaleok onelakorik, eta, onen ordez, auxe diote: ikastearen bearrrik eztuenik inor ere eztala.

Betiko kaikukeriaik esaten ari izango ba'gina, naiago lukete askok eta askok. Nekerik eta minik elukete artu nai alakoek. Irakurri ere, aldia alperrik galtzearen irakurtzen dizue, edota parre egitearren. Gauza berririk eztute ikasi nai. Naikoa badakitelauste dute arro-arro: beraz, ikasi bearrik eztute zoritzarrez. Orixe da txarrarena gure artean. Deus eztakitela badakite gizon ikasiek, batez ere ilargi-umearen aldi berri ontan. Ez-ikasiek, berriz, dana badakitelauste dute, damurik. Naiz, itz

ez-ezagunen bat erabili, naiz arlo ez-ezagunen bat adieraz ba'zeneza, ordea, min ar lezakete ta idazlearen aurka iarriko lirake, or nimbait idatzi nuenez.

Alare, etorkizunean, gure arteko norbaitek Platon-en idaztiak, esate baterako, euskeraz eskeiniko dizkigu, nik uste. Zer gerta ere, nai izatekoa lizake, Platon-en berri lekarken zenbait idazti izan ledin. Euskal-Ikastetxe Nagusia sortuko da noizbait. Nork lekusken zorioneko egun eder su... Nork esan, norainokoa izango lizakean gure poza. Nolakoa ta zein zoragarria liteken, Euskal-Ikastetxe Nagusiaren aldera erakuts genezaken esker ona, sinestea ta iakitea uztartzera ta edertzera etor ba'gintez. Euskal-Ikastetxe Nagusia etor liteke, baldin, Iaungoikoa lagun, egingo ba'genu euskaldunok egin genezakeana. Ezin etor daite, ordea, ekinaren ekinez baizik. Zer egingo dugu euskera ikastetxeetan sar dedin? Ikastetxe-nagusikoa gaia erabili nai nuke, gure euskera sendo ta zindo, azkar ta bizkor egin ledin.

(PLATON-eneko ATARIAN, 1-2 orr.)

SOKRATES: "Beti izan ditugu bazterretan buru argiko gizakumeak, baita gizakume biotz-bercaak ere. Bakan-bakanetan, ordea, arkitu al izan ditugu biotz-beroko gizakume buru-argiak, biotzean laba goria ta buruan izoztea ta garranga dute-nak, alegia. Are bakanago oraindik, biotzari aleginean eragin eta tauparazi, ta ale-ginok-arren, burua otz iraunerazten duten gizakumeek. Egitekoren bati buru ta biotz lotu diran bakanok, gizarte osoan indar aundia izan dute, urteak ioan eta urteak eto-rrri. Ustez uste bageko gertari onen zergatikakoak gizonek bere baitan dituzte: biotz-beroaldiak ezpaitu ezer argiago egiten, adimena lausotzen eta ilunagotzen baizik. Eskualdeka ez ari izatea, biotz-bageak iritxi lezake.

Alakoxea zenuen buruz eta biotzez Sokrate. Adimenez zeatza izaki, egiaren bila su ta gar ari zan edonoiz eta edonon: orixe zenuen aren aleginik bizkorrena, egia bere-bere egitea, alegia. Amaikatxo ikasle arganatu ziran iakin-gosea berdintzeko, ta ioera berriak ekarri zituen iakintzaren alor zabalean. (...)

Oldozpen eta burutapenetan iori ta okitura zan Sokrate ta erabat berekia: eten-bagean gogai berriak sortzen zitzaizkion, etorri andiko gizona izaki.

Gizon zanez, ordea, buruz belarri ari zan maiz emengo arazoetan, bere gogoa au-ziren batean tinkaturik baileukan. Adibidez, Poteidaia-ra bidean, goizean-goizik eguna txirrist-egiterakoan, karpapean gogartean asi omen zan, eta buruan gogai bera iraulirik, oin berdin egotez egon, zutik gelditu omen zan, korapiloari mototsa ar-kitu ezinik. Eguerdian ateman zuten arri ta zur eginik lagunek, egun-nabarra ezkero zutik irauten baitzuen, egonean egon. Eguna gautu zaneko, eta beste guziek afaldu zuteneko, oial urdinetan oea iaurri (zabaldu) zuten, aldez, aize orkirrietara lo egi-teko, uda baitzan, aldez, gau osoan oin-berdinean zutik Sokrate-k iraungo ote zue-nentz ikusteko.

Egun berria zabaldu arteraino orrela iraun omen zuen Sokrate-k, eta eguzki berriari otoitz egin ondoren, narerik lekutu omen zan. Gertari bitxi ori Alkibiada gu-dalagunek iaulkitzen du, Platon-en "Oturuntza" alkari-izketa ederrean ("Oturuntza", 175 a-b, 220 c). Alako zerbaiz Newton iakitunari berebat gertatu omen zitzaion bein baino geiagotan. Bein baten, adibidez, eguna aurrera zioala, oe-gainean iantzi-arin eserita oldozketan aurkitu omen zuten. Beste bein, zenbait adiskide etxeratu zitzaizkion, eta aiei txera ona egitearren, Newton ardo bila goinubera (bodega) ietxi omen zan eta an gelditu auznarrnean.

Bestalde, gose-degarriak, ötz-beroak iasaiten indar eta kemen ikaragarriak omen zituen Sokrate-k. Lagunekin alkartzean, inork baino geiago edaten omen zuen, eta buru argia lausotu bage, edan ere. Oturuntza baten azkeneantsu, bazkaldar edo afaldar gei-enak ordi eginda maipean iraulita zeuntzanean, zutik egoteko gai zitezkean iruzpalau gizon katutuen surrean, bakar-izketa gardena asten zuen Sokratek...

(PLATON-eneko ATARIAN, 84-86 orr.)

&&&&&&&

.- JOSE DE A R T E C H E .-

Enderaz, gure idazlerik ugari ta andienetarikoa dogu, aren baten, Artetxe jauna, Gipuzkoako Diputazioaren Biblioteka-zaiña. Gure Erriak emon dituen gizonik bikaiñenak or agertzen dira, bizi-bizi, Artetxe'n luburuetan: San Iñazio bere erritarra, Elkano, Urstaneta, Saint-Cyran, San Frantzisko Xabier'koa, Legazpi, Lavigerie, Lope de Agirre... Ez ori bakarrik, gure erriko jende zea be bai!

Euskeraz, dakigunez, ez dau gauza andirik argitaratu: azken urteotan, bai, ainbat artikulu bialtzen ditu "Z. ARGIA"-ra. Ba dakigu, ganera, ixil-ixillean, len ederra egin dabela radiorako, astero-asteroko irratsaioak gertatuaz euskeraz. Jarraitu al dau gure izkuntza zaarra lantzen!

ARRATSALDEA:

"Zerbait gerala uste,
ta ezer ez gera..."

Orrela zion periodikuan Basarri lagun zar biotzeakoak lengo egun batian neri eskeintzen zizkidan bertso batzuetan.

Egi borobilla auxe. Ari gera lanian ilusiyorik aundienarekin, eta geuk ez daki-gula, edo beintzat ainbestekorik eztalakoan, barrenetik pipiak iota gabiltza, arrak bere lana oso surreratuta.

Bai. Marañón sendagille jakintsuaren liburu batian irakurri nuan aspalditxo bat. Gizonaren okerrik aundienetako bat jotzen zuan Marañonek urtearen kontu ez iza-tea. Alegia, beiñ edade batera iritxita, gizonak gaztea balitz bezela bizi nai iza-tea. Edadearen kontu ez izatea. Beti gañte bezela agertu naia.

Grazi aundiya egin zidan joandaneko batian José María Donosty idazle ospetsuak. Onela zion artikulu batian. Gaztia nintzala oraindik, eta nere gaztetasuna zala bitarteko, gaitza erre menderatuko nuela. Eskarrikasko, Donosty adiskidea, neretzako zidazun ongi-naia gatik, baño... Irurogei urteko agurea gaztea oraindik?

Irurogei urte inguru bataz beste iltzen ziran gure aitonak. Ortze nunbait. Gaurko sendagintza surrerapen arrigarriakin bitzitzala luzatu dala ezin ukatu, baño irurogei urteko gizona gazte bezela iruditzea, geiegitzo da.

Bai. Berrogei ta amar edo berrogei ta amabostetik aurrera lanari neurria billatu bear. Ogeitamar urteko lan bultzada eziñezkoa da irurogei urtekin.

"Oi, zein ituna dan / beera bear au!

Nik ez nai eguna / biurtzerik gau,"

zion Lizardi aundiak oraindik bere sasoi gordiñenean. Ta zirudin olerki orretan bere eriotz goiztarra nabaitzen zuala.

Nik ainbesterik ez diot. Baño gizonak bere bizitzako arratsaldea ezagutu bear duala, ori bai, batere zalantzarak gabe, gañera.

!Bizitzako arratsaldean sartu naiz! Arratsaldeari dagokion bezela nere lanak era man ditzadan emendik aurrera. Udazkeneko arratsaldeari dagokion bezela. Udazkeneko arratsaldea motxa baita. Motxa, baño ederra askotan.

Ez pentsa, gero, lerro abek idaztean triste nagonik. Ezta uremanik ere. Barren alaitasunez ari naiz. Oso pozik Pozez lertzen. (115-garren orrialdera doa)

INAZIO MARIA MANZISIDOR

(Azkoitia, 1907 - Loyola, 1961)

Jesulaguna. Euskaltzaindiaren Laguntzaillea. Langille andia ta euskal-idazle trebea: Barojanaren antza ei dauko Manzisidorren idaz-tankerak: izan be, bere euskerea ain da giartsua, bizia, erraza: ta errikoia, itz gitxitan asko esatekoa!

Asko idatzia da, batez be "Jesusen Biotzaren Deya"-n. Gañera, liburuok argitaratu ditu: 1) "Deustoko Atezai Garate Jesulaguna"; 2) "Otoitz Bidea"; 3) "Jesukristoren Bizitza"; 4) "Gure Patroi Aundia"; 5) "Santu Bizitzak" (4 t.)

JAUNA rengana:

"Egunetan egon zan gaixoa esan ditugunak egiten. Alako batean obetu zan, baña oraindik ere luzaroan etzanda egon bear. Dendora luze zijoaktion, eta aspertu egiten zan geldi artan (gure Iñigo).

Aurreko artetan, esan gendunez, irakur zalea zan. Aren irakurgaiak munduko ainez beteak ziran; aietantxe egoten zan luzaroan aspertu gabe atsegínez. Orain ba, geldik egon bear zun ezkerro, baña burua ernai zegila, zer izango zitzaison egokiago liburu zar aiek astintsea baño?

Orregatik bada bere atsegina liburu aiek ekartzeko agindu zien etxekoai... Baña, nola? etxe artan ez baizan orrelako libururik. Etxe jaun Martin ez zan irakur zalea. Aren andrea ta alabak, bai; baña, auen liburuak beste era batekoak ziran: Kristoren Bizitza, ta santuen bizitzako gora-berak.

Gure Iñigo etzan pozik izango... zer egingo zun ordea? Besterik ezean, liburu aiek ekartzeko bida. Alaxe ekarri ere: bi ziran. Bata Kristoren bizitzakoa. Sajoniako Lodolf'ena; bestea "Flos Sanctorum" edo berdin dana, Santuen bizitza laburrak. Biak erderaz zeuden.

Asi zan bida irakurtzen, asieran gogo aundi gabe izango zan; gerora atsegínez, an esaten ziranak barren bairrenaño biotza ikutzen ziotela. Izañ ere ordu arteko ametsak, munduko izen ona eta fama irabazteko asmoak izan zitun. Ta ara, berak uste etzuean beste izen ona eta betirako, santu aiek irabazi: Ta nola gero? Aren begien aurrean aundiak ba-ziran munduko zaldunak egin zituztenak, ez ote ziran gero areago santuak egin zituzten egitekoak Jaunagatik eta Elizagatik?

Eta onetan berotzen zitzaison biotza, eta bere baitan esaten zuen: "San Prantzisko'k au ta au egin zuala? Nik ere egingo det bida! Santo Domingo'k au ta au egin zuala? nik ere egin bear det bai!" Onelaxe uste gabe orduak joaten zitzaiatzkion.

Baña munduak indar aundi zeukan aren biotzean... Eta, liburuak alde batera utzita, asten zan, esan-ametsetan, ordu arteko amets zoroetan. Berak egingo zituanak eta esango zituanak, emen beko aunditasunak bereganatzeko.

Amets oien artean ba zan gauza bat onetik atera erazten ziona. Ba zuen maite bat, bere ametsetako maite bat, eta bera ez gero edozeñ: ez bai zan markesa edo dukesa, ez! askoz geiago zana baizik. Askotan emekume orretan egoten zan ordu luzetan egin bear zituanak eta, garaia zanean, esango zizkion legunkeri ta itz gozoak eta abar. Onelaxe gau tegun. Bateko Santuei begiratu; besteko lurreko aundikeri eta maitakeriei. Ura zan jokoaz ura!

Burruka auetan gauza bat nabaitu zun ordea.

Lurreko amets txoroetan zegonean, pozik egoten zala, irauten zuten zitartean; baña, aiek junda, naigabez ta utsik gertatzen zala. Alderantziz berriz: zeruko eta santutasuneko gauzetan egonda gero, olako poz batek jarraitzen ziola, aiek utzi ta gero ere. Munduko gauzak, ondoren mikatza; zerukoia ostera, ondoren gozoa.

Ontan joan ziran egunik asko.

Baño gero ta geiago aren biotza Jaunarengana ta Jaunarengana zijoan.

Eun urte askoz lenago onelaxe ibilli zan beste bat ere, pekataria izana, Agustin, Jainkoarengana bide egiten asi zanean: munduan eutsi egiten zion, ta emen beko atseginañak zitun gogoan ta lotuta zeukan. Ezin eten! Animako egoakin egan egin nai-ta, ezin, likistuta bai zeuzkan egak...

Baña noiz baten ikasi zun bere burua etzala beteko ta aseko iñciz ere emengo gauzakin, biotza Jainkoak bakarrik betetzeko egiña bai zeukan... "Fecisti nos Domine ad te..." Zuretzako egin gaituzu, Jauna, eta nere biotzak atsedenik ez, Zugan baizik, "inquietum est cor nostrum donec requiescat in te", esan oi zuan. Ta au ikasi zuanean, indarrean egiñalean, zalapartan, iñoren ajolarik gabe, asi zan Jaunagana; ta ekin zion zero bidean, iñoi zere atzeraka egin gabe.

Orixé gertatu zitzaison Iñigo ri ere.

Atzera ta aurrera zebillela: asiko ote naiz ez ote naiz, bai ote ez ote. "Gau baten, esna zegola, garbi garbi ikusi zun, aurrez aurre, Ama Birjiña Jesus Aurtxoakin. Ikustaldi ontan gozotasun aundi bat barren barrenean nabaitu zun, ta ordu arteko bere bizitzaz nazkatu zan, batez ere bere lizunkerietzaz. Esan bear une artan bere animatik, sustraitik kendu zitzazkiola, ordu arte itxatsita bezela zeuzkan griñatxarrak. -

(GURE PATROI AUNDIA, Zaragoza, 1956, 38-41 orr.)

NIKANDRO ETA MARZIAN, MARTIRIAK (E 297).- Garagarrillak 17:

Gaur bi soldadu martiriak, Misia'koak... Bakarrik etziran; mordoxka zan; saillortakoak Julius, Pasikrat, Balention eta Esykio, guzia beren jaia dutenak, egun batetan edo bestean urtearen buruan. Gaur Eleizak aurreko bi oiek aitatzentzu ditu.

Auen bizitza-berri ez dakigu; eriotza bakarrik. Baña bera naikoa gure otoitzetan ciengana, siñismen eta adore eske, jotzeko; ara, ba:

Erriko Gobernadoreak, Maximo'k, bere aurrera joateko agindua zien. Oraindik aldi gutxi zan kristau zirala. Jun ziran, ba, buruzagiaren aurrera, eta onek galdeztzen die:

- Nikandro ta Marzian: Imperatorearen legeak ez al dakitzute? alegia, Jainkoei opariak egin bear zaizkiela? Aurreratu, ba, eta egin bear dana egin! opariak-jainkoei eskeñi!

- Gu' kristauak gera, erantzun zion Nikandro'k, eta gu ez gaude orretara beartuak; opari oiek nai dunak egin bitza; guk, ezi!

Maximo'k:- Baña zuei zor zaizuen dirua ez al dezute, ba, artu nai? ori aratzeko, berritz, eskeñiak Jainkoei egin bear!

Nikandro'k:- Ez degu nai; gaizkilleen diruak, Jainkoaren morroi izan nai degunoi, eskuak zikintzen dizkigu.

Maximo'k:- Gizona! intsentsu ale gutxi batzuk beintzat surtara bota itzatzu Jainkoen omenean erre ditezen...

Nikandro'k:- Ez orixe! Nik kristau izanik, Jainko gure Jauna zero-lurrik egin dituana utzi, eta egurrezko eta bustiñezko Jainkoak agurtzea, ori nolatan nai dezu? Orrelakorik aitatu ere ez! ezergatik ez.

Nikandro'ren emaztea kristau zintza, an jende artean zegon bitartean, eta senarrari deadar egin zion: "Ori, ori! ez etsi! eutsi! Jaso begiak zerurontz eta gure

Jaun Jesukristo an ikusiko dezu zuri laguntzen, barru zintzoa eta garbia gorde dezazun. Uaxe da zure laguntza!"

Maximo k'esaten dio: "Emakume madarikatua! Zure senarra ii dedilia zergatik nai dezu?"

- Jainkoaren ondoan beti bizi dedin, eta iñoz ere il ez dedin.

Baiazera! Zuk nai dezuna beste bat da... Beste batekin ezkondu nai dezu, eta onengandik aldendu. Orregatik zure berriketak!

etxean: « Gaiztakeri orren lain naizala, uste badezu, neuri il nazazu lenengo; Kristo ga-
tik pozik ilko naizi! Baña zerorrek ikasi, emakumeei orrelakorik egiteko agindurik ba-
al dezun... »

- Ez det! baña espetxera eramango žaitut.

Aurrean artuta emaztea atera zuten, espetxera. Orduan Maximo'k Nikandro'ri esatendio: "Emaztearen berritsukeriei ez ajolik egin, bestela laister begietako argia itzaliko zaizu. Ala ere zuk nai badezu, nik epea, plazoa, lémango dizut, obeto ikusi dezazun zer zaizun obe, illala bizi"

- Eperik, plazorik, ez det bear; erabakia artuta daukat: Osasuna-eta bizia nai ditut.

Gobernadorea k orduan, deadarka esan zun: "Jainkoari eskerrak". Nikandro k ere une berean: "Bai, Jainkoari eskerrak!", deadar egin zun... Maximo k, ordea, Nikandro emengo bizitzaz ta osasunaz ari zalakoan zegon, eta orregatik berealaxe Jainko-gezurrezkoei eskeiñiak egingo zizkielakoan... Baña, bai zera! Berealaxe martiri santu otoitzean asi zan, sutsu ordea, Jaunari laguntza-eske, betiko bizitza ori, martiritzaren bidez irabazteko...

Maximo k entzun zion, eta esaten dio: "— Baña ez ziñan, ba, oraintxe osasuna ta biziak aukeratzen zenituala esaten...? Au zer da?" — "Bai, esaten dio martiriak nik betiraundeko biziak eta ondo izatea nai deti ornen hille nahiak."

Marzian an zegon, ua ere, eta juezak soldatuenetik
etxean dagoen gunean sartzen zituen.

- Nik Nikandrov k díona

- Orduan biok batera giltzanera: laistekoenen esanit ugaratu eta, geroz hiru

Ogei egunetan antxe lotuta euki zituzten, eta oso kala, hiru gauetan.

- Zertan zerate, ba3 iugozla mala - ;

= Zei van zerate, bar!, juezak galde egin
= Gau, lenean! ondertuum nioz. Ma, ait!

- Gu, ienean!, erantzun zion Marziañ'ek.
- Eriotsora joanu, ezezaguna?

• Elliotzara joango zerate, ba, zeok nai dezuten ezkerro.
Ion haitzak, baina...

Marzianek burruka gogorra izan zun. Nundik etorriko erasoa? eta geiena maite zi-tuenengandik. Bere emazte, seme ta aitagandik. Oek bere seme ta aita ta senarra bizi-rik gelditzea nai; eta egiñalean Kristo ukatzeko, baño ukatzeko, negarrez ta intziriz eta garraxiz eske ta eske... Martiri gizajoak biotzean izango zituanak bere maite aiek orrela ikusita. Baña, ez! Kristo'gatik danei uko egin zien; ta arengan Kristo garaille irten zan: azkeneraño bere siñismenari gogor eutsi zion, il zan arte!

Urkamendira etorri ziranean, Marzianek ingurua begiratu zun, ta Zotiko bere laguna ikusi zun; eta oni eskatu zion bere emaztea beregana ekartzeko. Etorri zan, eta senarrak musu emanaz esaten dio: "Jaunaren izenean zoaz emendik, zuk nere martirijaia ezin ikusi zenuke-ta, zure biotzean deabruari toki egin bai diozu". Eta semetxoa lazstandurik, gora begira, esan zun: "Jaun guztiz altsua! Zuk nere seme onen ardura izan zazu..." Orduan martiriak alkar lazstandu zuten. Marzianek, an jende artean ureratu eziñik Nikandroren andrea zegola, jun-da, eskua luzaturik berak aren senarraren gana bide egin zion. Laztan gozoa senar-emazteena ordu artan. Biak pozik: bata zerura zijoalako; besta martiri baten andrea zaloako. Itz ugaldu zitzaio.

Borreruak urreratu ziran; begizki martiriei estali, eta ezpataz il zituzten. Oparia bukatu zan... Zerura zuzen-zuzen!

-- INAKI EIZMENDI "B A S A R R I" --

(Errezil, 1913-)

Aspaldion Zarautz'en bizi da. 1935ean Euskalerriko Bertsolarien Txapeldun izatera eldu zan, eta arrezkero oraintsu arte izan da; baiña azken urteotan ez da aurkeztutenean txapelketetara. Bertsoak egiteari, ostera, ez deutso itxi: ederrak botaten ditu irratietatik, eta gero argitaratu ("Z.Argia" 'n, batez be)... Izlari lez be oso ona dogu. Autodidakta izanik, gaur periodista arloan lan asko egiten dau, "La Voz de España" eguneroako eta "Z. Argia" asterokoan: batez be, gure baserritarren eta kirolarien goraberak era biltzen ditu gaitzat.

Liburuak: 1) "Atano III. Bere edestia bertsotan" (Zarautz, 1949); 2) "Basarri'ren Bertso Sorta" (Zarautz, 1950); 3) "Kantari nator" (Zarautz, 1960); 4) "Laugarren Txinpartak" (Tolosa, 1966)... Basarri'ren izkera dozu, dudarik barik, gaur eguneko gipuzkerarik jatorrentarikoa... Euskaltzaindiaren Laguntzaillea be bada.

(BERTSOLARIAK, ESKOLATUA IZAN BEAR ETE DAU, ALA ESKOLA BAKOA OBE?): (...) Eskola kiko ta eskola gabeko bertsolarietaz ere asko itzegin eta idatzi izan da. Ernandorena jaunak ere ikutu du gai au, baiña aren irizpidea ta nerea eztira berdiñak.

Bat bertsolaria dan ala ez, ortan dago gorabera guzia. Berezko bertsolari ezpala dakarkiñarentzat, zenbat eta geiago jakin, zenbat eta eskolatuago izan, orduan da obe, orduan da probetxugarriago... Berezko bertsolari ezpal ori eztunarentzat berriz, alperrik dira munduko eskola danak. Jakituna izan edo ezjakini, izan, bertsolaria eztanak sekula eztu bertso tajuzkorik moldatuko. Pagoari intxaurrek eskatzea alperrikakoa da; artarako jaio eztanarekin, bertsolari bat egin nai izatea ere bai.

Gutxiegi jakitea da bertsolari danen alderdi argala; nere ta beste gañontzekoena. Zaletasunak alaxe bultzata, nere gisa pixkat landuaz iritxi naiz, naizen pixka izatera. Loari ordu asko kenduta al izan dedan guzia irakurrita. Eskerrak ematen dizkiot Jaungoikoari, zaletasun ori nigan piztu zualako.

Zerbait eskolatua danarengandik batere eskolatu gabera, nola ezta ba alderik egongo! Irakurri itzazute astiro, banaka, banaka, Bilintx'ek eta Pedro Maria Otaño'k jarritako bertsoak, eta baita aien kideko ziran eskolatu gabekoak ere: Udarregi, Pello Errota, Txirrita ta abarrenak. Zerutik lurrañoko aldea billatuko dezute.

Naikoa ta geiegi egiten zuten, ori bai, motibo geiago gabe egiteko, Udarregi'k, Pello'k, Txirrita'k eta beste ainbestek, baiña eskallera malla asko daude oietatik Bilintx eta Pedro Mari Otaño'ren jarlekura. Bi suek askoz gorago daude.

Otaño'k aurrez aurre, aotik aora, bertso gutxi kantatu zula. Ez ordea bertsolia etzalako, ta aren bertsoak besteenak baño beteago ta sendoagoak etziralako. Etsu eztarririk, batetik. Argatik ezarri zioten "Katarro" gaitz izena, tam bestetik, bere urterik onenak Amerika'ko lurretan egin zitun. Ura ezin ziteken emengoak bezela, erri-rik erri kantuz aritu; arkurrutian osatu zun bere kabia, ta bururia zetozkion bertsoak paperean jartzen zitun. Or gelditu zaizkigu betiko.

Bilintx'en gorputza ta arpegia ere etziran erriz erri ibiltzeko modukoak. Baña iñoi bat batean ark botatako bertsoak ere or ditugu ixpillutzat... Aotik aora na-

(Amaitzeko)

barmendu espaziran, etzan trebetasunik etzutelako; beste batzuk izan zuten egokierak izan etzutelako baizik.

&&&&&

Eskolak bertsolari egoak moztzen dizkala? Bertsolari sena galdu egiten dula? Ongarri izan bearrean jakitea kaltegarri dala? ... Jainkoaren, etzazutela olakorik sinistu! Berez bertsolari danari, mostu ta laburtu ez baña, luzatu egiten dizkio egoak eskolak. Berez eztanak, berris, alper alperrikakoak ditu munduko liburu guziak.

Dakigun baño amar aldiz geiago bagenekigu, askoz biribillagoak izango lirake gur bertsoak, eta erria bera ere gero ta jantziago egingo litzake, gero ta "ederraren" zaleago agentuko litzake... (...)

(NERE BORDATXOTIK - "ZERUKO AFGIA", 1966, Loraillak, 29, 6 garren orrialdean.)

-- &&&&&&&&&&&&&&&&&&&&

(100-garren orrialdetik dator) (S. Salaverria: "Neronek tirako nizkin")

Arek, ordea, beti gauza bera esaten zuan: "-Neronek tiriak izango dituki!".

Eta niz esaten nici: "- Zer egitea nai dek ba? Au ola etorri dek! Au ola etorri dek eta ola artu bear!"

Ola jardun giñan denbora-puska batean. Gero esan nion: "- Poz aundia artzen diat i nere aurrocan ikusita. Illa izango aizela ere pentsatu baitiat bein baño geyagoten, eta ez ukek pentsatuko nere biotzak zer lasaitasun daukan i bizirik emen ikustearrekin. Mendi alde oyeten gerran ibili geranean ere, burruka-aldia bukatzen zanean, makiña bat gudari ilda lurrean etzanda zeudenai eldu eta buelta eman izan diot, i aizela irudituta."

Eta esan zidan: "- Bai, nernek efe ori bera egin izan diat makiña bat aldiz, zuetako bat ote zai beldurrarekin." (...)

("NERONEK TIRAKO NIZKIN", Auspoa Liburutegia, n. 38, 137 - 139)

-- &&&&&&&&&&&&&&&&&&

(54- garren orrialdetik dator) (G. Muxika)

Izkribauak erantzun zion: "- Ori gauza errexa dezu. Artzeakoak, nola nai dala ere, artu itzatzu, ta zor diezunai, berriz, ortzak erakutsi."

- Beraz, dirua eskatzen didatenai ortzak erakutsi?

- Ori da.

- Ederki iduritzen zait. Eta, orain, ¿beorren nekea zenbat da?

- Bost pexta egin zazu.

- ¿Nola?

- Bost pexta.

Pernando'k orduan, ortzak erakutsirik, ¡uuu! egin zion.


- ¿Zer da ori? - zion karraxika izkribauak.

- Beorrek erakutsi didana. Ortzak erakutsi...

Età nagusi ta neeskamea parragarri utzirik, Pernando'k etxe artatik alde egin zuen.

(G. MUXIKA, "PERNANDO AMEZKETARRA", 4 garren argitaldia, Zarautz, 29 -32 orr.)

Oarra: Pernando'ren gorabera ta bertsoak zeatzago jakiteko, irakurri "Pernando Amezketarra -Bertsolaria ", Auspos Liburutegia, n. 54, A.Zavala'ren Itzaurrearekin.



-- LUIS MITXELENA ELISSAIT --

(Errenderián, 1915 -)

"Adiskide berri" izenordea be erabilli izan dau. Gizon jakintsua: Filosofia y Letras en Doktoradua egiña da. Oraintsu irabazi eban, Salamanca-ko Universidadean, Indo-europatar surretiko izkuntzen maixu-alkia. Urki-xo Mintegi'ko zuzendari izan da ainbat urtetan. "EGAN" aldizkariaren Zuzendari be bai, A. Arrue, ta A. Irigarai'kin batean... Bere euskerazko lanik geienak "EGAN" en eta "EUSKERA" aldizkarietan agertu ditu.

LIBURUAK: 1) "Apellidos vascos" (San Sebastián, 1953; 2^a edic. 1955); 2) "Historia de la Literatura Vasca" (Madrid, 1960); 3) "Fonética histórica vasca" (San Sebastián, 1961); 4) "Lenguas y protolenguas" (Salamanca, 1963); 5) "Textos arcaicos vascos" (Madrid, 1964); 6) "Sobre el pasado de la lengua vasca" (San Sebastián, 1964).

Euskeraz be, ederto be ederto idazten dau: argi, sakon, aberats... Euskal-literaturari dagokiozan iritziak eta epaiak, nork emon ditu berak baiño otzago eta zuzenago? Zeuk ikusi au egia danentz, emen jartzen deutsudan zati onekin: or dozu, sakon eta zentzunez eginda, gaurko gure literaturaren gain-begiratu eder bat...

"ASABA ZAARREN BARATZA": "Euskaldunik geienok, guzick ezpada, badugu geure barrandegian txoko urri eta apaindura-gabeko bezain maite bat: gure euskal-baratza. Ezta ori, nezin ere izan, gure lantegi eta atseden-toki bakarra, baiña nekez geldituko gera luzaroan txoko orri, sarri edo bakanka, ikustalditxo bat egin gabe. Aize askatagoak bear izaten ditugu, txoko zaarrari -biziberrak naiz aultasunak eraginda - uko eta iruzur egitea ere gerta diteke, baiña eztugu eriotzeraiño etengo, nai dugularik ere, aurtzaroak eio zuen lilluraren sare argala.

Enaiz emen abiatuko barátze orren luze-laburra neurten... Ez, oraingo euskal-literaturari begiratu nai nicke soil-soillik, erabat eta gaingiroki, nor eta zerekikoetan sartu gabe. Eta euskal-literaturari begiratu nai nicke, batez ere, gaurko gure arteko gogo-giroaren ezaugarri eta salatari den aldetik.

Gure literaturak ere ezagutu ditu, bere txikian, araoak, gora-beerak eta eraberritzek. Or dauzkagu Détxepare'ren agerketa bakartia, ondorenik izan etzuen Leiza-rraga'en eragiña, Materre ezkero Lapurdi'n sortu zen mugimentu bizi eta aberatsa, Laramendi'ren astiñaldi gaitzak zabaldu zuen lur-ikara, Bonaparte'ren itzalean lanari ekin zioten langille apalak.

Bide zaarrak eta berriak: Bide-aldatzerik larriena, alere, azken mende-mugak ekarri ziguna dugu noski, bai izkuntzaren axalean eta bai gaiaren mamian. Luzaroan oinkatu ditugu, atzera bein ere begiratu gabe, orduan ireki ziren galtzada zabalak eta etzitzai gun iruditzen ere beste biderik auta zitekeanik.

Bi edo iru lagunen boz ozen bezain bakarra gora-beera, beti (gizonaren "beti" gaixoa, eziñari ostikoka!) or barrena ibilliko giñalakoan geunden, ezin obeki genbiltzan ezkerro. Etzen iñor ausartu esaten, dákidanetz, iñoiiz baiño ugariago mintzatzan giñanik euskeraz, ezta aoi-izkuntza aberastu zenik ere. Geienok esaten genduen, ordea, eta ezta oraindik ospe ori ixildu, eztela beiñere, mundua mundu den ezkerro,

azken urteotan, bezain ongi idatzi gure izkuntza.

Gero, gerra ondoan, izan dira gerokoak. Leen alai eta arro bezain kopetillun eta ukakor agertzen asi zaizkigu zenbait, eta zenbait oriek, gutxitu eta ixildu bearrean, ugaritzea besterik eztute egin gure artean. Jende berria gaillendu da, gazteagoa, zaarragoen usteak maiz txorakeritzat dauzkaten orietakoa. Zaarragoak, ni ere tartean naizela, iñoz baiño obeto ari bearrean, ezin okerrago jokatuak gera, orien ustez, alde askotatik. F. Krutwig izan zen noski, bestek beste, bide orretatik leenbizi abiatu zena eta merezi du aitormen au, aspaldi onetan aaztuxea dagoen ezkero.

Goizegi da, dudarik gabe, igaro berria dugun mende erdia aztertzeko eta epaitzeko gerok ere; etsai naiz aldeko, aren ume eta illoba baikera, orduko aizeak sortu zi-tuen olatuetan baikabiltza igeri, naiz egiañalean aiekin borroka- ari. Ezin jakin guk, segurki beintzat, zer esango duten aldi ori urruttiagotik, aserre ta maitasunik gabe, ikusiko dutenek. Onik eta txarrik arkituko dutela orrengan, ori bai, edozein alditan bezala. Alaz ere, alde txarrak aski nabarmen agertuko diren arren, enintzake geiegi arrituko bestek, alde onak, garaitzaille irtengo balira aien begietan.

Elitzake arritzeko ere oraingo ukamenak aurreraegi joanak izatea. Ori gertatu oi baita, zealdoka eta zabu-zabuka baizik eztakigun ezkero ibiltzen, giza-mugimentuetan. Eta zenbat ere ausarkiago surreratzen geran, ainbat gogorragoa izango da urengoen oldarra atzeraka. Gaurko geiegikeriek zaarragoren bat izutzen badute, bada, ar beza gogoan geiegikeri oriek, arri biziaren antzera, eztutela leengo geiegikerien oiaztzen eta neurria besterik itzultzen.

Eztitut nik gogoko erabat gaurko berrikeriak eta ezin ditzaket izan. Geiegizkoak direlako batzuetan, bear bada, eta geienetan gure garaikoek maiteen genituen (txorotxoran ala jakiñaren gaiñean eta merezi onez, bestek esan beza) ustet eta balioen kontra dijoazelako, batez ere. (...)

Naigabetzen nauenak, ordea, ezin eraman dezakedanak berak, poztu egiten nau bizio, beste alde batetik. Gizaldien arteko burukari legezkoa deritzat, biziak berekin dakarren legearen semea. Bizirik dagoen erri batean eztitu gizaldi gazteak aurrekoen siñistea, esanak eta egiñak itsu-itsuan ontzat artuko; eta zenbat ere biziago erria, orduan eta biziago gizaldien arteko etsaitasuna. Beraz, leenaren adorazio arrituan ezpadaude auzpezturik gure gazteak, bizi geralako seiñale da ori, besterik baiño geiago.

KRITIKA: Jaioterri-maitasuna, gaiñera, bi eratakoia izan diteke: obeto esan, bi eratan ager diteke. Batzuek eztute loria eta anditasuna baizik ikusten; beren buruari ederretsiz, arrotasunean igeri dabilta, txerriak lokatzetan bezala. Beste batzuek, berriz, naiago izaten dituzte betaurrekoak begi-estalkiak baiño, ots, beren erriaren izaera eta egoera obetu nai lituzkete, eta bear-bearrezkoia iruditzen zaie orretarako uts eta beltzuneak aalik argi eta garbien ikustea eta salatzea. Eta jokabide au leenbiziko aientzat, esan bearrik ez, izan ditekean pekaturik larriena ezpada ere, eztabilkio agitz urreti.

Gazteak kritika-zaleak agertu zaizkigu, eta ni ere bat natorkie orretan. Kritika orrek, amorratua baiño amorratuagoa izanik ere, eztu jaioterri-maitasuna desegingo, ezpaita au gere buruari diogun maitasun illezkor eta eten-eziñaren ondorea eta eraskiña baizik. (...)

Ezkaitu, ez, kritika pixka batek, edo puxka batek, geure burua ukatzera erakarriko. Egin dezakean gaitza ere ezta geiegizkoia izango. Batez ere, gertatu den bezala, zoramen gorrian geure buruari begira luzeroan biziak baldin bagera. (Jarraitzeko)

Kritika orrek bi xede ditu: izkuntza eta ideak. Lotsagarria da, sarri esan dugun legez, beti izkuntzaz mintzatzen aritzea, izkuntza orren bitartez beste sakonagoko zerbaiz adierazi bearrean. Lotsagarris ta penagarri ta alaz guztiz nai-ta-ezko. Izkuntzarekiko auziak ezpaitaude oraindik egin bear luketen egoeran, naaspillarik larrienean baizik.

Nabarmenegiak dira, izan ere, sail onetan obe bearrez egin diren utsak. Garbitasuna bear genduan, garbitasuna baiñio balio garaiagorik ezpalego bezela. Menderen mende aotan erabilliak gozoz eta zaporez bete zituen itzak baztertu eta arbuiatu genituen, orien lekuau - zerbaiz ipintzen genduanean - ez kolorerik ez usairik etzuten berrikeriak ipintzen genituela. Beste edozeiñek egiten zuena bere izkuntzan, egingo genduén guk ere gurean, baiña ez besteeek bezala: guk ori berbera egin genezakean anak mozturik, besoak loturik, baita burua txapelarekin batean zoko batetan utzirik ere. Mireskeko da, benetan, nola zenbait idazlan eder - Lizardi'ren poesia, esaterako - sortu ziren garai orretan, iztegia orrela murritztu eta soildu ondoren.

Badirudi, gaiñera, iratxo madarikaturen batek okertzen zituela - ezin zuzentzen esan - gure pausoak, itz eta esaera jatorren ordezko billa genbiltzanean. Gerraren edo gerlaren billa ez, baiña igesi genbiltzala, gudu jatorra autatu bearrean, besterik esan nai badu ere, guda sasikoa aukeratu genduen; santu (saindu) eta fruitu-ren igesi genbiltzala, deun eta arnari gurasorik gabekoak artu genituen (...) "Logika"-k orrela eskatzen duelako; orrexegatik beragatik, dautso, daust erabilli bear omen dira Bizkaian, deutso, deust zokoratuaz, "orain-aldiak & a bear duelako". Batasunera bidean, gutxietsi dituzte Bizkaian Euskalerri osoko ditu(z) eta bere kideak, "gi-putzak direlako". Euskaldun guzion ao-lumetan aspaldidanik dabilen osasunaren gai-ñean en ordez, ezin-barkatzeko erdalkeria zelakoan (amar egunen buruan, illabete berrerri eta orien gisako beste zenbait esaera ere ezpagenerabilzki bezala), parregarrizko edo negargarrixko -tzaz agertu da, atzizki jator bat dagokion lekutik atereaz. Eta orrelaxe ordu luzeetan etengabe aipa ditezkean beste amaika eta amaika.

ITZEN BIZITZA: (...) Itzen auzi au ezta, nere ustez, ez auzia ez ezer: eluke beiñipein izan bear, pixkaren bat zentzatuko bagiña. Zer nai dugu? Euskera bizi dedin, euskerak luzaroan iraun dezan? Plazara, mundura (orrelaxe esan zuen Detxepare'k) irten dedin? Orrela bada, itz ugariak, aberatsak, adiera be-reziz josiak bear ditugu. Garbiak badira gaiñera, obe; baiña ezpadira, ezkera geiegi kezkatuko. Etzaizkigu erderatikoak atsegin, badakit; baiña zein da gure elburua? Geurre buruaren atsegina, ala euskeraren ona eta bizia?

Lurreko loiez gatzatuak eta mamituak daude lurreko gauzak oro. Euskerak bere garbitasun artan iraun zezakean Paradisuko izkniba zeiñ; baiña Lur-paradisua utzi genduen ezkero - an nonbait, Phison, Géhon, Tigris eta Euphrates ibaien inguruau -, maiztu, zarpildu eta loitu bearrean arkitu da, dirua eta jazkiak bezelaxe. Orrela i-zango da aurrera ere, biziko baldin bada. Auta dezagun, bada, bein eta betiko zer nai dugun: euskera garbia ala bizia. Eztago beste aukerarik.

Orregatik maite ditut gaurko gazte asko: tentaldiaren igesi eztabiltzalako, loiaren beldur eztirelako. Bagenekeien leon euskeria sail askotan lantze-zai zegoela, eta alaz ere uko egiten genien maiz eginbearrari, bear bezain garbiro egiteko gauza ezkiñalako. Orain, berriñ, or ikusten ditugu "YAKIN"-ekoak, esate baterako - eta eztira oriek bakarrik -, katazka bizian zenbait gai zail eta gaitz euskeraz adierazi naiean. Or agertzen diren idazlan askok eztutela euskal-lorategi batean sarrerarik izango? Egilleek ere badakite ori, noski. Badakite, ordea, ori baiñio geiago dena: norbaitek oker edo zuzen, trakets edo dotore, garbi edo mordoillo lantzen ezpadu, lantzeke geldituko dela alorra. Egungo trakeskeriatik bakarrik jaioko da biarko edo etziko a-paintasuna. (Amaitzeko)

Itzak utzirik, berdin eztira axala besterik, goazen larriagoetara. Irurogeiren bat urte daramazkigu batasunera bidean, eta badirudi, fritueie bagagozkire, batasun oni uxatzen aritu gerala egiña alean, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian, bai orain Lapurdi n, Baxenabarren eta Zuberoan. Euskalkiak naasi, bai, egin ditugu, Pasaiako ardogilleek kolore bateko edo besteko ixurkariak naasten omen dituzten eran, baiña naastea ezta batzea eta ezta beinere izango. Ondorean "euskeraren" legeak daki zikigulakoan, inor gutxik dakizki gaur bere euskalkiaren legeak sare geiago, eztakigu geienek zein euskalkitan ari geran ere. (...)

Izkuntzaren legeak eta ereduak, bide zuzenetik ibilliko bagera, eztu egon bearko gurel baitan, naierara alda dezagun, gugandik kanpo eta gure gaiñetik baizik. Izkribu euskeraren, euskerak idatziaaren citurak eta usarioak ongi finkatuak eta mugatuak zeuden punturik geienetan, euskalki bakoitzaren barrenean beintzat, eta aski jokabide argia dugu aiei amor ematea, aiei lotzea eta obeditzea. Ao-izkuntzan eztugu batasuneko biderik idoroko, bereizkuntzarako baiño, bestearen aldean askozaz ere aldakorra goa eta desberdinagoa dugun ezkero.

Biziro maite dugu euskerak, beste bein esan nuenez. Biziro maite, baiña nork geure gisara moldatua eta aldatua, orrela "politago" delako, ez den denean. Eta hori, nekez iritziz, ezta euskerak maitatzea, nork bere burua, bere usteak eta setak, baizik. Gu gera izkuntzari makurtu bear gatzalizkionak, ez izkuntza guri, gogoak ematen di gunean eta gogoak ematen digun bezala. Obe genduke, itz batean, euskerak maitasun gutxixeago eta begiramen geixeago jasoko balu gugandik.

ITZULKETAN: Itzulpen ugari izan dugu euskal-literatura asi zen ezkerotzik. Itzulpen oriek, ordea, biziro zabaldutako ugari dira azken urteotan. Zorretan gaude lan orretan aritu eta ari direnekin, premiazkoak baitziren itzulpenok eta izkuntza lantzeko bide egokia.

Eztakit, ordea, orien balioa goregi jasoa ez ote daukagun. Erruz agertzen dira itzulpenak izkuntza landuetan, baiña eztiote itzulpenek ematen literatura bati bere mailla, berezko obrek baizik. (...) Geiago txundituko ditugu arrotzak gure obra bat zien erderara itzuleraziaz, aien erderatik amar gureganatuaz baiño... Erri oso bat itzultzaille biurtzeak baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gaiñera! Ezta izkuntza bere buruaren jabe, besteren mirabe baizik: besteren itzak, esaera, eta legeak dauzka beti gogan, aiei nola egokituko zaien asma-bearrez. (...)

Ona oraindik beste bat. Badirudi gure gramatikariek, euskerak bere-berean aztertu bearrean - eta zenbat eta erdalkeriaren etsaiago, orduan eta fareago -, eztutela beste kezkarik erdal-kategoriak euskeraz nola adieraz ditezkean azaltzea baizik. (...)

... Emen, orratik, ezkera biarko izkuntzaz mintzatzen, gaurkoaz baiño, eta gaurko izkuntzaren legeak eta oiharriak eztaude geroan, aldi igaroan baizik. Lot gakizkion, bada, den izkuntzari, izango dena astiei eta sorgiñei utzirik.

Bear bada uste du Umandik erdalkeriak bera gutxiago kutsatu duela Axular, Mogeldarrak edo Agirre Asteasu koa baiño. Beajondeiola! Gure ondorengoa agian gu baiño garbiago arkituko dira oraindik kutsu orretatik. Beajondeiola, berriz ere! Begien argia galdu eztuenak eztezake orrelako usterik izan, aski baita gogoratzea gure gurasoak zer ziren gu eta gure ondorengoen aldean, aski baita berdintzea idazle zaabat berri batekin. Azkenengo lan au Aita Mokoroak aspaldi egin zuen, nik egin dezan kedan baiño obekiago... Garbizaleen garbizaletasuna ezta "eza" besterik, eta "ezetik" bizi da, uts-utsik. Itzonek erderatik artua zirudik: bazter dezadan. Esaera onen antzekoak erderaz arkitzen dituk: arbua ditzagun orrelako erdalkeri zantarrak. Erderaren zerbitzari izatea nork bere izkuntza aberasteko eta ornitzeko izango baldin bada, ezteritzat gaizki. Baiña erderaren mendea ibilli, aren agindupeko izan, gure izkuntza bakantzeko etam murristeko... ("ASABA ZAAREN BARATZA", "EGAN"-en, XVII, 121-130)

- SEBASTIAN S A L A V E R R I A -

(Oyartzun, 1915. -)

Bertso-jartzaille on bat lez agertu eban bere burua S. Salaberriak, 1964'ean. Urtea aurretik bertso-papelen txapelketa batzueta baino aurrenatarikoa izan zen. Baiña urte orretan - 1964'ean - "Agora"ren "Gipúzkoa" nobela-saria irabazi eban, itz-lauz egiñiko lan bikaiñ bategaz: "NERONEK TIRAKO NIZKIN"... Liburu auxe da naikoa, gizon baten neurria jakiteko: or agertzen jaku Salaberria idazle jator eta errikoi; esan bear dabena, zuzen zuzen esango dauen, berbaz kontetan balebill lez; gaia bera be, oso ederra: gure arteko azken-gudua (gerra). Izkuntza ta izkera ez eze, liburu ontako pentsakera ta sentimendu sakon-ederrak be oso dira gogoangarriak: goitik berako euskaldun jator bat agiri jaku or! Bai atseginez irakurtzen dirala onelango liburuak!

(Gaixotegian, anaiaren bisita): (...) Eta egun batez, gutxiena pentsatzen nuan garayean, nere oyaren gañean exerita zerbait irakurtzen negoala, an ikusten det atean gizaseme bat sartzen dala. Jartzen naiz berari begira, eta zein izango, eta Kaximiro!...

Berak ere bereala ezagutu niñun, eta etorri eta eldu zidan lepotik. Asi giñan biok negarrez, eta alkarri zer esan asmatu ezin genduala egon giñan pixka batean, arpegiak pareta baño zuriago eginda pozaren pozez.

Gero noizbait asi giñan izketan, eta galdetu zidan:

- Ze erida klase dituk?

- Ara, motel, gerrak zer aurrerapen ditun: tiro batekin eskubiko zankoan zauri luze bat egin zidateken, eta beste tiroakin berriz ezkerreko oña puskatu eta zintzilik utzi, eta orain moztuta zeukat.

Berriro galdetu zidan:

- Nun eritu iñuten?

Eta nik erantzun nion:

- Yurre izena duan erri batean?

- Yurren? Zein egunetan?

- Mayatzaren 24-an, eguerdiko orduhata inguruan.

Eta gizarajoak, negar samiña eginenez, bizkarretik eldu ta erantzun zidan:

- Orduan, ire oñi oyek jo zitzuten balak, neronek tiriak izango dituk!

- Erorrek tiriak? Zer ba?

- Bai, neronek tiriak! Atake artan ni ere an niñuan!

Eta, lepotik elduta, bere begietako malko samiñarekin nere arpegia bustitzen zuan. Nik esaten nion: "- Zer egingo diagü ba, motel? Jaungoikoak ala nai eta onek olaxen bearko ziken. Etzak pentsa gauza onengatik nik ireganako gorrotorik daukatenik. Badakik gu beti alkar maiteak izan gerala, eta gaur ez len baño gutxiago."

Baña, arek berritz ere esaten zuan: "-Bai, bañan neronek tiriak izango dituk!".

Eta nik: "- Etzak negarrik egin, motel! Nik etzeukat iretzako eta iñorentzako inkurriorik! Bazekigu gorrotoagatik ez gerala ibili alkarren kontra!"

— JOSE ANTONIO LOIOLA BIZKARRONDO —.

(Errenderia, 1916 —)

Euskaltzaindiaren Laguntzaillea. Farmazia ta Optika-Akustika ikasi Madrilen, eta orain Irun'en bizi da; ogibidez, Botikarioa dogu... Ainbat artikulu idatzi ditu aldizkarietan (Egan, El Bidassoa, La Voz de España, Quart creixent eta Olerti'n).

Berenik liburu bat baiño ez dogu ezagutzen: "Amabost egun Urgainen", euskerazko leen polizi novela (Zaratitz, 1955): "Ona non sortu zaigun bat-batean, idazle trebea ez ezik, askozaz geiago bear duguna: novelista bat... Pertsonak ederki ikusten ditu, bai barrendik eta bai kanpotik... Badaki gertakariak bat besteari josten eta, ori aski eztelar, ederki arin, zorrotz eta biziro ematen dizkigu aditzerar... Bi itz, bukatzeo, izkerari buruz. Jatorra da liburu onetakoa: sriñia, erraza, edozeiñentzakoa..." (L. Mitxelena, EGAN, 5-6, 1955, 73-74).

JOXE JOKIN en BERRIKETALDIA: (...) "Gosaria bukatu, anka bat bestearen belaun gañean jarri ta erdi-kuluskan, gauza oek guziak buruan zerabilzkien batera, agure bat tirriki-tarraka azaldu zitzaion.

— Jaungoikoak egun oni... On dizula!...

— Garaidi k bereala ezagutu zuen. Len ere, erriko jaietan edo, ikusi izan baitzuen agura ura! Joxe Jokin, ostatuko nagusi berbera zan. Ortzik gabea bera, sudurkokotz luze, ille-zuri, larru-zimur, begi-bizi, erdi-makur... Ederra etorri zitzai on! Alako berritsua zan ura, izan ere!

— Egun ona datorrela dirudi. Ez atzokoa bezela. Urase eguraldi kaskarra! —, asi zan au marraka-marraka, bere makilla alki baten gañean utzi ta, apaldegitik ontzi batzuek artu ondoren, beste mai baten aurrean eserita. Nonbait au ere gosaltzeko asmo tan zetorren.

— Bai... — erantzun zion Garaidi k legor-xamar.

— Euririk ez degu beintzat-eta!...

Garaidi ixilllik. Ez zeukan ba arekin berriketan egon beste egitekorik!

— Egurmendi ren elizkizunetara etorriko ziñan noski... .

— Bai, jauna.

— Garaiz etorri zera orratik!

— Bai. Ez nekien zer ordutan zan-eta... — gezurtu zion Garaidi k.

— Zu ez zera alderdi oetako, jukiña!... — zion berriz Joxe Jokin ek berriketan asteko aria billatu naian. Geratu al zan noizbait arkitu gabe?

— Ez, jauna. Donostiarra.

— Donostia, Donostia... Ai, ai, ai!... Emen bezela, Donostia n ere ostroak urtean bein bakarrik sortzen! —, asi zan Donostia gutxitu naian —. Erri polita Donostia, bai, oso polita, egia, baina... aundirkoa izatea. Ori txarra! Ez du Urgain ek Donostia ren bekaizkerik ez! Artuko zenduteke donostiarrek emengo pakea! Gizona, gizona!... Nik ez dakit noletan dezuten atsegin ango iskanbilla ta ango zalaparta! Ondartza eder bat dezutela? Bai; egia. Baiña, nik beintzat, naiago det an eguzkitan bon-bon kixkaltzen egon baiño, Amasetako lizardian zugaitz kerizean egon... Sagardo pixka bat eta... .

Arrapatu zuen orratik berriketa gaia!

- Aundiakoa dala esan al dizut? - zion ixildu gabe turuta bat zirudila -.Ba, orain adierazko dizut, argi ta garbi, onen mamia.

Bere makilla zutik anka tarteak, bi eskuak makil-buruak, kokotza oen gañean, lasai-lasai, Olentzero itxuran jarrita, onela zion eten gabe, jo ta ke:

- Ludi ontan alkartasunean bizitzeko egin gaitu Jaungoikoak. Alkartasun oni jarratu-ezkerro, batak besteari geiago ta geiago ezagutuz aizkidetasun eta... baita anaitasun osora ere, iritxiko gera. Baiña... entzun au ondo, gizon! Nola izango gera aizkide, naiz ta erri berean bizi, ain kankallu au izan eta alkar ezagutzen ez ba'degu?... Ona! Ni, Ameriketan bizi izan naiz. Buenos Aires'en. Erri galanta ura! Izan ere!... Eeene! Urgain alako milla aldiz bai! Ainbeste jende, mota guzietako ainbeste gizon, eta ni... ni beintzat Urgain'en bañio bakarrago bizi nitzan an. Zergatik? Ai, zergatik!... Ainbeste jendeen artean iñor ere bear bezela ezagutzen ez nuelako. Bai ba!... Eta, ba'al dakizu zerk ematen zidan nekerik aundiena? Batean eta bestean, atzo ta gaur, biar ta ezti, an eta emen, etxeán eta kalean, beti ta beti, benetako gizonezko nitzala adierazi bearrak. Arrayo pola! Onek eman zidan, bai, nere jayoterri- ra itzultzeko gogorik aundiena! An nork etsi? Norbaiti esker bat egin, eta onek zi- talkeriz ordaintzea; on egin, eta, ordaindez, zartako bat artzea... ez zah txarrena. Askoz ere okerragoa zan, norbaiten bearra izan, beregana joan, eta nork bere zintzo- tasuna ageri-agerian jarri bearra. Nondik zetozen, hora zinjoazen, nork ezagutzen zizun, zertan jarduten ziñan, non bizi ziñan... Ura xe lana! Ai!, eta pozik, siñizten ba'zizuten! Begira gero!... Urgain'en berriz, geienak ezagun ditugu. Norbait etor- tzen ba'zaizu eskean, ba-dakizu nolakoxea dan. Zerbaisten bearrean ba'zaude, ba-daki- zu laguntza-eske norengana joan. Ez al dirudizu zoriontasun bikaña emengo lasaitasun au? Bai orixe!... Lanak ematen ditu ona izateak, baiña emen ez dago lan ori beste- rik. An ona izatea ez zan aski. An ontasun au guztien begi surrean agertu bearrean zeunden beti. Eta, ala ere, askotam, agerketa ontan asper-asper eginda ixiltzen zi- ñanean, ostiko bat emanda, utikan!, eta an bialtzen zinduten gezurti bati bezela. Orrelakoak ainbeste ziran-eta!..."

Berari ere gosaria ekarri zioten eta jaten asi zan. Baiña ez zion ajolik. Ura ixildu uskeri orregatik? Ezta, ezta!...

- Gai kontaz - zion jo ta ke aoa beterik -, ango jaun baten ateraldia bururatu zait. Onela esan zidan bein azal-gaizto ark: "Nor dan zintzoa eta nor dan zitala jakin nai al dezu?... Errax! Kupidarik gabe, izugarriak esan eta bialdu itzazu aurrean zuregana datozen guziak. Berriz etortzen diranak, ayetxek dira txar, alper, lepotarrak. Berriz etortzen ez dana, uraxe zan ona, zintzoa, egokia...". Baiña nik erantzun niona: "berriz etortzen ez ba'da, nola onari lagundu zenizaioke?" Bost ajola ari guziakatik!... Donostiarra beraz!... Ai, ai, ai!... Orrai!, lengo astean, emen Urgain'en, Pelli-kankallu il zan. Uste al dezu bere utsa norbaitek nabaituko duenik? Ez orratik! Alper, jokalari ta moskor bat besterik ez bait-zan! Atzoko Egurmendi-ren eriotzak, berriz, erri guzia minduko du. Alakoa bera!... Eta bizi zanean, ez zuen ez, guk Ameriketan bezela, bere zintzotasunaren agiriak azaldu bearrik! Ezta Pelli-kankalluri, zintzoa zalakoan, bost durokoa eman eta batere gabe geratzeko iñork bildurrik! Bai zera! Guziok genekigun nolakoak ziran-eta! Ez zuen iñork Egurmendi-ri Pelli-kankallu'tzat artuko ez!..."

Gogoz ari zan orratik, tar-tar, gure Joxe Jokin. Arian-arian, amurrai bat ere lo-araziko zuen ark... ("AMABOST EGUN URGAIN'en", Zarautz, 1955, 58-62 orr.)

— SALBATORE MITXELENA —

(Zarautz, 1919 - La Chaud-de-Fons, Suiza, 1965)

Frantziskotarra. Euskaltzaindiaren Laguntzaille edo Urgazle. "INURRITZA" izenordes be sarri erabilten eban.

LIBURUAK: 1) "Arantzazu euskal poema", Zarautz 1949; 2) "Ama-Semeak Arantzazuko kondairan", Zarautz 1951; 3) "Ogei kanta Arantzazuko", Aránzazu 1952; 4) "Bizi-nai" (poema), "Euzko Gogoa", Guatemala, 1955; 5) "Arrauta Amets", ("Kuliska Sorta, n.7-8), Zarautz 1955; 6) "Unamuno ta Abendats" (saiakera), Bayona 1958... Ganera, "Aránzazu" ta "Euzko Gogoa" al-dizkarietan be ainbet artikulu idatzi zituan.

Olerkarien artean, zenbat S.Mitxelena baiño bikaiñagoak, lirika sainean beintzat?... Itz lauz be, ba daki, bai, euskera sakon, txairo ta bizi-bizi erabilten: urteokaz izan dogun prosistarik onena berau dogula bē ba diñoe batzuk. Idaztankera bere-berea dau beti... Sermolaria be apartekoa em zan -dana su ta gar -, bai euskeraz, bai erderaz... Zoritzarrez, "Lizardi", "Lauaxeta", "Loramendi" ta beste olerkari ta idazle asko lez, au be gazte-gazterik eroan euskun eriotzak...

(A. Salvatore Mitxelenaren nortasuna, A. Karmelo Iturriari egindako karta onek erakusten deusku):

"Lagun txintxo: Aspalditik lei nuen ura, azkenera ta bearrago yontzen nuen ura, egun gutxi barru iritxiko diat, Yainkoa lagun: il·onen '28'an banizioak Ameriketara.

Urte izpi batzutarako bakarrik izango al duk. Ala sinistu nai ta ala uste ere diat. Itzeman ordea ala izango danik ezin itzeman eta gutxiago lepoa yoka, besteren agindura bizi bear dun pralile batek.

Luzaroegi an irautera, arrazoi litekek nire aldegitea kolkarkeritzat etsi duten zenbait adixkidek. Ara yoatea nire orañarteko elburuari uko egitea omen duk; ots, salkeria, bere bataio-izen yator eta garbiz. Adixkide oiek bildur ditek nimbait, beste zenbait euskal-idazleekin gerta dana nirekintxe ere yazoko ez ote: luma bein ta betiko erdoitzen utzi, alegia.

Aitzitik duk, orratio, nik daramakidan itxaropena ta asmoa. Emen, azken-urteetan idatzi dudan aña, gutxienez emen aña, an idatzi al izango dudala espero diat euskeraren alde. Egia esan, nire biziaren etorkia ta yomuga luzetik luzera begiztatzen dudanean, irudimenari ez zeritzaiok Euskalerritik igesi noanik, yoan ta yoan bertaragotzen noala baizik. ¿Nola Azkue-ren "Vizcaytik Bizkaira"? Giño ortantsu ni ere, Amerikako yoan-etorri onekin, nire Euskalerrira niyoak, Kubatik, Buenos Aires'tik, Montevideo'tik barrena, nabilken lekutik nabilkela. ¿Ez al derizkiok? Ain zuzen,

- ¿Nora oakigu Sorterritik?
- !Sorterrira noazute-ta, atzerri-zear!

Irudimenari atsegin zaizkiok kide ontako naasbilllo ta beste paradoxak. Ez ordea sentipenari. Sentipenak fantasi-txuriketaoi itzala urri ta fedea urriago oizkiek, baezpadan. Sentipenak ez dik besterik yotzen auxe baños sorlekua utzi bearra. Ta onek, beste gabe, urduri txo natxedukak azken-egunetan, eta naiko itun, eta batez ere biotz-bera.

Biozpera batez ere, motel. Ta etzak parre egin. ¡Gogoratzen al duk "Garoa"ko Malentxo'ren azken agurra? Ez aipa ezetzik, ik bezelako otoiaren argia dun batek. Etxez kanpo bizi geranontzat orrialde ori gogoangarria duk eta, orobat, unkigarrienetarikoa. Niri beintzat ezin burutik ken zaidak egunotan. Malentxo goiz artan Zabaleta'tik Bidaurreta'ra aldatzeko uan, moja ziyoanez bein betiko aldatzeko, gañera. Ta utzi bear zun baserriko tresna-abarrak, seaska ta oe, golde ta goru, bei ta ollo, azkenekoz ikusmiratzean, "¡ura gauza! - ziñok ezin ederkiago gure Txomin Agirre do-toreak -. Danakin izketarako gogo etzetorkion ba? Danak zerbait esaten ziotela etzu-an ba uste? Etzitzaien ba iruditzen etzituala egundaño ondo ikusi, etziela behere bear aña jaramon egin?"

Berebat zeritzaidak eni ere asteen, uztera noan yayolur onekin eta bertako biztanle, eskualde, oitura, erti ta osteruntzeko bizi-gaillu, oroigallu ta maitagalluekin: ez nitula ezagutu, ez ondo ikusi, ez bear anbat yaramon egin. ¡Zer uste bear zikan batek, bein 35 urtetaraño bizartu ezkerro, onen tirtiri, onen txitxareki ximur-xamurtu zindekenik azkenagur baten gorabera dala-ta? !Azkenagurra azkena ba'litz, gañera!

Tkusten aut ixeka-irriari ezin eutsiz !listor xaxiatzalle, arrane ori!; antzeman ere diat azaldu nai ez dukan miztoa: orra nondik beste Malentxo!... Kontu gero, adix-kide. Eldu zaikikek eu'ri ere txanda, ta ordun, ni onerakoan eta i arakoan, ordun arranoak ezpadu ikusiko giñeket nor dagon txitxare ta nork dagin parre. Ez aztu gero: danok gerala norgere amaren ume.

Benaz dasaiat. Uste gutxieneko zerbait uskerik ere, galtzeko edo uzteko ordu larrion, garrantzi artzen zigutek, itsatsi egiten zaizkiguk barru-toles biguñenetan, itsasi, mamitu, azi ta azkenik nagusitu. Bakoitzak bere gisara, buru-besoak luuuxatzen zizkigutek zotinka ta arrenga emekiro, kupigarrikiro, tai gabeko eskean: ez gurekin aztu! ("ARRAUN TA AMETS", Kulixka Sorta, nn.7-8, 85-88)

(EUSKERARI ILTEN ITXI? ARRAZOIZ JOKATU ONTAN?...):

UNAMUNOK: - "Euskera! Bein bear-da, oraindik ere Euskera! Ondo gizaldietako kasketa arranepola! zuen ause. Noize arte, ordea? Noiz zentzatu bear du-zute? Noiz adore ta gizatasun izango, beingoz euskera pakean iltzen uzteko?(I, 374). Orrek eztu erremetorik: badoakigu, ta kito. "Gertari" ori atzeratu daiken giza-indarrak ez da. Bizitzaren legez bait-doakigu. Alabearraren patuz (I, 373)... Oso aguro doakigu, gañera. Orra, dagoneko, bi eratara azkenak ematen: zabaleraz eta sakoneraz (I, 375)... Arrazoiz pentsa dezagula, Arrazoiz."

ABENDATS'ek : - "Arrazoiz! arrazoiz pentsa eta joka! Zu'ri entzun bear ori. Ederra kontua, Erretore jaun. Arlo ontan arrazoi utsez joka bear guk; gañerontzean, biotzez eta griñez eta kirioz, arrazoi utsa mozkeritzat utziki.

Amaikatxtotan eta beste ainbatetan zerorrek idatzia diguzu ba: nazka, asalda, arbuia, ernegua, argaiztoa ta nik al dakit zer geiago diozula arrazoiarri: "arrazoipideak ezaiñak dirala" (II, 753). Euskera gaixoarentzakoxe bakarki eskatzen duzu arra zoilegea, zentzun praktikua; osterantzeko auzi-mauzi guzietarako iguin ba'diozu ere. Sarritxotan atsegin zaizu ba gogoratzea Paskal'en ura: biotzak ere baditula bere arrazoik eta burak ez añaikoak... Ez, Ero Aundi; ez, jaun martinkontra. Ontantxe ez-tizugu amor emango. Ez eutanasi'rik Ama xarrari. Don Miguel euskaldun-berri pot-egin orrek Ama Euskera zapuzten diguzun arren, zeure filosofiak ezin sutsuagoki babesten baitigu. Ta aski dugu!..

Probetxu geiago lekarkela, euskera-soñekoa beingoz utzi ta erderaz jazteak? Egi

ta arrazoi. Probetxu aldetik, ondo dakigu baietz. Lurbira zabalean ezagunago ta mai-teago giñezkela artara? Egi ta arrazoi. Lizardi, Orixo, Zaitegi...tarnek, euskera-gintzan bizitza eman bearrez beste onura geiagoko zerbaitean eman izan ba'lute, atzerritarrek esker eta garrantzi geiago ukango liekela? Egi ta arrazoi... Probetxu aldetik, euskerak traba ta galera besterik ez omen du, ta agiz izan ere ez du. Eztiguzu esango egi ta arrazoi aitortzen zabal ez geranik. Tori, artu, nai aña egi ta arrazoi.

Egi "ori" eztugu nai! Eztugu, nai izaterik ere nai! Guire gardiz eta zure filosofia'renez, ez da ezer egiagorik edertasuna baño, eta ez ezer ederragorik geure nor-tasuna baño. Ta guk nortasun onixe eutsi nai diogu, il edo bizi. Geure izate-muñari uko egin bear izate ezkero, ez gera sekula ezkonduko arrazoikeri oiekin.

Betor erokeria! Kijotekeria edo kijotetasuna, dana dala, Erokeria edo erotasuna. Gerau, beintsat! Baköitzä bere zoroak bizi dau, ta gu geureak. Ez, Unamuno, ez! ezta ezergatik ere gu makurtu arrazoi tentagarri oietara! "Eztugu biotza makurtu nai bu-rua'renera. Fedea nai dugu. Fédedunarentzat ezpaitago eziñik" (II, 758).

Or konpon, buru utsez jokatzea 'ri gizatasun deritzatenak. Guk, Don Migel, orañar-te bezela gerora ere, boste zerraitan bezela ontan ere, "gorputz oroz eta anima oroz pentsa ta joka nai dugu, odol-tainta eta ezur-muñ bakoitzez, biotz guziz, baita bular-auspoz ere, baita erraiez ere, bizitz-indar guzi-guziz" (II, 725). Ots: Unamunoki, euskotarki, nai dugu pentsa ta irrika ta joka! Zer arrazoipide istatsuagorik nai duzu Kierkegaard'en uraxe baño?: "norbera ez izatea oro galtzea da". Edo Michelet'en beste ura: "nira ni'a, biur dezaidatela nire ni'a"!.

(*"UNAMUNO TA ABENDATS"*, pp. 77-78-79-81).

III -NOLA AGERTU ZAN : " Gertaera Nagusi orrén audia-maundiak urrengo kapitulue-
tarako utzita, esan zaguin, bada, onezkero, nola agertu zan.
Apainaingarri edo osagarri ornitu-asmotan, ez natzaizu batera okertuko. Žuzen eta la-
bur kontatuko dizut Agertuera. Bere sotiltasun gardenean kontatuko dizut, zuk dakizun
bezelaxe, aiñton-amonai edo sermoilariai entzun eta zeure txikiai irakatsi oi diezun
bezelaxe. Sotillean eta ederrago izaten bait-dira Jaungoikoaren egintzak.

1469^{ko} urtea zan. Eta udara, asieratan orduntxe. Eta larunbata-arratsalde bat


Errodrigo Balzategi, amazazpin bat urteko artzai gaztea, Oñatin ondo ezaguna, Uribarriko semea bera, egun artan ere, beste askotan bezela, Aloñan-gora joana zan; mendiz beste aldeko bizkarretik zebillen, illundu baño len ardiak billatu ta etxeratze-ko asmotan.

Ardiak, esan det. Ardiak edo auntzak, derizkiozun bezela. Abelzuri ondo ibiltariak eta igeskorrak, beintzat... Ibilli ederrak egin bear izaten zitun arratsaldero artzai gizajoak, aien atzetik, malkarrik-malkar, arrapatu ta bordara bilduko baizitun. Batezere, zenbait egunetan. Sasitan kakoturik gelditu zala ardi zarren bat, edo arako antxume txoro ua, erpiñik-erpin zebillelarik, arkaitz-puntako koxka-koxkan berandutu zala illuna baño len jeixterik gabe, otso ta basapiztien janari izateko... ta bestegabe, an joan bear izaten zuan Errrodrigo gizajoak etsi-etsian, aistxen billa.

Arratsalde artan ere, ardi batzuk falta bere artaldean. Zein aldetara aldenduko ziran, aguro antzeman zun Errodrigok. Garaikaldetik eitzan entzuten ezkillik. Be-aldetik izango al ziran balinbait'e.

IV.- KANPAIA: Arrapaladan gainbera zijoala, ezkilla-edo, kanpaia-edo, entzun-iruditu zitzaina. Iruditu ta izan. Argi ta garbi entzuten zan arran-otsa, galanta ordea, beñiere aditu ez bezelakoa, ozen-zolia oso. Baño nolako urrutia. "

("AMA-SEMEAK ARANTZAZUKO KONDAIRAN", 21-23)



YON ETXAIDE ITHARTE

(Donostia, 1920 -)

Iñazio Etxaide, Euskaltzaindiaren Buru izandakoaren semea. Berau be, Euskaltzaindiaren Urgazle edo Laguntzaillea dogu, urteokaz. Ainbeste izenorde erabilli izan ditu: "Zelai", "Etxaitar", "Aldapeko", "Uarrain", "Igeldo"... Asko idatzi dau, bai aldizkarietan (Euskalerriko geienetan...), baita liburuak be: 1) "Alos-Torrea", 1950; 2) "Purra! Purra!", 1953; 3) "Amasei seme Euskalerriko", 1958; 4) "Pernando Flaentxiataray" 1957; 5) "Joanak-joan", 1955; 6) "Gorrtoa lego", 1964...

Itzulpeneak be bai: "Itxasoa laiño dago" (Pio Baroja's "Las inquietudes de Shanti Andia"), 1959; "Etxahun" en bertsoak gipuzkeraz ("OLERTI"-n, 1961-1966)... Iru drama be egin ditu: 1) "Amayur", 1951; 2) "Markesaren alaba", 1958; 3) "Begia begi truk"...

Langillea benetan Yon Etxaide; cuskera lantzen bide andia egin dau. "... Izkera jatorra du, bizia, aberatsa, eta batez ere bere-berea. Zaarrak eta berriak, argoak eta emengoak irakurri ta aztertuz, gaurko euskal-prosak dituen maisuen artean jarri du bere burua... Izkuntzaren jabe da Etxaide, zearo ta osoro..." (L. Mitxelena, EGAN, 5-6, 1955, 69-71)

ELIZANBURU...: "Sortzen dira tarteka marteka euskal-biotzaz osoro jabetzen diran bertsolariak, beren ixuria erri giroz ornitua baidator ubegitik,

garbi, lerden, traiko, eta erriak berengan billatzen du nun ase, nun goza, nun mozkor. Elizanburu dugu oetan eredu bikain, bere olerkien gurasotasuna galdu baitu, esate baterako, erriak maitoki ostuta. Izan ere, nork eztu entzun, eta are geiago, nork eztaki kantatzan adibidez, "Ikusten duzu goizean" izenez garo-usaia darion lillura-garrizko olerkia? Eta zenbat dira bere egillearren izena dakitenak? Iñor gutxi, Bidasoz onuztik beñepein. Eta Labaien jaunaren iritziz, "au dute poetak saririk garaie-na: beren lanak izenak gal eta erri guziarenak, ots! sasikoak, biurtzea."

Joan Batista Elizanburu eta Irazabal, Sara'n jaio zen 1.828^{gn.} urtean. Bere ikaskizun nagusiak Lérresoro'ko ikastetxean egin zitun. Armetarako deia nabaitu zizun gure Saratarrak gazte-gaztetandik eta III^{gn.} Napoleon'ekin kapitan maillara eldu zen. 1871'an, prusitarrok Napoleon'en agintaritza lurureratu zutenean, Elizanburu'k gudaritza utzi bear izan zun, eta kapitan-oia bere jaioterrian kokatu zen Prantxa Eiheraburu bere andrearekin. Eriotza 1.891^{gn.} urtean eldu zitzaison, 63 urte zitularik.

Elizanburu'k, itz-neurtuetan ez-ezik itz lauz ere landu zun gure euskera, eta idazle zaharretan, - berrialdi atarian bada ere -, au dugu ezpairik gabe, bai bertso ta bai prosari erri mintzairaren kutsurik garbiena erantxi diona, eta bere languzitan euskal-senaren barru-burrailño murgildu zaigun gizona. Onetxegatik izan du te ain arrera bikaiña Elizanburu'ren olerkiak euskaldunetan, euskal-jario garbikoak diralako, euskal-arnasaren sormen, euskal-gogamenetan dezaten atseden. Izan ere, euskaldunarentzat, bázkari on baten ondoren, nekez sortuko da Elizanburu'ren kantaldi bat baiño postre oberik.

Elizanburu poeta bukolikoaz dugu, batez ere. Arrigarria! Bere bizia gudari igaro zunak, nekazaritza, artzaingoa eta baserriko bizibide paketsua autatzen dizkigu kantagaitzat. Gudaldirik zaratatsuenetan, Euskalerri paketsuaren oroimiñak, etzion bar-

katzen nimbait Saratar olerkariari... Ona bere poesirik ezagunenak: "URRUNDIK" bai, urrundik dator, guda zelaietarik, bere erri maitea ikusteko urteak igaro ondoren, eta elizako kanpaiaren ots eztia nabari orduko, onela ekiten dio biotza ler:

"Urrundik ikusten dut, ikusten mendia / beraren gibelean baitut nik herria!
Yadanik dut aditzen, zorion handia! / ezkila maitearen hasperen eztia."

"APEXA TA LOREA": maite-kanta zoragarria, tximeleta ta lorearen antz-irudipean. Bulkoz eta irudipenez guzizkoa. Orra ahapaldi bat:

"Neguaz primadera zenean jabetu / sasi baten hegian apexa zen sortu;
leku berean baitzen lorea gertatu, / gaixoek elgar zuten bihotzez maitatu."

"MARIA": Euskaldun neskatzaren doain agertze zoragarria, neurri ta doñu errikoian jarrita. Xarmanta, xaloa, laisterra, zaulia, benetan agoxurigarri. Bederen ahapaldi bat alda dezagun:

"Erle bat da Maria etxe barnean,
eta landan orobat hari lanean
behar denean
Apaintzeko pulliki behin astean
noiz? Igandean;
Uztai beharrik eztu soinaren pean."

"ARTZAINGOA": artzaiñaren bizibide paketsua goresten digu (...)

"IKUSTEN DUZU GOIZLEAN", Elizanburu'ren olerkirik entzutetsuena. Baserriak dario pake ta gozoa goraipatzen digu bertan, eta baita biziki aditzera eman ere uriko aundikerietan ez daitekela arki baserriko zorionik:

"Ez da lurrean gizonik / Printzerik, ez Erregerik
ni baino obeki denik. / Ba-dut andrea, ba-dut semea,
alaba ere ba-dut nik / osasunona batetik,
ontasun aski bertzetik, / zer nahiko dut bertzerik?"

Ahapaldiz-ahapaldi baserri legea goraipatzen digu Elizanburu'k, etxeko jaunaren aboaz baliaturik. "Maria"-ren antzo, ba-du jario, erraztasun eta goxotasunik ugari menditar olerki onek.

"BESTA BIHARAMUNA", olerki irri-egingarria, xarmanta ta asmamenez ioria. Atso zu-rutari ta jokalariak ematen diote jostagaia epigramarik burutsuena antolatzeko. Labaien jaunaren iritziz, auxen dugu Elizanburu'ren "chef d'oeuvre". Ahapaldi guziak dira aigeriarri, gain baitira apain, xotil ta grazidunak. Ikusi dezagun, adibidez, ez-paigaitezke ahapaldi batez gora luza, "jaun xahakoari", zatoari alegia, egiten dion omena:

"Zer ote duten nik jakin nahi / pitxarrarekin bertze jaun hori;
Zorrhoa du biribila, moho mehea, tente xutik egoiki,
xahako bat ote den nago nahi / hanpatua, hanpatua ederki."

"SOLFEROINOKO ITXUA". Olerki goibel unkigarria, zorigaitzaren oñazeak erditua. Biotzondoz, egi garraztasunez eta mintzairaren xamurtasunez guzizkoa. Euskeraz idatziriko ederrenetako ote den, nago. "Orixe"k diño: "Neurtitz aldi zoragarria. Arta-tik igarriko diozu poeta izenik merezi ote duen eta euskeraz zerbait barnerik eta samurrik adierazi ote diteken". Itxubearraren ezin-etsiak biotz-urragarrizko ahapaldiak ialki-erazten dizkio olerkariari. Barka oraingoz lau ahapaldi labur eta ikus itxua bere buruarekin:

GAUA!: "Betiko gaua, gau lazgarria, / begietara zait jautzi;
ene herria, ene lagunak, / nikoiz ez behar ikusi."

ETXEA!: "Larrainetako aritz, gaztaina / mendietako iturri,
horiek orónehetzat dire, / amets istu bat iduri."

AMA TA MAITEÑOA!: "Ene amaren begi samurrak / betiko zaizkit estali,
maiteñoaren begitartea / behin betiko itzali."

LAGUNAK!: "Ene herrian, gazte lagunak / kantuz plazara doazi,
eta ni beltzik etxe zokoan/ irri egiten ahantzi!"

Ez gaitezke geiago luza; ez ote erdiragarri?

Aberkoietan, "ESKUALDUNA" deritzana aipagarri da. "Eskualdun seme dena bedi ale-
gera", asten da, eta Euskal-Sendia Arbolaren antz-irudipean agertuz, oiu egiten du
bertsolariak:

" Ni nauk eskualduna, bai aspaldikoa,
egundaiño aizkorak ezin autsizkoa!"

Itz-lauz ere, Elizanburu'k irakurgaitxo zoragarri bat utzi zigun, "PIARRES ADAME"
izenarekin. Liburutxo ontan kontatzen digu gure poetak, motiko zelarik, Piarres Ad-
ame gizaseme burutsuarekin egin zun joanaldia, Olhetako erri-jaietara. Irri eztitsu
batean irakurtzen dira, bai bideko gertakizunak, bai Piarres'ek kontatzen dizkiom
ixtorioak bere iragan biziaz. Ona bat, Olhetarako bidean gertatua:


Iru emakume gobara egiten ari ziren, erreka bazterbatean, bidetik urbil. Lixi-
ban ziarduten irutatik bik, gonak belaun gaiñetik jasoak zituzten, "bainan ez modes-
tia sobera kolpatzeko gisan", diño Elizanburu'k. Irugarrenak, ordea, gonak ia lurre-
rañokoak zitun. Ez bat eta ez bi, Piarres'i, bertsolari jator baitzen, neska gazteak
bertsotan tentatzeko lakkulluak eragin zion, eta errespetuari sobera faltatu gabe, ezin
ezten fiñagorik erabilli:

" Egun ni naizenean Azkain'erat hurbildu,
hiru Graziek naute bidean gelditu;
biek erakutsiak batek gorde ditu...
ez zituèn gordeko, ederrak ba'litu!"

Lau lerrotan asmo burutsuagorik antola ote diteke? Euskeraren arericak ager di-
zaigutela, euren Izkuntzetan, bertso audeñaiñako esan indarrik!

("AMASEI SEME EUSKALERRIKO", Zarautz, "Kuliska Sorta", 21-22, 29-35 orr.)

("Izkuntzaz kanpora ere, Etxaide'ren lanak berebizikoak eta beregaiñekoak izaten
dira... Bera historiolaria ez delarik, ... aztertu ditu Erdi-Aroaren azken-aldeko
ixtillu eta katazka larrieten aztertu bear zirenak. Goragarria da, batez ere, garai
artako euskal-giroa (erdal-paperen bitartez guregana den giroa) berpizteko egin di-
tuen ahalegiñak...": L. Mitxelena, "Gorrotoa lege (Oñaz-Ganboatarren guduetan giro-
tutako eleberria")'ri egindako kritikan: EGAN, 1965, 159.-161)



LUIS VILLA SANTÉ KORTABITARTE

(Gernika-Errenderia, 1920 -)

Frahtziskotarra. Euskaltzaiña. Teolojia-Irakaslea Arantzazu'... Gerra-ostean, A.Villasante'ren eritxiak eta eragiñak ez dabe gitxi aldatu euskal-literatura-ren jokerean euskera errriagandik urbil; idazle zaarrakganako begirune ta maitasuna; euskera kultura-maillara jasoteko alegiña; batasun-bidean literatura zaarrean, eta batez be Axular'en inguruan, oñiarriak jartzea, t.a. Euskal arloan langille beroa ta aspertu-eziña. Txalogarria, benetan! "Mordóilloegi" idazten dabela, batzueta? Ala uste dabe batek baiña geiagok; baiña berak aurrera ta aurrera egiten dau beti, bere bidetik, zaar-usainezko euskera argi, bizkor eta errikoia erabilliaz.

Ezin emen aitatu ainbeste aldizkarietan urteokaz idatzi dituan artikuluak (batzuk, oso jakingarriak); ezta bere itzaldiak, liburuai egiñiko Itzaurreak t.a.: erizi xearentzat, eta jakintsuagoentzat...

Liburu batzuk: 1) "Goi-Argi. Ars-ko Erretorearen Erakusaldiak", 1955 (itzulpena); 2) "Kataliñen gogoetak" 1958; 2^a edc.: 1966 (P. Arradoy-Narbaitz'ena lapurdieratik gipuzkeratua); 3) "Nere izena zan Plorentxi", 1961; 4) "Kristau fedearren sustraiak. JAINKOA", 1962; 5) "Euskal Gramatika Llabur eta Idazleen pusketa Autatuak", 1956; 6) "HISTORIA DE LA LITERATURA VASCA", 1961 (daukagunik zabalena ta onena...); 7) "Voces vascongadas diferenciales", 1963 (Edición del diccionario inédito de Fr. P. António Añibarro, OFM); 8) "GERO", 1964 (Axular'en liburu bikaiña, erderazko itzulpen eta Itzaurre aberats batekin)

Ba ditu, ganera, beste itzulpen batzuk be; baita berak batutako bertso-bil-dumak (G. Anduaga'renak, "AUSPOA"-n); erderaz be argitaratu ditu liburu jakingarri batzuk.

"Bere ibillera lasaria dela bide, iñor gutxirengan arkituko dugu gaurko euskal-prosan antziñako idazleen jatortasunaren eta gozoaren izpillu ain garbirik. Orrela pentsatzen eztuenak érakur beza, mesedez, astiro liburu au". (L.Mitxelena)

CURASOAK AINTZAT EUKITZEAZ: "... Beste gauza bat oraindik: Gurasoek beren ondasunak ez bitzate utzi, eriotz ordua baiño leen. Entzun, naiko gatza duen histori jostagarri au:

Izan zan gizon bat, bere ondasun guztiak umeai utzi zizkiiena. Aurki damutu zitzaion: Seme aiek berakin gogait egiñik, aita elkarri egotzi naiean ibiltzen baizian. Baiña gizon onek adiskide bat zuen oso aberatsa. Kontatu zion oni bere zoritzarra, eta gañeratu zion:

- Mesede bat egingo bazein, etorkizuna arinduko zenidake.

- Nik zuri ezin gauzarik ukatu, érantzun zion adiskideak.

- Utzi zazkidazu, bai, ordu gutxirako bakarrik, bost milla franko. Nik bazkari bat egingo dene, eta bertara deituko ditut nere lagunak. Bazkalartean azaldu zaitez, eta milla franko zuri prestatzeko eskatu zadazu; eta nik, jende guztiaren surrean, emango dizut diru ori, ordainez ematen dizudalakoan. Nere semeak, txanponak ikus ditzatenean, ez izan bildurrik, arduratuko dira, bai, nizaz.

Esan eta egin... Bazkaltzen ari dirala, azaltzen da jaunaren morroia, eta bere nagusiaren izenean, bost milla franko, arren, baituran emateko eskatzen dio.

- Bai pozik ere, -erantzuten du gure gizonak; - bazkaldu-takoan emango dizkizut.

Bazkaldu ézkerio, badijoa gure gizona diru-billa, eta bazkaltiar ororen begietan ematen dio morroia. "Ikusi, -esaten zun jendeak, - dana utzi zuela ta... Beraz, etzan ori egia". Eta ark jardetsi zuen: "Bai zera, dana utzi! Eztitut nik nere ondasunak ain errez uzten. Ni zaintzen nauenarentzat izango dira gorderik dauzkatan dirruak",

A! Egun artatik ikustekoa zan nola alegintzen ziran seme aiek aitaren ingurumarian ibiltzen! Elkarren leian zebiltzaten, orotariko kunplimentuak ari egiten. Eztutentzai, ark ezeren falta izaterik.

Gizon orrek kutxa bat zeukan, eta ziotenez, kutxa orretan omen zeukan gorderik bere dirutza ori. Kutxa au etzan zabaldu bear, gizona il eta berrogei egun igaro arte. Il zan, ba, gure gizona. Semeak "entierro" eder bat egin zioten, Ondra edo illetak ere arrigarri ospetsuak izan ziran. Iriki zan gero kutxa zoriontsu ura... Barruan etzan auxe besterik aurkitu: Iltzeak, maillua, eta paper bat. Paper onek ara zer zekarren: Gurasoek, il arte, eztutela beren ondasunik utzi bear.

Ark bai ederki ziria sartu! Eztutentzai asko uste iltzeak topauko zituztenik! Ortik agiri da semeak, sarritan, gurasoei amaika zurikeri egiñarren, diruagatik, aien ondasunen jabedun izatera etortzeagatik egin oi dituztela itxura oik.

("GOI-ARGI", 120-121)

BIZI NAIA: "Ona emen zein dan giza-desiraren muiña: bizi nai. Baiña bizi-nai au ezta asetzen seaskatik illobirainoko bide ori ibiltzearekin; gure bizi-naiak arutzago nai du. Giza-desirak eztu elburutzat illobia, ez neurrik ta mugarik eztuen bizia baizik. Auxe da nik orain agirian jarri ta ziurpetu nai dudana, eta neke aundi gabe egin ditekela uste dut.

Nork eztu ezagutzen Lizardiren bertso ura, eta nork eztu somatu, ura irakurtzean, goitik berako astindua ezur-mamitan?

"Oi zen dan ituna / bera-bear au!

Nik ez nai eguna / biurtzerik gau!"

Bein trenean ninjoala, an trenbide ondoan azaldu zan Aretxabaletako illeria, kanposantua. Nere ondoan zegoan langille itxurazko euskaldun batek, ara zer bota zuen, ura ikustean: "Aor gure hotela..."

Beste au ere trenean mutil euskaldun batzuei entzundakoa: "Aberatsak eta pobriak, onak eta gaiztoak, danak leku batera: lur-azpira. Satorrarena, gure destiñua."

Frases auek eta auen antzekoak ez ote digute agertzen eriotzari diogun gorrotoa? Gizonak eriotza ezin du konprentu, ezin du ontzat eman.

Edozeiñek daki nolako giarras idatzi zuen gure Unamuno-k gizonaren bizi-nai orren gaiñean. Bilbotar pentsalari-sentilaria bortizki asaldatzen eta sumintzen da, arrazoiaren izenean gure bukatu-bearra erakustera datoztenen kontra. Nik bizi nai dut, ez il - dio berak -, bizi, beti bizi, eta nere nai ori erokeritzat jo bear balitz ere, ero izán nai dut nik. Gizonaren bizi-egarri ase-eziña, razionalismu narras baten kontra koldarkeri gabe ta ozenki asko aldarrikatu du Unamuno-k. Ori ezin uka, besteak beste.

"Bizia labur": orra mendez mende, nunai ta noiznai guzion aotan dabilen erasia bat. Ain erabillia ta arrunta delako, ez gaitu zertzen eta eztiogu kasu ere ia egiten.

Biblia Santuko Salmuetan ba-dira zenbait irudi berezi, giza-bizitzaren laburutasun au adierazteko: gizonaren egunak, igaroaz dijoan itzala bezala: egun bateko lorea bezala: azkar dijoan ibaiaren ur lasterra bezalakoak... Ezagun da orobat Tekuako emakumeak Dabid erregeari esan zion alako ura (2 Sam. 14, 14): "Guztiok il bear dugu eta lurrean isuritzen den uraren pare gera; bein ura isuri ezkerro, eztago, atzera biltzerik." Tá abar, tá abar.

Ain arruntak eta eguneroakoak egin zaizkigu irudi ta konparazio auek... Ez tiegu jaramonik ere egiten. Egunero-egunero ikusten ari geran etxe-aurre-ezagunak antzo.

Bizitzaren laburtasuna: orra sentimendu bat beti-betikoa, noiznai ta nunai aurkitzen dena, giza-biotzeta sakon errotua. Ta ala ere, gauza urbilla gotik aztertuaz, ezta ain errez esaera onen giltza billatzen. Bizia labur dela diogu. Baiña zer da labur ta zer luze? Zergatik da laburra giza-bizitza? Edo zer metro dugu aundi-txiki ori neurtzeko? Giza-bizia laburra da, noski, arbola batzuen edo mendien bizitzaz konparatu ezkero, Baiña abere askoren bizitzaren ondoan, oso da luze.

Gaztetasunaren erdian iltzen denak sentipen au izatea, tira, ezta arritzekoak. Baiña egunez asea eta betea iltzen den agureak? Nondik nora ta zergatik? Bere bizi- aroa bête du, egitekoak egin du, zer dela-ta dator esparrorrekin? Baiña ondo dakigu- nez, agurearen bizi-naiak ezta sekula asetzten, ez ixiltzen. Denek dakigu zeiñen bor- tizki lotzen den biziari. Bibliak kontatzen digu Jakob patriarkak Faraonekin izan- dako elkarfizketa: "Nere egunak, lurgain onetan - esan zion Jakob'ek - izan dira 130 urte: gutxi, eta eurak txarrak..."

Zer esan nai du onek? Bizia nai duzun beste luzaturik ere, beti iruditzen zaigula labur. Milla urte biziko bagiña ere, berdin izango litzake. Bai, gure atsekabe musinga ori eztator labur izatetik, buka-bearretik baizik. Or dago giltza. Ez gera kejatzen aurki il bear dugulako, il bear dugulako baizik. Bukatu bear duen oro ezta ezer! Orra gure espia ta zinkurin oiekin adirazi nai duguna.

("KRISTAU FEDEAPEN SUSTRAIAK -JAINKOA", 109 -111)

NERE OILLOAK : "Noiz arte esango det "Nere oilloak"? Gure Maider ori aspaldian
asi zitzaigun esaten: "Utzi neri, ama, nereak dira!"

Aitorruko al det? Etxeko andre naizela, ba al dakizu non iruditzen zaidan geienik? Nere oilloen erdian.

Batez ere goizean, atea zabaltzen dietelarik, eta burruskan nere oñiazpitara etortzen zaizkitanean, ziñez iruditzen zait ba-naizela norbait... Oni begira, sarien oiuka; biurriei purrustada bat, denei artale batzuk eman bear, ba-det zerregina

Eta nere burutazioak! Gure oillaskoak polit samar datozela... Zenbat oillanda izango otè oillo beltzaren txitoetan?... To, beste ori ere oillo-loka egiña. Ba-gen-dun ba oraindik arrautzagilleen premia!... Egia esan, gandor goridunak dira oraindik nagusi. Ala obe. Eta olako...

Guzti oiek irrigarri? Baditeke. Dana dala, ez nago nere lan ori iñori uztekotan, eta gogor-samar aizatu det Maider: "Arrano ori... kendu adi"... Baiñan oartu naiz alere, poliki poliki, neri laguntzen ari zala... Bestalde, Mojetan ikasitako gauzak nai lituzke etxean egiztatu... Zergatik ez? Jakintzari bere etekiña atera bear zaio. Ba omen dira oillo-motak oso arrautzegilleak, eta denpora berean aragi onekoak: ots, guk bear bezelakoak... Baiñan ez omen dira besteekin naasi bear; bistan da... Gure oilloak, berriz, zer naste-borraste! Batzuk beltz, bestea zuri, bestea orixtaia...

("KATALIÑEN GOGOETAK", 1966, 25-26)



— JUAN SAN MARTÍN —

(Eibar, 1922 —)

Autodidakta. Euskaltzaindikoa. Beargina, benetan gure eibartar au, euskal arloan: "Euzko-Gogoa", "Euskera", "Egan", "Jakin", "Olerti", "Zeruko Argia"-ta nun ez? — argitaratu ditu bere lanik geienak. Gainera, liburu batzuk be ba ditu: 1) "Juan Antonio Mogel eta Urquiza, bere biziota ta lanak" (Zarautz, 1959); 2) "Zirikadak" (Zarautz, 1960); 3) "Eztenkadak" (Zarautz, 1965): Eibar'ko izkera jatorrean, an inguru-ko "gatza"... Itzaurreak be ez ditu gitxi egin: J. Azpeitia'ren "Amandriaren alzoan"-i; Apaola'ren "Patxiko Txerren"-i; Bizenta Mogel'en "Ipui Onak"- eri; G. Aresti'ren "Harri ta Herri"-ri... Itzulpenak be bai: "Zaldun bitxia" (Le cavalier bizarre), M. de Ghelderode'ren teatroa; "Sinerako liburua" (Livre de Sinera), Salvador Espriu'ren poemak (Donostia, 1966). Olerkaria be ez ete dogu, "Otsalar" izenordearen azpian? 1964 garrenean, "Lauaxeta -Saria" irabazi eban, euskal periodistarik onena zalako; bide orri gaur be jarraitzen deutso... .

Bere erriko izkera ederto darabil beti; baiña gipuzkeraz be -berak besterik uste izan arren - ondo beregandu dau. "Es uno de los valores más destacados de la Literatura Vasca de la postguerra. Incansable cultivador del euskera, las letras vascas esperan mucho y bueno de él..." (N. de Cortazar, "Cien autores vascos", p.100)

"EUSKALDUN ZERTAKO?": (Jose Azurmendi k Z. ARGIA'n egindako itaunari erantzuna):

(...) "Euskaldun zertako?", galdeztzen duzu. Neuk bai ahal dakit zertako? Baiña naiz. Ta hau errealdadea bat da.

Zure galdera ez da horren ximplea. Sakona iruditzen zait. Neronen buruari ere maiz galdetu bai diot, euskaldun zertako jaio nintzen. Zergatik gizon, eta zergatik mundu hontan sorthua naizen galdetzen dedan bezala. Azken hauek, gizonak bere buruz erantzun ezindakoak badira ere, lehenbizikoa ere nekeza zaio bere buruz erabakitzea. Aukeratzerik izan banu, behar bada Noruega aldean edo sortzea nahiagoko nuen, hemen EspaÑi ta Frantziaren arteko muga aspergarri honetan baiño. Baiña, neronen esku ez egoanez eta hemen sortu nintzanez, bertakoa natzaizu, ta bertakoa natzaizunez, haragiz eta ispirituz, beharrezkoa sortherriaren interesekin arduratzea, bera nere haragia delako, ta ni haragi horren zati bat. Nere osasuna, nere herkideekin batean, bera osasunarekin batean dagoalako.

Nere sortherria bera ere munduaren haragi zati bat besterik ez dala? Bai. Ez di-zut ezetzik esango. Baiña bakoitzak gauden lekutik osatu behar dugu mundua. Berandu-ko euskaltzalea naiz, eta aintzifako munduzalea. Europaren osagarriak herri txikien bultzadatik ez badatoz, nagusiak alkar menderatzen bukatuko dute. Zergatik hori? Zergatik historia guztian handiak alkar artze hori nekezagoa?

Europa zaharrak ez du soluziorik, herri txikiak errespetatzeke. Ta ala ere, euskaldun zertako? Eta, zertako erdeldun? Zertako español, zertako frantsez, edo zertako inglés? Gizonaren neurritik begiratuta ere, guzia baita, Testamento Zaharrak dion bezala: "Vanitas vanitatum et omnia vanitas" (Ecles., 1, 2).

Horrela asten du Unamuno berak ere "Plenitud de plenitudes y todo plenitud!" saio-

a. Gaiñera, zù ere, ni bezala, Unamuno zalea zeranez, lan berean arkitu zezake, hau: "Cada pueblo ha ido asentando en su lenguaje su concepción abstracta del mundo y de la vida, y en la extensión y comprensión que da a cada vocablo va implícita su filosofía." (Obras completas, T.III, p. 765).

Eta berak euskerari gunik arkitu ez bazion, ez zan izan euskeraren errua, bere euskerarekiko ez jakintasunarena baizik. Ta, hala ere, zuk eta nik ondo dakigu, beren buruak euskeltzaletzat dituzten askok baiño euskera geiago ekiala.

Neuk ere behar bezelako gunik ez nion arkitu gaztelera. Gaztelera ondo menderatu nahirik eman nituen alperrikako orduak irakatsi zidatenene arbaso hizkuntzán, nuela gun hori, arima hori. Ta konturatu bezin askar jo nuen euskerara.

Nere ezpaiñak euskeraz ikasi zuten irri ta parre egiten; nere begiak euskeraz ikasi zuten negar egiten (geroztik, maiz, euskeragaitik negar eginbeharrean arkitu badira ere). Beraz, zergatik ez euskaldun, bestetariko gunik ez badut? Unamunok ziñunez: "La lengua, he de repetirlo una vez más, es la sangre del espíritu" (O.C., III, 1081). Bion arteko differentzia bakarra da, berak gaztelera arkitu zuela guna, eta nik euskeran. Alde hortatik begiratu izan dut Unamuno-ren helburua, ta horregaitik iñoi ez dut txarrera artu "La cuestión del vascuence"-n zion guztia.

Aski zaizu jakitzea euskeltzale baiño lenago nintzela Unamuno-zale, ta huntan ere ikasbide hoberenak izan ditudala. Ta, gauza hoiek agertzeko Unamuno oñiharri hartzen badut, bi gauza gaitik da: bat, arrestian esan dudan bezala, noizhait zu ere Unamuno-zale izan zeralako; ta, bi, zuk horain egiten duzun galdea, "ZERTAKO EUSKALDUN?", berak zuk baiño lehen egin zuelako ta horaindikan iñundik erantzun sakon-sakonik izan ez duelako, iñoi euskeragaitik egin danik galdera sakonena izanarren.

Salbatore Mitxelena berak ere, "Unamuno ta Abendats"-en, nere ustez zuan behar zuan bezala aztertu aspaldiko auzi hau. Neri aski izan zitzaidan berak erderaganako hartu zituan arrazoiak eurak euskerarentzako hartzea. Nere sentipenen eta nere arimanen izakera euskeran arkitu nuelako.

Ta, hala ere, pentsa zezakean bezala, hoiek ez ziran nere errazoi bakarrak. Gi-zontasunak justizia egarria ere bere ariman daroa. Gurutzan ... Ta, munduko gizon bakoitzari errespetoa ta justutasuna zor zaion bezala, era berean, herri bakoitzari ere zor zaio. Euskeran hezi ta azi giñanok zergatik ez besteak haiña eskubide?

Esango didazu gure herri ahunek ez duala hori sentitzen. Geienak ez. Egia da. Baiña, lo daudelako. Ta, ni, zigorkatu ninduen batean iratzartu nintzen.

Horaindik ez dakit ziurtasunez mundu honetan zertako nagoan, baiña bai badakit justizia hurri dagoela, eta borondaterik hoberenarekin nijoan mundu hobeago baten billa. Euskalduna naiz, eta nahi dut nere herriak euskaldun iraun dezan. Ta, ez da asko eskatzen dudana: gizon guzientzat eskubide berdiña, ta herri guzientzat ere hori bedhori. (...)

Ta, bukatzeko ere, betor Unamunoren irakaspenetikakoai: "Adueñarnos de nuestra tierra, es cobrar la tierra, independencia y libertad espirituales." (O.C., VI, 957).

Baiña, guzi hauen gaiñetik, gauza bat utsi behar dut argi ta garbi Z. ARGIA-ren irakurleentzat: ba dakidala zure galdera sakon hori ez zijoala euskeraren kontra, lo-zorroan daudenak esnatzeako baizik ..." (Azurmendi "Unamuno-zale" artzea, aitzakaria (ZERUKO ARGIA, 1967, Otsaillak, 26, 3^{garren orrialdean}). /min emoteko.../

JUAN MARI L E K U O N A

Abadea. Ikaskizunak Vitorian eta Errroman egin ditu, ta gaur Donostiako Seminarioan dago, Irakasle. Gazterik asi zan olerkiak egiten, eta orain itsu eskeinik deusku poema-liburutxu bat: "Mindura gaur". Bertsolaria bera be, ta bertsolari-zale andia, ainbat lan egin dau arlo ontan, osaba zaharraren bideari jarraituz. Oraintxe dago, egon be, sasoerik onenean, aspal-di onetan ausnartutako guztia poesiaren bides gure Erriari eskeintzeko...

(Bertsolarien) DOÑUARI BURUZ: "Zaharretakoak gogoan dute txapelketa ura: "Victoria Eugenia, 1935". Ba-da orduko gertakizun goguangarria, musika dala-ta. Txirrita-ren kidekoak musika berdintsua zerabilkiten jai artan, doretasuna galdua ta kantuzko taju eskasean emana. Asten da Lapurdi-ko Mattin... Aingeruzkoa aren doña! Seaska, kanta: "Lo-lo, ene maitea" bezela. Gaur ere oroigarri da entzuleen orduko zirrara.

Lengo igandean ere berdin gertatu da Tolosa-n. Lazkao-txiki-k, Josafat-eko zelaien, emen asarrezko zuan andreadi an ikustean zer esango liokean aditzera emateko, orixen egin zuan: gisazko musika artu, Basarri-k sortutako zortziko negartia, Bentakoa entzuleen atsegina. Izan ere, kantuzko lanean musika garrantzizkoa da. Ta trebetasun aundia azaltzen du bertso lanerako, gaiari dagokion doña ondo aukeratzen duanak.

Lehenagoko bertsolariak, bat-bateko jardunetan, nork bere doñaak zituzten. Gutxi, ori bai. Kanta-paperak jartzerakoan, berriz, aberastasun aundiagoa ageri oi da. Era askotakoak daude. Nik ez dakit zenbat musika-bira ditugun gure bertso bildumetan. Ikus, adibidez, Makazaga-ren bilduma. Geientsuenak doña ez-berdiñean. Eta nolakoak batzuek!

Gaurkoan jokaera lege beretsuetan dabil; bañan gaurkotasunak eskatzen duan eran. Bidaso'z onuntzkoak artu ditugu ibaiaz gorako ahaire zar asko. Gaur musika a-pain ugari entzuten da. Beste bertsolarizko zenbait ataletan bezela, prantsez-musika emen txertatzen ere Basarri izan da gidari aparta. Gañera, berriak sortzen ere egin du proba, lehen ahipatu detan doña negartiarekin. Baita ere ezagutzen dut Lazkao-txiki-k sortutako beste melodi bat, triste antzeko etorri aldietan erabiltzekoa.

Geroari begira zer pentsa? Gure gerokoa norañoko ta nolako leikean ezin aurre-ra-juzgu aundirik eman. Beraz, ez-dago urrutiegi begiratzerik; ez eta aldaketa sakonetan amets egiterik ere. Bakar-bakarrik, lehendik gaurrera, (euskeraz kanta berrietan arrastaka gabiltz askotan) egin leikean saltoa egin. Bilintx zanak erakusten di gu nundik-norako zuzena, bide erosoa. Aren bertso-doñaak garai artan Donostia-n entzun oi ziran kale-kanta edo abesti-ariñen melodiak, zertxu bat eratuak, ote dirala-koan nago. Ez gaude euskal-musika bilduma jatorretan, arruntetan. Bañan gaiaz ezezik, ahirez ere ba-dute berri-giroa. Tavau da gauza bearrezkoa: bertso-abestian gaurkotasuna. Bilintxek egin zuana: errromantiku eresiak erabilli, gisa ontako sentipenentzat.

¿Nola egin, ordea, musika gauzetan gaur dagoan naspillarekin? Ez da beste munduko lortu dezakegun aurrerapena. Bañan, bestea beste; ba-daude bi bide, aitatu nai

(Jarraitze)

nitzkeanak: gaurko melodi onak erabiltzea ta gure musikagilleeri melodi berriak, oraingo erara, eginaraztea. Neronek badut zinema-musika batekin paperetan emana, "Zergatik, aitona" izenekoa. Bertsoak jartzeko ba-du edertasuna; eta kanturako izan lezake, ez eztabaidarako, baiñan bai bakarrik abesten danean, alako zertxu berezia. Gure ereslariek egiañikoetan ahipa dezadan Olaizola-ren bat. Bere "Oleskari Zarra" n entzuten da "Onintza" ri errromantza egokia, oin-neurri zortziko nagusian. Nik uste melodi zoragarria litzakeala bertsolarentzat. ¿Eta zergatik ez aberastu bide onetako kantuzko soroa? Entzun dut, baita ere, dizka berriko "Pakearen urxoa" rekin bertso jardun ederra Mitxelena-ren ebotik. Auxen da berritzeko bidea: kanta berriak sortu ta, entzunaren entzunez, zabalkundea egitea bertsolarien artean.

Ba-dator, berriro, Euskalerriko bertsolari txapelketa. Musika aldetik au da esan nai nukeana. Ondo aukeratu gaia bakoitzari dagokion doña. Lan guztiak, umore-dunak eta negartiak, el-litezke grazis eman, jardunaldi berean, eresi berarekin, Beraz gaia aldatzera koan, musika ere alda. Ta gausa jakiña ba-dirudi ere, askok ez dute jakiten, gaiak azkartasuna, grazia, ta zorroztasuna eskatzen duanean, obe dala bertso laburra edo puntu motza; ta gaiak arnasa, dotoretasuna ta biotzondoa eskatzen, berriz, mesedegarri bertso luze ta oparoa. Ta batez ere, gaiaren sentipenak duan kolore bear du musikak ere: gai tristeak musika tristea, alaiak alaiak. Au eginda dator musikaren miraria: sorrera ona eman bertsoari aozko iturrian; ta sarrera obea entzuleen biotzean.

(ZERUKO ARGIA, 1964, Abenduak, 27 - 96 garren Zenbakia, 7 garren orrialdea.)

(Antonio M^a. Labayen) (77 garren orrialdetik dator)

rois'ek onela bukatzen du: "Emendik eun urtera biziko diran jendeak galdegingo dute: Nola diteke, ordea, gure aurrekoak onelako etsipen latz, desesperazio garratz, eta amildegia beltz hori onetsi ahal izate? (...)"

Sermolaritzan ari naizela norbaitek botako du. Ez da gezurra, baiñan zuberotar pastoraletan beti da azken prediku bat. Eta nera auxen da: Teatroan gizonaren problema guziak sar ditezkela; gizarteko auzi, griñak, garraztasunak. Teatroak Juztiziaren alde joka behar du, bai. Egiaren alde Teatroaren eremuan, poz, atsegina eta zoriona billa behar da. Gazteak!: Zuek ikus zer bidetatik jo! Zeon eskuetan dezute aukera. Baiñan kasu eman! Ibil zaitezte ardura, Teatroaren lege, neurri eta araupean, Goiko graziak argitzen zaituztela. Ez aztu publiko jendearentzat lanean ari zeratena. Eta Teatroa, guzion antzokia, ez dala "bourrage de crâne" egiteko lekua. Kezkaz erein, bai!, kasketarik ez ordea! Ez sakristi kasketarik, eta ezta demagojia kasketarik. Zaitezte elkarkoi ta ez asarrekoi; bihotz-zabal eta ez zimadarraio. Eta onela teatro-jai, antzezkizun sakon ederrik, ikusgarri alai ta altxagarririk gertuko dituzute. Garatzak, behar bada; baiñan beti teatrotasunean (...).

("EGAN", 1-6, 1966, 3-19)

J. ARTELTXEA (90 garren orrialdetik dator): "Ba-nuan gogua! Gure asteroko maite ontan berriz asteko irrikitzzen negoan. Astero-asteroko artikuluak eman go dizkit lanak emendik aurrera. Ori ez da posible izango. Baño noizbeinka oraindik emen izango nazute. Gure Jainko onak nai duan arte."

(ZERUKO ARGIA,

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANZA "TXILLARDEGI".

(Donostia, 1929 -)

Ingiñerua. Euskaldun barria: 1945 ganean asi zan euskeraz ikasten, eta gaur Euskaltzaindiaren Urgazle edo Laguntzaillea da... Gaur Euskalerritik urrutibizi bearrean aurkitzen da, Bruxelles-en... "Egan"-en asi zan euskeraz idazten, 1956-an, ta ondoren "Euzko-Gogoa", "Herria" ta beste aldizkari batzuetan be idatzin dau.

Euskal liburuak: 1) "Leturia'ren Egunkari ezkutua", novela, Bilbao 1957; 2) "Peru Leartzako", novela, Zarautz, 1960; 3) "Huntaz eta Hartaz", sayakera, Baiona 1965... .

Txillardegi k giro barri bat sortu dau euskal literaturan: gaur eguneko gizonen kezkak, larrigureak, pentsakera dakinuez bere eleberriak, bizi ta gordin... Ez da, bada, arritzekoa, gure artean sortu daben ezta-baida gogorra: txalo-otsak alde batetik; bekoki illuna, bestetik:

- "Gizaldi berria -Txillardegi eta bere seme Leturia artzen ditut egia oren lekuko - gurea baiño obea, jatorragoa, iruditzen zaiz zenbait aldetik. Itxurak eta izen ederrekin gu baiño gutxiago lotsatzen dituzte: izanari lotuagoak ageri dira izenari baiño. Badute egiari (iguzki-argia baiño lilluragarriago den egiari) aurrez-aurre begiratzeko ausardia. Naimen-kemena eztute aitua; badakite erabaki gogorak artzeko jaioak direla, baiña eztituzte nolana, ero-eroan, artuko, ezpaitituzte gero erdizka eta gogo gaiztoz bete nai. Gure artean dabiltsan ideak eta balioak erroetaraiño ikusmiratu nai dituzte. Kritika eta eraberritzea geron kaltean izango badira ere, orieken bearrean gaude... eztut uste iñoz gure izkuntzan entzun denik orrelako itz larrirrik, orren ziñezko aitorrik, orrenbesteko karraxi sarkorrik. Eztegu sekula egin, itz batean esateko, Leturia'rena bezalako ibillaldirik gogo-bideetan barrena" (L. Mitxelena, "Leturia'ren...". Sarrera, 10. 14)

- ORIXE'k, ostera, "Leartzak" ren alderdi onak autortzen ditu: "Leartzak euskeraz badaki, ez gutxi ere: iztegi aberatsa du, esaera ere bai; ba du eragiña, ba-du zartzua (garbo); ba ditu, parrafo bat baiño geiago, euskal-idazlerik onenak bere egingo litukenak. Bakoitza berea..."; alderdi txarrak jorratzen be ba daki: "baiña utsak ere ba'ditu erruz. 323 uts, irureunda ogeitiru, 152 orrialdetan. Lapitzez markaturik dazkat liburuan bertan... Txillardegi k bere liburua onela bukatzen du: "Arrazoi zenuen: burutik egiña dago" (Leartzak). Nik ere artikulua onela bukatzen det: "Liburu au buruz egiña ordez, burutik egiña dago. Baztartu ezazute zoko illunera." (Yakin, 1, 1960)

- Ta Jose Azurmendi'k: "Nobelak oso gutxitan billa diteke Txillardegi'ren onetan (Leturia'renean) ainbeste Jaungoiko gose. Baldin kristau nobelarik badago, zeiñek ukatu leku bat aien artean Leturia'ren Egunkariari?" (Jakin, n.20, 45)

NEGU.- 3 - : "Sekulako arkikundea egin dut. Leengo egunean esaten nuen bezela, gaztetu egin nau mundu berri onetan murgiltzeak; eta berriro bere zorion-azkure biziak. Aizearen olerkia dastatzeko gai naiz bigarren aldiz, leen baiño geiago noski: gaur bezin xamurkiro ez nau itzalaren ozkirriak sekulan laztandu.

Argi ikusi dut gaur, eta biotz-utsunearen sustraiari igarri diot: Jaintxoaren egarria da gizonaren zorion-miña. Zerbait Absolutu bear zuen nere biotzak, Artan atsedena ta atsegina edateko. Betetasuna bear nuen, osotasuna, gelditasun osoa, pake egi-

azkoa, egia utsa, denetatik dena. Nola bete nintzake emakume gajo batek? Nere egarria bera zuenak palakatuko al ninduke agian?

Nekez bete dezake mugadun sorkariak mugarik ez duen arrenkura. Ezin bete nintzake Miren'ek, ezta beste emakumek ere... Erlziejko da berez gizonaren utsunea, ta ez dauka mundu onetakoaz asetzetik. Ez naiz, bada, emakumez naastu, ez. Ziur dakit orain... Ederki ulertzen dut lillurakin gertatzen dena: beti izaten da lillura lortzea baño ederragoa. Bestetan esandakoa: ametsen azpian geratu oi dira egiñak. Ez da arritzekoak: absolutuak elikatzen eta moldatzen ditu ametsak, irudimenaren bidez. Maitemintzen geranean, esate baterako, ez du amesquia andregaiak sortzen, gure Jainko-egerrak baizik. Orrengatik apaintzen dute maite-miña andregaiak berak ez dituan gauzak, oarkabeen, absolutuari ditxezkon gaitasunak geuk ezartzen dizkiogulako...

(LETURIA ren EGUNKARI EZKUTUA, pp. 116-117)

("Guateke" batean): "Etxe dotorea zuen Errrodrigo arek, eta ni nintzan batzar artan txiroena segurki. Neskak oso apain, alajainkoak. Ana Mari ikusi nuen: ederra. Baziran beste bizpairu neska, ikustez nik ezagunak. Danak agurtu nituen irribarrez, baña zer esan ez nekiela. Geroxeago Monique azaldu zan arà, frantsez neska xarmant bat; eta beste. Monique zitzaidan guzietan maitagarriena.

Asi zan ba musika. Eta asi ere zan jatea. Danok, diximulatzekotan nere ustez, jan eta edan ari giñan jo ta ke; ez jateagatik beragatik, arratsaldeko sei t'erdia bantziran. Baña jate berean ez omen dago itzegiterik; eta auxe zan kakoa. Zer esango genion bestela alkarrri angoak?

Monique'kin atsegíñez itz egin bai, ahal ba ledi. Alere berandu nenbillen. Gero jakin nuenez Erramun'ekin ateratzen zan azken bolada artan, eta maiteminduta omen zebillen berakin. Ortaz, deus ere.

Ana Mari'kin mintzatu nintzan. Oso atsegíñea bera. Baña dantzan oraindik, iñor etzala-ta, enuen nik aurrena irten nai, eta an ziran batzuk berakin dantzan ni baño lehenago, eta konturatu orduko bakarrik nintzan, dantzariai so, eta kopa bat eskuan lagun.

Nere txanda eldu zitzaidan noizpait, eta ango batekin asi nintzan dantzan. Ordu rako nazkatzen asia nintzan, ezpaitzan an nere gustokorik, Ana Mari eta Monique beserik. Gañerakò guziak etzitzainaizkidan atsegín, eta dantzan nerekin asi zana ere ez. Are geiago: neke egiten zitzaidan berakin egotea. Etzan egun artako kontua, ez: beti gertatu izan zait ori.

Eta nolabait jolastutze arren, gauza arrigarriak esaten asi nintzaion. Bestela, zer egin nezakean?

- "Guateketan" eta olako zeratan, biziki jolastutzen diranak pena ematen di date, Benetan esaten dizut.

- Zer ba? - berák.

- Begira. Alaitasunez geiegitan itzegiten dutenak, tristerik dute barnea. Baña, zergatik izkutatu bear tristura ori? Zergatik egin bear festárik eta ezer? Esango dizut nik zergatik: tristatzeko zorian ezbaña, tristerik daudelako! Tristerik e gonda ordea, ez dago zer izkutaturik.

- Ez dizut tutik ulertu.

- Ez da arritzekoak. Gaizki azaldu dizut. Onelako bilkurak eta jaiak diranean, badirudi parrez eta algaraz ibiltzea zaiola gizonari atsegíñena. Alaitu egin bear

dala, alaitu. Baña zergatik alaitu? Tristerik daudelako, eta tristerik daudela esa-teak lotsa ero bat ematen dielako? Gure tristura ori ager ez dedin joan oi gera jai-etara; bizi-bizirik dugun larritasuna bein eta berriż estaltzekotan. Baña zarata aun-diagoa izan, eta mingotsagoa eta sakonagoa dator gero larrimiña."

Bukatu egin zan diskoa. Nerekin zegoen neskak arriturik begiratzen zidan. Pasa-doble edo olako zerbaitez asizan; eta ez berari, eta ez neri dantzagiteko atsegin etzi-tzaigulako, exeri egih giñan.

- "Segi, segi" - esan zidan berak. Ez alere nere solasa ajola zitzaiolako, itxura egiteagatik baizik. Berari ere lotsa ematen zion aspertzen zalakoa egiteak, jendearen aurrean batez ere, eta bestek alai ikus zezaten, nere lagunak batipat, irribarrez begiratzen zidan eta azalpenak eskatzen zizkidan. Baña nerea, edo beste edozeñen solasa etzitzacion ajolarik. Berak uste izan ez arren, bistan zan bere azal-keria.

- Txoroa ote zeran nago.

- Ez dut uste. Zalaparten ondoren, esanai lotzeko, larrimiña darraikie. Eta anitzek uste du jaiak sortua dela. Ez orixe. Zaratak eta zarata-ondoak agertu egiten dute lehen eta gero ere dagoen illuntasuna. Besterik ez.

- Bai. Baliteke. Baña ez dakit.

Parre egin nuen. Etxekien, ez; uraxe zan egia.

- Buruari eragiten ez diozula ezagun duzu, nere ustez... - ekin nion zirika. Orduantxe konturatu bide zan zerbaitz, eta oso gaingiroki eta asarre antzean, eran-tzun zidan:

- Naiago dut, olako txorakerietan denbora galdu baño.

- Bapo! Zuk ere tristatzeko bildurra duzu. Eta orrela etzera ezertara iritxi-ko: saldukeria egiten diozú zure buruari.

- Naiago dut alere - gogorki.

- Ba, atsegin-molde bat galdu duzu. Tristatzeko eta barnea goibeltzeko atse-gin bizia.

- Arrozko bat zerala uste dut. Ez besterik.

- Baliteke. Faña esan dizuden guzia egia utsa da. Ez da nik esana: askok pentsatu dute berdin. Idazlerik ospatsuenak bi atsegin-min oiek nahasiz egin dituzte beren lan ereduak: atsegiharen irrika eta atsekabearen gogoa. Biak; ez lehenengoa bakarrik. Negar eragiten duten filmak eta idazkiak arrakasta aundia izaten dute. Zuek, emakumeek batez ere, gogoz joaten zerate malkotan itotzera.

- Idea arrigarriak dituzu - esan zidan berak -. Eztakit... eztakit... Bildurra ematen didazu. Zuk geiegi eragin diozu kaskoari.

"Eta zuk gutxiegi" erantzuteko zorian ibilli nintzan. Baña eskuratu egin nuen nere burua, eta esan nion:

- Zergatik "geiegi"? Zergatik ikusten dira gaizki "geiegi" pentsatzen dutenak; eta burua orraztutzeko besterik ez dutenak, berriż, ondo? Zerorrek aipatu duzu zioa, nik uste: gu "bildurgarriak" geralako, eta aiek ez. Guk zuen sasi-pakea astintzen dugu, eta ori etzaitzue laket, etzaizue eroso. Zuek - odol bolada bat nabaitu nuen barnean - naiago duzute trankil bizi, zuen gezurrezko munduari eutsi, eta elizara joan. Alere askok, egiaz itzegingo ba lute, mundua gorroto dutela, eta mezatan fol-klore-ikuskari besterik arkitzen ez dutela aitortuko luteke...

- E? Baña zer diozu, ero orrek? - ebaki zuen.

- ... Eta au aitortzeak uryduri edo parragarri utziko lituzke - ekin nion nik, nere pentsaera ondo borobildu haiean.

(Amaitzeko)

Orduantxe alde-egin zidan berak. Eta bere ikarak atsegina eman zidan. Monique rekin ez ba zan, banuen beintzat jolas-modu bat... Eta geiago kezkatzekotan ekin nion, besotik eskuaz lotzen nuela:

- Jainkoarekin itzegitea gauza ederra izango litzake. Ni joan izan naiz elizarik bikaiñenetara, Jainkoari entzuteko asmotan ain zuen. Bearrak eraginda joan izan haiz hi; ez citura zahar bati jarraitzeo. Baiña beifere ez dut ezer entzun; eta zuek siñistunok azterturik, azkeneko itxaropen-printzak iraungi zaizkit. Otoitz egitea ederra izango litzake Jainkoia ba...

Askatu egin zitzaidan. Neska gajo arek usandutako gorputz bati bezela aldegiten zidan. Ni munstro kirats bat izan nintzaión. Guateke batean eta orrelako gauzak esaten... Konturatu egin nintzan, eta bere ondora joanik, zirikatu naiean, esan nion:

- Adizu: atsegina al zaizu "fox" a ala "samba"?...

- Utz nazazu pakean, mozkorra! - Eta berriz ere joan zan neregandik.

(PERÚ LEARTZAko, Zarautz, Itxaropena Argitaldaria, 1960, 6-9 orr.)

"...eztela itz ozen eta esaera apaiñen adiskidea, biotz-erraietatik dariola mintza-bearra. Bere idazlanak beti izan dira giam zorrotz eta trinkoak; eta oraingo liburua ezta gutxiago. Are trinkoagoa eta izkutuagoa deritzat nik beintzat.

Auxe esango det aurrenik, neretzat argi ta garbi dagoen ezkerro: bizirola alaitzen nau, besteri besterik iruditzen bazaio ere, liburu ori euskeraz idatzia ikustea, bizi-bizirik dugulakó seiñalea baita. Bizirik badago, gaurkoa bada, egungo eguneko arazoak, gogoetak, kezkak eta naigabeak bear ditugu adierazi; gaurko edertasunez jan-tzi nai badu, gaurko lokatzetan bearko du zikindu. Amets zoroa litzake, pakezko Arka-dia miragarria bateko izkuntza errugabea bezala gure mendean iraun dezakeanik sines-tea...

Txillardegi-ren euskera ezta, heré ustez, utsik gabea, baiña liburu onetan ere ederki bête du egitekorik gaitzena: bizkor, zailu eta erraz mintzatzea... (L. Mitxelena, EGAN, 1950, 101-2. 106).

(123-garren orrialdetik dator): (... GERNIKA ko KANPOSANTUA)

"Jainkoak Adan-en bidez / zigorkatu ginduzanez
bizi izan zaree munduon/ pena asko ta poz eskasez.
Zerua irabazi dozue, bai! / nekaldi horren ordainez".

Eta Altube maixuari ez zaio falta Arresti ikasleak beldur zuena: "Mármoles Guernica. La Vega."

Etxetxoz betea dago zelai hau. Beste mundurako nahi genituzkean aterpeak, agian. Bantuen ustez, Jaungoikoak Izadia oso ederki egin omen zuen, baiña, presaka zebillelako nimbait, punta batetik ez zuen bukatu, eta han zulo bat gelditu zitzaión. Nor lehenago, nor geroago, denok zulo honetatik jausten gera: ta zulo hau heriotza da. (Lufuluabo, Vers une théodicée bantoue). Bene-benetan berdinduko gaitu heriotzak, Jaungoikoaren altzoan. Arrazoria zuen ba gure Ayala-ko Kanzillerrak: "Gero heriotza dator, guztientzat berdiña".

Txikia nintzanean, galdetzen nion nire anaia zaharragoari (mútiko hura ere) zer-gatik egiten zituzten panteoiak. Eta haietan gorputza harrik janagabe xehatzen zela, erantzun zidan. Baiña Shakespeare-k dio panteoi zoragarrienetan ere ez dela harrik falta. Gure Xabin-ek esplikazioa behar zuen, ta hau asmatu. (80-garren orrialdera)

JOSEBA LINTXAUSTITI ERREKONDO

(Segura, 1936 -)

Praille frantziskotarra. "Jakin" aldizkariaren zuzendaria izan zan urte batzuetan. Euskaltzaindiaren Laguntzailea. Orain Barcelonañ dabil, "Filosofía y Letras" dalako orren ikasketak egiten. Ainbat artikulu idatzi ditu idazle gazte sutsu onek ("Anaitasuna", "Jakin", "Aránzazu", "Egan", "Euskeria" ta beste aldizkari batzuetan). Filosofi-gaiak eta jakintzazkoak erabili ditu batez be; olerkari lez be agertu jaku, ta 1965 ganean. L'go saria jaso eban "Premio de poesía universitaria vasca"-sarietan (ikusi olerki ori "Aránzazu" aldizkarian, 1966, abril, 23-25). Euskal aditza be sakon aztertu deusku bere "Euskal-Aditza" liburuan (Arantzazu, 1960); gero, orren laburpen bat eskeiñi deusku beste liburutxu onetan: "Las 7 Lecciones del Euskal-Aditza" (Zarautz, 1965) ... Gazterik sakondu dau onek euskerea, ta surrerantzen bere lanen zain dago euskal-kulturea... .

(Oarra: Ba dakit neuk be, onelango Lorategi baten, beste artikuluren bat obeto etorriko zana; baiña, jakingarri deritxodalako, beste lan astunago, baiña sakon au aukeratu dot. Ez jaku txarto etorriko gure euskal-eskoletarako!)

"EUSKERA BATXILLER-MUTILLENTZAT: (...) Batxilleratuan, Euskera irakasteko, behar-beharrekoa dugu Poesia ematea (Poesia, ez da emen bertso. Aipatzen duguna literaturaren argia ta ederra da: Jainko-izadien gozoa ta lillura hitzetan elurtu ta isuria. Mintzaira, poesiaren mirariz, eder bilakatzen da: horra literaturaren jatorria).

I.- Zergatik behar da poesia? : I.- Giza-bideek eskatzen dutelako. - Giza-izakia osotasun bakar bat da: adimen-irudimen - edermen -oroimen - nahimen - zentzumen... Guziok gizakiak dire ta sakabanatueztiñak. Arimari ahalmen-zirrikitu batetik, hau da, gramatika utsez, mintzatu nahi izatea zozokeria bat da, gizakontrakoa.

Gizonaren arima dantzari-taldearen idurikoa da, ta bere barne-bizitza jatorra makilla-dantza bat. Doiñu bakarrak zortzi-hamabi gizon jartzen ditu dantzan. Bakoitza guzientzat ari da, ta ez dezake iñork bere-kasako dantzarik asma; doiñu bakarraen deira talde osoak erantzuten du, ez denak berdin, baiña bai orok elkarrentzat. Honeatsu da giza-arima ere: ahalmenak ez dute sekula bakarkako aurreskurik. Ideia batek, sentimenduak... ahalmen-talde dena jartzen du ekiñean eta batabestearen zerbitzuan. Halakoxea da giza-izaera.

Norbaitek gure arimari dei egin nahi badezaio, ez dezala ahalmen bakarrantzat soillik izan liteken doiñuriak jo, gizonaren batasun-kontra ariko bailitzake: gure ahalmenak elkar-nahasiak daude ta, hizkuntza bat erakustean, gizon osoari begira jardun behar dugu.

Gure barnean, giza-izate osoa esnatzen da egunsentiko xori-txiuntaren deira, ideia baten sorginikeriaz; millaka burutapen zahar iratzarriko dire hitz-berritze bat eragitez. Eta sentimendu bakarrarekin ere berdintsu: lehenengoaren ondotik milleiartzun jeikiko dire arimako ahalmen-ibar eta haranetan. Gizona, beraz, ahalmen guziekin ari da bere ekiñean: osokiro.

Giza-moldadura ta izan-modu hau ukaezina da. Gizona ez da apalaz osatutako gela bat. Euskal-irakaskintzak gizonari begiratu behar dio, ta ez arima barnetik larrutu ondoren, onen azalarekin, adimen-larruarekin, gelditu. Euskera ez dezakegu eraman

gure arima-gelara urretxindor triste ta mutu baten antzera, kaiola itxi batean. Ideiek eta sentimenduek libre behar dute izan arima-kolkoan. Xori librearen iduriko (hizkuntzak gure gizatasunari zor dion zerbitzuan leial, gramatikakeriak ahazturik), euskerak zero ozkarbi denak kurri behar ditu aldenik alde. Gramatikakeriak, teknika delako, barneko euskal-oiartzunak esitu egiten ditu ta hil. Ez gaitezke, ba, hemen geldi. Hori ere bai, hori bakarrik ez. Bestela, delako euskaltasun batekin, euskeraren eta gizatasunaren traideore ta saltzaille izango gera. (...)

Kofesa dezagun: euskerak umanismo-lana egin behar du. Euskerari sakontasuna eman behar zaio gure izpirituetan; gure mintzairari giza-goibearen neurria zor diogu, giza-leialtasunez jokatu nahi badugu beintzat. Euskalduna ez da lehenen gizon eta ondotik euskaldun, konejuak lehenbizi abere ta ondoren koneju ez diren bezelaxe. Giza-errrotik bertatik dator euskalduna euskaltasunez jantzia. Ta gizatasunari dagokion sakon-zabaleko euskera eman behar zaio ikasleari. Hau nahi ez baldin bada, aitor dezagun gaurgero gure euskaltasuna, zenbait udaratiarren antzera, galtza motxekin uzteko asmotan gabiltzala.

(...) Giza-arimaren erdi-erdian, bihotz-bihotzean, zuzter-zuzterrean landatu behar da euskeria, hortik denboraren poderioz sustraiak izpiritua guzira zabal ditzan. Honela, landareak gogo osoaren zumoa izango du, edozein gogo-izpi ikutzea euskal-zuzter bat mugitzea izango da. Orduan, euskeria barnetik deserrotu nahi lukanak, arima osoa oiñaze-samiñetan jarriko luke. Gure gizaera euskeraz mamitzen badugu, hizkuntza umanismu bidez eman zaigulako, ez da munduan gu deseuskaldundu gaitzaken indarrrik. (...)

Ta hitzak? Zer dio hitzak guk darabilgun honezaz? Hitza beti izan da misterio. Bere baitan giza-izpirituaren beraren taupada daramaki, hitzaren erraietan bizia isuri bai gizonak. Hitza ez da ideia soillik, ideia mai-temindu ta enamoratua baiñ; ideiari gizonaren sentimendu, irudipen eta intziriak erantsi zaizkionean, hitza argitara jao diteke. Iñorengandik hitza jasotzean, Giotto^k eta Spagnoli^k pintatu diguten hura berritzen da. San Frantzisko^k hitz-egiten die bere xoriei ta, bukatzearekin, han doaz denak egalari munduaren lau parteetara. Horren pareko zerbaid dugu guk ere izpirituetan: hitzaren ideia atzman orduko, isilpeko sentimendu aunitz esnatuta egadan doazkigu arimaren urdiñean. "Ama" esango zait, baiña ama hori ez da mundura gizaki bat ekarri duen emaztekia bakarrik. Hitzak inguru oparoa du: honela edo hala maitatu nuena da ama; egun batez eskoba-kirtena nere iztarrean hautsi zuena; bestean, gaixo ta triste nengoelarik, lau musu luze eman zizkidan emakume maitagarria... Bai, hitza sentimenduz troxaturiko idea da, ta areago, zenbaitetan sentipen hutsa ere bai.

.Gramatika sentipen-iturri izan ote da iñioiz? Euskal-aditza naiz sufijoak ikastean, bihozkada asko jaso ahal dituzue gramatiketatik? Behin egin dut gramatika-lan bat, baiña amodio-gose zeratenok ez joan, mesedez, hara. (...)

2.- Biderik baliotsuena dugulako: Ederra maitagarri denez, berebiziko importantzia du urteotan. 14-17 urteko gizona maitasunera jaiotzen ari da. Bere bizitza arrosa-pilpira gorri asea dabil, eta maitagarri orori besarkatu nahirik bizi da. Honegatik, indar eta egarri hauezaz balia gaitezen euskeraren onerako. Baiña gure euskalklaseetan eder-maitakizun gozoen ordez, gramatika-ozpiña eskeintzen badiegu, segurki ez dugu gazte-multzo haundirik irabaziko.

Eder-gose hau euskeraz asetzan bada, sekula-sekuletan maitatuko dute gure ikasleek arbasoen hizkera, eskerronez begiratuko diote. Ederraren bidea lora-bidea da, poz-iturritz ezatua. Hementxe dario gaztetxoak behar duen lilluramendu-arno gozoa.

Zillegi balitzait, edertasuna mistikuen gezi leguna dela esango nizueke. Gomuta Santa Teresa'ren gezi--zauritzea. Behin jasan duenak, betiko du barnean.

Gramatikakeriak elkorra direlako ere behar dugu literatura. Zergatik ez ditugu ba, emango beharrezko zaizkigun hizkuntza-arau horiek azukre gozotan bildurik? ...

Euskal-poesia oparoa da. Ez diteke idoro euskal-literaturam ezer helduagorik. Orain aipatzen dizuedan poesia, bertso-poesia da noski. Hain zuzen, urteotan, Batxilleratoan, behar dugun literatura-mota da gure artean mardulena. Ba-dago nun autaturik. Hori bai: aukeratu egin behar da, ez baitago (nik dakidanez) ikastoletarako behar litzaken antologiarik.

Mutilleri lehenbaitlehen erakutsi behar zaie gure poesia, beren gogoentzat eder-bazka nun topa dezaheten adieraziaz. Ederzale baldin bazerate, segur naiz: ba-duzue olerkari autaturen bat, zuentzat oso-osokoa dena, zuen eder-egarria asetzeko ur gardena. Nik ba-ditut nereak: Juan Ramón, Tagore, Otero, eta liburuetatik G. Diego'k eratutako "poesía Española Contemporánea, Antología" erderazkoen artean. Easkeraz, berriz: Aita Gandiaga'ren "Elorri" ta Josepe Azurmendi'ren poema argitara-gabeak. (...) Idek ditzagun gazteen izpiritua, bihotz-kutxak, hor kolkoan, ederraren ditzira sar dakin-en. Ta bereziki, erakus dezaiegun Euskal-Herrian ditugun aberastasunak, milionarioak baigera poesian. Txunditurik geldituko zaizkigu, gaiak eskatzen duen jatortasunez agertzen badiegu. (...)

Euskera etorkizun-argipean jarri behar diegu gure ikasleeri. Ba-dela hor bide ederrik adierazo behar zaie mutillei. Zein mutikok ez du, noizbait, berekiko esan: "Nik idazle izan behar nikiek...", ta agian geixeago: "... kapaz nauk-eta". Ilusio hau ez da agian aitortuko, baina bai barnean, txinbeleta maitagarri baten antzera, begira-begiratuko. Epitetu polit bat eman dehean nahiz laintxo egoki baten ostean, nolako poza mutillarena: zer esango ote dio, gero, maisuak?

Gaztea jaioko da, bai, egun batean eder-mundura, hau ere jaiotza baita. Oi euskal-klasean izango balitz! Lehen eder-musu hau euskeraz balitz, harrezkero hor gēnuke izadi oso bat euskaldungoaren alde. Izan ere hain da hunkigarria memento hori? (...)

II.- NOLA EMAN BEHAR DA POESIA?: Hamaika t'erdi era ta modu ba-dire edertasuna zabaldu ta aztertzeko, baiña horietatik denak, edo gehienak, hiru hauetara erakar-litezen. Bide hauetan ez dire euskerari bakarrik dagozkionak, hizkuntza guzienak baiño. (...)

a) Eder-gosea piztu, ederraren zaistada sentiarazi. Arrestian aipatu dudan eder-sentimendu horretara heldu. Hau agitz importantea dela uste dut, eta gero etorriko direnetarako lehenen mailla. (...)

b) Ederra sortzeko teknika: ez eder-etorria lotzeko, aurkezpen-erosotasunak emateko baizik. Betebehar hontarako egokia da benetan Correa-Lázaro'ren liburuxka... Bai egoki etorriko litzaiguke holako zerbait euskal-atalei ezarria!

c) Izadia ezagutu ta hizkuntza aberastu: Aita Rizzi-ren jardun-bidea aproposa da honetarako. Zoritzarres, hau dena aurrera eramateko ez ditugu iñun, Euskal-Herrian, beharreko geinituzken hiztegi ta liburuak, eta zahartu ere egingo gera dena ardietsi arte...." (Azken-oarra: Lan au osc-osorik irakurtzea mesedegarri izango litzake, batez be euskal-maisuentzat; emen, atal batzuk baiño ez ditugu emon...) .

("EUSKERA BATXILLER-MUTILLENTZAT" = "Euskeria", VIII-IX, 1963-4, Bilbao, 408-440)

— JOSE A Z U R M E N D I O T A E G I —

(Zegama, 1941 —)



Olatu barriko euskal-idazleen artean, praille frantziskotar auxe dogu aurrenetarikoa: gazterik agertu dau bere burua euskal-arloan, eta oler-kari lez ez eze, prosista lez be guztiz nabarmendu da urteotan (zoritzarrrez, poesirik geienak argitaratu barik daukaz oraindik...). "Jakin" al-dizkariaren Zuzendari be izan da urte batzuetan; eta, ortik kanpora, "E-gan", "Olerki", "Aránzazu" ta "Z. Argia"-n emon ditu bere lanak. Azurmen-di'ren izkerak ba dau alako indar eta bizitasun berarizko bat. Bere oler-kiak gorenengo maillakoak dira (A.Gandiaga'ren "Elorri" liburuko poemak be beronek aukeratuakmdira, eta beronen azalpenak daroez). Orain Alemania-tik ei dabil, Filosofia ta Psikologia ikasten..., baiña euskera alde bate-ra itxi barik eta kultura-mailla batera jaso gurarik.

... GERNIKA-ko KANPOSANTUA: "Azkenengo aldiz etorri nintzanean, euri ari zuen, eu-ri landar xehe biguna. Gaur ez. Atea zabaldu ta nire aurrean, hilleri berriko zelaia, erdi-erdian monumentua tente duela, harrizko begi-rale: "... Reposen eternamente los restos de 163 españoles que ofrendaron glorirosamente sus vidas por Dios y por España en la Cruzada...". Victorio Orozco, Fernando Casimi, Mohamed Sin Tichia. 28: X. 32: Hebur Rauritz. 77:soldado X. Harrizko sua la aldeetan, haizeak igitzen ez duen oroitzapen su gogorra. Zaudete pakean, gudu denak behin betiko shazturik.

Beste ate bat, eta hillobiz betetako herritxoa. Familia de... Propiedad de .. Honeraiño ekarri dugu jabetesuna. Jabetesunarekin, differentziak. Hillobi tristeen parean panteoi bikaiñak, eskultura ederrak. Eta "vanidad de vanidades y todo lo de acá abajo no es más que vanidad", Etxegarai-tarrak gogoratuta. Heriotzak denok ber-dintzen gaituela esaten zen. Baiña hemen ez. Egur xahar batean irakurtzen dut: "A-quí yasen..." S-rekin, eta apal apal. Aruntzago: "Aquí esperan la resurrección y e-terna vida los restos mortales del Exmo. Sr. D. ... (Adorador Nocturno Honorario, Caballero de la Gran Cruz de San Silvestre, Ex Senador del Reino y Ex Diputado a Cortes, etc.) "Pallida mors cequo pulsat pede pauperum tabernas regumque turres."



Heriotza engaiñatu ote dugu? Ez. Behin berriro geure buruak engaiñatu ditugu. Beraz, zergatik harritu kanposantuan naturaltasun haundienaz badabiltza oilloak eta txitak? Lehenagoz etorri nintzanean asko miretsi nuen hau. Orduan, egin berria ze-goen hillobi bat lurrean, eta lur atxurtuan oilloak zebiltzan mokoka. Bi panteoie-tako gurutze arteko soka batetik esegita erroga mordo bat, legortzeko asmoz ipiñita noski. Ta euri ari zuen.

Euskerazko bai gutxi batzuek. "Z-ren sendia". Panteoia iriki ta barrura begira, "ba dago denontzako lain toki", esan zuen nire laguntzailleak. Bai, tokia hobe izan-go da. Ta halare iñoi gertatu da hillobietatik barrukoak atera ta hillobioak saltze-a. Ta ez jabeak, kontrarioak baizik.

Hemen dago Jon Arrospide, Jesukristo-ren irudi zuri marmolezkoa begirale duela. Han, kapera ezkerrean Etxegarai-tarren hillobia: Carmelo Echegaray, Bonifacio Eche-garay. Ta, ezkerrerago, Seber Altube. Aingeru esku harritzoduna organoa "Abendu san-tu onetan..." jotzen ari zaio, betiko loa gozatzen. "Jaubea. Altube-tar Seber." Ber-tsuk hillobi buruan:

(119-garren orrialdean amaitzen da).

-- XABIER L E T E --
(Oiarzun,



"Gazteri berrizaleetarikoa" dogu X. Lete: poeta bikaiña (Azkenengo urte-ditu biotan berak jaso "Agora"-sariketako lenengo Sariak.), "Ez dok amairu" taldeko abeslari ta letra-jartzaille, teatro barri zalea... Zoritzarrez, bere olerkirik geienak argitaratzeko dagoz, "argitaratze hori egin leza-kétnerei bost ajola zaielako...". Inprintak, editorialak, nun daude? Nun dago euskal kulturaren alde jarri bear litzaken dirua. Nik idatzi egiten dut; baiñan ez daukat sakelean nere lanak argitaratzeko sos bat ere. Beste batzuek ba dute..." (X.Lete). Itz lauz - nik dakidala, beintzat - ez ditu lan asko argitaratu; baiña bai artikulu bizi batzuk "Z.ARGIN"-n... Euskaltzaindikoa Laguntzaillea da. Gure arteko gazte askoren kezkak, pentsakera, amesak, or agiri dira, gordin eta bizi, X. Lete'ren lanetan...

GAUERDIKO EZKILA URTE ZAHAR ARRATSEAN, REQUIEM : Ez det ezer esango. Ez det i-

tzik egingo. Ixiltasunaren beste

arpegia begiratzen badezu, an ikusiko dituzu nere esplikazioak letra haunditan eskribituak. Eguna baiño geroago eta gaua baiño lehen. Eguzkia gorri-gorri jartzen den ordú limite horretan.

Bein gizon zuzen bat jaio zen, eta, ill egin zuten ezkerro, ez det ikusten zer arrazoi dela medio, modu aldreibes honetan bizitzen jarratu behar dагun.

Biar urte berri bat asiko da. Bai, ta zer? Orrek ez du ezer konponduko. Baiña... Tira, tira; ez gaitezen engaňatu, ez gaitezen sentimental jarri. Ipui kontari asi ezkerro, nik ere politak esango nituke. Nola nere lagun Luis, joan zen udaberriaren asieran, automobil batean maiteñoarekin batera il zen. Nola Kristo elizatik bota duten. Nola Viet-Nam'en... Bai!

"Din-din - dan, Maria ta Joxepe Belen'en..." Bai izar polita, bai aingeru ipurpotxolua, bai bisigu ederra, bai... Euuup. Tira ba! Tori bikarbonato. "Pro Navidad del pobre'ko limosna eman dezu?" Bueno; ondo dago. Dena ederki dago. Uum! Bai kapoi ederra. Biarko, e? Ederra da mundua, arraiua!, benetan ederra.

Eta mundua hain ederra den ezkerro, nere lagun Luis'ek esaten zizkidan gauzhaiek ez ditut kontatuko.

Dorreko ezkilak amabi ezkilots joko ditu laixter, eta munduaren bihotzari eten zaizkion amabi negar-zotia izango dira. Aitzondo'ko errekan ito ziran amabi dontzellen abesti sorgingarriak bezela. "Gauerdian nigatik galdetzen badezu, atoz bakardera; an arkituko nauzu, ixillik."

Zeruan kolore askotako farolak pixtu dira, eta kartoizko zugaitzetatik zintzilik, aingeruak algodoizko elur motak jarri dituzte, orrela Josu'ren jaiotzak pertsona dezenteen bihotz xamurrik hainbeste larritu ez ditzan.

San Petersburgo'ko plaza nagusian millaka uso altxa dira, eta bihar goizetik, nere maiteñoaren berriak ekartzera etorko zaizkit leiora. Orren urrutira amodio billa joan bearko nuenik ez nuen uste izandu, atzo arte. Baiña orrela da, bai; eta ez dakit

hain urrutian ere arkituko detan.

Nolanaí ere, gau izartsu bat espero nuen. Eaizar berriren batek illunpe honetan argi egingo ote zuen edo. Baiñan gaua illuna erori den ezkerro, ixildu egingo naiz, bai.

Ai, Luis! Guk ere deskantsua espero diaugu. e? Ez adim fabarez - hazi?

Eta gorde akidak tokitxo bat ire ondoan, nargille erreaz eta kitarra zahartxoa joaz, eternidade guztia festa ederrean igaro dezagun.

"Dios te salve, ongi etorri, gabon Jainkoak diela,
legiarekin kunpli dezagun urte berriaren sarrera."

Alperrik ari aiz, mutiko. Etzeok legerik, ez iñungo berritasunik. Mundua bezain zaharrak diren erokeri berdiñak egingo dizkitek, ire oparia gorabehera, or goiko jente oiek. Ez al dakik, ba, Adan traketsaren semeak dirala?

Baiñan ixo. Ixildu gaitezen. Ez dezagun gauerdiko ixiltasun sakratua eten, laixer eliz-dorreko ezkil zaharrak amabi kappai-ots ioko hoi ditu.

Eta biar goizean, esnatzerakoan, trixtura puttaxka horrek artuko gaitu berriro, bein eta berriz biderako lagun.

Urria.

(ZERUKO ARGIA, 1966, Urtarrillak, 2 - 7. garren orrialdean)

X. GARMENDIA: "D. Gabino Iraola" (127 - garren orrialdetik datoak)

Urondo-n ez zan txintik entzuten. Zerua izarrez ñirñirka zegoan. Bardin zitzai-
on heritar guztiak ikusi izan balute ere! Gabino-k bere etxearen aurrean geratu
zuan autoa. Eskua luzatu zion. Ana-k gogor xamar txokatu ziola iruditu zitzaison.
Are gogorrago eldu zion D. Gabino-k. Momentu bat, eta Ana-k bere besoez lepoa in-
guratu zion...

Uurrengó goizean bakar bakarrik aurkitu zanean, berebiziko nazka sentitzen hasi zan D. Gabino. Ana bezelakorik ez zegoan beretza munduan, baiñan zer esan zezake-teen Platon-ek eta Seneka-k? Kalera atera zan. Ana, espoloiaren beste aldetik iga-ro zan. Ez zion kasorik egin. Handik bost egunetara, Bilbao-ko ume anormalen esko-letako diretora egin zuteka Ana, jakin zuan. Berri horrek pozez beterik utzi zion bihotza. Lehen bezela jarraituko zuan. Deseoz beterik, baiñan, zer conci-

- "Ez dut gehiago ikusiko", esan zuan, eta parrez segitu zuan: ja, ja, ja!

Hori da D. Gabino-ren historia galanta. Kontatu, berriz kontatu eta parrez leher egin beharrean jarraitu zuan. Bere lagunek ez zuten deus konprenitzen ahal! Behaiek ere parrez hasi ziran. Beste txanpan botilla bat edan zuten Iraola-ren kontura, eta gero, bakoitza bere etxera erretinatu zen.

D. Gabino ohean sartu zanean - bi almoaden gaiñean egiten zuan lo -, almoada bat kendu eta alboan utzi zuan. Noizik beñin ezkerreko eskua aldameneko almohadaren gaiñera botatzen zuan, eta iñor ez zegoala sumaturik, parrez lehertzen hasten zan. Gerroxago, bi almoaden erdian eazarri zuan burua..., zangoak alde banatara zabaldu zituan eta iñoren azterrenik ez zutela ateratzen ondo ondo konturatu zanean, ezpaiñean parre txiki txiki bat zuala, lohak hartu zuan. ("HIBERRA")

(GUEREDIAGA, Durango, nn.11-12, Marzo-Abril 1967: "KIRIKIÑO Ipuin-Sariketan" sari-tua.

--- XALBADOR G A R M E N D I A ---

(Zaldibia, 1932 -)

Abadea. Euskaltzaindiko Laguntzaillea. Mauleon-en bizi da, irakasle. Idazle gazte oni "Historia triste bat" teatro-lanak ("Domingo Agirre-Sariketan", Ondarroan, lenengo saria jaso eban lana) emon deutso osperek aindien: ainbeste eztabaida sortu dituena lan garratz, gordin, sa-kon eta ausarta au... A. Camus'en "Gizon Zuzenak"(antzerkia) be euskeratu deusku... Ganera, ipuietarako alako luma bizkorra agertu dau: Mon-dragon'en, Eibar'en eta Durango'n antolatutako ipuin-sariketetan goren-go sariak irabazi ditu. Ipuin asko ei daukoz, argitaratu barik, eta bes-te lanen batzuk be bai... Gaur-gaurko idazle onek ba daki gipuzkeraren barri, ta biar-etziko idazlerik onenetarikoa ez ete dogu berau izango?

D. GABINO IRAOLA (edo bestela esan: oso gutxi bezelako jaun kaiku haundia):

Iñor gutxi bezin zoriontsu bizi zan Gabino Iraola. Aspaldi xamar iraku-riak zituan Aristoteles, Platon, Sokrates eta batipat Seneka, eta ondotxo zekian zerk duan gizona gizon egiten, ots, zerk dion bost zentzuen gaiñetik dagoan sereni-dade hori, espainolek "sentido común", frantxuteek "le bon sens", eta euskaldunok "zentzu ona", deritzagun izaki miragarri hori, ematen.

Oso gizon serioa eta serenoa zan beraz D. Gabino. Hogei ta hamar urte bete arte banku bateko ofizinista-bezela aritu zan lanean. Iñaxita Zalacain ezagutu zuan, ena-moratu zan eta ezkondu egin zan. Arrezkero, herriko kale luzeenean, etxe altuenean etahirugarren piso dotorean bizi zan, izan ere, Iñaxita-k ekarri zion diru mordo izu-garriarekin "Babcock and Wilcox, Cia."-an, egundoko azioa paketea erosi baitzuan. Ezkonduz geroztik, beste gizon bat zan D. Gabino Iraola. Munduari, lanari, sozieda-deari beste balore bat ematen zion.

Lehenbiziko urteetan, aski pozik bizi zuan bere emaztearekin, baiñan gau-batez, bere andrea oso itsusia zala konturatu zuan. Ez zegoan dudarik: zortzi urte lehenago egin zuana, txotxolokeria bat besterik ez zuan; artean ez bai-tzuan Seneka-ren liburuetan "zentzu onaren" definizioa irakurri, eta horra, dantzaz zebillela Iñaxita tokatu, momentu batean serenidade guztia galdu... eta ezkontza hura ez zuan emozio kaxkar haren ondorio txoro bat besterik izan-du. Silojizmo arrigarri hori ondo pentsatu eta ausnartu ondoren, bere andra-kumeari kasoa haundirik agin gabe bizitzeko erabakia hartu zuan.

Beste bi urte honelaxe eman zituzten: Iñaxita eskubira, Iraola ezkerrera. Gero-xago, lo gelako chea txikiagia iruditu zitzaion Gabino-ri, eta ahandik aurrera bi ohetan lo egiteko asmoa hartzen zijoala, andrakumea hil egin zitzaion. Kaso txiki horri ez zion batere garrantzirik eman. Ez zuan serenidadea galdu. Kajan sartu zu-tzen eta San Paskual-en egunean kanposantuan lur eman zioten.

Lehenago ez bezela bizi zuan orain Iraola jauna. Piso barreneko pareta guztiak gorritz, txuriz, urdiñez, berdez eta horiz pintatu zituan. Gela barruan bi lorito ze-duzkan, Unamuno ta Seneña irakurtzen aspertzen zanean, haien soiñuez bere belarriak gozatzeko. Hartu-eman gutxi zuan herriko jendearekin. Iñoi behin joaten zan Donos-tia-ra, jeneral baten etxera, eta generalak, bere atsoak eta Iraola-k politikaz eta horrelako tema haundiez mintzatzen ziran. Ikustekoa zan nola presentatzen zan: son-

braillu berdea lizta morearekin, bigote txikia, traje urdiña, korbata gorria puntu urdiñekin, antezko zapata puntadunak bere aurpegia aisladatzeko moduko dirdirarekin. Ba zan norbait! Esan behar da, halaz guztiz ere, - errespetuzko gizon bati beti zor baitzaio egia - aspalditik zuala, Iñaxita hillezkerro hartatik, dama gazte eta apain batekin ezkontzeko irrika bizia. Beti serio agertzen zan dama gazten aurrean, behar baiño hitz bat e gehiago ez, jestu bat gehiago ere ez. Ez zezakean Iñaxitarekin beze la serenidadea nolanai gal! Emakume bat sarrtu zitzaion azkenik begi zuloetatik barrera: Ana Osa. Atenas-ko eskultorerik onenak ez zezakean suma jeometria bikaiñagoko imajinariak. Ikusi eta Venus de Milo zetorkion muiñetara D. Gabino-ri.

Liburuak irakurri, loritoak entzun, pasilloen korrika txikiak egin eta gero pestarik ederrena, lehioko oihal tarteetatik kalera begira egotea izaten zan D. Gabinorentzat. Herriko emakumerik eleganteenak, haren etxe aurretik pasatzean, ia danak begiak jasotzen zitzuten, D. Gabino-ren erraiñua bederen ikusi gogoz. Orduan D. Gabino-ri bihotza taka taka hasten zitzaion eta pozaren pozaz eskuak eta besoak buruaren gaiñera altxatzen zituan. Baiñan geroxeago, zerbait ozten zahean, isil isilik, denei "ez" esaten zien.

Gau harten "The Garden" restaurant amerikanoan sartu zanean, parrez algaraka a-zaldu zan D. Gabino. Tutean aritu zan bere lagunekin, nahiz eta Seneka eta batipat Unamuno-ren jarraitzaileentzat oso gauza itsusia izan. Dena galdu zuan... dana pagatu zuan txintik atera gabe, eta are gehiago, neskatoari txanpan bobilla bat eskatu zion. Dena irri, parre eta algara zan.

- Iñolaz ere azioak gora dijoaz, D. Gabino.
- Egia ote da sindikatoen buru egin zaituzteka?
- Ez ote dugu jakingo zer gertatzen zaizun? -, galdezu zioten hiruek batera.

D. Gabino-k arnasa pixka bat hartu eta serenidade haundiaz hauxe kontatu zien:

"Arratsaldeko seirak ziran eta lehioko zapien tartetik kalera begira zegoan. Ana Osa ikusi zuan. Lizardi kaletik Elkano kalera zetorreñ. Bihotza pilpilka hasi zitzaion. Noizpait behar eta huraxe zan okasioa. (...: D. Gabino-k Ana Donostia-ra darioa bere kotxeán.) ... Ez zan restaurant batean afaltzera sartzera ausartu. Ana-k begi txarrez ikus edo zezakean eta beste alde, Seneka-ren irakurtzailleak ez zuan punturik galdu nahi Ana-ren aurrean. Kafeteria batean sartu eta txokolate frantxesa eskeiñi zion bere maiteari. Handik kabaret batera jo zuten. Pistaren luze zabalean dantzariak zebiltzan beren maiteñoekin, dantzan estu estu. Zaiñak bri bri zeduzkan Iraola-k. Whisky bana edan zuten eta serenidadeaz momentu batez ahazturik,

- Pieza bat dantzatuko bagenu..., galdegin zion Iraola-k.

Ez zuan deusik erantzun Ana-k. Haizeak sedazko oihala bezin arin ibili zuan Iraola-k bere maitea. Hiruzpalau dantza dantzatu zitzuten. Baretasun guztia galdu zuan D. Gabino-k. Chopin-en vals bat atakatu zuan orkestak. Musikalari romantikoaren lehenbiziko konpasek txorabiaturik, geldi ezin egonez, besoa luzatu zion Ana-ri, eta biak kampora atera ziran. Automobillean sartu ziran.

- Pozik?
- Aspaldian ez bezela, - erantzun zion doi doia Ana-k. Eta zu?
- Zu pozik ikusirik, nola nagoke tristerik? Momentu hok hain azkar pasatzen dira!
- Luzapena eman behar litzaietekela iruditzen al zaizu?
- Norberaren baitan balego!... (125 - garren orrialdera)

- ANTONIO MARIA ZAVALA -.

(Tolosa, - -)

Ezin ixildu Aita Zavala jesuitearen izenik, onango bilduma baten. Izan be, erri-literatura batzen, argitaratzen eta zabaltzen, nor berau baiño txalo-garriagorik? Zenbat neke, zenbat kilometro (sarritan oinez), zenbat etxerik etxe, magnetofonoa eskuan, gure erriaren aberastasun apal ederrak jaso gurean! Erri-aberastasun ori urrituaz doala ikusirik, "barruak eraginda" arlo oni ekin deutso, bere "AUSPOA LIBURUTEGIA"-ren bitartez, batez bei berak sortua, zuzendua ta zabaldua da bilduma au. Ta argitaratuak aín ederrak eta ugariak badira be,urrengo argitaratzekoak ez ei dira txarragoak ezta gitxi be: ba ei dauko, magnetofono-arrietan eta bertso-papel zaarretan zer e argitara emon! Liburutegi orretan era askotako lanak emon ditu, baiña danak dabe ezaugarri bat: errikoiak... Bertsolariak (zaarrak eta gaurkoak), ipuiñak, gertakizunak, teatro-lanak: eta beti zéaztasun guztiak emonda. Liburuon itz-aurre asko Aita Zavala berorrenak dozuz...

Erderaz be argitaratu deutsoe liburu jakingarri bat: "Bosquejo de la Historia del Bersolarismo" (Colección Auñamendi, n.º 37, San Sebastián, 1964).

EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK: "Ezkontza galduetako bertsoak ez dira, geyenetan, beintzat, mutillak berak edo neskatzak berak jarriak. Bertsolari batengana joaten ziran, istillu guzia kontatu, bertsolariak bertsoak jarri, moldiztegira eraman, inprintatu ta zabaldu; oyek izaten ziran egin bear ziran pausoak.

Bertsolariak, noski, bere lanaren ordaña eskatzen zuan.

Pello Errotari etortzen zitzaizkion olakoentzako galdez. Bere alaba Mikaelak esan zidan zenbat diru eskatzen zuan, bañan zoritzarrez aztu egin zaigu... Asteasuko Aumerri-k (Aramburu-berrik) ogei duro eskatzen zituan, ta ber-bera ibiltzen zan gero erriz bertsoak zabaltzen. Gauza orren berri ondo dakinak esan dit, eriotzakoan 13.000 pezta utzi zituala. Garai artan etzan gutxi, alajaiña.

Txirritak amar duro eskatzen zituan. Illobari duro bat ematen zion eskribitzeko lanagaiten ziolako. Illoba onek, Jose Ramon Erazkin-ek, ederki asko kontatu digu bertso auen jartzear nola izaten zan.

Geyenetan mutilla etortzen omen zan, ta batzuetan neskatzaren aita. Txirritak argitasun guziak eskatu ta alako egunean berriro etortzeko esaten zion. Gero, zenbait bertso bururatzean, Txirritak illobari otsegiten zion. Txirrita patxaraz exeri, illobak luma ta papera artu ta osabak pape-rera aldatzen asten zan. Aspertzean onela esaten zion Txirritak: "Naikoa egin diagu. Etorri adi illunabarrean (edo bigar goizean)". Onela bukatu arte.

Mutilla edo neskatzaren aita berriro etortzean, irakurri egiten zizkioten bertsoak. Batzuetan ondo zeudela esaten zuan. Besteetan berriz: "Alako zera ori gogorxeago jartzear nai nuke" edo " beste zera ori kendu ta alakoa jartzear nai nuke" eskatzen zuan.

Konforme ziranean, moldiztegira eramatea izaten zan. Geyenetan mutillak edo neskatzaren aitak eramaten zuan. Batzuetan berriz Txirritari uzten zioten lan ori ta Errrente-

riko Makazagari eramaten zion.

Ezkontza galduak bertsoak ez ezik, beste mota askotakoak ere onelaxe jarriak dira... Batzuek bere garaiko bertsolaririk onenak jarriak izango dira. Zoritzarrez ez degu sekulan bertsolariaren izaera jakingo. Olakoetan etzuten nai izaten bere izaera paperean agertzerik. Bañan bertsolari koxkorraak ere erasotzen zioten lan oni. Izan ere, literaturaren edozein salletan, onak eta kaxkorraak nastuan ibiltzen dira beti,

Dana dala, ezkontza galduak bertsoak gure literaturaren sail aundi, oparo ta ugari bat betetzen dute. Gaurkoan liburu bat prestatu badegu, badago oraindik beste olako dozen erdi bat osatzeko lain.

Gure erriaren literatura ta bere bizitza zearo bat eginda bizi izan dira beti. Ain zuzen ere orregatik sortzen zituzten bertso auek ainbeste istillu, sesio, gorroto ta alkarrak ezin ikusiak. Ondoren luze ta izugarriak ekarri ohi zituzten askotan. Kontatuko ditut batzuek. (...)

... au Gipuzkoako erri batean gertatua da. Ezkontza galdu ta mutillak bertsoak atera zizkion neskatzari. Erri guztiak ikasi ta poiznai kantatzen zituah. Urte asko igaro ta gero ere oso ezagunak ziran. Neskatxa arek beste batekin ezkontdu ta famili eder bat azi zuan. Aren seme bat lanean ari omen zan bein batean sorroan. Aldameneko beste soro batean beste mutil bat ari zan eta, neskatzaren semea beste ura zanik iñondik ere uste gabe, bertso oiek kantatzen asi zan. Andik puska batera gizon bat bidean zetorren. Aditu zituan bertsoak eta begiratu bat egin zion neskatxa aren semeari. Kantari ari zanaren parera irixtean onela esan zion:

- "Bañan kanta oyek zer diran ba al dakik?"
- "Bertso zar batzuk".
- "Bai, bertso zar batzuk... bañan orren amari ateriak. Pasatzean begiratu, ta negarrez ari zala ikusi diat."

Iñork ez omen zekian nor zan bertso oyen jartzallea. Bazan ordea errian bertsolari zar bat, ta onek ala esan zion bein batean bertsolari gazte bati: "Etzakala sekulan jarri iñori faltatzeko bertsorikan. Nere barrenak ez dik poz aundirik izan, gaztetan bertso batzuek jarriaz." Ortik zabaldu zan errian, bera izango zala bertso oyek jarritakoa. (...)

Gipuzkoako erri batean mutillak neskatzari bertsoak jarri, inprentatu ta gau batean etxez etxe ibilli ziran atari bakoitzean paper bana utziaz. Aizeak eraman etzezan, arri koskor bana jartzen zuten paper bakoitzaren gañean.

Urrengo beste kontua au antziñakoa da oso. Neskatxa Madriden neskame omen zegoan. Alako batean despeida eman zion mutillari. Baita ere mutilla bertsolari batengana joan ta kantak jarri-arazi. Bañan ez omen zeukan bertsolariari pagatzeko bear ainbat diru. Tabernari batek jakin ta ori bere kontu artuko zuala adierazi zion, baldin-eta bere tabernan kantak kantatzen edo bertso-paperak zabaltzen asiko baziran. Bayetz eta orrela egin zuten... Bertso asko omen ziran, bañan au kontatu zidianak etzuan bat besterik gozoan:

"Neskatxa polita da / iztun atsegina,
gorputza salerosa / pausaje ariña,
begiak beltzak eta / kolorez egiña,
neure engañagarri / mundura egiña."

Alako kontuak eunka izango dira bazterretan. Don Patrizio Orkaitzegi, Tolosako bi-
(31-garren orrialdera...)

-- IDAZLE BAKOTXA, NUN? --

-- A U R K I B I D E A --

- (Itzaurrea): BERBATXU BI AURRETIK...II		
- Manuel LARRAMENDI	1	
- (Andiki ta Jauntroen aurka)....	1	
- (Euskaldun askok, euskalzaleta- /sun gitxi)....	2	
- (Mayans'en aurka, Euskeraren alde)2		
- San Agustiñ'en doanditzatik	3	
- Agustin CARDABERAZ	4	
- Beste izkundeen aldean Euskara....	4	
- Euskeraren izkerak edo dialektoak.	4	
- Andre Donostiarren Erretorika	5	
- Aita Larramendi	5	
- Sebastián MENDIBURU	6	
- ... zer gauza den Debozioa	6	
- "Si praestes animae tuae concupis- /centias eius"	7	
- Juan Antonio UBILLOS	8	
- Azken Juizico	8	
- José Ignacio GERRIKO.....	9	
- Jaungoikoa zer dan	9	
- Juan Bautista AGIRRE (Asteasu'ko) ..	11	
- (Iru piztuera-mota)	11	
- (Adarbakoitzaren ipuia)	12	
- (Edanaren ondoren gaistoa)....	13	
- Juan Antonio MOGEL	14	
- (Euskera, norentzat?)	14	
- (Euskerazko liburuak, zertarako?)	15	
- (Euskera mordoilloa)	15	
- (Cardaberaz eta Mendiburu...) ...	15	
- (Zein obea: Bizkaiko euskera ala /Giputzena?)	16	
- Juan Ignacio IZTUETA	17	
- (Zezen-joko arrigarri bat...)	17	
- (Euskaldunai, euskeraz!)	18	
- Agustin P. ITURRIAGA	19	
- Jolasak, XIX-XX	19	
- Bizenta A. MOGEL ELGEZABAL	20	
- Zaldia ta astoa	20	
- Eulia ta mandoa	21	
- Francisco Ignacio de LARDIZABAL	22	
- (Jerusalengo gosetea).....	22	
- (Jose bere anaiekin)	23	
- Gregorio ARRUE	24	
- Nork bere konzienzia begiratzeaz	24	
- Presondegian Genoveva ama egiten.	24	
- Pedro Miguel URUZUNO	26	
- Euskal-Erritik Zerura	26	
- Praillea ta Don Burno	29	
- José Antonio URIARTE	30	
- Gnosis, cap. III	30	
- Antero APAOLAZA	32	
- Patxiko Txerren (VIII-gn.atala)	32	
- Alfonso Maria ZABALA	35	
- "Ori ez dek irrintzia..."	35	
- Crispin de BEOBIDE	36	
- Predikatzen die txoriei	36	
- Laztandutzen du legen-artsu bat	36	
- Bitoriano IRAOLA	37	
- Gau erdiyan	37	
- Marcelino SOROA Lasa	39	
- Bigarren Jolasa	39	
- Laugarren Jolasa	40	
- Seigarren Jolasa	41	
- Zazpigarren Jolasa	41	
- EUSKALERRIKO IPUIÑAK	42	
- Amén.....	42	
- Muskia-ko Jentilla	43	
- Azkeneko Mairuk	43	
- Resurrección María de AZKUE	44	
- Ardi galdua	44	
- Domingo AGIRRE	46	
- (Ana Josepa)	46	
- (Iñaxio Mari-rentzat andregaiar /aukeratzeara...)	47	
- (Ana Joseparen diru-zaletasuna)	49	
- (Malentxo-ren azken-agurra...) ..	50	
- Carmelo ETXEGARAI	51	
- (Bertsolariak Euskalerrian)	51	
- OLABIDE tar Erraimun	52	
- "Baitaren azterpena?"	52	
- "Yob'en azterpen areagoa"	53	
- Gregorio MUXIKA	54	
- !Ortzak erakutsi!"	54	

- <u>IRAZUSTA</u> tar JON ANDONI	55	- Luis MICHELENA Elissalt	96
- (Euskera zabaltzeko, lenengo errez- /tu!)	55	- Asaba zaarren baratza	96
- (Bixenta Amerikatistik etxera...) .	55	- Sebastián SALAVERRIA	100
- (Amezketako kotxe edo zalgurdia) .	56	- (Gaixotegian, anaiaren bisita) .	100
- Nicolás Ormaechea " <u>GRIXE</u> "	57	- José Antonio LOIDI Bizcarroondo ...	101
- Maite mintzoa	57	- Joxe Jokin'en berriketaldia ...	101
- Txori galdua.....	58	- Salbatore MITXELENA	103
- Aramayotik ere igesi	61	- (Ameriketara!)	103
- (Job'en liburutik)	62	- (Euskerari ilten itxi?...)	104
- Julene <u>AZPETTIA</u>	63	- (Andra Maria) nola agertu zan .	105
- Anboto'ko Mari	63	- Yon ETXAIDE Itharte	106
- R. Mujika Egaña " <u>T E N E</u> "	64	- Elizanburu	106
- Gure aberatsak	64	- Luis VILLASANTE Cortabitarte	109
- (Emakumeak, euskeraren alde)	64	- Gurasoak aintzat eukiteaz	109
- Agustín <u>ANABITARTE</u>	65	- Bizi naia	110
- Timimun	65	- Nere oilloak	111
- Manuel <u>LEKUONA</u> Etxabeguren	66	- Juan SAN MARTIN	112
- (Gero)-ren Aitzin-Solas	66	- Euskaldun zertako?	112
- José María Aguirre " <u>LIZARDI</u> "	69	- Juan María LEKUONA	114
- Donapaleu'ra yoan-otorria	69	- (Bertsolarien) doiñuari buruz .	114
- Luis Jauregui " <u>JAUTARKOL</u> "	74	- José Luis Alvarez Emparanza " <u>TXILLAR- DEGI</u> "	116
- (Gure Bertsolariak)	74	- Negu (Leturiaren Egunkaritik) ...	116
- Antonio María <u>LABAYEN</u>	75	- (Peru guateke batean)	117
- Aspaldiko teatro-zale bat oraingo /teatroaren aurrean... .	75	- Joseba INTXAUSTI Errrekondo	120
- Tomás Aguirre " <u>BARRENSORO</u> "	78	- Euskeria Batxiller-mutilentzat..	120
- ¿Lana?... Zoazte baserrira!	78	- José <u>AZurmendi</u> Otaegi	123
- Nemesio <u>ETXANIZ</u>	81	- Germika-ko kanposantua	123
- Txantxangorria (Irrati-aria)	81	- Xabier LETE	124
- Justo María <u>MOKOROA</u>	83	- Gauerdiko ezkila Urte Zahar arra- /tsean - Requiem ...	124
- (Pedro Fermín Erraondon barriro)...	83	- Salvador <u>GARMENDIA</u>	126
- Antonio <u>ARRUE</u> Zarauz	85	- Don Gabino Iraola (ipuia)	126
- Euskeraren batasuna	85	- Antonio María <u>ZAVALA</u>	128
- <u>ZAITEGI</u> tar Iokin	88	- Ezkontza galduztako bertsoak ...	128
- Mere asmoa	88	 - <u>IZTEGITXUA</u> (geigarria)	
- Sokrates	89		
- José de <u>ARTECHE</u>	90		
- Arratsaldea	90		
- Iñazio María <u>MANZISIDOR</u>	91		
- (San Iñazio Jaunarengana)	91		
- Nikandro ta Marzian, martiriak ..	92		
- Iñaki Eizmendi " <u>BASARRI</u> "	94		
- (Bertsolariak, eskolatuak...?) ...	94		

.- I Z T E G I T X U A .-

A) SARRI ERABILTEN DIRAN BERBA BATZUK (Bizkaitarrak gipuzkera irakurtzeko lagungarri)

<u>abiatus</u> : ponerse en camino, empezar a obrar	<u>BEZELA</u> : lez
<u>adiña</u> : aiña, tanto como...	<u>BILDU</u> : batu
<u>AGIAN</u> : acaso, al parecer	<u>bukatu</u> : amaitu
<u>agitz</u> (anitz, aunitz) : asko	
<u>aide</u> : senide	<u>DEUS</u> : ezer
<u>aipa(tu)</u> : aita(tu)	<u>diñ(a)</u> : digno/ tanto como...
<u>citor(tu)</u> : autor(tu)	<u>doi-doi</u> : a duras penas
<u>AITU</u> : agortu	
<u>AJOLA</u> : ardura/jaramon	<u>EGOTZI</u> : echar, imputar, dejar
<u>ALEGIA</u> : a saber (muletilla)	<u>elburu</u> : objetivo, finalidad, meta
<u>alor</u> : sembradio	<u>ERABAT</u> : completamente, de una vez
<u>antolatu</u> : eratu, disponer, organizar	<u>ERAMAN</u> : eroan
<u>antzeman</u> : adivinar	<u>erantsi</u> : adherir, pegar, contagiar
<u>antzo</u> : antzera.	<u>ERNAI</u> : despierto, listo
<u>arau</u> : ley, norma	<u>erazi</u> : -azo
<u>arbaso</u> : asaba, antepasado	<u>eresi</u> : canto
<u>ARE</u> (areago): más (aún)	<u>ero</u> : zoro
<u>ARI(tu)</u> izan: jardun, dedicarse a	<u>ERORI</u> : jausi
<u>arras</u> : guztiz	<u>erro</u> : sustrai, raiz
<u>arrotz</u> : extraño	<u>eri</u> : gaixo, enfermedad
<u>ARRUNT</u> : común, ordinario	<u>erruz</u> : ugari, sobreabundantemente
<u>aski</u> : naiko, bastante	<u>eseri</u> : jezarri, jarri
<u>atera</u> : urten	<u>ESNATU</u> : ixartu, despertar
<u>aul</u> : makal	<u>estali</u> : estaldu, cubrir
<u>AUR</u> : umetxu	<u>errie(r)ta</u> : reyerta, bronca
<u>AURKI</u> : pronto/sin duda	<u>ezpai</u> : duda
<u>aurkeztu</u> : presentar	
<u>auta(tu)</u> : aukera(tu)	<u>GABE</u> : barik
<u>AUTU</u> : aukera /conversación	<u>gai</u> : tema, asunto /apto
<u>auzi</u> : pleito, cuestión /juicio	<u>GAIZKI</u> : txarto
<u>azaldu</u> : agertu /explicar	<u>GALDE(tu)</u> : itaun(du)
<u>azkar</u> : arin, bizkor	<u>galde(ra)</u> : itaun
<u>azoka</u> : mercado	<u>galtza</u> : praka
<u>BAITA</u> : barren, interior	<u>garden</u> : limpio, puro, transparente
<u>baizik</u> : baiño	<u>GARAI</u> : época, hora, ocasión / alto
<u>barne</u> : barren	<u>garaitu</u> : superar
<u>batipat</u> : principalmente	<u>garesti</u> : karu
<u>BEDEREN</u> : al menos	<u>gaztigatu</u> : avisar
<u>bederik</u> : " "	
<u>BEREZI(ki)</u> : especial(mente)	<u>GERTATU</u> : jazo
<u>bezain</u> : baizen, lez	<u>GIRO</u> : aro
	<u>gisa(-n,-ra)</u> : modo
	<u>goibel</u> : triste
	<u>goza(tu)</u> : endulzar, suavizar /abonar

<u>ibar</u> :	vega	<u>OAR(tu)</u> :	advertencia, advertir
<u>idoro</u> :	aurkitu	<u>obi</u> :	sepultura
<u>IDUKI</u> :	euki	<u>OIU(ōju)</u> :	grito /llamada
<u>iduri</u> :	irudi	<u>ONGI</u> :	ondo
<u>IRAUULI</u> :	volcar/traducir	<u>oparo</u> :	abundante (mente)
<u>IRITXI</u> :	lortu, eldu	<u>ORO</u> :	guzti
<u>iritzi</u> :	eretxi	<u>orobat</u> :	asimismo
<u>irten</u> :	urten	<u>OROI(tu)</u> :	gomuta(tu)
<u>iskanbilla</u> :	alboroto, confusión	<u>ordea</u> :	ostera
<u>iseka</u> :	burla	<u>ospe</u> :	fama
<u>istillu</u> :	lio, alboroto	<u>osto (ostro)</u> :	orri
<u>itsatsi</u> :	adherir(se)	<u>OTS</u> :	sonido /esto es, a saber...
<u>itun</u> :	triste	<u>okullu</u> :	korta
<u>itzali</u> :	amatau, apagarse	<u>oñaze</u> :	dolor
<u>ITZULI</u> :	biurtu	<u>omen</u> :	fama, honra / (con verbos)= ei...
<u>izlari</u> :	charlista, orador	<u>cial</u> :	tela, paño
<u>iztun</u> :	izlari, conversador	<u>onura</u> :	provecho
<u>IZU(tu)</u> :	espanto, espantar	<u>oiartzun</u> :	eco
<u>jasan</u> :	soportar, sufrir	<u>prestu</u> :	honrado
<u>KEZKA(tu)</u> :	preocupación, preocuparse	<u>puska</u> :	apur, zati
<u>kemen</u> :	vigor	<u>SAIATU</u> :	alegindu
<u>KIDE(ko)</u> :	coetáneo, colega	<u>sail</u> :	grupo /trozo de terreno
<u>kirats</u> :	hedor/ hediondo	<u>salatu</u> :	denunciar, acusar
<u>KOPET</u> :	bekoki	<u>SENDATU</u> :	osatu
<u>kupitu</u> :	errukitu	<u>sendi</u> :	familia
<u>kupida</u> :	erruki	<u>SOIL</u> :	puro, mero, simple
<u>KUTSU</u> :	contagio /sabor	<u>somatu</u> :	barruntar
<u>larri</u> :	apuro, apurado /enorme, grande	<u>taiu (taju)</u> :	traza, aspecto, estado
<u>leen(da)bizi</u> :	Ienengo	<u>trakets</u> :	torpe, desmañado
<u>LEIA(tu)</u> :	afán, afanarse	<u>TXIT</u> :	muy
<u>lepo</u> :	sama	<u>UNKIGARRI</u> :	impresionante
<u>LER(tu) egin</u> :	reventar	<u>(h)URA (ua, uraxe, uaxe)</u> :	a (axe)
<u>lillura</u> :	fascinación	<u>urbil</u> :	cerca
<u>maitemindu</u> :	enamorarse	<u>URDURI</u> :	artega, inquieto, nervioso
<u>MAIZ</u> :	sarri	<u>urri</u> :	escaso, pobre
<u>mintzatu</u> :	hablar	<u>URRIKAL</u> :	erruki
<u>moko</u> :	pico	<u>XEDE</u> :	finalidad, objetivo
<u> moldatu</u> :	eratu, disponer, organizar	<u>ZALAPART</u> :	estrépito, precipitación
<u>mota(mueta)</u> :	clase	<u>zango (zanko)</u> :	anka, pierna
<u>NABARI(tu)</u> :	notorio, notar, advertir	<u>zintzillik</u> :	dingiliz
<u>nabarmen(du)</u> :	distinguido, distinguirse	<u>ZIÑEZ</u> :	benetan
<u>nahasi</u> :	nastatu	<u>zori</u> :	suerte, fortuna
<u>naigabe</u> :	pena, dolor	<u>ZORIAN</u> :	a punto de, en trance de ...
<u>NAZKA(tu)</u> :	repugnancia, repugnar		
<u>NOSKI (naski)</u> :	acaso/ sin duda/ probablemente.		
<u>FUNBAIT</u> :	en alguna parte / sin duda.		

- I Z T E G I T X U A -.

B) BERBARIK GATXENAK, urten-ala:

1^{gn.} orr.: l'go. orrialdea: LARRAMENDI: izaera: estado, modo de ser.- aiurri: carácter.- buruzki: mirando a, frente a.- leku: atestiguar.- medar: estrecho.- xede: objetivo, finalidad.- iarduki: insistir.- Gaztela: Castilla.- juzku: juicio.

2^{gn.} orr.: ergel: fatuo, imbécil.- txoraiska: loquillo.- agiri: documento, prueba.- kropotz: .- jorrail: escárdillo.- zotal: pedazo de tierra arrancada.
nekazari: labrador.- olagizon: ferrero.- okin: panadero.- hizkunde: lenguaje.- txorala: sinsorgo.- mairu: moro.- kirats: hediondo.- billau: villano.- galbar: pelo arremolinado (kalpar).- esain: esango.- itxeki: colgar, agarrar.- beargai: obligación, quehacer.- alperpotz: vago abandonado (insulto).- el akio: eldu eick.- etzeatiek: ez ditut ballera: valle.- mendarte: cañada.- bekaitz: envidia.- elkartea: alkarte.- eztakuskula: ikusten ez dogula.- darraizkun: jarraitzen deuskuen.

urlia: fulano.- zerrenda: margen, franja de terreno.- irabiatu: revolver, mudar de postura.- uanditu: hincharse, envanecerse.- erabe: timidez, pereza.- iñarrusi: zarandear.
hizjario: charlatán.- irurazayak: monteros.- andiuste: orgullo.

3^{gn.} orr.: galdor: cuesta.- kiskur: pelo crespo y rizado.- ez bide du: ez dau, antza.- tolestu: plegar, doblar.- beztu: infamar.- itzuzkitu: afear.- sandia: mengano.- jayet-alde: oriente.- uztak: itxi egik.- amaki: materna .- el akio: eldu eick.- zabuan ibilli: balancear, vacilar.- naroro: abundantemente.- erakarre: ekarri egik.- aurkez: aurretik.- zearka: de costado.- eztanda egin: reventar.- naspile: mescolanza.- maneatu: disponer(se).- epe: plazo.- esan mesan: habladuría.- txokoratu: arrinconar.-

doanditza: ¿homilia?.- korapillo: marapillo.- suertatu: jazo.- egua: sur.- bear-diña: bear-aiña(beste).- darraizkan: jarraitzen deutsoen.- lema: timón.

4^{gn.} orr.: CARDABERAZ: euskalki: dialecto vasco.- idaztankera: estilo literario.- nasgabe: naastu barik.- txantxetan: olgetan (en bromas).- diña: digno (tanto como...).- izandu: izan.- patu: suerte.- egieki: benetan.- polikitu: hermosear.- itxustu: afear.- larrutu: desollar, perder todo.- desegin: deshacer.- dirauten: irauten daben (duran).- lazki: penosamente, ásperamente.

5^{gn.} orr.: nolarebait: de algún modo.- alafede: en verdad.- moldekaitz: torpe.- emeiki: suavemente.- errekkardari: revendedor(a).- galai: galán, joven apuesto.- abegor: acogida.- ken: kendu! .- goblilla: .- ausardia: atrevimiento.- ziozkan: éutsozan.- beargai: obligación, ocupación.- irteziñ: laberinto.

6^{gn.} orr.: MENDIBURU: zenbaitek: batzuek.- adina: aiña, besté.- barutu: barau egin otordu: comida (jateko ordua).- estalki: cobrera, velo.- oroitzapen: recuerdo.- lizun: lascivo.- prinz: rayo.- ausardi: atrevimiento.- niori: iñori.- sizatzar: granuja/hombrachón.- antuste: altivez, soberbia..

7^{gn.} orr.: zere: zeure.- egiñen: egingo.- emain dieztezu: emongo deutsezu.- siñes dezakezu: siñestu daikezu.- naikunde: deseo.- ortzitu: sepultar.- igan igon: krisellu: candil.- suleze: abismo de fuego.- estekatu: atar.- erraten: esaten.- emeiki: suavemente.- bendeku: venganza.- sangaka: ladrando.- illen: ilgo.- eromain: erango.- mii: miñ, lengua.- eskura izkitzu: eskuratu eizuz.- asaldatur: alborotar, rebe larse.- oatze: lecho.- manatu: agindu.

8^{gn.} orr.: UBILLOS: argitaldu: editar.- tinkatu: hincar.- aditz: verbo.- ontarte: favor.- eren: euren.- irabiatus: revolver.- dizte: díutse

9^{gn.} orr.: GERRIKO: iraupen: duración.- kabu: cabo, fin.- iturburu: manantial.

10^{gn.} orr.: adimendu: inteligencia.- erak ere: eurak be.- zerren: ze (pues).- ekus karia: espectáculo.- igari: nadando.- atozea: atoz, erdu.- erauntzi: pegar.- uju: oiu, grito.- lor: tribulación.

11^{gn.} orr.: J.B. AGIRRE: jario: inflújo, derramarse.- noaski: noski, ciertamente.- perill: arrisku.- zaizka: jakoz.- amilka dijoa: se va despeñando.- berrizkatura: renovación.

12^{gn.} orr.: iduri: figura, apariencia.- zeren: ze.- antzu: estéril.- zirtzil: des vergonzado.- lauso: miope, nube o catarata en el ojo.- eskergabekeria: desagradocimiento.- usatua: heder, oler.- atxitu: coger.- lertxun: álamo temblón.- itziki: agarrar, asir.

13^{gn.} orr.: ezetasun: humedad.- tanto: tanta, gota.- medar: angosto.- itsument: cé guera.- darreikigun: jarraitzen deuskun.- zentzatu: volverse juicioso.- ondoren: consecuencia.- makurtasun: inclinación.- alabaña: empero.- erasan: eraso, esan azo.- orditu: mozkortu.- adiñ: edad.- galanki: gentilmente, en abundancia.

14^{gn.} orr.: J.A. MOGEL: ezilkortasun: inmortalidad.- txairo: esbelto, ágil.- jori: abundante, rico.- arrozar: ensoberbecido.- nekezale: nekazari, labrador.- gorula: hilandera.- eula: tejedor.- bilkui: ¿lugar de reunión?..- gañibeta: cuchillo.-

15^{gn.} orr.: gaiztasun: dificultad.- eduki: tener, agarrar.- ain... nun: tan... que dizte: deutsez.- iraunkor: duradero.- baraustu: desayunar, confundir.- begitandu: hacerse ilusión, presentarse a los ojos.

16^{gn.} orr.: auzitan: pleiteando, discutiendo.- eztitsu: melifluo.

17^{gn.} orr.: IZTUETA: olerki: poesía.- olerkari: poeta.- tarteka-marteka: a ratos libres.- indarlei: prueba de fuerzas.- erronka: en fila, fila.- ezen (ezik): ze (que).- etzanleku: alcoba, lugar para dormir.- oju: grito.- elurte: edurte.

18^{gn.} orr.: alderatu: acercarse.- limurtu: persuadir, resbalar.- pozkidatu: poztu...
zeñari: al cual.- ahabearrez: casualmente.- despita: disputa.- tatale: tartamudo.- likits: inmundo.- eraso: hacer decir, acometer, acometida.- irmeki: firmemente.- abantada: acometida? .- gertakari: suceso.- zeña: el cual.- badakusku: ikusten dogu.- jakintsuro: sabiamente.

19^{gn.} orr.: ITURRIAGA: sortermin: jaioterri.- naski: noski, ciertamente.- alderegi: ha: separado.- malgu: suave.

20^{gn.} orr.: B. MOGEL: biurrikikeri: travesura.- mardul: robusto.- naro: abundante...
bitxitu: adornar.- obendu: inclinarse.- garagar: cebada.- leundu: suavizar.- mardo: rollizo.- basatu: embarrarse.- birao: maldición.

21^{gn.} orr.: txatar: chabacano, inútil.- dakus: ikusten dau.- basta: montura.- lokaitzatu: ensuciarse de barro.- gallendu: sobresalir, triunfar.- zaartzza: zartzaroa, vejez.- daramadala: daramadala.- abegor: acogida.- burtol: cama del carro.- zital: terco, bellaco.- orapillo: marapillo.- zartada: sopapo, golpe.- zanbro: quemazón

22^{gn.} orr.: LARDIZABAL: izurrite: peste.- lanbide: ocupación, trabajo penoso...
azkarria: levadura, lenitivo.- bazekusten: ikusten baeben.- eraso: hacer decir, acometer.- zerra: rebanada.- gari-bikor: grano de trigo.- gal-ale: grano de trigo.- apuko: pretexto.- zimaun: sats.- likits: sucio.- ubal-puska: agel-zati.- guriro: blandamente, en la molicie.- burrunzi: asador.- barreatu: publicar, esparcir..

23^{gn.} orr.: jautsi: bajar.- edanontzi: copa.- lanbide: trabajo penoso, trato...
eraman: ganar.- lendabizian: lenengoan.- ansiatu: apurar.- bere-bereala: inmediatamente.

24^{gn.} orr.: G. ARRUE: aragikoi: carnal.- illerazi: mortificar.- gutizi: codicia...
eragabe: desarreglado.- begiramentu: consideración, circunspección.-
zabar: remolón, flojo.- elaberri: noticias.- uzkur: remolón.- erreta: atención.- agor: seco.- aorkabetu: distracerse, no darse cuenta.- deskustatu: disgustar.- presondegi: cárcel.- ziega: calabozo.

25^{gn.} orr.: eramankizun: paciencia, aguante.- pixoyal: mantillas de niño.- troza: pañales.- eritasun: enfermedad.- erkitu: extenuarse.- eratzan: acostarse
kirastu: heder.- adrillu: ladrillo.- eginkizun: quehacer.- gogorazi: gomutauazó.- ondasun: riqueza.- txarro: jarro.- urri: escasos.

26^{gn.} orr.: URRUZUNO: berezia: berarizko, especial.- zedorrek: zeuk.- esna: ixarrik

27^{gn.} orr.: zizztan: eustazan.- sorburu: espalda.- jargoi: trono.- itsatsi: adherir

28^{gn.} orr.: malkoa: lágrima.- sendakin: médico.- epai: juicio, diagnóstico.- biriterria: tuberculosis.

29^{gn.} orr.: illeri: camposanto.- laisterka: corriendo.- korde: sentido.- zedori: zeu
azaldu: agertu.

30^{gn.} orr.: URIARTE: enparaua: el resto.- marrajo: maltzur, astuto.- mantal: delantal

31^{gn.} orr.: baizikan: baiño, sino.- zetikat: deutsudaz ("ika").- zelatan: en acecho
aurgin: parir.- sasilar: abrojo.

32^{gn.} orr.: APAOLAZA: euskeralpen: versión vasca.- txertu: injertar.- landertu: em-
pobrecer.- urrena: urrengo, gero.- kapaiñ: pelaire.- txalma: enjalma, cul-
pa.- ituan: ziran ("ika").- zurrumurra: rumor.- dontsu: santo, virtuoso.

33^{gn.} orr.: kanpiatu: ¿campear?, ¿cambiar? .- eltze: lapiko.- salbenta: compraventa.-
kutxatilla: arquilla.- kiskaldu: abrasar.- laurden: lauren.-

34^{gn.} orr.: artale: grano de maíz.- txendor: carga de leña (txondar: pira para hacer
carbón).- arakin: carnicero.- esmendatu: ¿salir?; ¿marchar?.- jalki: esan.-
irozotu: sostener, defender.

35^{gn.} orr.: ZABALA: iztun: charlista, orador.- erne: despierto.- iñozo: bobo.

36^{gn.} orr.: BEOBIDE: zearo: completamente.- arras: totalmente.- bakandu: enraecer,
egatu: volar.- legenartsu: leproso.- urrena: lenengo

37^{gn.} orr.: IRAOLA: zurrunga: ronquido.- galtzerdi: media.- laja: laga, itxi.-
kiskaldu: abrasar.- mugi: mover.- tori: artu!.-

38^{gn.} orr.: tximitxa: chinche.- baziaztik: bajíoazak.- garaimen: victoria.- ekarraia:
fruto.

39^{gn.} orr.: SOROA: jolas: diálogo.- errebero: leche recién ordeñada.- atari: zaguán
marrubi: malluki, fresa.- zayozkitzu: egiozuz.- protxu: provecho.- pitar:
sidra hecha con residuos de la 1^a fermentación.- intz: relente, rocío.- geontzat: geuretzat

40^{gn.} orr.: legorte: sequía.- beaz: beraz.- orla: olan.- naizu: nai dozu.- ixkamilla:
estrépito, confusión.

41^{gn.} orr.: marru: bramido.- garixti: karu.- ojuka: a gritos.- beaz: beraz, pues.

42^{gn.} orr.: IPUÑAK: kimu: brote.- oiñarri: fundamento.- itzultzaille: traductor.-
ots egin: llamar.- bigira: tertulia.- apaiztegi: abade- etxe.- izka-mizka:
discusión.- tori: artu!.- zemai: amenaza.- zuritu: convencer.

43^{gn.} orr.: safailla: cerraja.- antxintxika: ariñeketan, corriendo.- el akit: eldu
adi nigana.- etsi (bere buruari): desesperar.- osiñ: pozo.- jauzi: saltar
emen-tzin: omen(ei) ziran.- men-tzen: omen zan.- zòn: zegon, egoan.- beiyak: begiak.-
atea men-tzuten: atera omen zuten.- urkullu: horquilla.- ereki: erregi, abrir.- kusi:iku:
si.- kuzkur: encogido.- ziun: zigun, euskun.- ermitzen: eroritzen, jausten.- zâldu berko:
zabaldu bearko.- te-izkitzuteu: etc deutsuguz.

44^{gn.} orr.: AZKUE.- lerro: linea.- sakabanatu: esparcir.- pitxi: joya.- argitara-
tzaile: editor.- zarpill: andrajio.- garatsu: fogoso.- lekaime: moja.-
berendu: apropiarse.- ondasun: riqueza.- arra: palmo.- artitz: verso.

45^{gn.} orr.: ediro: idoro, aurkitu.- kai: portu.- mauka-mauka: a dos carrillos.- gaineratu: añadir.- zurrunga: ronquido.- legamia: levadura.- tema: porfia.

46^{gn.} orr.: DAGIRRE.- idaz-tankera: estilo literario.- txarkarta: arrena: súplica, rezo.- soro: solo.- gosari: desayuno.- baratzuri-zuku: berakats-sopa.- ore: masa.- tipula: kipula.- arrautzopill: tortilla.- emankor: dadivo-so.- aga: palo largo... arabaki: ipingi, remiendo.

47^{gn.} orr.: urdail: estómago.- enparantz: plaza.- tixeratua: bien recibido, agasajado.- oraiñ: lunar.- txaldankeri: memeza.- seta: terquedad.- txakil: de poco fuste.- mendu: carácter.- ilbeltz: urtarrilla, enero.-

48^{gn.} orr.: maratz: diligente.- ezkontsari: dote.- iñaurkin: azpigarri.- maizter: errentadore, inquilino.- gogamen: pensamiento.- lelo: canción, estribillo bukaera: amaiera.- zizku: bolsa.

49^{gn.} orr.: abe: viga... zindo: sano, firme.- aztarna: lorraz, rastro.- amarruki: maliciosamente.- gaitasun: aptitud.- zuritu: convencer.- zilibokatu: engañar.- maindira: izera, sábana.- moxal: potro.- azkor: brioso.- muker: esquivo.- añutsu: sombrio?.- albiste: barri, noticia.- seta: obstinación, pasión.

50^{gn.} orr.: txanpon: moneda de poquisimo valor.- lausotasun: miopía.- apuko: pretentoso.- akats: defecto.- txondortu: apiñar.- gizadi: gente.- ausarta: atrevimiento.- susmo: sospecha.- zital: terco.- guda: burruka, lucha.- jostailu: juguete.- miazkatzu: chupar.- uztai: aro.- txintxarri: sonajero.- inkurrio: réncor.- jaditxi: lortu, iritxi... irudimen: imaginación.- abi(a)tu: ponerse en camino, emprender algo.- aratu: registrar.- tajutu: arreglar.- zizallu: escaño de cocina con respaldo.- liñari: rueca.- goru: rueca.- biai: ternera de 2 años.- natxion: naiagon.-

51^{gn.} orr.: K. ETXEGARAI.- gutun: documento, cualquier escrito.- sakel: bolsita.- gaieko: apto.- idazti: liburu, escrito.- neurtitz: verso.- ateraldi: salida, ocurrencia.- gogoangarri: gomutagarri.- txara: jaral.- (erreka)txistor: pequeño ots-garbi: cielo sereno.- oroitza: recuerdo.- otsare:

52^{gn.} orr.: OLABIDE.- mail: grado.- garbizalekeri: purismo.- laxko(latz): un tanto ásperamente.- ixurberago: más fluidamente.- barkakizun: perdonable.- azterpen: examen.- ifits: ambición, concupiscencia.- okitu: hastiarse.- zabar: remolón.- atzari: despertado.- sorayo: indolente.- nabarkoi: .- garbai: arrepentimiento.- azkura: .- mukuin: .- uzkur: encogido.- garatzazal: ¿fruto del negocio?.- perkatx: diligente.- itxikin: tenaz.- erausketa: conversación.- ostoilo: inconsiderado.- ekandu: oitura.- eragabe: descompuesto.- mutiri: importuno.- saro: glotón.- zallu: zoli, vivo.- zañil: apático.- logale: soñoliento.- erpai: impaciente.- txolin: charlatán.- baldan: flojo, desaliñado.- bafeyatu: dispersar, distraer.- mukerbera: esquivo.- ebazpera: inclinado a juzgar.- akar: riña.- egoal: suerte, felicidad.- gelbera: débil.- burutu: realizar, llevar a cabo.

53^{gn.} orr.: azterpen: examen.- arakatu: registrar.- auteman: observar, averiguar.- axatu: aventar, azuzar.- yardetsi: responder.- edatu: zabaldu..- legen: lepra.- mafuzkatzu: restregar.- eltzeki: casquillo de puchero.- isitu: obstinarse.- ergel: imbécil, fatuo.- ogen: pekatu.- bañeyatu: dispersar.- zekusten: ikusten eben.- añen: maldición.- utikan!: fuera de ahí!.- sein: aurtxo.- erne: jaio, sortu.- izpi: rayo.- berama: eroan begi.- betza: etzan bedi.- illunbe: oscuridad.- lefotu: alinear.- zenbatu: numerar.- lekayo: clamor.- betazial: párpado.- eskierki: seguramente.- adierazmen: significado.- xehe-mehe: detalle.

54^{gn.} orr.: gafantzidun: importante.- galda: calorsofocante.- neskame: criada.- zarpazar: harapo.- erratz: escoba de retama.- purrustada: refunfuño.- arrera: recibimiento.- musuzapi: pañuelo.- irritsu: sonriente.-

55^{gn.} orr.: IRAZUSTA.- lege-gizon: abogado.- abertzale: nacionalista.- losintxa: halago.- aberri: patria.- gizaldi: generación, siglo.- zintzarri: cencenapika: acaso.- tarte: conyuntura, ocasión.- besartkatu: abrazar.- aitu: agortu.

56^{gn.} orr.: neoneki: neisk... ola: fábrica.- losintxa: halago.- sendi: familia.- ausardia: atrevimiento.- ezur-berri: embarazada.- illunabar: atardecer.
kakko: buru... bizartegi: barbería.- zalgurdi: coche de caballos.- garo: ira, helecho.
tolostu: plegar.- elbi: euli.- billera: batzar.- kupill: gurpill, rueda.- aik: areik
eldero: persona que habla sin fundamento.- burni: burdin.- estalpe: cobertizo.

57^{gn.} orr.: "ORIXE".- goresmen: alabanza.- lanpetu(a): ocupado.- etengabeko: ezkenbako.- gutxietsi: menospreciar.- ondare: resto, herencia?..- errepide: camino real.- arrimen: admiración, sorpresa.- eraberritu: renovar.- neurtitz: verso.- gai izan: ser apto.- sentiera: sentimiento.- zotal: tepe.- sarats: sauce.- mintzo: berbera.- saski: cesto.- maitemindu: enamorar(se).- ista egin: burlar.- andregai: novia.
anker: cruel.- gaizkitu: enfermar gravemente.- akitu: rendirse de fatiga.- totel: tartamudo.- leze: sima.- borda: caserío, chabola.- bala: gavilla.- zarpil: andrajón.- naasi: naastu.

58^{gn.} orr.: jetxiarazi: jatsiazo, hacer bajar.- zartez: bruscamente.- baita: "casi llas".- besarka: abrazo.- iseka: burla.- egiñen: egingo.- iretsi: tragar.- esanan: esango.- lañatu: apacentar.- yetzi: ordeñar.- arkaitz: roca.- oroldio: musgo.- milikatu: lamer.- añobi: cantera, cueva.- ugolde: diluvio.- eramanen: encargo.- señotu: enraizar.- pikondo: higuera.- txapar: mata.- uin: ola.- urestatu: regar.- zugazño: arbolatxu.- ezo: humedad.- Yainkoari liotsan: quiera Dios!..- efaiñu: siesta/rayo.- musukatu: besar.- pilpira: latido.- zorabildu: fascinarse.- adaburu: copa.
kokatu: posar.- ukaldi: golpe.- doazi: doaz.- zabaldian bärna: a través de la llanura.
tutulu: atontado.- esi: cerca, seto... osteas: ostera.- bildu: batu.

59^{gn.} orr.: untz: hiedra.- egonarri: paciencia.- muñetan barrena: dentro de los tuétanos.- zarrataka: rasgado.- ernari: preñado.- aizetus: hincharse amildu: despeñarse.- kutsudun: contagioso.- zokondo: rincón.- oneraspen: devoción.- sabeltxume: hernia.- sendagite: operación,

60^{gn.} orr.: labaki: barbecho,-artiga.- idurika: cavilando.- ixtillu: alboroto, apuro...- erautzia: obligar.- zorrondo: rincón.- adiñ: edad.- izoba: izeko.- gaztiratu: avisar.- barratu: esparcir.-

61^{gn.} orr.: samin: dolor.- jomuga: meta, blanco.- atxitu: coger.- seta: terquedad.- ozpiñ: vinagre.- zatar: trapo viejo.- lokafi: atadura.- etzin: etzin.- itzalka: a hurtadillas.- abokofoka: regoldando.- goragale: ganas de vomitar.

62^{gn.} orr.: zume: mimbre.- sundietsi: exaltar.- betbetan: bat-batera.- listu: txu.- itsusi: afear.- marruka: bramando.- arrotu: dilatarse, hincharse.

64^{gn.} orr.: "TENE".- ezpais: duda.- afotzaletasun: afición a lo extraño.- txaidi:ka-le: malkar: terreno escabroso.- ayenatu: ahuyentar.- zakel: bolsillo.- adimen: inteligencia.- ele: izkuntz.- gizarte: sociedad.

65^{gn.} orr.: ANABITARTE.- ildegi: cementerio.- cargarri: notable.- otu: ocurrir.

66^{gn.} orr.: M. IEKUONA.- xume: diminuto, humilde.- aitzin-solás: prólogo.- irrikitu: ansiar.- txairo: esbelto, ágil.- xurgatu: chupar.

67^{gn.} orr.: berezitasun: particularidad.- kalpar kardatx: pelo encrespado.- nahasi: mezclar, revolver.- lerro: renglón.- esakun: frase.- sorta: txorta.- sama: carga.- mahats-aien: pámpano, sarmiento.- anpatu: hinchar.- ditzeko: itsasten jako.- bortitz: fuerte.- gotor: fiel.-

68^{gn.} orr.: exorbide: escándalo, tropiezo.- zalantza: duda.- zume: mimbre.- izkelgi: dialecto.- nahasian: nastean.- zankoloka: a jineta.- buruen: principal.

69^{gn.} orr.: "LIZARDI".- lantegi: fábrica.- arduradun: gerente.- muñ: tuétano.- erpiñ: cumbre, vértice.- lakatz: áspero.- baldar: torpe.- beribil: auto zaldun: caballero.-

70^{gn.} orr.: muskurio: lloriqueo.- olde: voluntad, carácter.- azpildu gabea: sin doblez.- arabera: conforme a ...- zearka: de costado.- zizka-mizka: entremés izkirimiri: chiste.- at: fuera.- abagune: oportunidad.- alazainkoa: en verdad.- ginbail: sombrero.- eratxi: bajar.- betaurreko: gafa.- lasa: tranquilo.- ez arian: poco a poco.- nora-agiria: pasaporte.- mugazai: aduanero.- atzeman: cogér.- erne!: atención!.- yare: libre.- baziztek: ba dijoaz.- taiuz: de modo apto.- aita ditzak: aitatu deutsazak.- unkigarri: emocionante.- otsein: funcionario.- gibelatu: atzera egin.

71^{gn.} orr.: atexka: atetxu.- egotzi: agarrar.- bulardetzu: brioso.- lerdenki: esbelamente.- eginkai: quehacer.- erorrek: euk.- egiri: documento.- bailizko: como si fuera...- exor(i): jausi.- arrasto: rastro?, (insulto)?.- mear: estrecho.- eme: dulce.- maskuri: vegiga.- aolku: consejo.- idor: árido.- kankateko: golpecito.- otordu: comida.- erlauntz: colmenar.- garaiz: a tiempo.- ozta-ozta: a duras penas.- axola: ardura.

72^{gn.} orr.: gorazarre!: elogio, homenaje.- atzeman: coger.- yale: jatun.- arabera: conforme a ...- eltzekai: lapikoko.- barazki: verdura.- izoki: salmón?- ardoxka: ardaotxa.- ausartu(a): atrevido.- abes: canto.- pitzatu: cascarse, agrietarse tinko: firme.- bur-yantzi: culto.- yarki: resistir, atacar.- xalos: sencillo, afable.- zeartu: atravesar.- margo: kolore.- ortzi: firmamento.- aratz: brillante.- gandor: cresta.- lardaztu: echar a perder.- iñular: atardecer.- mendarte: cañada.- lukaika: longaniza.- neurkin: metro.- aitzin: aurre.-

73^{gn.} orr.: otordu: comida, cena.- zaarpil: harapo, trapo sucio.- biurriki: traviesamente.- gizabide: educación.- lleregin: estallar.- burusoil: calvo.- yaretsi: absolver.- gogape: conciencia.- aburu: opinión.- ukaldi: golpe.- ozkiro: fresco urrats: paso.

74^{gn.} orr.: "JAUTARKOL".- berarizko: berezi, especial.- mataza: madeja.- gogai: idea azoka: mercado.- maltzur: astuto.-

75^{gn.} orr.: LABAYEN.- antzerki: teatro.- opor-ordu: tiempo de vacación.- eze: húmedo, fresco.- egurats: aire.- aitzitik: al contrario.- alatsu: así gogartu: reflexionar, ponderar.- muzin: mueca de disgusto.- zapuzkor: enfadadizo.- maxiaketa: crítica.- gizalege: educación.- zakarki: duramente.-

76^{gn.} orr.: eztitu: endulzar.- oska: a dentelladas.- arabera: antzera.- maizenik: geienetan.- goresmen: alabanza.- losintxa: halago.- eritasun: enfermedad.- gallen: superior, sobresaliente.- oretu: amasar.- asmamen: inventiva.- zirarra-garri: impresionante.- lillura: fascinación.- aolku: consejo.- gizarteko: social.- ao-txuri: sibarita.- antuste: orgullo.- bidegabekeria: injusticia.- uxa(tu): alejar

77^{gn.} orr.: mezu: mensaje.- belaxka: tardío, blandengue.- araus: norma, ley.- ingurumai: alrededor.- ataka: puerta estrecha, camino peligroso.- aintzindari: guía.- eginen: egingo.- billakatu: transformarse, hacerse.- ausarki: colmadamente.- eredu: modelo.- doakabe: desgraciado.- deitoragarri: deplorable.- likiskeri: inmundicia.- zindo: sano, honrado, concienzudo.-

78^{gn.} orr.: "BARRENSORO".- garbizalekeri: purismo.- kaskaildu: aparcarse.- ereiki: levantar.- dirdaitsu: resplandeciente.- naspil: lio, confusión.- kakarastu: cacarear.- porot egin: quebrar.- sendui: engendrar?.- itundasun: tristeza adats: cabellera.- burdiñola: metalurgia.- galda: calor asfixiante.- zetzae: etzanda dagoz.- atsanka: jadeo.- margoztatu: pintar.- erdoitu: ugertu.- leiati: afanoso.- ildo: surco.- ernari: preñado.- emakor: fértil.- aurkeztu: presentar.- emai: don.- arbi: nabo.- bereziki: especialmente.- lafain: era.- eskuarte: recursos, medios.- uztaro: época de cosecha.- xeetu: desmenuzar.- gozatu: abonar.- maneatu: disponer.- kirkil: grillo.

79^{gn.} orr.: suspertu: avivarse.- izadi: naturaleza.- iraduz: a prisa.- ziztaka: punzando.- kako: encorvado.- itulan: boyero.- ardatz: eje.- ziztatua: punzar.- txillar: brezo.- lemaiek: emon leick.- bigufikatu: retorcer.- zagertzkiguk: agertzen duskuzak.- xango: pedúnculo.- kuskutxo: capullito.- barbarkatu: tener en ebullición.- damaien: emoten deutsen.- gozaik: goiazak, vámberos.- isastu: barrer.- motots: penacho.- izukari: prodigo.- ukaldi: golpe.- bardarki: torpemente.- marandio: granero.- uzta: cosecha.- aletu: desgranar.- jaulki: desgranar.- lokatx: mazorca desgranada.- zufutaldi: trago.- ezkotu: humedecer.-

80^{gn.} orr.: garaitu(a): vencido.- alor: sembradio.- ikur-hitz: inscripción.

81^{gn.} orr.: ETXANIZ.- irratsai-otxango: emisión radiofónica.- keldar: kireskeria: hediondez.- olde: fantasía, espontaneidad.- intun: locutor

82^{gn.} orr.: itun: triste.- ardailla: alboroto;- zifara: emoción.- urbil: cerca

83^{gn.} orr.: MOKOROA
tarteka-marteka: a ratos libres.- lertzeko zorian: a punto de estallar
ttunttun: tamboril.- jauzi: salto.- karrika: kale.- zantzu: rastro.- epaitondo: cepa.

84^{gn.} orr.: txirikorda: trenza.- eun: tela, lienzo.- mauka: manga.- gorontz: corpiño.- urdin-arre: gris.- mokanes: pañuelo.- espaloi: acera.- eliz-ji: procesión.- umekondo: umetru.- multxo: montón.- iratxo: fantasma.- esitu: cercar
zirkin egin: moverse.- eme: suave, afeminado.- irudipen: ilusión.-

85^{gn.} orr.: A. ARRUE.- euskalki: dialecto vasco.- egokiera: oportunidad.- erkin-dus: debilitar.- idazkuntza batasuna: unidad literaria.- izki: letra

86^{gn.} orr.: emeki: suavemente.- berpiztu: resucitar.- ziurki: ciertamente.- illo-bi: tumba.- adibide: ilustración.- erako: apropiado.-

87^{gn.} orr.: izkelki: dialecto.- ondope: base.- gaillen: superior, sobresaliente.- kopuru: cantidad, número.- garaien: superior.- zabu egin: vacilar.- giltzarri: clave de bóveda.- eiaka: a prisa.- ilduratu: mortificar.-

88^{gn.} orr.: ZAITEGI.- saiolari: ensayista.- ondreengo: herencia.- trinkotasun: densidad.- zaittasun: dificultad.- irauli: traducir.- danentz: dan ala ez.- neurdin: como quiera que.- idatzino: liburutxu.- gale: ganas.- damurik: por desgracia.

89^{gn.} orr.: zindo: noble.- bakan: raramente.- izozte: helada.- garranga: gertari: suceso.- lausetu: anublar.- eskualdeka ari izan: proceder sin equidad.- oldozpen: pensamiento.- iori: aberats.- okitu: hartar.- bereki: propio, original.- gogai: idea.- tinkatu: adherir.- motots: penacho.- ateman: advertir.- oxkirri: fresco.- aldez...: de una parte... de otra...- narerik: tranquilamente.- lekutu: ausentarse, irse.- bitxi: precioso.- iaulkia: esan, contar.- oturuntha: el banquete.- berebat: también.- oldozketan: discurriendo.- txera: acogida.- ordi egin: emborracharse.- iruzpalau: iru-lau.- katutu: mozkortu.

90^{gn.} orr.: ARTECHE.- xe: menudo, bajo.- irratsaio: emisión radiofónica.- pipi: carcoma.- menderatu: vencer.- motix: labur.

91^{gn.} orr.: MANZISIDOR.- zaldun: caballero.

92^{gn.} orr.: alderantzi: al contrario.- ondoren: consecuencia.- mikatz: amargo.- likistu: ensuciarn.- lizunkeria: obscenidad, suciedad.- buruzagi: jefe

93^{gn.} orr.: espetxe: cárcel.- betiraundea: eternidad.- eraso: ataque, acometida.- intziri: gemido.- garaille: triunfador.- urkamendi: cadalso.

94^{gn.} orr.: "BASARRI".- txapeldun: campeón.- irratia: radio.- kirol: deporte.- irizpide: opinión.- tajuzko: de buena traza.

95^{gn.} orr.: egokiera: oportunidad.

96^{gn.} orr.: L. MITXELENA.- barrendegi: interior.- iruzur egin: engañar, burlar.- aurtzaro: niñez.- eio: moler.- gaingiroki: superficialmente?.- salatu: denunciar.- eraberritze: renovación.- gaitz: trascendental.- mende: siglo.- ireki: edegi, abrir.- ozen: sonoro.- ausartu: atréverse.- ospe: fama.

97^{gn.} orr.: ukakor: pesimista.- gaillendu: desollar.- aitormen: confesión.- ukamen: negación.- zealdoka: de costado.- zabuka: vacilando.- ausarkiago: más temerariamente.- oldar: acometida.- garaiko: contemporáneo.- loria: gloria ederretsi: complacerse.- illezkor: inmortal.- ondore: consecuencia.- eraskin: apéndice.- zoramena: locura, alucinación.

98^{gn.} orr.: naaspil: confusión.- arbuiatu: despreciar.- miretsi: admirar.- murriztu: desmochar.- soildu: talar.- iratxo: fantasma.- gudu: lucha.- gutxietsi: menospreciar.- atzizki: sufijo.- zentzatu: volverse juicioso.- adiera: significación.- elburu: objetivo.- maiztu: gastarse de puro viejo.- zarpildu: ajarse.- katazka: esfuerzo grande.- egungo: gaurko.

99^{gn.} orr.: ixurkari: .- finkatu: fijar.- amor eman: ceder.- bereizkuntza: diferenciación.- aldakor: cambiante.- seta: obstinación.- begiramen: respeto.- itzulketa: versión.- txunditu: pasmar.- mirabe: servidor.- beajondeila!: enhorabuena!.- arbuia(tu): despreciar.- bakandu: podar, enrarecer.-

100^{gn.} orr.: SALAVERRIA.- puskatu: despedazar.- inkurrio: rencor.

101^{gn.} orr.: LOIDI.- ogibide: profesión.- gertakari: suceso.- kuluska: cabezadita (de sueño).- apaldegi: cenáculo.- bekaizkeri: envidia.- ondartza: playa kixkali: abrasarse.- lizardi: fresnedo

102^{gn.} orr.: turuta: trompeta.- kankallu: gandul.- zartako: porrazo, bofetada.- utikan!: fuera! a paseo!.- ateraldi: ocurrencia.- lepotar: gorrón.- arian-arian: poco a poco.- amurrai: trucha.

103^{gn.} orr.: S.MITXELENA.- txairo: ágil.- idaztankera: estilo.- nortasun: personalidad.- lei izan: ansiar.- koldarkeri: cobardía.- salkeri: traición erdoitu: ugertu.- aitzitik: al contrario.- jomuga: meta, objetivo.- irudimen: imaginación.- giño: proporción.- sorterri: patria.- atzerri: país extraño.- naasbillo: confusión.

104^{gn.} orr.: biozpera: sentimental.- oroimen: memoria.- ikusmiratu: examinar.- biztanle: habitante.- eskualde: región.- erti: arte.- tirtiri: txitxare: lombriz.- listor: zángano.- antzeman: adivinar.- mizto: agujón.- dasaiat: diñoat.- toles: pliegue.- tai gabe: sin cesar.- kasket: mollera.- zentzatu: entrar en razón.- patu: destino.- kirio: nervio.- nazka: asco.- asalda: sublevación.- ezain: feo.- auzi-mauzi: cuestión.- iguin: asco.- amor eman: ceder.- potegin: fracasar.- zapuztu: aborrecer.- babestu: amparar.

105^{gn.} orr.: ukan: izan.- galera: perdida.- gardia: opinión, parecer.- irrika: anhelo.- ista: burla.- sotiltasun: discreción.- abelzuri: ganado lanar?.- igeskor: huidizo.- malkar: terreno escabroso.- borda: caserío, chabola.- kakotu: encorvar.- antxume: cabrito.- erpin: cumbre, punta.- koxka: saliente, resalte.- ozen: sonoro.- zoli: vivo, despertado.

106^{gn.} orr.: Y. ETXAIDE.- tarteka-marteka: a ratos.- oia: "ex".- kokatu: afincarse.- mintzaira: lenguaje.- oroimiñ: nostalgia.

107^{gn.} orr.: gibelean: atzean.- yadanik: ya.- hasperen: tañido.- ezti: dulce.- apexa: mariposa.- tximeleta: mariposa.- bulko: idea, ocurrencia.- ahapaldi: estrofa.- hagi: ladera.- doain: dote.- xarmant: encantador(a).- xalo: terno.- zauli: flexible.- uztai: aro.- artzaingo: pastoreo.- goraipatu: ensalzar.- arki: aurkitu.- ontasun: riqueza.- asmamen: inventiva.- zurrutari: bebedor.- xotil: airoso xahako: zaato; bota.- hanpatu: hinchar.- erditu: dar a luz.- biotzondo: emoción, ternura.- ezin-etsi: desesperación.- ialki: esan.

108'gn. orr.: lazgarri: terrible.- nihoiz: iñoi.- istu: triste?.- begitarre: mieda.- ahantzi: aaztu.- erdiragarri: desgarrador.- aberkoi: patriótico.- alegera: alegre.- iragan: igaro.- gobara: colada.- sobera: excesivo.- katazka: lucha.

VILLASANTE

109'gn. orr.: begirune: respeto.- jostagarri: divertido.- baitura: prestado.

110'gn. orr.: jardetsi: replicar.- ingurumari: al rededor.- leian: a porfia.- zurikeri: adulación.- muin: tuétano.- elburu: objetivo.- ziurpetu: asegurar.- giar: nervio, garra.- bortizki: fuertemente.- asaldatu: sublevarse.- sumindu: encolerizarse.- koldarkeri: cobardía.- ozenki: sonoramente.- aladarrikatu: clamar, pregonar.- erasia: dicho.-

111'gn. orr.: espa: queja, congoja.- musinga: lloriqueante.- zinkurin: lamento.- biurri: torcido, travieso.- artale: grano de maíz.- gandor: cresta irrigarri: risible.- egiztatu: comprobar.- etekin: provecho.- naste-borraste: confusión

112'gn. orr.: SAN MARTIN.- herkide: paisano.- osagarri: remedio, medicina.

113'gn. orr.: gun: tuétano.- menderatu: dominar.- arestian: hace poco.- zigor: castigo.

114'gn. orr.: J.M. LEKUONA.- zirrara: impresión.- gisazko: apropiado.- txertatu: injertar.- aurrera-juzgu: juicio apriorístico.- eroso: cómodo

115'gn. orr.: ereslari: músico.- zabalkunde: difusión.- amildegia: vertiente.- kasket: capricho, fantasía.- zimadarraio:

116'gn. orr.: "TXILLARDEGI".- eleberri: novela.- lekuko: testigo.- ausardia: valentia.- ikusmiratu: examinar.- zoko: rincón.- arkikinde: descubrimiento.- dastatu: catar.- ozkirri: fresco.

117'gn. prr.: mugadun: limitado.- sorkari: criatura.- arrenkura: queja.- elikatu: alimentar.- oarkabea: inadvertidamente.- ditxezkon: itsasten jakozan. bizpairu: bi-iru.- xarmant: encantador.- kako: cuestión.- bolada: temporada.- so-be-gira.- bilkura: reunión.

118'gn. orr.: solas: conversación.- azalpen: explicación.- azalkeri: superficie.- gaingiroki: superficialmente.- saldukeri: traición.- eredu: modelo.- arrakastà: éxito.- zio: motivo.- laket izan: agradar.- ikuskari: espectáculo borobildu: redondear.

119'gn. orr.: printz: rayo.- iraungi: apagar.- usandu: corromperse, heder.- ozen: sonoro.- trinko: denso, macizo.- zailu: ágil.- xehatu: desmenuzar.

120'gn. orr.: INTXAUSTI.- bilakatu: cambiar, hacerse.- sakabanatu: esparcir.- ahalmen: potencia.- zirrikitu: rendija.- zozokeri: lelokeri.- bere kasako: de su gusto.- burutapen: idea.- haran: valle.- apal: estante.

121'gn. orr.: ozkarbi: zielo sereno.- esitu: cercar.- goibe: dimensión.- udara-tiar: veraneante.- landatu: plantar.- zumo: savia.- deserrotu: desraigar.- intziri: latido, gemido.- aunitz: asko.- troxatu: envolver en pañales.- pilpira: palpitación.- ozpiñ: vinagre.- ezatu: humedecer.- arno: ardo

122^{gn.} orr.: zillegi: lícito.- gezi: dardo.- elkor: árido.- bazka: comida.- tira: brillo.- txunditu: asombrar.- berekiko: para si.- txinbeleta: mariposa.- memento: instante.- zaztada: golpe.- aurkezpen: presentación.- erosot: sun: comodidad.- ardietsi: lograr.

123^{gn.} orr.: J. AZURMENDI.- lanpar: lluvia de niebla.- igitu: moverse.- mi: admirar. extrañar.- sendi: familia.- kapéra: capilla?

124^{gn.} orr.: X. LETE.- eskilotx: campanada.-

125^{gn.} orr.: nargille: espoloi: acera.- behaiek: eurak.- aztarren: huella

126^{gn.} orr.: X. GARMENDIA.- ausartha: osado.- ondorio: consecuencia.

127^{gn.} orr.: aisladatu: reflejar? - dirdira: brillo.- irrika: anhelo, ansia.- hiruzpalau: iru-lau.- baretasun: calma.- txorabiatu: marearse

128^{gn.} orr.: A.M. ZAVALA.- moldiztegi: imprenta.- otsegin: llamar.